



AITA  
SANTI ONAINDIA  
BEKA  
1991



Roberto Mielgo Merino

EUSEBIO ERKIAGAREN  
GERRAOSTEKO ELABERRIGINTZA  
(1958-1964)

LABAYRU IKASTEGIA  
ZORNOTZAKO UDALA



1989. urtean Amorebieta-Etxanoko Udalak, Aita Santi Onaindia euskal idazle eta ikerlari handiaren omenez, haren izeneko ikerketa-beka bat sortu eban, euskal literaturaren aztertzaileentzako. Beka hau jaritsi daberen lanak dira hemengo liburu-sortan Labayru Ikastegiak eta Zornotzako Udalak berak aurkeztuko dituenak. Hona hemen orain arte argitaraturikoak:

1. Jon Kortazar

*Euzkerea eta Yakintza aldizkarietako olerkigintza*

(Santi Onaindia Beka-1989)

2. Roberto Mielgo Merino

*Eusebio Erkiagaren gerraosteko elaberrigintza (1958-1964)*

(Santi Onaindia Beka-1991)

Agertzekotan:

Iñigo Aranbarri - Koldo Izagirre

*Gerraurreko literatur kritika*

ROBERTO MIELGO MERINO

Eusebio Erkiagaren  
gerraosteko elaberrigintza  
(1958-1964)

LABAYRU IKASTEGIA  
ZORNOTZAKO UDALA  
BILBAO  
1995

© LABAYRU IKASTEGIA - ZORNOTZAKO UDALA  
Aretxabaleta, 1-1ngoia - 48010 BLBAO  
Tfnoa.-Fax.: 443 76 84

© Roberto Mielgo Merino

Diseinua eta maketazioa: IKEDER, S. L.  
Fotokonposaketa: IKUR, S. A.  
Silutegia: Artes Gráficas RONTEGUI, S. A. L.

ISBN: 84-86833-82-5  
Lege gordailua: BI-758-95

## AURKIBIDEA

Esker onez .....	7
1. Eusebio Erkiaga nor den .....	9
2. Erkiaga eta giro sozio-kulturala .....	13
3. Erkiagaren bibliografia zenbait .....	27
4. Gerraondoan elaberrigile .....	35
Azalpenak .....	35
Erkiaga eta hizkuntza .....	37
Gerrareko erreferentziak .....	37
Bide berritik ere .....	44
Joera bereziak .....	46
Olerkari baten elaberriak .....	49
Formaren aldetik .....	51
Edukiaren aldetik .....	57
Erkiagaren gerraosteko elaberria ezagutzen .....	63
Ohiturazko elaberria eta elaberri errealista: azalpen batzu ....	63
Ezaugarrien azterketa .....	66
Giro bikoiztasunari buruz .....	67
Garaiaren islada .....	74
Denbora eta espazioa .....	76
Pertsonaiak .....	86
Narratzailearen izaera .....	93
Gaiak .....	100
Kristautasuna eta abertzaletasuna .....	109
Elizari kritika .....	115
Nostaljia eta ironia .....	116
Tesia eta didaktikotasuna .....	120
Egitura zertan den .....	122

5. Erkiaga eta literatura .....	125
Erreferentziak .....	125
Teoria poetikoa .....	128
6. Erkiaga literaturan .....	133
Eranskina .....	141
«Eusebio Erkiagarekin solasean» .....	143
Bibliografia .....	159

## Esker onez

Eskerrak eman nahi nizkioke lan hau aurrera eramatea ahalgarri egin duen Amorebieta-Etxanoko Udalari, bertako Kultura Batzordeak, lan honen proiektuari «Santi Onaindia Ikerketa Beka» emanez erakutsi didan konfidantzagatik, eta konfidantza horregatik beragatik ere, ikerketa bekarako epaimahaia osatu duten Kepa Odriozola batzordeburua, Rosa Miren Pagola, Alfonso Irigoyen eta Jon Kortazarri, baita eman dizkidaten laguntza eta aholkuengatik ere.

Eskerrak, era berean, Labayru Ikastegiari dohain eskeini didan laguntzagatik.

Ezin ahaztu, halaber, Eusebio Erkiaga jaunari eskerrak emateaz, lana egin bitartean niri laguntzeko beti erakutsi izan zidan prestutasun eta borondate onagaitik.

Eskerrak, bestalde, Koldo Garairi, bere inpertinentzi baliotsuengatik, haren zain-egote aspergarriak ez bait dizkiot kontutan hartuko.

Azkenez, eskerrak ere lan hau egin bitartean neure ondoan izan diren guztiei.

Eusebio Erkiaga lan hau bukatu eta hiru hilabetetara hil zen, 1993ko Maiatzaren 31an, 80 urtekin, lanari gaineko begiradaxoa eman berri ziola. Haren-tzat neure gomuta eta mirespena, eta neure eskerrik beroenak bihotzez.

# 1. Eusebio Erkiaga nor den

Erkiagaren bizitzari buruzko datuei gagozkiola, gauza bi oso dira kontutan hartzekoak: batetik, gehienetan Erkiagaren biografiari buruzko datu batzuk baino ez badira eman, bere lana oso urritan aztertua izan delarik (azken urteotan zertxobait agertu denaz salbu, Mitxelenaren erreseinak baino ezer gehiagorik), kasu hauek ere gutxi izan direla eta oso informazio urria eman izan dutela. Bestetik, ez dugula ahaztu behar idazle baten bizitzan erreferentzia bat baino gehiago aurki dezakegula bere lana ulertu ahal izateko. Beraz, idazle baten lanari buruzko ikerketa egiterakoan, oso baliabide garrantzitsua suerta daiteke bere bizitzaren xehetasunen berri izatea. Hauexek dira puntu hau lan honetan bertan agertzearen arrazoiak, ez da biografia osoa egiteko asmorik, datu biografikoen zerrendari adierazgarri izan litezken beste zenbait datu gehitzea baizik.

Eusebio Erkiaga Alastra Lekeition jaio zen 1912ko Irailaren 4an. «Perito Mercantil» titulua lortu zuen Bilboko «Escuela de Altos Estudios Mercantiles»-en, baina bertan ofizialki azken urtea bete zuen bakarrik, beste guztiak bakar-ka egin bait zituen Lekeition, eta Bilbora azterketetara joan soilik. Ikasketak bukatu eta lau urtez lan barik, Lekeition. Aldi honetan irakurtzeari ekin zion, bere euskal literaturari buruzko lehen ezagutzak seguraski. Geroago, urteetan aurrera, damu zuen garai honetan bidairen bat egitera eta inolako gertape- nen bila joan ez izana, nolabait. Aldi labur haren ondoren, banku batean lan egiten hasi zen. Erkiagaren gaztaroko bizimodua ez zen, beraz, oso berezia izan; bizimodu kristau eta euskaltzale «normala» izan zuen idazle lekeitiarrak, Euskal Herrian izandako aldi nahiko berezi biren tartean, literaturari begira batik bat.

Beraz, Erkiagaren gaztaroaren azken aldia gerraurreko euskal literatur eta kultur giroan izandako *Oleriti Egun*-etako aldiaren hasieran gertatu zen. Ez dugu hau terminologia eztabaidatzeko une aproposa, hots, bigarren berpizte- rik izan zenentz zehazteko. Nahiko argi dago ordea, justifikazio gisa soilik, Arana eta *Lore Joku*-en garaitik *Oleriti Egun*-etako garaira nolabait baretu izan zela euskal letretan gertatua zen giro berezi hura, nahiz eta epe ez oso luze



honetan (baina zer da benetan luzea gure literaturaren historia labur honetaz ari garenean?) Euskaltzaindiaren hastapenak izanik, literatur ekitaldiak antolatzen jarraitu. Bere lehenengo idazlanak hitz-lauz egin zituen, *Bizkaitarra* astekarian; «Edo» goitizenez zinatutako zenbait artikulu eta itzulpen batzuk, Sabino Aranari buruzko orrialde bitakoa. Primo de Rivera-ren diktadura bukatua zenean berak hamazortzi urte zituen, astekaria «Juventud Vasca»-koekin egiten zuela. Harrezkero *Euzkadi* egunkarian lan egin zuen; bere euskalzaletasunak eraginda berriz ere Aranari buruzko zertxobait bidali zuen bertara (nor izan zen, e.a.) eta handik aurrera hantxe lanean hasi. Jaungoiko Zaleen *Ekin* astekarian olerki batzuk agertu zituen, baita Donostiako *Yakintza*-n eta Bilboko *Euzkerea*-n ere, «Endaitz» izenorde berriarekin. Zegoeneko hasia zen bere bidea.

Ondorengo urteetan olerki sari batzuk irabazi zituen Getxo, Ondarroa eta Lekeitioko lehiaketetan, eta 1936ko Azaro-Abenduan *Euzkadi* egunkarian 'Guda-otsak' atal berria sortu zuen, Augustin Zubikarai bere adiskidearekin batera; Guda Zibila hasia zen eta Lauaxetak frentetik bialtzen zituen artikuluak eta bestelakoak bertan agertarazten zituzten Erkiagak eta Zubikarai, euren komentarioekin. Baina ez zuen asko iraungo; bi hilabeteren barruan honekin bukatu eta *Eguna* egunerokoa sortu zuen Zubikarairekin berarekin, baita Arizmendi eta Alejandro Mendizabalekin ere. Honek ere ez zuen bizi luzea izango. Bilboko Eskolapioetan izan zen «Cuartel General de las Milicias Vasca»-en jan eta lo egiten zuten orduan; «Servicios Auxiliares»ekoak ziren, Prentsa, eta gainerako denbora guztia *Euzkadi*-ren erredakzioan bete egiten zuten, bertan egiten bait zuten *Eguna*, egunean hamabi orduz edo gehiago bertan, *Euzkadi*-n agertutako zenbait artikulu edo ta irratiak bidaltzen zizkienak euskeratuz. Bost hilabete eta gutxi gehiagora heldu zen *Eguna*-ren argitarapena, Bilbo orduan izan zen hartua eta Erkiaga eta besteen lana bukatu egin zen.

Ondoko urte latzetan, gerra garaian eta gerraostean, euskal literaturan izan zen isilune orokorrean etendu zen Erkiagaren lana, 1950. urterarte inguru. Isiltasun eta beldurraren artean olerki bakanen bat idatzi zuen, baina geroago agertuko. Aldi ilun honetan ez zen bere euskalzale lana guztiz eten ordea, eta Azkueren hiztegia kopiatzen aritu zen, Xabier Peñak zuen ale batekin. Handik aurrera bere olerkiak *Gernika*, *Egan* eta halako aldizkarietan agertzen hasi ziren berriro. Hamarkada honetan zehar, eta hurrengoan ere, literatura sariak jarraikian joan ziren —olerkiak, antzerki lanak, eta haren lehendabiziko hiru elaberriak: *Arranegi* (Kuliska, Zarautz, 1958), 50ean idatzia berez, *Araibar zalduna* (Kuliska, Zarautz, 1962) eta *Batetik bestera* (Kuliska, 1962)—. Gerraosteko urte hauexetan izan zituen bere euskal literaturarekiko lehendabiziko benetako harremanak, hartaraino Txomin Agirrerren lanaz gain beste ezer gutxi ezagutzen zuen-eta, 1932a inguru ezagutu zituen haren

idazlanak, *Auñamendiko lorea*, *Kresala* eta *Garoa*, eta gerraostean antzineko eta garaiko beste batzuk ezagutzen hasi zen; Axular, Etxeita,... Gerraostean zabaldu zitzaion, beraz, Erkiagari euskerazko literaturaren mundua, aldizkari eta lehiaketetatik apartekoa, eta mundu horrek liluratua, dudarik gabe, eta Irigaray-ren bultzadarekin, *Arranegi* bere lehendabiziko elaberria sortu zuen. Ezinbestekoa, honela, haien eragina bertan somatzea, Txomin Agirrerena besteen gainetik gainera.

Aldi honetan euskera irakasteari ekin zion Erkiagak, Xabier Peña, hogeihogei urteko Alfonso Irigoyen gaztea eta beste batzuekin, Bilbon. Gerraurrean 'Euskal Idazleen Batza'-n egon zen Bizkaiko ordezkari izendaturik, Motrikon, bertan Irigaray ezagutuz; eta gerraostean Euskaltzain izendatua izan zen, 1952an, 1963. urtetik Euskaltzain oso. Beraz, Krutwig —Instituto Julio Urkijo-n— eta besteen baturako eritziak ezagutu, eta lapurteraz idazten ahalegindu zen, antzerki lan batetan, hark batuarako aurkeztutako lapurtera klasiakoaren aukeran saiatzeko hiztegi moduko zerbait eta aditz jokoen eskematxoa eman bait zizkion. Gipuzkeraz ere ahalegindu zen, *Araibar zalduna* bere elaberrian, alegia.

Garai honetan ere zenbait musika lan egin zuen; Bilboko A.B.A.O.-rako lan bat, *Usua de Alos*, eta zenbait abesti, ondorengo urteetan gehituz joango direnak, haien artean *Lekeitio* izeneko himnoa, zarzuela eta musikari batzuen doinuentzako letra nahiko —geroago adibidez, 1988. urtean, Balentin Berrio-Otxoa santu egin zeneko urtean, Erroman abesteko himno baten letra egingo zuen...—. Musikazko ikasketaren batzuk eginak zituen, solfeo eta armoniakoak, Lekeitio zegoen akademia batetan, elizako abestaldean ibili zen abeslari baita bertako bandan klarinetea jotzen hiru urtez edo. Organisten zuzendariarekin armonio eta pianoan apur bat ere bazuen ikasia.

Aniztasun aldi honen ondoren, beste isilaldi bat gertatu zen Erkiagaren sorkuntzan. Hogei urtetako isilaldia, alegia. Baina bere euskalzale lana aurrea jarraitu zuen, beti izan zen bezala. Euskerazko klaseekin jarraitu zuen denboraldi batez, gero bankuetxean «Academia de Botones»-ean klaseak emateko eskatu zioten, bere bankuko lanaz aparte, eta euskerazkoak utzi egin behar izan zituen. Ordurako ezkondata zegoen M<sup>a</sup> Mercedes Tellería-rekin eta lau seme-alaba zituen. 70ko hamarkadan barrena, gainera, Batzar Nagusietako agiriak euskeratzen jardun zuen lau urtez, Makuak eskatuta. Tartean hitzaldi batzuk eman zituen, baita musika letra batzuk egin ere. Bere idazle lanaren etenaldi hau ez zen euskalzale lanaren etena izan, oso ulergarria bestalde jokabide hau garai honetako euskal idazle «pluridisziplinarioen» kopurua badakusagu, eta 50. hamarkadakoan artean areago.

Olerki solte batzuk salbu beraz, 1977an jubilatuta ondoren, ez zitzairen berehala eginkizun literarioei hurbildu, hiru-lau urtez osasunez gaizki egonik, ki-

rofanoen esperientzia bizi behar izan bait zuen, 80ko hamarkadan datorkigu berriro Erkiagaren prosa —oraindik Batzar Nagusietako agirien euskeratze lanetan diharduela, baita «Concierto Económico»-ren testu osoarenetan—, eta garai honetan argitaratzen diren elaberrien artean gerraosteko aldian idatzitako bat lehen aldiz argitara ematen da. Aurretik izenburu desberdinekin zenbait lehiaketetara aurkeztu zen, saririk lortu gabe: lehendabizi *Neu-miak*, 1964a inguru, geroago *Irri zuri* izango zen. 1986. urtean, *Txurio Txoria* izenburupean, Labayru Ikastegiaren ardurapean argitaratua izan zen azkenean. Beste bion tartean agertuko zen: *Jaioko dira* (Labayru Ikastegia - Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1984) eta *Iribarrea galtzen danean* (Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1987). Baina azken urteotan ez dio olerkiari ekiteari utzi. 1990. urtean Jose Mari Arizmendiarrerari eskeinitako *Gizonaren aldia* poemarioa argitaratu zuen, eta hartaraino Labayruko *Idatz & Mintz* aldizkariak agertutako lanen ildo beretik aritu izan da.

Genero guztiak landu ditu idazle oparo honek. Olerkia eta elaberriaz gain, antzerki lan batzuk argitaratuak izan ziren *Egan* eta antzeko aldizkarietan, eta haietako batzuk sarituak izan ziren. Gerraurrean bizpahiru baino ez zituen idatzi, 50etik aurrera nahikotxo, ordea (*Sinisgogorra, Kanpaien atsekabez,...*). Ipuinak ere idatzi egin zituen, azken urteotan gehienak, eta haiengatik ere sariren bat eskuratu izan zuen (*Untzorririxu* [1984], *Arpeko Mari, Taloa ta arraina,...*). Bazituen, gainera, ezezagun izan diren itzulpen batzuk; Platon-en *Par-menides* eta Georges Simenon belgikarraren *Aspaldiko Maigret*, argitaragabeak, biak gaztelanieratik euskeratuak, Krutwigekiko harremanen garaiaren honek klasikoek euskeratu beharraz hitzezin zioneko eragina jasorik.

Ezkondu zenetik Eusebio Erkiaga Bilbon bizi zen, udaldian Lekeitio bere sorterrira joanaz. Larogei urtekin hil zen Bilbon, 1993ko Maiatzaren 31an. Ordurarte bere olerkari lanean jarraitu zuen, nobelagintzarako asmoak alde batera utziak.

## 2. Erkiaga eta giro sozio-kulturala

Datorren atalari sailez-sail ekitea pentsatu izan nuen lehendabiziko batean, baina oso zaila gertatu zitzaidan sailon arteko loturen banaketa egitea. Ezinbestekoa zitzaidan batetik bestera jotzea behin eta berriro, eta horrela hirurak batera ikustea egokiena zela uste izan dut azkenean, ahalik eta orekatuen izan litekeen moduan. Bestalde, Europako joera literarioei gainbegirada bat ematea luze emango zukeelako, Espainia barruko giroan murgildu naiz nagusi konparaketak egiterakoan, batezere euskal literaturaren marginalismoarekin nolabaiteko hurbiltasuna izan duten literaturekin, katalaniera eta galizierazkoekin bereziki.

Literaturan, beste zientzietan baino askoz nabariago, azterketa zientifikoa-  
ren objetibotasunak zailtasun eta oztopo haundiak aurkitzen ditu. Bertan joera paraleloek eta berezitasunek edo salbuespenek beste norma bat osatzen dute gehienetan, eta sailkapenak zehaztasunez egitea, beraz, oso zaila gertatzen da. Kontutan hartu behar da idazle batek, normalean, hiru edo lau hamarkadetan zehar ekiten diola bere sorketari gutxienez —izaera bereziek eta desastre historikoez eragiten dituzten kasuak salbu—, eta honela, joera berrien eremuak zeharkatu egiten ditu, bere lana haiekin batera aldatuz edo bere lehenengoari jarraituz, askotan literatura azterketa historikoa sinkroniko ere bihurtuz.

Erkiagaren lana aztertzean halako zerbait gertatzen da. Hura ikustean gerraurrean hasi eta orain gutxi bukatu den hirurogei urtetako lana aurkitzen dugu. Eta lan hau inguratu duen giro historikoa aztertzean joera desberdinetako aroak ageri zaizkigu. Orduan, bere obraren garapen mailaren arabera, zati luze bat baztertu egin dut argitasunaren alde. Ez dut erabat bertan behera utziko, baina aldi honen azterketa askoz gainetikakoa izango da, bere azken urteotako lanaren zehaztasunen ikerketari zuzendua, alegia.

Eusebio Erkiagaren lan literarioaren hastapena gerraurrean gertatu zen eta garai honek bere obra osoaren ezaugarri nagusiak markatuko zituen. Garai honen erreferentzia, beraz, ezinbestekoa zaigu Erkiagaren idazkera eta pentsakera ulertu ahal izateko, areago gerraosteko joera nagusia hauze bera izanik.

1903. urteko Azaroaren 25ean Sabino Arana hil zen, baina ordurako zabal-  
duta zegoen Euskal Herrian bere eskutik piztutako abertzaletasunaren sua.  
Egia da Arana eta haren ondorioak ez zirela beti batzuk uste izan duten be-  
zain ongarriak, baina ukaezina da berari eta Azkueri esker sortutako euskal  
giro kulturalaren indarra, honetan zehaztu beharreko gauza ugari badira ere.

Aranaren heriotzak mende berri bat hasten zuen eta pentsakera baten izae-  
ra borobildu ere. Gerraurreko belaunaldia pentsakera haren zutarrietan oina-  
rritu zen. XIX. mendeazkenetan gertatutako inmigrazioaz oharturik, Aranak,  
euskal senaren ahulduko ote zen beldur, beronen eustarri ziren hizkuntza eta  
ohiturak berpiztu eta gordetzeko mugimendua eragin zuen batez ere. XX.  
mendearen hasieran Galizia, Andaluzia, eta Espainiako beste zenbait lurralde-  
etako jendearen etorrera aurrera egin zuen, Euskal Herrian gertatutako in-  
dustrializazioak sortutako langileen beharrak erakarria, eta, beraz, Aranak bul-  
tztatutako pentsamoldeak mantendu egin ziren ere, eta iraun egingo zuten  
epe luze xamar batez oraindik.

Giro honetantxe murgildu zen gerraurreko belaunaldia. Ohiturak eta eus-  
kera zaindu beharraren asmoa indartu zen, eta euskal literaturak aldi oparoa  
bizi izan zuen orduan. Baina oparotasun hark bere gaitzak zeramatzan. Herri  
jakintzan eta ohituretan oinarritutako literatura hura oso hermetikoa bihurtu  
zen, eta euskal literaturak zuen berezko atzerapena Europakoaren ondoan  
areagotu egin zen, Euskal Herrikan kanpoko erreferentzi literariorik gabe.

Halere, batzutan agian ahaztu egiten dugu fenomeno hau ez zela hain  
berezia izan, berez Europako zenbait herrialdetan gertatua bait zen orduko,  
eta XIX. mendearen azken erdian, abertzaletasunaren ondorioz, herri hiz-  
kuntzen garrantziarekiko joera zabaldu egin zen, mendebaldean, adibidez,  
Txekoslovakia-n eta Bulgaria-n —Gotzon Garatek zuzen ohartu zuenez<sup>1</sup>—,  
edo Frantzia-n Barrès eta Maurras-en eskutik sortutakoa, Euskal Herrikoaren  
heinekoa izan ez bazen ere. Catalunyan eta Galizian era berera gertatu zen,  
baina Euskal Herrian izugarritzko kutsu folklorista hura literaturaren kaltegar-  
ri suertatu zen, besteetan ez bezala (iragan mina, ordea, ez da folkloristen eta  
Euskal Herri idilikoa berreskuratu nahi dutenen patrimonioa, Txillardegik  
adierazten duen bezala, bere hitzetan ere euskal ezkerak beranduago izango  
zuen Frankoren garaiko borroka giroaren mina agertzen baitu<sup>2</sup>). Dena den,  
honetarako adierazgarri izan litezken ohar batzuk erakus daitezke.

Ines Pagolak egokiro banatu egin zuen Lore Jokuen aroa bereizgarri zi-  
tzaizkion hiru alditan<sup>3</sup>: 1853-1878, 1879-1896 eta 1897-1903. Bigarrenean eta,

<sup>1</sup> Gotzon GARATE, *Euskal elaberiaren kondaira I*, Gero, Bilbo, 1983, 11. orr.

<sup>2</sup> TXILLARDEGI, *Euskal kulturaren zapalketa. 1956-1981*, Elkar, Donostia, 1984, 25-26. orr.

<sup>3</sup> Ines PAGOLA, «Neologismos en los Juegos Florales», *ASJU*, XVIII-1, 1984, 56-60. orr.

bereziki, hirugarrenean sendotu egin ziren gorago aipatutako oinarriak. Geroroxeago, gerraurrean, Aitzolek bultzatutako giroa gertatuko zen. Euskal literatura/kulturaren —eta gizarte osoan— izandako mugimendu hau guztia «Euskal Berpizte literarioa» izendatua izan denaren barruan gertatzen da (eta haren gailurra izango zen seguraski). Baina prozesu hau ikustean kontutan hartu behar dugu gainerako lurralde batzutan gauza bertsua gertatzen ari zela. D'Abbadie-k antolatutako lehendabiziko Euskal Jaietatik sei urtera Katalunian «Jocs Florals» izenekoak antolatu ziren berriro ere, eta handik beste bi urtera «Juegos Florales»-ak Galizian, 1891tik «Xogos Floraes» izango zirenak, gailegeraz soilik antolatuak. Eta gertaera hauek batzen dituzten mugimendu orokorragoek oso izen adierazgarriak jaso izan dituzte: «Renaixença» Katalunian eta «Rexurdimento» Galizian. Guzti hau Espainian gertatutako giro deszentralizatzailearen ondorioa baino ez zen izan (ohargarria, adibidez, Joan Estelrich-en *Fénix o l'Esperit de Renaixença* [Bartzelona, 1934] liburua euskal aldizkari batek<sup>4</sup> bere irakurleei gomendatu izatea urte hartan), eta ezin dugu, beraz, Euskal Herriaren kasua gertakari oso honetatik at aztertu, ondo ulertu nahi badugu behintzat.

«Rexurdimento», «Renaixença» eta «Berpizkunde»-aren ezaugarri oinarrikoenak aztertzen baditugu Erromantizismoaren ondorioz Europa osoan zabalduko ideia batzuk aurkituko ditugu: iraganeko testimonioen balioa, herri ohitura eta kulturaren berreskuratze nahia, herri izaeraren goratzea eta askatasunaren atzetik ibiltzea, eta norbere hizkuntzaren garrantzia adierazitako guzti honen baitan (ez da kasualitatea, esaterako, garai hauetan Galiziako «amigos da fala» edo Euskal Herriko «Euskelzaleak» elkarteen sorrera).

Ausnarketa prozesu honen ondoren, ezaugarri hauek guztiak batzen direnean abertzaletasunaren itzala agertzen zaigu halabeharrez. Abertzaletasuna —edo beharbada herri-nortasun mina— era askotan isladatu daiteke ordea, eta isladatze era horretan datza, nik uste, Euskal Herria eta besteen arteko funtsezko desberdintasuna. Puntu honek gainerako azalpen nahiko behar baditu ere, desberdintasun honen ondorioz jarrera zehatz bat azalduko zen azkenean: euskal literaturan gertatutako endozentrismoa, oso hertsitasun berezia gainera, ikusiko dugunez, batezere aurreko literatura urria eta kanpoko literaturarekiko. Ez dugu bestelako desberdintasunak garrantzizkoak ez direnik esan nahi herrialde baten izaera eratzeko, baina kasu honetan ez dira orainarte azaldukoak bezain adierazgarri, literaturaren alorrean areago.

Bai Katalunian, bai Galizian, ordea, talde europeista urri baina garrantzitsuena aztarnak izugarritzko garrantzia izango zuen ondoko urteetako hetero-

---

<sup>4</sup> Zehazki *Yakintza*, 11, Euskaltzaleak, Donostia, 1934, 400. orr.

geneitaterako. Izan ohi den bezala, nahiko marginalak izan ziren, baina izan beharrezko antagonismoa osatuko zuten joera nagusi tradizionalarentzat. Euskal Herrian ez zen halakorik gertatu. Beharbada nolabaiteko antzeko joera agertuko zen, Lauaxeta bat bazen behintzat, baina kasu bakan batzuk izateaz gain, beranduegi agertuak izan ziren eta gerrak etendu egingo zituen ia loratzen hasi baino lehen. Galizian (ikus «Nos» taldearen kasua, adibidez) eta Katalunian norbere hizkuntzara kanpoko literatura itzultzeari aspaldi ekin izan zitzaion hartaraino, adibidez —gerraurre garai honetan euskeratutako erdal lanak *Wilhelm Tell*, *Eneida*, *Iliada*, *Hamlet*, eta antzekoak izan dira, kasu berezi batzu salbu, *Platero y yo*, Orixek euskeratutako Mistral-en *Mireio*, Pío Barojaren obraren bat edo besteren itzulpena eta Rabindranath Tagore-renak kutsu exotiko bezala. Gerraostean, ordea, desberdin xamarra izango da: Bergson (Orixek euskeratua), Bretch (Labayen), Dürrenmat, Espriu, Max Frisch, Lorca, Ionesco, Schiller, Tolstoy, Verdaguer, e. a.—. Herrialde hauetan (Katalunian nabariago), iraganetik berreskuratutako hondarrekin, herri izaera berreiraiki nahi zuen mugimendu kontserbatzaile nagusiaren oinarrietako alde erlijioso eta politikoak eztabaidan jartzen zituen kolektibo txiki bat izateak ukaezinezko garrantzia izango zuen gerraurre hurbileko giroa eratzerako, eta herri nortasun moderno baten sorrera eragiteko. Hau ez da gerraondorarte Euskal Herrian gertatuko.

Baina desberdintasunez gain, parekotasunak baliagarriago gerta dakizkigute, narratiban kostunbrismo eta tesiko errealismoa nagusi izatea, edo ta gerraurrean, parnasianismo eta sinbolismoaren aztarnak agertzen hasten direnean, olerkiaren nagusitasuna herrialde bakoitzaren literaturan, e.a. Fenomeno guzti hauek Europa osoan gertatzen ari den zerbaiten aztarnak dira, ez Euskal Herriakoak soilik. Eta ezin ahaztu lurralde guzti hauetan hizkuntzaren normalizatorik ez zegoela oraindik. Prozesuaren hastapenak orduan izan ziren, hizkuntzaren normalizazioaren beharraz oharturik, eta hala izan zen Euskal Herrian ere. Hor ditugu garai hartan hain eraginkor suertatu ziren Aranaren *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*<sup>5</sup> (agertuko ez zen lan zabalago baten zatia izanik), edo gutxi lehenago agertutako Azkueren *Proyecto de Ortografía* edo bere aurreko gramatika. Baina, era berean, kontutan hartu behar dugu mende honetako bigarren hamarkada arte ez zela izan Euskal Herriko Hizkuntza Akademiarik, Katalunian ordea, adibidez, Bartzelonako «Real Academia de las Buenas Letras» bazen sortua XVIII. menderako iada-

<sup>5</sup> «Bizkaiera osotua»ren proiektuari buruz datu zehatzagoak izateko, ikus Itziar LAKA-ren «Hiperbizkaieraren historia» (lau aletan, in *ASJU*, XX-3 [1986b], XXI-1 [1987a], XXI-2 [1987b] eta XXI-3 [1987c]).

nik. Jon Juaristik adierazi zigun<sup>6</sup> «euskerari» honek ez zuela bere helburua lortu, haien garbizaletasun/keriak goimailako talde murriztu batentzat ere zaila gertatzen baitzen, eta irakurleek abertzaletasunak eraginda irakur-tzen zutela literatur zaletasunagaitik baino. Eta hala izango zen ziuraski, baina garai hartan edonolako jokaera abertzaletasunak markatu egiten zuela pentsatu egin behar dugu. Aipatutako literatura haietako beste edozein bezalakoa zen euskal literaturaren bidea; berezitasuna, desberdintasuna, agian, abertzaletasun horri emandako garrantziaren heinean egongo litzateke eta ez garrantzia ematean bertan. Ez legoke inolako berezitasunik euskal literaturaren mundutxoan abertzaletasuna eragile oinarritzkoa izatean, argi dago hala izan zela; areago, adibidez, Jose Eizagirrek 1933. urtean *Yakintza* aldizkarian agertutako artikulua batetan adierazi egiten zuena eritzi orokortzat hartzen badugu<sup>7</sup>, baina oinarrian hala izan zen beste lurralde batzutan ere. Euskera garbi honetarako proiektuak ez zuten lortu hizkuntzaren normalizazioa ordea, eta euskal literatura maila kultoago batera eramane zuten arren, hartarako bideak ez ziren oso ongarri izan; adibidez, euskal klasiko batzuen mesprezua eta gutxiezteak, klasikook erabili zuten euskera gaztelanierak zein frantsese-

<sup>6</sup> JON JUARISTI, *Literatura Vasca*, Taurus, Madrid, 1987, 102-103. orr.

<sup>7</sup> JOSE EIZAGIRRE, «La Cooperación. El arte en el Renacimiento», in *Yakintza*, 3, Donostia, 1933, 237-240. orr. Halaxe zioen artikulua:

«[...] es indudable que el arte ha de inspirar nuestro Renacimiento nacional y ha de colaborar en su favor [...] Y hacíamos un llamamiento a los artistas de nuestro país que conocen y aman a su patria para que vengan a formar, organizados, en las huestes de los artifices del resurgir vasco [...] Nada podrían por sí si les faltara otro elemento que indispensablemente ha de asistirles, elemento sin el cual es imposible que tenga efectividad y eficacia su esfuerzo; y es elemento que ha de formarse por la colaboración y aportación de todos los vascos conscientes.

Nos referimos al elemento que se llama «el público». Elemento tan importante que sin él no pueden existir las manifestaciones artísticas, pudiéndose afirmar que en ellas el público, lejos de ser un elemento pasivo como algunos creen, es esencialmente activo e indispensable.

Fijándose bien se observa que, así como no hay escuela con que haya sólo maestro, sino que es preciso que haya discípulos a quien enseñar, nada puede el arte, con su finalidad de progreso y cultura nacional, sin la colaboración del público.

Aún en términos generales, no se concibe que haya arte de la pintura sin que haya un público que admire los cuadros y los adquiera; ningún literato ni músico escribe obras para deleitarse en escribirlas y guardarlas en un cajón; pero donde más colabora el público y más directamente interviene es en el arte dramático, en el teatro [...].

Y ahí es donde todos los patriotas, los vascos todos pueden aportar su participación formando el público; pero formando en él de una manera consciente de su actuación, dándose cuenta de que las manifestaciones de arte, en las que colabora, son esfuerzos colectivos en favor del renacimiento de la Patria.»



rak «kutsatua» zelako, beren testuak «euskerar garbian» berridaztera eramaitzen<sup>8</sup>.

Mugimendu kultural honen barruan eraturik, euskal literaturaren ugaritasunak bere eskasiak izan zituen garai honetan. Alde batetik, olerkigintzaren nagusitasuna aurretik zetorren euskal literaturan eta gerraurrean oso nabaria izan zen, antzerkia nolabait ugaritu bazen ere; baina euskal narratibaren hutsunea nabariki haundia izan zen. Egia esan, mende berriaren hasieratik orduarte ere —1930. urterarte gutxi gora-behera— ez zen kopuru haundirik izan narratiban; ipuin herrikoien bildumak salbu, Txomin Agirrearen *Kresala* (1906) eta *Garoa* (1912), Etxeitarren *Josetxo* (1907) eta *Jaioterri maitia* (1910), Azkueren *Ardi galdua* (1918), Lhanderen *Yolanda* (1921), Barbierreren *Piarrres* (1926) eta beste gutxi batzuek, hauetako gehienak edo birrargitalpenak, edo gaztelanieraz idatziak eta hauen bertsiok euskeratuak; Campión-en batzuk (*La Bella Easo* [1909],...) eta beste. 1931. urtetik gerra izan zen arte urritu egin zen aurreko kopuru murriztua, euskeraz idatzitako elaberriak ez ziren dozena erdira ere iritsi, Anabitarteren *Usauri* (1931) eta *Donostia* (1932) eta Toma Agirrearen *Uztaro*, azken hau gerra garaian (1937), eta besteren bat.

Txomin Agirre bihurtuko zen euskal narratiba *berri* honen eredu bakarra, aurreko tradizioz ez baitzegoen, libururen bat izan ezik. Eta literatura osorako izango ziren oinarriak isladatu ziren bertan ere. Halako xenofobiaren ondorioz, eta aipatutako euskal sena zaintzearen asmoaz, gerraurreko literaturan gai idilikoak nagusitu ziren; folkloreak zuen garrantzia mota honetako ohitura-deskribapenak eta abarrerako eragile egokia bait zen; baserriaren go-raipamena, ohitura zaharrak, giro menditar eta itsastarrak, e.a. Garbitasun fisikoa eta espiritualaren zeinu den guztia, hiritik urrun batez ere, eta honen giro maltzurra eta usteltzailearengandik aldentuak. Genero guztietan agertu ziren ezaugarriok, eta guztietan ere kristautasunaren itzal bedeinkatua —Sarasolak egoki adierazten duenez<sup>9</sup>—, «Jaun Goikoa eta Lege Zarrak» luze iraun-

<sup>8</sup> Ikus honetarako, adibidez, Juaristik dioena, (Op. cit., 90. orr.). Esan den bezala, ez zen orduan hizkuntzaren normalizaziorik lortu, baina asmoa huraxe zen dudarik gabe, eta hala izanik, ikus dezakegu nola gaur ere, euskera batuaren normalizazioaren izenean, euskal literaturan antzeko zerbait gertatu izan den, Erkiaga beraren, edo J. A. Loidiren edo beste batzuren lanak batuaz berridatziak izan direla. Beharbada normalizazio baterako bidea ez da gaur pentsatzen den bezain desberdina, eta gure historian kritikatu ditugun «oker» berdintsuak egiten ari gara.

<sup>9</sup> «La infiltración de la ideología clerical en las nuevas teorías y en la nueva práctica salta a la vista en cuanto nos fijamos en la actitud defensiva [...], en el carácter cerrado y conservador del movimiento, y en su nacionalismo católico de vascos firmes creyentes más que otra cosa», Ibon SARASOLA, *Historia social de la literatura vasca*, Akal, Madrid, 1982, 80. orr. et seq. Koldo Mitxelena ere halaxe dio bere *Historia de la literatura vasca liburuan* (Erein, Zarautz, 1988, 143. orr.): «desde luego el fondo de todo lo que se escribe sigue siendo estrictamente católico».

duko bait zuen oraindik. Narratiban Txomin Agirreren elaberriek zuzenki markatu zituzten ezaugarri hauek gerraurreko idazleengan. Baina Espainian ere ezaugarri hauek zutabe izandako literatura bazen mende erdi bat lehenago. Hala izan zen askotan Pereda-rekin, Agirrerekin konparatua izan dena. Agirreren elaberriek badute, gainera, XIX. mendeazkeneko Espainiar kostunbrismoan agertzen ziren ezaugarrien kutsua, ez bakarrik erabiltzen zuen estetika bereziarengatik, Agirrek agertzen duen baliabideen erabilpena ere batzutan Alarcón eta Pereda-ren bigarren garaiko «tesiko errealdismotik» hurbil dabilelako baizik. Elaberrri mota honetan garrantzitsuena da idazleak bere gaitasun narratiboa «al servicio de los ideales tradicionalistas católicos» jartzten duela, Rodríguez Marín-en hitzetan<sup>10</sup>, eta hala ikus dezakegu oso argi Agirreren elaberrietako pasarte batzutan eta geroago zenbait euskal idazleengan ere.

Gerraurreko gainerako elaberrietan joera hori ez da beti hain argia, baina hala ikusten dugu, esaterako, Anabitarteren elaberrietan: Euskal Herri jakin baten giroaren deskribapen injenuo xamarrek, ohitura elaberriaren bidetik, ez dira deskribapen errealak, sinkronikoak, nahiko ididealizatuak baizik; jaiak, herri kirolak, herri bizimodu garbi eta hobengabea, hauxe bait zen Euskal Herrian zegoen giro erromantiko eta ohiturazaleak eragin izan zuen literatura mota nagusia.

Gerraurreko literaturan ez da garaiko langile mogimenduen aztarnarik agertzen, ez eta elebitasunaren hedapenaren arazoarena edo horrelakorik ere. Euskal idazleak ez du lurrera begira idazten, zerura baino (eta hala ikusten dugu garai hartako idazle desberdinen zenbait olerkien izenburuei begiradaxo bat soilik emanaz, adibidez). Egia da, Sarasolak adierazten duen legez<sup>11</sup>, euskal literaturak ez zuela Euskal Herrian gertatzen ari zena erakusten, batez ere lehen azaldutako indutrializazio prozesuak ekartzen zituen gizarte aldaketak. Hau, ordea, apropos gertatu zen, hizkuntza eta literatura aldaketa haiengandikako babesle izan bait ziren. Halere, euskal gizartean gertatzen zena ezin zitekeen alde batera utzi, eta gerraurreko zenbait aldizkaritan hari buruzko artikuluxkek eta komentarioek argia ikusi izan zuten, arazoaren azterketa trinkoak ez baziren ere: langile arazoak eta elkarteak, elebitasuna eta honek irakaskuntzan sortzen zituen arazoak, e.a. Gerraurreko urteetan agertu ziren Joaquín Azpiazu-ren *Patronos y Obreros* (1934), Jon Eguzkitza-ren *Gizarte*

<sup>10</sup> Rafael RODRIGUEZ MARÍN, *Realismo y naturalismo: la novela en el siglo XIX*, Anaya (Biblioteca Básica de Literatura), Madrid, 1991, 23. orr.

<sup>11</sup> Sarasolak ederki azaltzen duen bezala «La literatura vasca desconoce las literaturas europeas y sus corrientes. Al mismo tiempo, y por la misma razón, en todo este largo lapso de siglos, la literatura vasca no ha sido testigo de los acontecimientos y los problemas de la vida vasca y, aún en menor medida si cabe, no ha sido el medio de expresión de esa vida» (Op. cit., 39. orr.).

auzia (1935) edo Juan Thalamás-en *Aspectos de la Vida Profesional Vasca* (1935) eta 1934. urtean *Círculos de Estudios Sociales* aldizkaria sortu zen (kontutan harturik, bestalde, liburu hauek eta artikulua gehienek, kristautasun eta aber-zaletasunaren subjektibotasunetik eratuak izan zirela). Aldi berean Espel jaunak argitaraturako *El Libro de Oro de la Patria* (1934), José de Artetxe-ren *Una inquietud y cuatro preguntas* (1934), J. A. Agirre eta Lekube-ren *Entre la libertad y la revolución. 1930-1935* (1935), León de Urizar-en *Al servicio de Euzkadi* (1935), eta gisa honetako liburu eta argitalpenak askoz ugariago eta irakurri-agoak ziren. Ez da agertzen, lehen esan bezala, erdal literaturaren erreferen-ziarik, klasikoen ildotik ez bada behintzat. Lauaxetarengan halakorik ikusi ohi da, baina Lauaxetaren olerkigintza ez zen guztiz begionez hartua garai hartan. Agian Lizardi eta Lauaxeta gerraostean bizirik iraundu izan balira gerraondoko euskal literatura beste bide batzuetatik abiatu izan zitekeen.

1936ko Gerrak isilaldi gogorra ekarri zion euskal literaturari, baina Espainia osorako latzaldia baita ere. Euskal Herriko kasuaren berezitasunagatik, ordea, gaitzak nabariagoak izan ziren. Inolako tremendismorik gabe, euskal literaturak berez zuen urritasuna hain bortizki jaitsi behar izatean, hutsaren parean gelditu zen euskal produkzio literarioa. Lizardi gerra aurretik hila zegoen, Lauaxeta eta Aitzol gerran erailduak, eta beste hildako asko ere; Jose Markiegi, Campión, Aranzadi, Jose Azkunaga,... eta gerraurreko belaunaldiko idazle ugari erbestera ihes egin behar izan zuten, Elías Amezagak deskribatzen duen bezala<sup>12</sup>; Orixe, Etxaide, gehienak Hegoameriketara joan ziren: López-Mendizabal, Irujo, Justo Garate, Eizagirre, Jemein, Leizaola,... Argentina; Estornes Lasa anaiak, Mocoroa, Chilera; Martin Ugalde, Ibinagabeitia,... Venezuelara; Zalacaín, Monzon, Mexikora; Zaitegi, Aurre-Apraiz, Guatemalara,... beste batzuk Frantzialdera; Olabide Toulousera, Aita Donostia Marsellara, Labayen eta Jon Bilbao (baita Barandiaran ere) Sarara. Egoera larri honi gerraren ondoren zabaldu ziren etsipen eta bildurra gehitzen badizkiogu 40a-ren hamarkadako lehen urteetako giroa argi ulertu dezakegu.

Baina, esan bezala, Espainako produkzio literario osoan gertatutako etena izan zen. Katalunian eta Galizian hala izan zen, bai gerraondoan baita 40ko hamarkadan zehar ere. Zenbaiten artean, Carles Riba erbestean egongo zen 1943. urterarte, Castelao eta Rafael Dieste galiziarrek Argentinara joan behar izan zuten era berean.

Gerraosteko lehendabiziko urteetan euskal literaturaren mundua eten zen. Lauaxeta eta Lizardi, euren eskuetan berritze garrantzitsua zerabilten idazle bi, hilak ziren, baita gerraurreko mugimenduaren eragile isila izan zen Aitzol

---

<sup>12</sup> Elías AMEZAGA, «Literatura euskera», in José M<sup>a</sup> DIEZ BORQUE Edit., *Historia de las literaturas hispánicas no castellanas*, Taurus, Madrid, 1980, 422. orr.

ere. Beste izen garrantzitsu batzuk atserrira joanak ziren, esan bezala, eta Euskal Herrian geratu zirenak beldurrez eta nahiko itxaropen gutxirekin. Beraz, ez zen lan erraza euskal literaturari jarraipena ematea. Gainera Orixek, gerraurreko eredu eta «teoriko» nagusia zena, nahiko etsita zegoen eta Zaitegik animatu behar izan zuen, Josu Landak dioen bezala<sup>13</sup>. Hala ere, beldurra bera zaldi, esan ohi denez, gutxi batzuk ausartu ziren hasiera batetan, haietatik lehenak Telesforo Monzon Mexiko-tik eta Salvatore Mitxelena Euskal Herrian bertan.

Sua piztua zen berriro, oso gartsua ez bazen ere. Zaitegi Orixerekin batu eta *Euzko Gogoa* sortu zuen Guatemala-n 1950. urtean. *Euzko Gogoa* garai hartako idazleak biltzeko lekua izan zen, Euskal Herrian, Ameriketa eta Europan zehar barreiaturik zebiltzan idazleen lanak elkartzeko gunea<sup>14</sup>. Egia esan, *Euzko Gogoa* eragiten zuten printzipioak ez zeuden gerraurrekoetatik urrun, gehien bat bertan idazten zutenek gerraurrean egin izan zutelako. Baina puntu batzutan aldaketa baten hastapenak ikus daitezke. Orixek eredu izaten jarraitu zuen, eta horrek markatuko zuen 50. hamarkadan egindako literatura; baina gerraurrean tokirik nabariena izan zuen erlijioak ez zuen hain garrantzi handia izango, gaitzat hartua behintzat, nahiz eta kristautasunak oraindik literatura osoan eragin nabaria izan. Beste gai batzuen agerpen eta garapena nolabaiteko gogo aldaketa baten aztarnak ziren: literatura, artea, historia, filosofia, soziologia,... Kortazar-ek dioskun bezala<sup>15</sup>. Bestalde, belaunaldi berria osatuko zuten idazleren batzuk bertan ere lekua aurkitu zuten. *Euzko Gogoa* «eskola zaharreko» aldizkaria zen, eta baliteke noizbehin zorrotzegi jokatu izana (adibidez Txillardegiren erreseinaren baten argitaratzeari ezetza eman zioten), baina ez zuen kontrol ideologiko esturik jarri, Juaristik dioen bezala<sup>16</sup>. Aitzitik, aldizkariaren zuzendaritzaren ideologia estatikoaren bidetik

<sup>13</sup> JOSU LANDA, *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar, Donostia, 1983, 24. orr.

<sup>14</sup> Izan ere, *Euzko Gogoa*-ren sorketaz aurrera aldizkari kopuru izugarria izan zen garai honetan, eta ondorengo urteetan ekintza literarioak bide honi jarraituko zion, nagusiki. Ameriketako eta Europako zenbait herrialdeetako euskalzaleen boletinez gain, aldizkari ugari sortu ziren (Hegoameriketaren batez ere): *Aberri* eta *Euzko Deya* Mexiko-n; *Euzko Gogoa* Guatemala-n; *Euzkadi* Caracas-en; *Euzko Deya* eta *Anayak* Paris-en; *Gernika* Donibane Lohitzune-n, eta beste asko.

<sup>15</sup> Hala dio Jon Kortazar-ek bere *Literatura Vasca. Siglo XX* liburuan (Etor, Donostia, 1990, 107. orr.). Oker ez badabil ere, ordea, nire ustez aldaketa ez litzateke gaien agerpenean aurkituko, aurretik esan bezala baziren gerraurrean gai horiei buruzko artikuluko eta eritziak eskeintzen zituzten euskal aldizkariak (filosofia, soziologia, politika, artea,...). Aldakuntza, beharbada, gaien tratamenduan legoke, gerrak ekarritako etsipena eta minaren ikuspegitik gogoetak kutsu desberdina izango bait zuten. Dena den, gai berri batzuk erakargarriak bilakatuko ziren duda barik.

<sup>16</sup> Jon JUARISTI, Op. cit., 105. orr.

urrun ziren lan asko eman ziren argitara; erizpide nahiko zabaleko aldizkaria gertatu zen, izan zitekeenaren ordez.

Garai honetako euskal literatura eta, bereziki, nobelari buruz hitzegitera-koan Lasagabaster-en hitzak hasiera bikaina lirateke: «Gerra, esan dudanez, etendura argi bat baino, parentesi, isilaldi bat da areago»<sup>17</sup>. Hala da, 40-50ko hamarkadetan zehar argitaratutako elaberrien oinarriak gerraurrean aurkitzen ditugu. Ohiturazko elaberriaren ezaugarriek ez diote, beraz, agertzeari utziko. Nolanahi ere, urte hauetako nobelek zenbait berriztasun agertuko dituzte, eta hauek ukaezinezko garrantzia izango dute ondoko urteetarako. Gerrak bere ondorioak ekarriko zituen, eta elementu berriak agertuko dira euskal elaberrietan: gerra, giro «urbanoaren» hastapenak, edo agian zuzenago, giro baserritarraren idealizazioaren leunketa —Kortazarrek dioen bezala<sup>18</sup>—, narratzailearen eta tratamenduen aldaketa, oso xamurra nolanahi ere. Baina ezin esan Eneasen antzera «quantum mutatus ab illo!». Gerraondoko euskal literaturaren ezaugarri nagusia jarraipena izan zen, gerraurreko literatura giroari jarraipena ematea. Honetan bat datoz kritikariak (ikus Juaristi, Sarasola, Landa, Mitxelena, Kortazar,...). Eta hau horrela zen heinean, euskal literaturak, eta elaberriak bereziki, oso urrats garrantzitsu bat eman behar izango zuen oraindik. Ikusi denez, euskal idazleen gogoetan jokaera kolektibo bat agertzen zen nagusiki, eta honek markatzen zuen ekin-tza literarioa; idazleen betebeharra aberriari zuzendua zen, eta honela artea bera ez zen helburu bezala ikusten, ez eta idazlearen banakako ibilbidearen hausnarketarik ere. Honela, hizkuntza zen nagusi, hizkuntza erabili egin behar zen, eta literatura hartarako bide bat baino ez zen. Euskeraz idatzi eta irakurri egin behar zuten euskaldunok eta, abertzaletasunaren ikuspegitik, ez zen erizpide estetiko edo poetiko objetiborik izan, askotan ez zen halakorik izaten autodidaktismo koloka baten seme ziren idazleengan ere, Erkiagak<sup>19</sup> edo Loidik<sup>20</sup> eta bestek aitortzen duten bezala. Guzti hau César Leante-ren hitzetan bildu dezakegu «su intención extraliteraria, su inclinación, algo así como lo epidérmico del fenómeno literario»<sup>21</sup>; bera literatura konprometituari buruz beste zentzu batetan ari den arren, kasu honetan berdin-

<sup>17</sup> Jesus M<sup>a</sup> LASAGABASTER, «Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak», in *Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak*, Universidad de Deusto, Bilbo, 1981, 362. orr.

<sup>18</sup> Jon KORTAZAR, Op. cit., 102. orr.

<sup>19</sup> Ikus «Eranskina», lan honetan.

<sup>20</sup> «Jose Antonio Loidi», *H.A.B.E.*, 211, Bilbo, 1992, 26-29. orr.

<sup>21</sup> César LEANTE, «Compromiso con la libertad», in Rita GUNTZMANN Edit., *I Encuentro de Escritores Iberoamericanos en Euskadi*, U.P.V.-E.H.U., Bilbo, 1991, 43. orr.

tsu gertatu zen: hizkuntza ez zen bere literaltasunean hartzen, bere gramatikaltasun eta politikotasunean baizik<sup>22</sup>.

Hala ere, badira desberdintasunak elaberrigileen artean; batzuk gerrak eraginik, beste batzuk erbesteratzeak. Anabitarteren *Poli* eta Iruzustaren *Bizia garratza da*, Etxaideren historia kutsuko lanak eta Loidiren polizi elaberria, edo Erkiaga eta Eizagirrenenak; guztiak zerbait desberdin dute. Baina guztietan oraindik literatur indarraren falta somatzen da, eta gehienetan narratzaileak ezin dio guztiaren bideratzaile izateari utzi, ez eta Euskal Herriaren irudi berezi eta irreal baten min izateari ere; ideologiak eta kristautasunak bideratu egiten dituzte lan guztiak.

Antzekoa gertatu zen gerraostea Galizian eta Katalunian ere, ordea. Guda ondoko urteetan erbesteraketak eta isiltasuna nagusi izan ziren. Antoni Comas-ek eta Antoni Carbonell-ek diotenez<sup>23</sup>, urte hauetan «nostalgia, deseo de continuidad y cierta dependencia de las tendencias de preguerra» ziren nagusi, eta Pilar Vázquez Cuesta-k adierazten duenez<sup>24</sup>, 1950. urterarte birrargitalpenak baino ez ziren ia agertzen Galizian, eta hasieran egiten ziren elaberri urriak kostumbrismoaren barnean sartzen ziren. Berak dioenez «La literatura de postguerra era una prolongación de la neorromántica de preguerra. Las corrientes vanguardistas e iconoclastas incipientes entonces no encuentran continuadores»<sup>25</sup>. Ez da beti egokia izaten halako konparaketa orokorrak egitea, normalean prozesu bakoitzean izaten diren desberdintasun izugarriak alde batera uzten direlako, baina kasu honetan hala egin dut espreski, desberdintasunak salbu (eta asko dira, zalantzarik gabe), Espainiaren barruan diren herrialde hauetan nahiko ibilbide paraleloak agertzen direlako, eta fenomeno batzuk jarrai berberan gertatu direlako. Adierazkorrago suertatzen dira, gainera, haietako batzuk Europa osoan gertatutakoaren ondorio direla kontu-

---

<sup>22</sup> Ez da teorizatzen hasteko lekurik, eta ez dut halakorik egiteko asmorik ere, baina agian, hitz gutxi batzutan adierazteko (honek daukan arrisku eta lainokeriaz ohartua), garai honetako idazleengan ez dakigu literatura barneko zerbaiten adierazi beharraren ondorioa ote zen edo, ziurrago, lehenengo literatura egin beharraren gogoia izan eta ondoren literatura horrek zer adieraziko zuen pentsatzen hasten ziren. Eladio Cabañero gaztelaniarraren hitz batzuk datozkit burura; berak inspirazioari buruz ari zen orduan, baina beharbada literatura berarentzako balio lukete dihardugun honetan «un trance espiritual por y a través del cual las más esenciales sensaciones acumuladas en nuestro ser consciente y subconsciente piden salida, exigen expresión» (in José BATLLO Edit., *Antología de la Nueva Poesía Española*, Lumen, Barcelona, 1977, 318. orr.). Halere, euskal olerkiaren barruan ez zen hain zehatza, Lizardi baten erreferentziaren ostean adibidez, baina antzerti eta elaberrian ez zen hartaraino urrats garrantzitsu hori argiro eman.

<sup>23</sup> Antoni COMAS, Antoni CARBONELL, «Literatura catalana», in José M<sup>a</sup> DIEZ BORQUE Edit., *Historia de las literaturas hispánicas no castellanas*, Taurus, Madrid, 1980, 580. orr.

<sup>24</sup> Pilar VAZQUEZ CUESTA, «Literatura gallega», in José M<sup>a</sup> DIEZ BORQUE Edit., *Historia de las literaturas hispánicas no castellanas*, Taurus, Madrid, 1980, 860. orr.

<sup>25</sup> Idem.

tan hartzen badugu. Ohargarria da, beraz, gerraostean Orixe garai hartako guztientzako eredu bihurtu zen bezala, Katalunian Carles Riba-rekin gauza bera gertatzea (1943. urtean erbestetik itzulia), edo-ta Galizian abanguardia aurreko olerkiaren eredu bat izan zen Ramón Cabanillas-ekin, baita haien artean herri literatura hautatuak eta lan historikoak leku garrantzitsua izatea.

Baina 1954. urtean beste aldizkari baten sorrerak euskal literatura talde nagusi bitan bananduko zuen. Egia esan, aldizkaria sortua zen hartaraino bost-sei urtez lehenago, baina urte hartan euskeraz soilik argitaratzen hasi zen. *Egan* aldizkaria, Koldo Mitxelena figurarik nabarmenena izanik, idazle gazteen espazioa bihurtu zen batez ere, nahiz eta aurreko zenbaitzuenak agertu ere, eta haiek *Euzko Gogoan*-n idazteari uzten joan ziren; momentu hartan talde berriaren jaiotza heldu zen. *Euzko Gogoan*-n Arestik, Mirandek eta Krutwigek idatzi zuten, baina Orixeren gerraurreko gogo literarioak atzeratuak ziren hartaraino, idazle berrizaleek ostera beste zerbaiten bila aritu ziren... eta *Egan*-en aurkitu. Hauen izenak, eta beste batzuenak (Txillardegi, Irigaray,...) Mitxelenaren inguruan bildu ziren.

Talde hau hizkuntzaren normalkuntzaren behar larriaz ohartu zen, baina bere hizkuntzarekiko joerak oso desberdinak izango ziren oraingoan. Joera zahar eta berriaren arteko eztabaidetatik sortu zen 50eko hamarkadaren azken urteetako nolabaiteko literatur heterogeneitatea, eta euskal literaturaren berezko izaeraren bilaketaren hasiera izan zen. Bertan, eta ondorengo urteetan, Baionan eta Aranzazun berezikiago aldaketa kultural osoa gertatu zen euskal munduan. Mitxelena beti eragile (eta erabakiak hartzeko eritzi zama-tsua), euskera batuaren nortasunari buruzko eztabaidak izan ziren, eta bertan erizpideetako bat —garbizaleek ukatutako testu zaharretara jotzearen beharra— zehaztu zen. Urte bereziak izan ziren idazleentzat, erabili behar zuten hizkuntza finkatzeko prozesuan bait zerabilten<sup>26</sup>. Euskera batuarako proposamenak onartuak izan ziren eta hura izango zen idazle berri askoren baliabide nagusi bat, Txillardegi, Aresti, Saizarbitoria, Lete, Peillen,...

---

<sup>26</sup> Hala ikusten da literatura lanetan. Erkiagak, adibidez, aurreko urteetan eta garai honetan, Krutwig eta besteekiko harremanen ondorioz duda barik, gipuzkeraz eta lapurteraz idazten saiatu zen. Era berean, Txillardegiren *Peru Leartza'ho* elaberria agertu zenean (Euskaltzaindia, Bilbo, 1959), adibidez, aurreko ohar batetan autoreak hala zioen:

«Euskaltzaindiak "h"ari buruz iritzi tinkorik oraindik eman ez duelako, neurekixa darabilzkit auek; eta Etxaide'k eta gaurko beste zenbait idazlek bezala, "h" ori erabiltzen duten euskaldunai irakurtzea piska bat erraztutzeko asmotan, bokale bikoitzetan jarri dut liburu ontan: zaharra, zuhurki, ahaide, lehenago, eta abar. Berdin egin dut ere erderatik datozten itzai buruz, neure iritziaz baliatuz.

Liburuan agertzen diran nere irizpide auek, alaz ere, betirako ditudan iritziak ez dira, noski. Eta Euskaltzaindia'ren esanetara nago.»

Une honetatik aurrera euskal literaturak itxuraldaketa garrantzitsua jasokodu, hauxe baita benetako euskal elaberri modernoaren ibilbidearen hasiera eta literatura osoarena. Txillardegiren *Leturiaren egunhاري ezkutua* 1957an agertu zen, eta bertan Europako pentsamoldeen jasoketa oso argiro agertzen da behingoz. Halere, kritikatu izan zen existentzialismoaren azalketa hura, eta Erkiaga dugu kritikari haietako bat<sup>27</sup>. Ohargarria da, bestalde, nola Galizian, esaterako, garai hartan ere *Galaxia* aldizkariaren sorketaren ondoren olerkian nolabaiteko mogimedu existentzialista sortu zen. Eta parekotasunak ez dira hemen bukatzen. Ondorengo urteetan poesia sozialaren lurruna euskal olerkian urtu zen Arestiren eskutik. Arestiren antzerako fenomenoak aurki dezakegu Galizian Celso Emilio Ferreiro-rengan, eta Katalunian ere poesia sozialak indarra jaso zuen urte hauetan. Geroxeago —iadanik 60ko hamarkadan gauden—, herrialde bakoitzean literatur heterogeneitateak eragiten dituen desberdintasunak distantziak luzatu egiten ditu nolabait; Katalunian «errealismo historiko» delakoaren barruan tendentzia ezberdin batzuk hedatzen dira, edo Galizian neorrealismoa edo sozialrealismoa, baina beti zerbait amankomuna mantentzen delarik. Eta, beharbada gertakari bezala, Saizarbitoriaren lumatik irtetzen diren Frantzian gutxi aurretik sortutako «nouveau roman»-aren elementuak berak ikusten ditugu Galizian orduan hasten den «nova narrativa» horretan.

«Eskola zaharreko» zenbait idazle euren lanerako joerak nolabait aldatuz joan ziren ondorengo aldaketen arabera, batzuk zuzenki, beste batzuk lehunago. Baziren, gainera, nahiko kokagaitz gertatzen ziren idazleren batzuk, Salbatore Mitxelena kasua lakoa, geroxeagoko Gandiaga, Mirande eta besteren antzera, beraien izaera eta lanen ibilbideak berezi eta bakanak izanik.

Ohar bezala, Erkiagaren mundu literario bereziaren alboan azken aldian gertatutako literaturaz zera esan dezakegu... 1984an *Jaioko dira* argitara etorri zenerako baziren, euskal literaturaren alorrean, bai aurreko idazleen zein idazle berrien lanak, eta garai honetan Erkiagaren lanen joera atzeratuak zaharkituago ematen du nabariago. Ez dago, beraz, konparaketarik egiterik; Saizarbitoria, Txillardegi, Aresti, e. a., literaturaren eremuan agertu zirenetik Jose Austin Arrieta batetik gaurregungo Bernardo Atxagaraino idazleen zerrenda luzetu egin zen, baina ordurako haietako nahikok idazkera berrien bide zenbait eratuak zituzten eta haietatik abiatu: Atxaga bera, Joxemari Iturralde, Gotzon Garate eta bere elaberri beltzak, Anjel Lertxundi, Arantza Urretabizkaia, Joseba Sarrionandia, Laura Mintegi, Mario Onaindia, Koldo Izagirre,

<sup>27</sup> *Egan* aldizkariaren 2. zenbakian agertutako Erkiagaren eritzi hura, ordea, eskola zaharreko ereduaren jarrera isladatu besterik ez zuen egin, hau da, Erkiaga beraren eritziak ez zela bertan azaltzen, talde eta pentsamolde batetatik jasotakoa baizik.



Patri Urkizu,... Zerrenda luzea nolana. Erkiagaren azken hiru lanak (haietako bat aurrekoa izanik) agertu aldian argitaratzen ziren gainerako elaberri, ipui eta beste, nortasun bereko eta berezian barrena abiatuak ziren, lekeitia-rraren elaberrien moldeak antzineko garai bateko oroigarri bezala utziaz. Bada, hala eta guztiz ere, bide zaharretatik doan literatura moeta honetan balio zenbait; Kortazarrek *Iribarrea galtzen danean* elaberriaz adierazten duen bezala, adibidez, «sikeran, hemen pertsonaiak, helduak dira. Ni, behintzat, asper- turik nago pertsonaia gazteak besterik agertzen ez diren euskal nobeletaz»<sup>28</sup>. Egia da, bestalde, Erkiagaren garapen ahaleginak atzera geratu zirela, baina horrexegatik beragatik ere haren aldaketak idazle beraren prozesuan ikusi beharra legoke, konparaketaren ondorioz ez bait genituzke beraien heinean hain argiro ikusiko.

Erkiagaren joera ez da oso aldakorra izan zentzu honetan, baina bere euskaltzale izaerak aldaketen berrien arabera harakotzera bultzatu zuen nolabait. Hasieran esan dugun bezala, Erkiagak euskal giro desberdinak bizi izan ditu: gerraurrekoa, gerra bera, gerraosteko izua eta ixiltasunaren ondorioak, Frankoren diktadurapeko garai osoa, transizioa eta autonomi garaia. Eta garai hauetan izan den literaturari paraleloki joan izan bazaio orokorrean, harengana hurbiltze nahi samur bat ere ohar diezaiokegu idazle honi. Krutwigek proposatutako lapurteraz idazten saiatu zen lehendabizi, baita gipuzkeraz ere ge- roago. Gainera euskerarako bide ziren bai *Euzko Gogoa*-n zein *Egan*-en argitaratu egin zituen bere olerki eta antzerki lanak eta artikuluren bat<sup>29</sup>, eta honek bere izaeraren ezaugarriren batzuek somatzen uzten digu nolabait. Esko- la zaharrekoa izanik ere bere elaberrien barnean zenbait aldaketa nabari di- tzakegu eta, beraz, ezin ukatukoa dugu baita, idazleak berak izan zukeen hei- nean behintzat, bere lana prozesu autokritiko baten emaitzak izan zirela, auto- kritika honetarako zituen baliabideek uzten zizkion heinean behintzat.

<sup>28</sup> Jon KORTAZAR, «Bide ezagunak sakontzen», in *Eguna*, 1987-VII-9.

<sup>29</sup> Kortazar-ek azken honetan izandako garrantziaz ari denean, ordea, (*Literatura Vasca. Siglo XX*, Etor, Donostia, 1990, 109-110. orr.) ez du, Mitxelena eta besteengan zuen desberdintasuna argi azaltzen, eta, agian, haien heinekoa izan zela uler daiteke. Ez zen hala izan, ordea. Erkiagak ez zuen haiek izan zuten eragin edo ereduak, estilistiko zein ideologikoak, markatzearen indarra. Bere garrantzia ekitean zetzan, hots, langile oparora izatean, hala nola aldizkariaren *corpus*-a euskeraz agertzeko asmoa izan zenean Erkiaga euskeraren alde lan egiteko prest izan zen, beharrezko ziren euskerazko lanak bai *Euzko Gogoa*-ra bai *Egan*-era bidaltzen.

### 3. Erkiagaren bibliografia zenbait

Erkiagaren lana oparoa da, esan den bezala. Euskal literaturaren barruan ohar haundirik jaso ez badu ere, genero guztietan murgildu da, garai hartan nahiko naharoa zenez bestalde. Baina elaberriak salbu, beste guztiaren bildumarik ez dagoenez, zaila da bere olerki eta antzerki lanak osotasunean batzea zihurtasun osoz (bitxia, nolabait, olerkari honek bere hitz-lauzko lanagatik ospea jaso izatea). Beraz, zenbait aldizkaritan agertutako lanak —azken aldie-tan gehienbat— eta argitaratu gabe dauzkan guztiak behinbehineko zerrenda honetan sartu izanaren ziurtasun osorik ez daukat.

#### OLERKIA

Erkiagaren olerkiak idealtasunera jo zuen, mundu orekatu eta idealizatu deskribatzen, klasizismotik hurbil beharbada. Nolanahi ere, ez zen, garai hartan, gerraurrean areago, joera berezirik. Orduko gusto literarioa hartara zihoan, sinbolismoak eragindako sentsazioen eraginaz batera eta izadiaren elementuak garbitasun eta idealtasun horren seinu nagusi bihurtuz. Badira, halere, garai honetan korronte desberdinak izan zirela esaten dutenak, baina gehienetan, nik uste, bestelako korronteak baino, idazle konkretu batzuen joera bakan batzu izan ziren. Lauaxetaren aztarnak nabari dira noizbait bere olerkigintzan, baina bere lanak ez du harenak duen indar sinbolikoa. Nolanahi ere, ahapaldi herrikoien ereduaren erabilpenak bere jokaera erakusten digu; zortziko nagusia eta txikia, erromantzea,...

Bere lan poetikoa azterketa baten zain dago oraindik, baina badira azken urteotan betebeharrak honetan dihardutenak, lan hauek argitaratu gabe daudela oraindik, Jon Kortazar-enak adibidez, edota Arantza Elordieta-rena<sup>30</sup>. Erkiagaren lan poetikoa aldizkarietan banatuta agertzen da, eta zenbait olerki argitaratu ere ez dira atera, gaurregun guztiak batera liburu batetan publikatu faltan daudelarik, baina badirudi eginkuzun hau prestatzen ari dela baita. Hauxe

<sup>30</sup> Ikusi bibliografia, liburu honetako 159. orr. eta hurrengoak.

dugu —lehen esan bezala, ez bere osotasunean— Erkiagaren olerki lanaren zerrenda. Olerkiak argitaratutako aldizkariaren izenak aurretik jarri egin ditugu, eta olerkiaren izenaren ondoren bakoitzak duen kokapen zehatza aldizkariaren barruan, zilegi izan denean behintzat:

*Yakintza* (1934-35):

- Amesti (III, 1935, 603. orr.)
- Argiñe\* (III, 1935, 175. orr.; *Eusko Olerkiak*, V, 1934, 156. orr.)
- Atzeñira-Bidazti (III, 1935, 418. orr.)
- Etxeko poza\* (II, 1934, 407. orr.; *Eusko Olerkiak*, V, 1934, 154. orr.)
- Ezkontza\* (III, 1935, 101. orr.; *Eusko Olerkiak*, V, 1934, 154-55. orr.)
- Goiza\* (III, 1935, 15. orr.; *Eusko Olerkiak*, V, 1934, 155. orr.)
- Uso bi iduri\* (II, 1934, 342. orr.; *Eusko Olerkiak*, V, 1934, 153. orr.)

*Euzkerea* (1933-36):

- Abeñi bat; zati bi (III, 1935, 603. orr.)
- ¿Amesa? (III, 1935, 675. orr.)
- Atzipe (III, 1934, 131. orr.)
- Ene maitia (VI[?], 1934, 220. orr.)
- ¡Eten katiok! (IV, 1936, 80. orr.)
- ¡Euzkeldun! (IV, 1936, 10. orr.)
- Gau eresija (III, 1935, 528. orr.)
- Gurutza aretxa (III, 1935, 619. orr.)
- Itxaropen (III, 1934, 328. orr.)
- Orail (III, 1935, 481. orr.)
- Otoya (III, 1936, 770. orr.)
- Udako odeya (II, 1933, 464. orr.)

*Eusko Olerkiak* (1932-34):

- Eñotazuri (V, 1934, 124. orr.)
- Mendi goi-goyan (III, 1932, 28. orr.)
- Neure abeñiari (V, 1934, 125. orr.)
- Txintak (IV, 1933, 55. orr.)
- Zorigaitz eta Itxaropena (III, 1932, 34. orr.)
- Eta *Yakintza*-ko (\*)-dun guztiak ere (gaur desagertua den Hordago argitaletxeak birrargitaratu egin zituen 1985. urtean *Eusko Olerkiak* I, II, III, IV eta V).

*Gernika* (1951-53):

- Amaren itzala (20, 1952, 200. orr.)
- Bethi gose (17, 1951, 34. orr.)
- Erabiltzeke, eztugu euskara lantzen ahal (?) (22, 1953, 41. orr.)
- Euskararen hel-oihua (18, 1952, 39. orr.)
- Gabon othoia (25, 1953, 213. orr.)
- Iparragirre'kin solasian [?] (24, 1953, 163. orr.)
- Lehioan (19, 1952, 118. orr.)

*Euzko Gogoa* (1956-59):

- Bei itsua (Maragall-ena) (IX, 1958, 123. orr.)
- Belu xamar (VII, 1957, 2. orr.)
- Bikoitza (VII, 1957, 8. orr.)
- Eguantz (IX, 1958, 122. orr.)
- Maiatzeko illunabarra (VII, 1956, 7. orr.)
- Nora oa? (VII, 1957, 10. orr.)
- Zein ote zan... zera? (X, 1959, 30. orr.)
- Zure espainak iduri (VII, 1956, 7. orr.)

*Egan* (1951-60):

- Ames-Larreko maitagarria (5-6, 1956, 79. orr.)
- Baru-aldiak (XIII, 1960, 35. orr.)
- Gavel, Ziburuko seme (XII, 1959, 155. orr.)
- Giltz berriak (X, 1957, 304. orr.)
- Isil-ondoko olerkiak (hamar olerki bilduma; 2, 1951, 11. orr.)
- Juan Ramón Jiménez'i agur (XI, 1958, 147. orr.)
- Lekeitioko andra-aureskua (2, 1951, 13. orr.)
- Orixe'ri (XI, 1958, 9. orr.)
- R. M. Azkue aundiari omena Bilbao'n [?] (X, 1957, 62. orr.)
- Zutik (X, 1957, 303. orr.)
- Illobi izengabea (1962)
- Requiem Altuberen arauai [?] (XXXV, 1975, 127. orr.)

*Idatz & Mintz* (1985-)

- Arizmendi gogoan dodala (9, 1985, 16. orr.)
- Ez zaitez Gernikara joan, Lauaxeta (separata, 18-19, 1989; 1987an urtean idatzia)

Beste batzu:

Abenda irrintzia (1933)

Baserritar (1934)

Lora Gorriak (1936)

Nekazariarena (1950)

Azkueren heriotzan (1951)

Axular handiari ohore, (*Gure Herria*, XXVIII, 1956, 351. orr.)

Ba'zeneki... (*Olerki*, I, 1959, 10. orr.)

Bedoña'rako ostoa bikoitza, (*Euskerak*, 1959)

Aritz jeikian (1969)

Kanpaiak ere (*Euskal poetak eta artistak. Gabriel Arestiren omenez*, Agiriak, 1978, 77. orr.)

*Gizonaren aldia*, (olerki liburua; Ikasbide, Donostia, 1990)

#### ANTZERTIA

Erkiagaren olerki lana oso ospetsua ez bada, antzerkia askoz ezezagunagoa dugu. Idazle honen antzerki lana ez da gauza harrigarrik izan, banaketa tradizionalan egin, baita gaiak eurak ere nahiko tradizionalak. Dena den, bere aportazioa ez da hutsa izan; bakarrizketak, estampa batzu,... guztiak halako alde didaktikoren batekin, garaiko kristau tradizionalismoaren hildotik nolana ere. Ez dugu ahaztu behar gerraurre garaian antzerkia herriarekin elkarriketa izateko bidea zelako ustea nagusi zela, eta ideia hau berau gerraostean iraun egin zuela. Garaiko antzerki lanen kutsu aberkoia agertzen zaigu Erkiagaren lanetan ere, pertsonaien tratamendu manikeo eta azalekoa gehienetan,... Erkiagaren antzerki lana dugu, dudarik gabe, bere sorketa literario osotik aztertugabekoena.

*Antzerki jayan izan naiz* (1936, in *Antzerki*; bakarrizketa)

*Askatasun bidean* (1936; in *Euzkadi*; estampa bat, Estatutoa e.a.)

*Sinisgogorra* (1951; in *Egan*, 2, 1952, 27-30. orr., zati bat)

*Pake eguna* (1956)

*Usoa de Alos* (1957; A.B.A.O.-rako egina)

*Kanpaien atsekabez* (1959; in *Euskerak*, V, 1960, 259-272. orr.)

*Oñazez* (zarzuela, Patxi Bengoa)

*Alperrontzi* (1959; bakarrizketa)

*Gau batean* (1970)

*Gora Arratia* (*Todos herribatekos*, Irigaray-k bidalia. Erkiagak dioenez, Irigarayri itzuli eta honek Erkiagaren izenaz publikatu, baina ez omen zuen berak idatzi)

## ELABERRIA

Eusebio Erkiagaren elaberriek ez dute ohar haundirik jaso euskal literaturan, nahiz eta haiengatik bere osperik gehiena jaso duen. Bere narratiba lana ohiturazko elaberrien esparruan sartua izan da, diktadurapean idatzitakoa bereziki, bigarren garai batean erreialismo umil bat agertzen duelako ustea bada nonbait, gerrari buruzko aipuak eta giro urbanoagoa, nahiz eta hari beretsutik abiatzen den. Badira bere elaberri lanean garai bi, hogei urtetako zubiaz zeharkatua, eta beharbada epe luze hau aurrera joan bitartean Erkiagak bere elaberriarekin autokritika egiteko aukera izan zuen, ondorengo urteetan bere lana zerbait aldatuz. Hauxe izango dugu ondorengo eginkizuna, elaberriaren azterketa egitea.

*Arranegi* (Kuliska Sorta, 19-20, Zarautz, 1958)

*Araibar zalduna* (Kuliska Sorta, 50, Zarautz, 1962)

*Batetik bestera* (Kuliska Sorta, 51, Zarautz, 1962; Labayru Ikastegia - Bizkaiko Aurrezki Kutxa (Sutondoan), Bilbo, 1985)

*Jaioko dira* (Labayru Ikastegia - Bizkaiko Aurrezki Kutxa (Sutondoan), Bilbo, 1984)

*Txurio Txoria* (1963-64an idatzia; Labayru Ikastegia - Bizkaiko Aurrezki Kutxa (Sutondoan), Bilbo, 1986)

*Iribarrea galtzen danean* (Bizkaiko Foru Aldundia, 1987)

## ITZULPENAK, IPUINAK

Erkiagaren itzulpen lana guztiz ezezaguna da. Eskuz-esku galdua, ez dugu momentuz, lan hau ikusteko aukerarik gaurregun. Dena den, lehenengo puntuan adierazi bezala, berak egindako itzulpenak gazteleratikakoak izan ziren, ez hizkuntza orijinaletatik eginak. Ipuinak ere eginak ditu azken garaietan, haietako zenbait sarituak.

*Aspaldiko Maigret* [G. Simenon] (1955; argitaragabea)

*Parmenides* [Platon] (1958; argitaragabea)

*Untzoritxu* (in *Bilbao Iria Ipuina*, Bilboko Udala, 1984)

*Taloa ta arraina* (1985)

*Arpeko Mari* (IKA, Euba, 198?)

## GAINERAKOA

Lan literarioaz aparte, Erkiagaren bibliografian sartu beharreko lan piloak falta da zerrenda honetan. Erkiaga astekari batean lan egiten hasi zen, Lekei-tioko *Bizkaitarra* astekarian, 18 urte inguru zituelarik. Gero ere urte erdiz

egon zen *Eguna* egunkarian lan egiten gerra garaian, eta 1964-1970 bitartean *Boletín Informativo del Banco de Vizcaya*-ren euskal ardura osoa izan zuen, itzulpenak eta bestelakoak eginez. Bilboko *Anaitasuna* aldizkarian ere zenbait artikulatu idatzi zituen «Kalekoa» ezizenarekin. Horrezaz gainera ere zenbait hitzaldi emanak ditu euskera eta euskal literaturari buruzkoak: Txomin Agirreri buruzko hirü Ondarroan; R. M<sup>a</sup> Azkueren ehun urteurrenean hari buruzkoa, eta hurrengo urtean Donostian; Kirikiñoren ingurukoa Mañarian 1966. urtean; eta *Oleri* aldizkarian agertutako 1960tik 1962era Zornotzan emandako beste hirü, bata Eusebio M<sup>a</sup> Azkueri buruz, bestea J. M. Etxeitari buruz eta hirugarrena Aita Kandiko Basabe lekeitiar idazlearen inguruan. 1970. urtetik honaino ere beste hamarren bat hitzaldi behintzat, haietariko batzuk *Euskera* aldizkarian argitaratuak. Hortik aurrera ere jarraitu du noizean artikulatuak argitaratzen; 1989.ean *Idatz & Mintz* aldizkarian agertutako *Mutiko baseritar baten oroitzapenak* Xose Neira-ren Andres Urrutiak euskeratutako liburuari buruzkoa adibidez.

#### SARIAK

Gehigarri bezala, interesgarri izan litekelakoan, bere idazle denboran jasotako hainbat eta hainbat sarietako batzuk aipatuko ditut, bere garaiko idazlearen artean behintzat lan ohargarria egin zuelako frogara izan dadin. Hala nola ikus dezakegu, bertan, saririk aipagarrienak gerraostean jaso zituela, behar bada —idazleak berak dioenez— idazlan eskasiaren ondorio zuzena.

- 1936 – Euskal Olerkietako Ohorezko Aipamena Lekeition *Lora Gorriak* olerkiari.
- Euskal Antzerki II. Eguneko 1. saria *Antzerti jayan izan naiz* lanari.
- 1950 – Donostiako «Educación y Descanso»-ko 2. saria *Nekazariarena* olerkiari.
- 1952 – 1. saria *Sinisgogorra* antzerki lanari eta 2.a *Azkueren heriotzan* olerkiari Donostian.
- 1955 – Euskaltzaindiko jardunaldietan itzulpeneko 3. saria G. Simenon-en euskerazko *Aspaldiko Maigret* lanari.
- 1956 – 1. saria Saran *Axular andiari ohore* lapurterazko olerkiari.
- 1957 – Bilboko A.B.A.O.-rako idatzitako *Usoa de Alos* antzertiari Aipamen Beresia.
- 1958 – Bizkaiko Kultura Bileraren Galardoia *Arranegi* elaberriari.
- «Txomin Agirre» saria *Araibar zalduna* elaberriari.
- 1959 – «Loramendi» saria Bedoñan *Kanpaien atsekabez* antzerti lanari. Ohorezko Aipamena bertan *Bedoña* 'rako ostoa bikoitza olerkiari.
- 1961 – «Txomin Agirre» saria *Batetik bestera* elaberriari.

- 1969 - «Agora» olerki saria *Aritz jeikian* olerkiari. *Txurio Txoria* finalista Irizuri bere bigarren izenburupean.
- 1984 - «Bilbo Hiria Ipuin Lehiaketa»-ko saria *Untzorritsu* ipuinari.
- 1986 - Bizkaiko Aldundiaren saria *Iribarrea galtzen danean* elaberriari.
- 1988 - Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailako «Euskal Letretako Merezimenduzko Saria».



## 4. Gerraondoan elaberrigile

### AZALPENAK

Eusebio Erkiaga idazle oparoa izanik ere bere lana oso gutxi aztertua izan zela ikusi ondoren, egia argi bat agertzen zaigu batbatean: euskal literatura, hainbatetan urri samarra, liliputiensea dela entzuna izan arren, badirela oraindik haren ezagupidean hutsune nabariak. Eta, orain hutsune hauen garrantziaz aritu gabe, kultura baten barruan gertatzen den literatura bere kontestuan ulertu ahal izateko ezinbestekoa dugu, nolanahi ere, honek izan duen ibilbide osoaren ezagutza, aldaketen zergatiak eta klabeen erreferenteak galdu ez egiteko. Honexegatik, beraz, lan honen lehenetariko helburu bat Erkiagaren lanaren ezaugarrien ezagupidea eskeintzea izango da. Erkiagaren hitz-lauzko eta olerki lanaren ezaugarri orokorrenak adierazi izan dira noizbehinka euskal literaturaren historia egiterakoan, baina ez dute eritziok inoiz sakonera jo, beharbada ikertzaileek ezin izan dutelako beraien subjektibotasuna ahalik eta gehien urrundu, eta konparaketen ondorioz Erkiagaren lana, euskal literaturaren ikuspegi baten beharraren lehendabiziko premiatusanean, ez zen oso errepresentagarria gertatu. Garaitu izan dira, guztiz ez bada ere, hasierako premiatusanak, eta Mitxelenak bere *Historia de la Literatura Vasca*rekin aurreko saio guztiak zaharkitu zituenetik hainbat idazle ahalegindu izan dira euskal literaturaren ikuspegia ematen, bakoitzak bere erara, bai aurrekoen lanen hutsuneak bete nahian, zein ikuspegi berria eskeintzeko gogoaz. Eta heldu zaigu, beraz, orokortasunetik sakontze mailara urratsak emateko garaia. Hala gertatzen ari da azken hamarkadetan euskal kulturari; aldizkari berezien sorketa, filologiaren hedakuntza, e.a. Eta euskal literaturak beharrezko du era berean jokatzeko. Horregatik, lan honetan helmuga apal baina zehatza agertzen da.

Hortaz, eta haren lan osoaren azterketa sakona nahiko luze emango zuela jakinik, Erkiagaren gerraosteko lau elaberrien azterketa izango da bertan egingo dena, gehien bat adiera eman izan diren haien adierazgarrien oharrak ziurtatzeko asmoz, orainarteko erizpen eta balorazioak ez bait dute argudio gehiegirik eman, ez eta frogaz zehatzik ere. Eta hala izanik, lan honetan elabe-

rrietatik beraietatik aterako dira ezaugarrien erakusgarri eta adierazgriak. Ezaugarrien azterketa egiteko orduan kontutan hartu izan dira aurreko eritzi guztiak, gehienetan ez bait dira okerrak izan.

Beraz aurrera jotzeko unean, eritzi haien oharra hartu dira oinarri: Erkiagaren elaberrien olerkaritasuna, haren hizkuntza aberats eta joria, eta elaberrien ohiturazko eta hiritar kutsua. Ardatz hauetatik abiatuz egin izan da elaberrien lehendabiziko irakurketa, haien aztarnak testuetan ziurtatzeko. Honen ondoren, ezaugarri hauen banaketa eginik, bakoitzaren barruko berezitasunak aztertu eta frogen bilketa egin da.

Gai bakoitzerako ikuspuntuak bildu dira aurretik, baina lehendabizi aipatutako irakurketetatik testuek beraiek isuri dituzten balioak hartu izan dira, ezaugarrien bilketa ahalik eta aurreiritzirik gutxienekin egin ahal izateko. Ikuspuntuen azalpena gai bakoitzean adieraziak agertzen dira, ezaugarri zehatz batzuen agerpenaren arrazoiak argitzeko.

Esparru bakoitzean adierazten den guztia testuetan bildutako froga eta adibideekin erakusten da. Hala ere, badira matizak eta aldaketa sotilak bertan aztertuak izan ez direnak berauen ugaritasunagatik, nahiz eta horietako batzuen oharra emanak dauden.

Azkenez, lanaren garapenari dagokionez, esan beharra dago literatura azterketak era askotakoak izan daitezkeela, eta haien artean honako honetan agian nahiko bide akademiko batetik egin izan dela. Akademikotasunaren definizioa zehazten hasi gabe, erabaki honen arrazoi nagusia zientifismoan bertan aurkitzen da nolabait. Zenbaitetan gaitzestua izan da literatur kritika akademikoa, eta ziur nago akademikotasun soil horretatik at agertzen den kritika edo azterketa motarik gabe ez litzatekeela egongo mundua eta areago kultura aberasten duen heterogeneitatearik. Baina heterogeneitatearen barruan ahalik eta objetibotasun handieneko bide bat eskeini beharra dago, honek dituen kalte eta ongarriekin, eta honetan ikuspegi zientifikoak, zilegi den heinean, ikertzailearen gogo berezi eta aurreiritzietatik aparte agertu behar du aztergaiaren izana bera. Honetan Jon Kortazarrek behin adierazitako eritziarekin bat etorririk egin izan da lan hau berau. Eritzi subjektiboak bere garrantzia du baliabide bezala, baina ez da, berez, ezagutza zientifikoa erakusteko bidea, ezagutza zientifikorako baliagarri izan arren.

Ohar bezala, Erkiagaren elaberriei dagokienez, lan honetan aipatuak agertzen direnean honako hauetaz ari gara: *Arranegi* eta *Araibar zalduna* Kuliska Sorta-ko argitalpenetan, 1958 eta 1962ekoak, ez baita besterik; *Batetik bestera* Kuliska Sorta-ko 1962ko argitalpena erabili dugu, hizkuntzari zegozkion datuak aztertzekeo beharrezkoa bait zen, baina gainerako puntuetarako Labayru Ikastegikoarekin aritu izan gara, gaurregun eskurakorragoa dela-ta, oharretarako azken honen orrialde zenbakiak erabiliz; eta *Txurio Txoria* Labayru Ikas-

tegiko 1985ko argitalpenean, bakarra baita hau ere. Aurrerantzean elaberrien erreferentzia egiteko ondorengo laburdurak erabiliko dira: *Arranegi* (A), *Araibar zalduna* (AZ), *Batetik bestera* (BB) eta *Txurio Txoria* (TT), laburduraren ostean orrialde zenbakia agertuko delarik.

## ERKIAGA ETA HIZKUNTZA

Erkiagaren lanen erreseina guztietan aipatu izan da hark duen euskeraren jabetasuna eta haren lanen hizkuntza ederra eta joria; horregatik egoki eritzi zaio Erkiagak aztergai diren lau elaberri hauetan darabilen hizkuntzaren ezaugarri batzuk adierazteari.

### Gerraurreko erreferentziak

Aurreko 2. puntuan ikusten zen bezala, Erkiaga gerraurreko giroan murgildu zen bere literaturako lehen urratsak eman zituenean eta, gero aldakuntzen ekintzetan laguntzaile izan zen bezala, ez ideologoa, baizik eta garaiko ideiak jaso eta praktikan jartzen ahalegindu zen. Orduko ideia orokorrak, hizkuntzalaritzaren alorrean eta baita bestetan ere, Sabino Aranak eratutako bide abertzaletik zetozen nagusiki, eta, gerra zibila etena baino ez izanik, gerraostean ere euskaltzaleek gerraurreko hondakinekin hasi ziren berriz eta apalki lan egiten. Aranak eratutako hizkuntz arauak eta eritziak, ordea, ez ziren bakarrak izan, aurreko iturrietatik hartuak ere iraun zuten Aranarenekin batera. Ines Pagolak esan zuenez: «La influencia de Larramendi en el terreno léxico nunca ha sido tan fuerte como en los Juegos Florales [...]. De Larramendi no sólo se toman sus neologismos: también se extrapolan a otras categorías gramaticales [...], se imitan sus procedimientos para crear voces nuevas e incluso se cometen "errores" [...]. En los Juegos Florales se crea y mantiene durante más de treinta años una importante tradición léxica, marcadamente larramendiana, que se desvanece y es completa y rápidamente olvidada ante el empuje que van adquiriendo otros purismos y muy particularmente el de Arana Goiri»<sup>1</sup>. Pagolak ez du esaten, ordea, Larramendiren eragina ere Aranak berak jaso zuenik, hiztegi mailan bazen ere; badira adierazgarri diren zenbait hitz (*alderdi* hitza bera, besteak beste), eta horretan behintzat ikus daiteke ez zirela aztarna larramenditarrak osoro desagertu.

Gerraurreko joeren aztarnak lau elaberrietan ikus daitezke, nahiz eta *Txurio Txoria*-ren kasuan lana argitaratzeko moldatua izan 1985. urtean, idazleak berak egina<sup>2</sup>, halere honetan aztarna batzuk mantendu egiten dira era bere-

<sup>1</sup> Ines PAGOLA, «Neologismos en los Juegos Florales», *ASJU*, XVIII-1, 1984, 55. orr.

<sup>2</sup> EUSEBIO ERKIAGA, *Txurio Txoria*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutsa, Bilbo, 1985.

an. Puntu nagusi bi ikusi dira lan honetan Aranaren bidearen aztarnak ikustean: bata fonetismoaren eragina grafian eta, bestea, hiztegia.

Aranaren eritziz, idazkerak fonetismoen grafia errespetatu behar zuen — kasu berezi batzu salbu—, hau da, joera fonetiko nagusiak ahoskatzen ziren era berean idatzi behar ziren. Erkiagaren lanetan bizkaierazko forma batzuk ahoskatzen ziren moduan agertzen dira. Kasu berezi bat inesiboaren galdera da; *non* hitza *nun* agertzen da kasu guztietan:

- «etzala nunbait Txanton leenera biurtuko» (A, 95)
- «arrain-talde ugaria nun agertuko itzaroten» (A, 96)
- «oialak iñun diran astiñaldi ta zartakadak artzen zituen» (A, 137)
- «iñundik iñora ere ez zekizkitenak» (AZ, 11)
- «— Nun, bada?» (AZ, 15)
- «— Nun dago Anton Okaran?» (BB, 46)
- «Antxe bear erriko arkitetua, nunbait bere» (BB, 48)
- «pieza bakoitza nun dagoan» (TT, 33)
- «Nundik joko, zer egingo, zer asmatuko nengoala» (TT, 159)

Ikus daitekenez, elaberri guztietan agertzen dira adibideak. Hauek haietako batzuk baino ez dira, baina jokabide hau azken lanetan ere agertzen du Erkiagak, beste batzuk aldatu izan dituen arren; hala ikusten da azkenengo bere bi elaberrietan:

- «Eskola ospatsuaren izpirituak bizirik zirauan, nunbait»<sup>3</sup>
- «— Nungo dirutsuek?»<sup>4</sup>

Hala ere, badira fonetismoaren beste aztarna batzuk, noizean hitzen ahoskera dela eta (*beitu* < *begitu* < *begiratu*), edo ta hitz bien ahoskera elkartua (*beñnepein* < *behinik behin*, *bapatean* < *batbatean*, *ezta* < *ez da*, *ezpada* < *ez bada*, *etzan* < *ez zan*); aditzen «-tu» formaren /t/-aren galera (*topau* < *topatu*, *oiuztau* < *oihuztatu* [oihukatu], *susmau* < *susmatu*, *izentau* < *izentatu*, *faltauko* < *faltatuko*, *ezkutau* < *ezkutatu*, *asmauten* < *asmatuten*, *kostautu* < *kostatuta*, *botau* < *botatu*, *trabautu* < *trabatuta*, *koipeztaiten* < *koipeztatuten*); fonema baten errepresentazioa (*yok* < *jok*, *yakun* < *jakun*, *yoiakon* < *joakon*); artikularen disimilazioa eta bestelako bokalen jokaera fonetikoaren idazkera (*dantzaketea* < *dantzaketa*, *ardurea* < *ardura*, *kaixerrenkea* < *kaixerrenka*, *alabeak* < *alabak*, *telefonresnea* < *telefonresna*, *neskatilea* < *neskatila*, *taxisteak* < *taxistak*, *ormaonduan* < *ormaondoan*, *direan* < *diran*, *beian* < *behean*, *lumerua* < *numeroa*, *soldautzea*

<sup>3</sup> Eusebio ERKIAGA, *Jaioko dira*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1984, 49. orr.

<sup>4</sup> Eusebio ERKIAGA, *Iribarra galtzen danean*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1987, 65. orr.

< soldadutza); eta beste hainbeste jarriko ez ditugunak alperrik ez luzatzearren. Beraien baitan, forma hauek herri hizkuntzarekiko hurbiltasuna ere adierazten dute, baina funtsean Aranak proposaturiko grafia arauen ildotik doaz, gerraurreko urratsei jarraituz. Badira, Erkiagaren erizpide zabal honetan, joera zaharren agerpenak ere: (*gogorberaa, aaztuberaa, banaak,...*), hizkuntz aukeren artean eztabaidan balego bezala, bere euskaltzaletasunean hizkuntzarekiko borroka lakoa.

Grafia, beraz, Aranatarren bidetik doa, eta gorako adibideez gain, badira zenbait grafema berezi hauxe frogatzen dutenak, batez ere hots sabaikari batzutan, «ll» eta «ñ» kasu, baita «y» eta halako yod-ekin kontaktuan dauden fonemen grafian ere<sup>5</sup>. Badira, izan ere, aldatuz joango diren erizpideak, baina hasieran Olerti Egunetakoeek Lore Jokuetako garaietatik jasotako herentziaren kutsua detaile txikietan ere erakusten ditu Erkiagak. Erakusgarri bezala herrialdeen izenak eta haien eratorriak ikus daitezke. Kasu honetan Erkiaga Aranaren erizpideei darraie<sup>6</sup>, zenbait adibidetan ikusten denez:

«zaletasun eta moda ori Englan-etik erakarria zan» (A, 121)

Hala izan zen baita Erkiagaren gerraurreko zenbait literaturkideren kasuan ere, eta haietako batzuk bide eragile bezala izan zuten garrantziaz ohar-tuz, hobeki ulertuko litzateke Erkiagaren jokaera, Aitzol bera kasu<sup>7</sup>. Aitzolen

<sup>5</sup> Ikus honetarako Iñaki Sarringartek Labayru Ikastegiaren 1985ko *Batetik bestera* elaberriaren birrargitalpenean eginiko hitzaurrea. Obraren batuarako moldaketa egiteko erizpideen adierazpena agertzerakoan Erkiagak erabilitako hizkuntzaren deskribapena egiten du nahiko zehazki. Gainerako elaberrietako ezaugarriak honen antzekoak gertatzen dira. Elaberrian zehar agertzen duen oinarritzko hiztegiak, ordea, akats batzuk agertzen ditu.

<sup>6</sup> Aranak 1894-2-28ko *Bizhaitarra*-ko artikulua batetan, 6. zenbakian, halaxe adierazi zuen:

«establecemos en el texto euskérico la (ortografía) relativa a los nombres propios erdéricos o *extranjeros*, los cuales escribiremos en la forma que presentan en el país originario»

Era berdintsuan adierazi zuen bere *Lecciones de ortografía del Euskera Bizkaino* liburuan (Bizkaya'-ren Edestija ta Izkerea Pizkundia, Bilbo, 1896, 25. orr.):

«Los nombres propios (personales y locales) de todas las naciones se deben escribir, á mi juicio, en la forma que se presentan en el país originario, y que por consiguiente *England*, por ejemplo, nombre indígena de Inglaterra, se debe escribir así al ser citado en cualquier idioma, y no *Anglaterra* en francés, *Inglaterra* en español é *Inglaterra* en nuestra lengua»

<sup>7</sup> Ezaguna da Aitzolen paperaren garrantzia gerraurreko belaunaldian, bai nolabaiteko *talde* honen eragile bezela, bai literatur kritika lanetan, eta beronen lanetan Aranak proposaturiko bide hau argi ikus daiteke. 1930. urteko Olerti Eguneko olerki bilduman (geroago birrargitaratua: *Eusko Olerriak I*, Hordago, Donostia, 1985, 6. orr.) agertutako hitzaurrean, Aranak esandakoari heterodoxia dextentarekin atxekiz, hala dio (azpimarraketa ez da berea):

«*Alemanin* Hartman von Aue'k egindako zaldun olerkia antzin-antziñako *doixtar* idazkitzat aitortzen dute, eta lendabiziko idazle bikañentzat Klopstock olerkaria.

¿Zeintzuk *inglandera* apaindu eta ugaritu ote zuten *minstrele* zeritzaioien koplakariak ez izanik?»

heterodoxia bera jaso zuen Erkiagak ere puntu honetan agian, ez bait dio beti bide berari jarraitu, eta are gutxiago ondoko joeretara hurbilduz zihuan heinean.

«Iruharren neskatxak ingelesa zirudian» (AZ, 105)

Idazkeraren gorabeherak Erkiagaren zalantzak erakusten dituzte, bere joera ez baita beti erregularra; era batera zein bestera erabiltzen ditu forma batzuk, batez ere herriko fonetismoekiko nahasketa bide:

«uretan batbatean sartuaz» (A, 137)

Baina, era berean baita:

«— Ori bai, beñepein» (A, 138)

Horregatik idazlearen zalantzak garaiko hizkuntz egoeraren isladapena ere badira, joera berriei begiratu, baina aurreko joerak darabiltzala era berean (*bai'litzakiozan*, *ba'da* [baina *ezta*], *bai'litzan*, *ba'dauste*,...); geroagoko idazle batzuk egoera antzekoan aurkitzea garai honetan, agian, honekin ere lotu beharko litzateke<sup>8</sup>.

Hiztegi mailan ere gerraurreko eragina nabaria da, oso ulergarria bestalde, geroago gerraurreko inertiarekin apurtu nahi izan zutenen artean ere oraindik hiztegi haren aztarnek iraun zutela kontutan hartzen bada.

Erkiagak darabilen hiztegiak ere bere euskerak erakusten dituen zalantzak eta bikoiztasunak agertzen ditu, besteak beste. Bada hiztegi herrikoa, eta era berean aranatarren bidetikako hitz sorketa eta bikoteak agertzeko joera. Guzti hau ez ezik, gainera, erdal hitzak ere erabiltzen ditu, batzutan herritik hartuak, bestetan hiztegi zehatzaren faltaz, edo ta, joera berrien arabera, erro *internazional* berezi batzu mantendu nahian.

Jokaera abertzaleari gagozkiola, Erkiagak aranatarren bidetik jo zuen, aipatutako heterodoxia horretan murgilduz beti. Konturatu beharra dago Erkiagak zerabiltzan gaiak, aurrerago ikusiko denez, gero eta hiritarrago zirela —giroa gehienbat—, eta honek hiztegi berri baten beharra sortu zuela. Arazoa konpontzeko batzutan gaztelanierako hitzak erabiltzen zituen —honen zergaitiaz hurrentxoago arituko gara—, baina euskaltzale eta abertzale zen heinean arazoa konpontzeko bide «euskaldunago» bat bilatu behar zuen, eta horixe izan zen, hain zuzen, Aranak, eta Larramendik aurretik, eskeintzen

<sup>8</sup> Ikus honetarako lan honen 2. puntuko 26. oharra, 24. orr.

ziotena. Larramendiren eragin zuzena ahulduz joan zen, lehen aipatu den bezala, baina ez zen desagertu, Aranaren ideietan integratu baizik. Gehienbat erizpideen artean izan zen integrazioa, horretarako ez dago *Diccionario trilingüe*-aren hitzaurrean begiratzea baino<sup>9</sup>, argudio larramenditarrak bakarrak izan ez baziren ere. Bada, gainera, kasu berezia Erkiagaren lanen barruan: sutanpa hitza. Erkiagak *eskupeta*-ren ordezko erabiltzen du *Araibar zalduna* eta *Batetik bestera* elaberrietan:

«Joko garbiagoa zan. Sutanpaz soil-soilik atzeman, ez isillean» (AZ, 137)

Ez da, berez, oso adierazgarria, baina, beste guztiarekin batera, aranatarren iturria nolakoa zen nolabait ere ikus ahal izateko baliagarri bai behintzat, kontutan izanik Larramendik antzeko hitza sortu egin zuela hitz-sorketarako zituen erizpideetatik at: «Solas tres voces son de mi invencion, y de que estoy ufando muchos años ha, y son *sutumpa* por cañon de artilleria, *godaria* por chocolate, y *furrautsa* por polvo de tabaco»<sup>10</sup>. Oso aberatsa da, nolana ere, Erkiagaren hiztegia, iturri desberdinetatik hartutako lexikoa erabiltzen duelako. Gerraurreko hiztegiaren aztarnak, herri hiztegiarekin batera, nagusi dira haren elaberrietan. Giro hiritar honen inguruan murgiltzea garrantzizko faktorea bilakatzen da; lanbide berriak, ibiltzeko modu berriak, leku desberdinak,... Guzti hau adierazteko eta deskribatzeko beharra, baina ahalik eta era euskaldunenean, aranatarrengana jotzeko arrazoi garrantzitsua gertatzen da, beste batzuen artean. Eta une honetan agertzen da hiztegi haren erabilpen ugaria.

Badirudi, hala ere, Erkiagaren erizpideak zabaldu egiten direla aurrera doan heinean; hizkuntzari buruzko erizpide berriak indartzen doaz eta Erkiagak euskeraren hobekuntza eta aberasteko baliagarri izan daiteken guztia jaso eta erabili egiten du. Baina gerraurreko aztarna ez da galduko, ahultzen bada ere.

Zerrenda luzea gertatuko litzateke Erkiagak erabilitako hiztegi osoa jarriko bagenu, baina lan honen helburu nagusietariko bat frogak ematea zen, eta bide horretatik bidezko deritzagu adibide adierazgarria emateari. Horretarako hitz kopuru bat aukeratu dugu hitz errepresentagarrien artean gerraosteko elaberri bakoitzeko, proportzioa ahal den neurrian errespetatuz.

a) *Arranegi* elaberrian halakoak agertzen dira: *berebilla* / *beribilla* / *belbilla* < kotxea; *izpar* < berri, notizia; *burdinbidea* < trenbidea; *eresoinketa* < dantza; *opa*

<sup>9</sup> Manuel de LARRAMENDI, *Diccionario trilingüe vasco-español-latín*, 2. argitalpen faksimila, Donostia, 1984.

<sup>10</sup> Manuel de LARRAMENDI, *Op. cit.*, XXV. kapitulu, XL. orr.

*riski* < opari; *lurrun-indaharrezko bultzakiña* < lurrun makina; *orio-loidun bultzakiña* < gasolina makina; *margoztu* < pintatu; *lekaime* < monja; *izparringi* < egunkari; *burdiñorri* < latorri; *edarigaillu* < botila.

b) *Araibar* zalduna liburuan: *ausarkuntza* < ausardia; *nork-merkeagoka* < kompetentzia; *beribilla* < kotxea; *orduari* < erloju; *irudi-orri* < argazki; *urritizkiñ* < telefono; *itz-aspertu* < alkarrizketa; *akeita* < kafe; *zapata-adarrak* < takoiak; *zugatz* < arbola; *orlegi* < berde; *ugaritzaillea* < kalko; *urritizkin-belarria* < aurikularra; *sutanpa* < eskupeta; *ingi* < orri, paper; *geronei* < futurista; *inguru-ezur* < koa-druen markoa; *isekigo* < kako, esekitoki; *ibilkiñ* < ibilgailu; *garbigaillu* < ikuzkailu, labadora; *tximist-erratz* < irensgailu; *irabiatzaile laisterra* < irabiagailu, batidora; *ozkutx* < hozkailu, frigorifiko.

d) *Batetik bestera* elaberrian: *jagimaila* < solairu, pisu; *ondasun-agerkai* < akzio; *ibilkiñ* < ibilgailu; *burpilbikoa* < txirrina; *moldegintza* < moldiztegi; *bidai-beribilak* < autobusak; *ahalmendun* < ahaldun, apoderatu; *urritizkiñ* < telefono; *sutanpa* < eskupeta; *akeita* < kafe.

e) *Txurio Txoria*-n zehar: *burdñbide* < trenbide; *beribil* < kotxe; *burtarina* < taxia; *zuzengoa* < justizia; *ordulari* < erloju; *urritizkin* < telefono; *itunben-paperak* < kontratuak; *berbatresna* < aurikular; *gizategi* < gela, egongela (?).

Ikus daitekenez, hitz batzuk elaberri gehienetan agertzen dira, *beribilla*, *urritizkiña*, *akeita*, *ibilkiñ* edo *ordu(l)ari* kasu, baita beste motatako hitzak ere, aditz forma trinko batzuk adibidez (*dantzu* < entzuten du; *darakuse* < erakusten dute,...), gerraurre garaian zenbait idazlek erabiliak (Lauaxetak, besteak beste), eta honek argi erakusten du Erkiagak ez zituela bere erizpideak aldatu, hori baino beste desberdin batzukin aberastu egin zituen. Gogora dezagun, bide batez, gaurregun darabilgun hiztegiak berak gerraurreko aztarnak erakusten dituela.

Zerrenda desorekatu samar hauetan mota desberdinetako hitzak agertzen dira, baina denak gerraurreko eraginetik sortuak direlako jarri ditugu lapiko berean. Ohartu behar da, ordea, kutsu aranatarragoak diren *beribil* edo *urritizkiñ* hitzen ondoan, Erkiagak berak —gerraurre giroko sorketa bidetik arituz— sortutako batzuk ere badirela, hitz elkarketak, e.a. Erkiagaren hizkuntzarekiko filosofia irekia da izan; zeinahi gauza zilegi da euskera aberasteko, ez du hizkuntzak elaberri bat idazteko eragozpenik sortu behar... hala ere, erizpide honetatik sortzen den euskerak ahalik eta «euskaldunena» izan beharko du.

Ohartzekoa da, halaber, Erkiagak aurreko eskolatik jasotako hitz bikoteen ohitura, baina, era berean, ulergarria da oso, aranatarren tradizioetik etorritako edo ta idazleak berak arau haien arabera sortutako hitzak ez zirela herrikoiak berez, eta honela haietako batzuk ulergaitzak gertatzen zirela. Adierazi beharra dago puntu honetan, ordea, bikoteen erabilpena gerraurreko eta



gerraosteko idazleengan ikus dezakegun jokaera dela, eta ez, beraz, Erkiagak «una postura vacilante respecto al purismo» hartzearen ondorioa, Sarasolak dioen bezala<sup>11</sup>. Dena den, ez bakarrik honelako zenbait hitz darabilenean, baizik eta beste euskalkietakoak edo ta oso arruntak ez direnak agertzen ditue-  
nean ere, alboan sinonimoak edo-ta erdal ordainak jartzen ditu maiz. Honeta-  
rako bidea *edo* partikularen erabilera da nagusi, lehendabiziko elaberrietan  
batez ere:

- «kondaira edo historia ederren jabe dan Lekeitio» (A, 9)
- «Enparantza edo plaza aldeko arbolape ederrean» (A, 28)
- «zentzuneza edo ganoragabea ezpaldin ba'dona» (A, 110)
- «Itsasketa edo Nautika-ko eskola adirazi nai dogu» (A, 133)
- «entzule edo «oyente» diralakoak» (A, 135)
- «batezbateko edo neutralak guztiz izanik» (A, 140)
- «lenengo oiñean edo pisoan» (AZ, 7)
- «muxuazal edo antifaz dalakoa» (AZ, 33)
- «jagimaila edo pisu betik goraino» (BB, 46)
- «moldegintza edo irargoa jarri eban» (BB, 124)
- «beste izenez edo goitizenez Haginandi» (TT, 22)
- «intziria edo berbea egin neban» (TT, 151)

Zerrenda luzetxo, agian, baina berez luzeagoa da. Honela, ordea, ikus daiteke Erkiagak baliabide honetaz egiten duen erabilpena. Bide honek irakurketa eten egiten du eta gehienetan, literaturtasunari begira behintzat, irakurlea nekatu egiten du nahikotxo, ez bait doa testuaren erritmoarekin batera. Baina hizkuntzari begira bere funtzio zehatza du, ulermena ziurtatzeko modua da alegia, eta, dudarik gabe, Erkiagak elaberrietan hizkuntzari beste guztiari bezainbat garrantzi ematen dio, hizkuntza, gutxienez, nobelaren erdia bihurtzen da idazle honen eskuetan, horixe bait da idazleak aurreko garaitik edandako jokaera.

Badirudi, bestalde, idazlea ohartu egiten dela bide honek testuari ematen dion astutasunez, «A edo B» formula honen zantzu adierazleak testuaren olerkaritasun eta literaltasuna galerazi egiten duela nolabait, eta kalte hori leuntzeko asmoaz agian, bikoteak agertzeko beste era desberdinak erabiltzen ditu; koma jarri, bigarren hitza gioi artean jarri, hitz biak kopula baten bitartez alkatu edo, noizean, hitzak jarraian zuzenean jarri, eta bestelakoak:

- «*matxiña* —grua— andiaren ingurura eldu ziranean» (A, 100)
- «alkarrekiko —konbinazioká— egin ondorean» (A, 136)

<sup>11</sup> Ibon SARASOLA, *Historia social de la literatura vasca*, Akal, Madrid, 1982, 100. orr.

«lurraren eta itsasoaren betartea, arpegia!» (A, 163)  
 «Eskaparate ta erakus-leio zabal eta edatsuak zituan» (AZ, 6)  
 «Gezur-muxu estuak dituzte guztiak; antifazak alegia» (AZ, 36)  
 «beñere *exitu* ta arrakesta aundirik izango, nik uste» (AZ, 109)  
 «nora ete dabilz gau-jagolak, herriko iserenuak?» (BB, 45)  
 «ahaldun izateko; diputau» (BB, 123)  
 «Hartu ete dau erkidea, sozioa?» (BB, 212)  
 «ibilpiderik bakoa, edo behintzat, errena, ointringoa» (TT, 48)  
 «burtarinen bat, taxiren bat behar dot» (TT, 49)  
 «Aspaldi honetako nortasuna personalidadea» (TT, 66)

Esanguratsua da elaberrigintzan diharduen heinean lehendabizi aipatutako *edo* disjuntiboan urrituz doala, ondorengo aukerak ugarituz doazen bitartean; bada, beraz, idazlearengan, azalduz joango garenez, halako jokaera autokritiko bat, haren posibilitadearabera, eta honen bitartez lortu egiten du, nolabait, bere elaberrietan urratsez-urrats bilakaera ez oso haundia baina guztiz adierazgarria jasotzea, obren literaltasunari ere gero eta garrantzi haundia emanaz. Prozesu autokritiko honetan kanpotik jaso ahal dituen datu eta eritzi guztiak bildu eta, berekiko epaiketa baten ondoren, baliagarri eritzen dituen guztiak erabiltzen ditu. Honek, aldi berean, aurreko molde garbizaleen jokaeraren ahulketa eta joera berrien agerpena erakusten du, garai honetan irakiten hasia zen hizkuntzari buruzko eztabaida eta normaltasunerako bidearen hasiera erabateko faktorea izan zelarik, dudarik gabe, eta kontutuan izanik halaber Txillardegik 1957. urtean —*Arranegi* bera agertu baino urtebete lehenago, hain zuzen— argitaratutako *Leturiaren egunkari ezkutua* eta 1960.ean «Txomin Agirre nobela saria»-n *Araibar zalduna*-ren lehiakide izan zen *Peru Leartzako* elaberriarekin, nobelen eduki molde abertzaleekin apurtzeaz gainera prozesuan zegoen hizkuntzak literatura egiteko zuen ahalmena frogatu zuela.

### Bide berritik ere

F. Krutwig-ekin Julio Urkijo Institutoan izandako jardunaldiak eta geroxeago Mitxelena eta Villasanteren eritzien ezaguera bitartean izanik, Erkiagaren hizkuntz erizpideak, esan bezala guztiz eraberritzen ez badira ere, zabalduz doaz eta gerraurreko bideari ezaugarri berriak eransten dizkio. Erkiagaren beraren hitzetan erizpide zabaltze honen oinarriak agertzen dira: «Egunean bizi bearra ta ari bearra dugu. Iragana iragan zen. Leengo moduak baliteke orain sarri askotan, egoki ta eragingarri ez izatea»<sup>12</sup>. Honen ondorioz Erkiaga

<sup>12</sup> «Kezkak eta koxkak», in *Egan*, XI, 1958, 55. orr. Eta ohartu, bidebatez, testuan erabiltzen dituen aditz formetaz.

saiatzen hasten da erizpide berrietatik jotzen, eta hor dira, erakusgarri bezala, 1952ko *Sinisgogorra* antzerki lana edo 1956ko *Axular handiari ohore* olerkia, biak lapurteraz.

Testuetan agertzen diren elementuak ez dira beti eritzi aldaketaren ondorio zuzena, batzutan hizkuntzaren murriztasunak azalpen eta deskribapenak egiterakoan behartu egin zuen idazlea erdal ordainak erabiltzera edo herri hiztegi «ez hain jatorra» erabiltzera, baita beste euskalkietako formak jasotzera ere, baina gerraurreko hitz sorketaren bidetik ez aritzea bera agertzen da hemen adierazgarriena, adierazpen arazoak gainditzeko egiten dituen aukerak baino.

Gauzak honela, jokaera honen aztarnak gerraurreko arauekin apurtzeko haien erabilpena ukatzean agertzen zaizkigu hain zuzen ere. Aukerak ez dira ugariak izaten, baina badira, izan ere; gaztelaniazko hitzak zuzenean erabiltzea —batzutan komila artean edo ta italikan jarriak— litzateke haietako bat; noizean ere, eta giro «berria», hiritarra eta honen izaera berezia adierazteko, beste hizkuntzetako hitzak agertzea (frantzes eta ingelesera nagusi); eta baita euskalkien erabilpena, baina honetan azalpena egin beharra dago. Euskalki minoritarioa den lapurteraz ari gara batez ere —baita euskera zaharraren erabilpenaz ere, eroan aditzlagunaren erabilera lakoak, adibidez—, besteetaz egiten duen erabilerak Erkiagaren joera herrikoia eta ideia bereziekin du lotura handiagoa lehen aipatutako hizkuntz jarrera berriekin baino.

*Arranegi* haren lehendabiziko elaberria atzerago geratzen zaigu honetan besteak baino, baina ezin uka daiteke *aurkientza*, *zilo* eta halako ekialdeko hitzen agerpenak bereko garrantzia duenik, ez eta «*espezialistak*», *kafesnea*, *debate* (hau elaberrian ere italikaz dator), *manetofonika*, *kontrolpean*, *konbinazioka*, *korresponzala* eta antzeko hitzen erabilpenak jokaera desberdina erakusten duenik *urrutizkin*, *beribil*, edo *akeita* bezalako hiztegi baten ondoan. Lixtura zahar eta berrien elkarrizketaren fruitua dugu baita beste elaberrietan erabiltzen duen euskera ere; batetik aurretik aipatutako gerraurreko jauginak eta bestetik ekialdeko euskalkien aztarnak (*segurantzia*, *bertzalde*, *hegalausi*, *sirats*), atzerriko hizkuntzen agerpena (*cake*, «*one, two,...*», *short*, «*Very old pale*», *standard*, «*laissez faire*», «*La feuille d'automne...*») eta, batezere, gaztelaniazko hitzak jasotzea (*metalezko takoiak*, *negozio*, *kotxea*, *taxia*, *tebeo\**, *hotel\**, *jardin\**, *klaxon\**, *alfombra* [sic], *radio*, *divan\**, *exotiko\**, *exitu\** [\*dunak testuan italikaz berez]), azken hontan argiagoa da erizpide bien alternantzia, elaberri berean bikoteak ageriz, erizpide bien adibidetakoak, honelako ahapaldiak ikusiz:

«Araibar zaldunaren gelan, *telefonoak* axut egin du, isilari bere miesa fiña urratuaz.

Zalduna lozorropean dago oindiño, agian. Alaz ere jaso du *urrutizkiñaren zera*» (AZ, 41; italika guk jarri dugu)

Hura bezalakoak dira baita *negozio / garatz, takoi / zapata-adar, radio / irrati, kotxe edo automobil / beribil* (batzutan *popo* forma kolokiala), *taxi / burtariña, telefono / urrutizkiña, tren* / *bultzia, kafe / akeita*, eta beste hainbeste.

Guzti honetatik ondorio zehatza atera genezake: harrezkero euskal literaturaren bideak aldatzen hasiak baziren ere, berriztapen batzu ageriaz —Etxanizen olerkia, neurri batetan, edo Krutwigek *Euzko Gogoa*-n argitaratutako olerki urriak, baita Txillardegiren narratiba berria kontutan hartuaz ere—, Erkiagak, gerraurreko bideari uko egin gabe, bere erizpide-heterodoxia eta garaiko aldaketetarako gertuera progresiboarekin aurreko tradizioko garbiza-lekeriatik ihes egiten du, beraietatik edan izandako idazleek hartu beharreko bidea erakutsiz.

### Joera bereziak

Azkenez, hizkuntzari gagozkiola, nabaritu beharreko puntua gelditzen zaigu. Ezin da Erkiagak duen hizkuntzarekiko jarrera osoro ulertu haren bide nagusia ezagutu barik, eta horretarako ikusi behar da idazle honek izan zuen elaberrigintzarako hasiera, hots, Erkiagak *Arranegi* idatzi zuenean Irigarayren hitzen eraginak izugarritzko garrantzia izan zuela, honek adierazi bait zion olerki nahiko zegoela euskeraz hitz-lauzko lanen ondoan, baita bizkaierazko elaberrien urritasunaz ohartu ere. Erkiaga olerkaria zen, eta hark zuen euskal nobelen ezagutza oso murrizta zen, baina euskaltzale amorratua izanik, euskeraren alde ekin behar larria edozer egiteko bultzatzailea zitzaion eta erabakia hartu zuen: elaberri bat idatzi. Nondik eta nola hasi?... Idazleak berak zeukanetik egin behar, eta halaxe egin zuen. Eta hark zeukan altxorrik nabarienak bere euskeraren ezagutza eta hau berau aberastu nahia ziren.

Erkiagak herriko euskeraren ezagutza sendoa zuen, baita harekiko maitasuna ere. Krutwigek lapurtera klasikoarekiko harremanetan jarri zuen, hiztegi oinarritzko bat eta aditz forma batzuk emanaz, eta euskera batu baten normalizaziorako izan ziren eztabaidetan ere, gipuzkera ezagutzeko aukera behintzat izan zuen idazle lekeitiarrak garai hartan. Herri iturri guzti hauetatik edan zuen Erkiagak, eta haien bitartez bere euskera aberastu egin zuen, ezagutu eta dastatu ahal izan dugun hizkuntza joria eskeiniz. Horrela elaberrietako bat gipuzkeraz idatzi zuen, *Araibar zalduna* hain zuzen, eta gainerakoetan beste euskalkietako formak erabiltzen ahalegindu zen, ekialdekoak, gorago ikusi bezala, zein Nafarraldekoak edo Gipuzkoaldekoak; halako *bertze, utzi, aski, ezami, ertsi, imintzio, etortzeaz,...*

Erkiagaren hiztegi herrikoa haundi eta aberatsa da, dudarik gabe, eta honetan ere azaldukat hitz bikoteen joera agertzen du, ez da, beraz, adibide zerrenda luzearen beharrik honetarako. Baina bada baliabide herrikoen artean berebiziko lekua duen alor mamitsua: esapide eta atsotitzak. Edozein hiz-

kuntzaren izaera, baita hizkuntz hori erabiltzen duen kulturarena ere, deskribatu egiten duten modismo eta errefracuak zenbakura erabiltzen ditu Erkiagak, beti era egokian. Hauxe da, agian, azken hamarkadetako euskal literaturak herri kulturatik lehen beste jaso ez duen espresabidea, salbuespenak salbuespen.

Atsotitz eta esamoldeak ez dira beti era berean agertzen. Gehienetan pertsonaien ahotan jarriak izaten dira, nahiko egoki ordea, atsotitzak eritzi baten espresabidea izan ohi direlako, edo ta gogoetarena, eta subjelibotasunez kargatuak, beraz:

- «Edertasuna, osasuna, iraute gutiko ondasuna...» (A, 88)
- «Guzurra esan eban mendian, neu baiño leen zan errian» (A, 150)
- «auzokoaren samiña, ene atsegiña» (AZ, 26)
- «Landare batzuentzat, lurrik geienak dira aukerako» (AZ, 35)
- «Esana bat, eta egiña bi...; ez siñistu ezer mutil zaarrari» (AZ, 50)
- «Auntzari eta andrazkoari, eman luzea lokarri» (AZ, 80)
- «Han bere, txakurrak ortozik» (BB, 155)
- «emonak, urritzea dauka» (BB, 172)
- «Kalte dagianak, bizarra lepoan» (BB, 210)
- «Dagonean, bon-bon; ez danean, egon» (BB, 212)
- «Etorri-ala joan, Mari-Joan» (BB, 224)
- «Akerraren adarrak okerrak dira» (BB, 238)
- «Begi biribil handiak, kostaldean takartaren begiak, esakunea» (TT, 26)
- «urliaren etxean no da to» (TT, 30)
- «Buru hainbat aburu» esakune zaharrak...» (TT, 66)
- «Otsoak otsoari laztan» (TT, 76)
- «Otsoa aipatu, otsoa agertu» (TT, 158)

Atsotitzen zerrenda ez da nolana hikoia, luzeagoa izan badaiteke ere, ez euskal atsotitzak bakarrik, gainera, erdarazkoak ere erabiltzen ditu nohizbehinka:

- «Goiz gorrian, jeiki arren, ez-paita eguna leenago zabalduko» (AZ, 59)
- «Zahartzaroan nafarrerria. Holantxe dino erdal-esaera batek» (BB, 179)
- «ihesi doan arerioari, zidarrezko zubia» (TT, 163)

Baina narratzailearen itzala indartsua da Erkiagaren elaberrietan —geroago elaberrien ezaugarriak aztertzean ikusiko denez—, eta honelakoak haren eskutik datoz batzutan, idazlearen eta kontalariaren subjelibitatea erakutsiz, edo nohizbehin honen presentzia baino ez dutela erakusten, eta testua luzatu egiten dutelarik, honek dakartzan kalte guztiarekin. Halere, hizkuntzaren ikuspegitik, Erkiagak duen herriko euskeraren ezagutzaren erakusgarri dira, zalantza barik:

- «Amabiak, bota platerera begi biak... esaera zaarra» (A, 109)  
 «Baina jaiak ziran eta... gorostian gorosti» (AZ, 134)  
 «Azeria beti azeri, uleak ulduta gero bere...» (BB, 69)  
 «esaera zaharra gogoan ebala, nunbait: "azkordinak osatuteko zerik onena, babearen bigarren lorea"» (BB, 73)

Erkiagaren euskeraren indar espresiboa, ordea, esamoldeetan datza hain zuzen. Hauen bidez hizkuntz plastiko eta bizia, freskoa lortzen du. Eritzirik aurreratu gabe, idazle honen elaberriak bere garairako ere zaharkituz zihoa-zen joeretatik isuriak baziren ere, berak erabili zuen hizkuntzak elaberriei balio berezia erantsi zion. Esamoldeok hizkuntz literarioa hizkuntz funtzionaletik desberdintzeko baliabide ezin egokiagoak bihurtu ziren Erkiagaren eskuetan, haren euskerari estilo herrikoi eta, era berean, aberatsa eta olerkitasunez beteua emanez. Honetan Bernardo Atxagak zioen bezala «Estilo-eza, hori da: lexiko monotonoa (adjektibotan batez ere), sintaxi akademikoa. Lengoia informatibotik nekez bereiz daitekeen lengoia literario bat, hain zuzen ere, arnas pertsonalik gabekoa ia»<sup>13</sup>. Erkiagak bere hizkuntz-estiloa sortzea lortu egin zuen, eta hartarako herri iturriek garrantzi izugarria izan zuten:

- «Amandre eguzkia ba goian polito polito» (A, 10)  
 «A zuan moskorra, maria-ta erdikoa gitxienez!» (A, 18)  
 «Nortzuk? eta... Karel, eta Mordillo» (A, 44)  
 «eta ganetik naia gatzatu, jan-ala, bete arte, ok-eginda toton esan arte» (A, 120)  
 «Txakur-amesak izan eitekezalakoan» (BB, 48)  
 «Herriko haizea dagoala, hegoe-haizea, andren haizea» (BB, 49)  
 «ez zan ahuntzaren gauerdiko eztula» (BB, 75)  
 «bakotxak bere opilari su egiten ahaleginduten ziran» (BB, 134)  
 «lapurrak aho bete haginez geratu ziralako» (BB, 185)  
 «laterriak ba ditu, jakina, bereak eta bost» (BB, 199)  
 «Lan egin berak? Egin daiala Txitxi-k ala Txamorro-k» (BB, 215)  
 «Baina tiro artean ibiltea ez da, gero, ogiaren ganeko ezta!» (BB, 228)  
 «halako ta holako, urlia ta sandia ta berendia erabili nituan» (TT, 96)  
 «biok aho bete hazurrez geratu ginan» (TT, 114)

Hortaz, eta erakutsitakoaren ondorio gisa, agerian dago Erkiagak darabilen hizkuntzaren aberastasuna, idazleak duen euskeraren jabetasuna, baina, batez ere, Erkiagak hizkuntzari, euskerari berari, eman zion garrantzia elabe-

<sup>13</sup> Bernardo ATXAGA, «Euskal narratibaren arazoak», in *Jakin*, 25, Donostia, 1982, 98. orr.

urriak eratzean. Haren izaera euskaltzalea kontutan izanik, gerraurretik edandako ideologiaren bidetik aritu zen hasiera batetan, eta gerora begira haietatik baliagarri zitzaizkionekin geratu zen: euskeraren «euskalduntasuna» mantentzea ahal zen heinean izango zen erizpideetarik garrantzitsuenak duda barik, baina ez zuen inolako garbizalekerietatik jo, galtzeko bidean zegoen euskal hizkuntzarentzako kaltegarri ere izango zitzaion ikusi omen zuen, eta iturri bila ibili zen nekatugabe. Hartaraino bazuen nora jo, norengana hurbildu. Beharbada ez zuen inolako aurreproiekturik hizkuntzaren inguruan, inolako asmo berezirik, baina euskeraren jorratu eta berritu beharra argi ikusten zuen eta hari berari ekin zion gogor. Hizkuntzaren normalizaziorako bideen bila zebiltzanen ondora hurbildu zen, eta haien eritziak apalki irentsi zituen, baliabide berrien aztarnak lortu nahian, eta aurretik zituen ideiekin bateratu zituen bere erara, bere «laborategi linguistikoa» saiaketei ekinez. Eta guzti haren oinarrian, sutarririk sendo eta fidagarriena, hurbiletik ezagutzen zuen herriko hizkuntzaren altxorra, herriak berak isurtzen zuen euskal espresabideen lapiko zahar eta gero eta ahaztuagoa.

Erkiagak bere baitan bildu zituen elementu guztiak berebiziko euskera batua eraiki zuen, hura bait zen elaberriak egin zitueneko betebeharrak nagusia, eta hartarako bere ahalegin osoarekin ekin zion bai euskera ikasteari, bai euskeraz sortzeari. Baina ez dugu haren elaberriak honetan soil-soilik geratu zirenik pentsatu behar. Hau izan zen, ordea, esan bezala, harentzat ardatz nagusi bat, nagusia seguruki, *Arranegi* bere lehendabiziko elaberriaren hitzaurrean adierazi zuen bezala:

«Oraintxe, Euskera beste izkuntzen menpean eta euskaldunen zabarkeriz gero ta galtzenago dogun egunotan, gure mintzaira zaarrean taiuturiko lan apal au dot opari xume ta urri; maitetasunez bete, ostera.»

#### OLERKARI BATEN ELABERRIAK

Erkiagaren lanaren azterketak urriak izanik ere, agertu izan dira euskal kritikan zenbait ohar eta eritzi hari buruzkoak. Hauen artean Erkiagaren hitz-lauzko lanek isurtzen duten olerkitasunari buruzkoak nahiko bat datoz. Idazlearen lehendabiziko nobelak argitaratu zireneko garaian agertutako erreseinaren artean, Koldo Mitxelenarenak ohar haundiagoa jaso zuten gerora. Hura izan zen Erkiagaren estilo lirikoa goraiatu zuen lehena: «Argi eta garbi agerida, edozein orrialdetan, egillearen «olerkaritasuna» eta lirikarako ixuria», esaten zuen *Egan* aldizkarian 1958. urtean, *Arranegi*-ri buruz aritzean<sup>14</sup>. Eta hauxe

<sup>14</sup> Koldo MITXELENA, «ARRANEGI, *Eusebio Erkiaga*», in *Egan*, XI, 1958, 102-103. orr.

geratu da Erkiagaren elaberrigintzaren ezaugarri nagusietarik bat, bestea, eta nagusiena ziuraski, haren hizkuntzaren aberastasuna izanik. Halaxe ere adierazi zuen J. A. zelakoak 1962an agertutako *Araibar zaldunari* buruzko erreseina labur batetan: «Buena novela, admirablemente escrita en un rico vascuence; el poeta, a veces, supera al novelista»<sup>15</sup>.

Erkiagaren isiltasun epeak bere lanari buruzko kritika eza ekarri zuenaldi luze batez, eta 1982. urtean Iñaki Kamino-k, euskal literaturaren historiatik zenbait idazle marjinauak berreskuratu nahian, Erkiagari buruz halaxe dio berriz ere: «ederrerako sen berezia du Erkiagak. Bere elaberriaren habe sendo bat da hau, olerkaria zela bagenekien, eta batzutan, eleberrigile baino olerkari dela iruditu zaigu»<sup>16</sup>. Honen ondoren agertuko ziren eritziak beti bide beretik aritu ziren, gehienetan ere inolako ezaugarrien deskribapenik ematen ez bada ere —Juaristi edo Sarasolaren kasuetan, adibidez, Erkiagaren obraren balorazioa aipua baino ez da beraien lanetan—. Nolanahi ere, 1985an *Batetik bestera* berrargitaratu zenean Iñaki Sarriugartek agertu zuen, sarrera moduan, Erkiagaren lan baten lehendabiziko azterketa serio bat, eta bertan Mitxelena eta J. A. delakoaren eritziak jaso zituen ezaugarri honi buruz ari zenean. Sarriugartek *Batetik bestera* obrari buruz zehazki diharduenean, «sarri ere sarri azalerratuko da poeta» dio, nahiz eta aurretik datu interesgarria adiera ematen duen; «*Batetik bestera* hizkera trinkoagoz idatzita dagoan arren...»<sup>17</sup>. Sarriugartek ohartzen duenez, aldaketa somatzen da Erkiagaren estiloan. Baina adibide urri batzu jarri ondoren, Sarriugartek ez du zehazten zertan datzan idazlearen olerkaritasun hori.

Azkenez, 1990an Jon Kortazarrek bere *Literatura Vasca. Siglo XX* argitaratu zuen eta bertan Erkiagaren lanari ataltxo bi eskeintzen dizkio; lehendabizikoan haren olerki lanari buruzko oharra ematen ditu, eta bigarreanean, Erkiagaren elaberriaz ari delarik, halaxe dio «el cuidado exquisito que Erkiaga pone en la lengua acercan la novela al género lírico»<sup>18</sup>, *Arranegi-ri* buruz, eta *Batetik bestera* elaberriaz arituz «puede encontrarse [...] una concepción "total" del lenguaje y el tono lírico de su obra»<sup>19</sup> jarraitzen du. Halere, ez du honek ere inolako erakusgarririk ematen, ulergarria bestalde, bere lana nahiko panoramikoa dela kontutan izanik.

Arazoa ustez baino sakonagoa da. Kritikalarri guztiak aritu izan dira Erkiagaren estiloan ikusten den olerkaritasunaz, baina batek ere ez digu erakutsi

<sup>15</sup> J. A., «Erkiaga, Eusebio, *Araibar Zalduna*», in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País (B.A.P.)*, 1962, 214, orr.

<sup>16</sup> Iñaki KAMINO, «Eusebio Erkiaga Alastra (Endaitz)», in *Argia*, 957-58, 1982-XII-26, 41-43. orr.

<sup>17</sup> Iñaki SARRIUGARTE, «Erkiagaren giroa eta bere nobelagintza», in Eusebio ERKIAGA, *Batetik bestera*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1985, 25. orr.

<sup>18</sup> Jon KORTAZAR, *Literatura vasca. Siglo XX*, Etor, Donostia, 1990, 116-117. orr.

<sup>19</sup> Idem.



olerkaritasun horren aztarnarik. Galdera ezinbestekoa zaigu orduan; olerkaritasuna non datza, zertan da? Eta bila hasi ahala arazoak ageriz doaz, betiko arazo sotilak: prosazko poesia eta prosa poetikoa. Zer da prosa poetikoa, zeintzuk dira haren ezaugarriak.

Aurreko eritzi guztien artean bat bakarrak ematen digu pista bat, Iñaki Kaminok *Aygia* aldizkarian agertutakoak «Etenaldiak badira ere deskribatzen hasten denean. Izan ere, deskribazioa askotan nagusitzen zaio narrazioari»<sup>20</sup>. Elementu garrantzitsu bi aipatzen ditu Kaminok: etena eta deskribazioa. Olerkia, zentzu erromantiko batetan hartuaz —Erkiagaren garaikoari hobekien doakiona, bide batez—, une bateko estasi moduko espresabidea izan da tradizionalki, atemporala, geldia; behatze eta senditzearen ondorio zuzena. Olerkia, honela ulertua, ez da berez oso dinamikoa, ez du akziorik ematen, egoera baten deskribapena baizik. Honela, Erkiaga olerkariari olerkia berez bere iretzen zaio deskribapenak egiten dituenean, eta bertan etena eginaz senditzen duenari irtenbidea ematen dio. Deskribapen hauetan ikusten dira, gehien, olerkiak berez darabiltzan elementuak, eta hauetako batzuk aztertuko ditugu hurren.

### Formaren aldetik

Morfologikoki aukeratutako elementu batzuk adjetibazioa, erritmoa, parekotasunak eta hitz zerrendak izan dira. Baina konparaketa, argibide egoki gertatzen dena, egin ahal izateko, bestelako elementu batzuk ere —dinamikoagoak berez— aukeratu izan dira aurrekoekin kontrajartzeko, elipsia edo esaldi motak adibidez. Elementu hauek ez dira, noski, olerkian soilik gertatzen, baina maiztasunaren arabera nagusi dira hartan elaberrian baino, eta baliabide hauetaz egiten den erabilpenaren heinean nobela batek olerkaritasun kutsua nabariago edo epelago erakusten du. Ez da elaberri baten olerkaritasuna elementu hauen agerpen soilaren ondorio hutsa, baina baliabide hauek beraien garrantzia dute fenomeno honetarako.

*Erritmoa* da testuari beste olerkaritasun puntu bat ematen diona. Baina erritmoaz ari garenean ez gara istorioaren erritmoaz, gertakizunen erritmoaz ari, testuak irakurketarako sortzen duen erritmoaz baino, olerkiaren musikalitasuna testuan agertzen denean gertatzen denaz. Honetan Erkiagak baliabide desberdinak erabiltzen ditu. Batzutan aliterazioak, noizean hitz-jokoak hots-jokoak bihurtuz:

<sup>20</sup> Iñaki KAMINO, Op. cit., 42. orr.

«aztertu, arteztu ta erabilten zituan» (A, 88)

«dundü oro, alderen alde, odei garau batek ere orbanik txikiena egiteke»  
(A, 155)

«agur egin die, erdi agur edo ordi agur» (AZ, 40)

«pakete zabal eta zapal bat» (AZ, 112)

Baita barne errimak ere, Erkiagak hartarako duen gaitasun bereziaz eta aurretik landutako eremuaren oihartzunari so eginez:

«Azala legun, bardiña, margo ta kolore bakar bategaz egiña» (A, 8)

«Biotz bateri egiñiko eskea, irudi atsedin bati egindako galdea» (A, 93)

Elementu hauek, ordea, gero ta urriagoak izango dira idazleak nobelagin-tzan aurrera egiten duen heinean. Badira, halere, erritmo poetiko hau eratze-ko laguntzen duten beste elementuak.

*Parekotasuna* horietako bat da. Parekotasunak, edo paralelismoak —gerraur-reko joera bikotezaleari atxekiz—, era batean errepikapenak dira, ez beti identikoak, baina eskema berdin baten errepikapenak dira nolabait eta, jakina denez, errepikapena da, eredu hartua dugun olerki tradizionalan, erre-kurtso morfologiko nagusia; aliterazioa hotsen errepikapena dugu, errima ere errepikapena da, baita metrika bera ere erritmo baten errepikapena. Beraz, parekotasunek erritmo berezia ematen diote testuari, eta elaberri batean baliabide honen agerpena ugaria izanik olerkiaren aztarna uzten dio irakurlari. Ez dugu ahaztu behar, bestalde, elementu batzuen errepikapenek duten balio semantiko ezkutua, bertan aurkitu bait dezakegu, seguraski, Jon Kortazarrek mirespenez aipatzen duen Borges-en «kausalitate magikoa»-ren ardatzetariko bat<sup>21</sup>. Indar semantiko haundiko errepikapen horietariko bat anafora da, du-darik gabe. Anaforak, errepikatu baino gogorarazi egiten du aurreko elemen-tu garrantzitsuren bat, irakurlea ezin da ahaztu elementu horrezaz eta anafo-raren bitartez idazleak oroitarazi egiten dio, gehienetan ere irakurlea elementu horren beste agerpen bat susmatu egiten du, haren zain egoten da nolabait —ez beti modu konziente batetan—, nahiz eta beti hala ez gertatu.

Erkiagaren errepikapenak, parekotasunak bereziki, aipatutako zantzu ana-foriko hori dute batzutan, eta noizean ere idazleak nahita eginikoak dirudite:

---

<sup>21</sup> Ikus, adibidez, Kortazarren «Gaurko narratiba eta euskal literatura», in *Jakin*, 25, Donostia, 1982, 86-93. orr. Parekotasunen garrantziari buruz ere Joaquín Jordá-k, Sklovski-ren tekniken inguru-an ari zelarik («Prólogo», in Victor Sklovski, *Cine y lenguaje*, Anagrama, Barcelona, 1971, 19. orr.), halaxe esaten zuen:

«Insistencia sobre frases-estribillo [...] o la utilización del paralelismo o del efecto llama-do por Sklovski de lentitud, [...] en algunos casos pueden llegar a constituir el verdadero tejido narrativo»

«irudi atsegiñak, barruan alako zarrastada gozoa eragiten euskun-ta» (A, 8)  
«betartea argiz bete, eta barruan alako irrista edo zirrara ebilkigun» (A, 10)

«Agur, ba, Zuriñetxu: or gelditzen zarie neskatilla garbi, emazte zintzo ta ume errubageok legorrekoen kontura, gu itsasoak austen gabiltzan artean» (A, 83)

«“Or geldituten zarie, emazte zintzo, neskatilla garbi... legorrekoen kontura lagaten zaituegu”, esan oi dabe kanta zaarretan» (A, 85)

«Ez zan beingoan eldu etxera, ta orduan, ama jagita arkitu eban» (A, 158)

«Ez zan, ez beingoan asi berotuten neskatilla» (A, 158)

Baina gehienetan erritmo bat sortzeko bide izaten dira, deskribapenetan gehienbat, bertan olerkaritasunaren zantzua nabariago egiten bait da. Hauek egitura txikiak izaten dira maiz; izena eta adjetiboa, izena eta izenlaguna, kopulazio eliptikoak —oso laburrak— eta antzekoak, noizean ere geroxeago aipatuko ditugun hitz zerrenden antzekoak zuzenean:

«Isiotu ta itzali, izetu ta itzungi» (A, 68)

«barriren barri gose-aroa etenaz, gose ordez ase, bear-izanaren ondoren ogia, esku utsen betegarritzat zidarra, nekeen ostean poza bialdu eusten kaitarrai» (A, 114)

«guzur biribil, laidogura zikin, iraingogo makur zeitekeana...» (A, 158)

«begien aurrera etorkion: aren irudi atsegin, aren begirakune goxo, aren txera maitekor, aren agur-egikera xamurra» (A, 172)

«Aita, geisorik; untzia... galduta; biotza... lagunez alargun» (A, 179)

«antxen zegoan gure gizona bere barruko zeraz mingostasuna gustorago milizkatzen, oiñazepan bere gogorapen-eiotzen. Samiña, samiñagotzen; nekea laztantzen, agian» (AZ, 58)

Noizean ere, ahapaldi oso bat erritmo berezi honekin eratua agertzen du, eta orduan olerkaritasunaren itzala dator irakurlearen gogora, nolabaiteko musikaltasuna sortaraziz, argiago nabari daiteke honelakoetan lirikotasun hori:

«An egoan Kantauri itsas-kolko aundia, aratz, txukun, urdin. Antxe kai babesgarria, an ondartzak ederrak oso, an ibai gardena, an ugarte jasankorra —itsasoari bekoz-beko itsas-gizona iduri itxaropenez gaiñez, etorkizunari begira bai'legoan—; antxen ikusmeneko eleizea, an zumardi berdez jantzia, an Tala-ko arri bakarrekoko kurutze ederra, an kaigana, an bere...» (A, 185)

Egia esan, elaberri batetik bestera, lehendabiziko *Arranegi*-tik *Txurio Txoria* garai honetako azken elaberrirantzako bidean, Erkiagak baliabide honen era-

bilera urritu egiten du, errekurtsio honek gorago aipatutako etenak sortu eta ekintzak geldiarazi egiten bait ditu, eta errekurrentziaren ordaina testuaren astuntasuna suertatzen baita gehienetan, eta Erkiaga —agian baino ziur— ohartu zenez, bere estiloa aldatuz zihoan, Sarriguartek adierazi duen bezala<sup>22</sup>. Ez da batere kointzidentzia elaberri «moderno» —zentzu zabalenean— sortzen hasten denetik tiau lirikoa duten elaberriek kutsu monologala hartzea, lehen pertsonako narraketak jasotzen duen garrantziarekin batera; honela deskripzio poetiko luze eta subjektibo horiek sinesgarritasunean eratu dira. Juaristik, gehiegikeria samarrarekin, ohartu zuenez: «El uso de la narración en primera persona y del discurso interior se presentaba así —y la narrativa actual sigue resintiéndose de ello— como la única vía posible para salvaguardar la verosimilitud del relato en la narrativa urbana»<sup>23</sup>. Honen adibidea Txilladegiren Leturiak «Zerubide»-n dituen gogoetak ditugu, hain zuzen, edo ta Julio Llamazares-en *La lluvia amarilla*, nabariago. Halere ez dira guztiz desagertzen, baina ez dira, dagoeneko, lehendabiziko bi elaberrietan, *Arranegi*-n batez ere, bezain esanguratsu.

Beraz, erritmo poetiko horretara doazen baliabideek ematen dute olerkari-tasuna testuari, eta honetan azken puntu biak oso garrantzitsuak dira: *adjetibazioa eta hitz zerrendak*. Esan dezagun, lehenbailehen, batzutan elementu biak gauza bera bihurtzen direla, adjetibazioa, askotan, adjetibo zerrenda gertatzen bait da. Errekurtsio hauek presentzia garrantzitsua dute Erkiagaren elaberrietan, gero eta urriago direlarik ere, behin eta berriro ohartu den bezala. Honetan *Arranegi* agertzen da adibide nagusi, elaberri hau berez Lekeitioren eskeinutako hitz-lauzko olerkia dugu eta. Adjetiboak erabiltzeko era honetan Erkiagak Txomin Agirreren prosa deskriptiboa gogoratzen digu, nahiz eta honetan bakarrik ez izan ondarrutarrarekiko antza, geroago ikusiko denez —pertsonaien arketipo batzu, giroaren tratamendua, didaktismo eta moral ikuspegia, e.a.—. *Arranegi* da, hain zuzen ere, Agirreren aztarna nabaria duen Erkiagaren elaberria.

Behar bada matizazio ugari —noizean gehiegizko— eta luze hauek, Erkiagaren kasuan hizkuntzarekiko ardurarekin batera datoz, euskal lexikoaren altxorra erakutsi eta erabiltzeko ahalagin bihurturik. Baina ezin uka Agirreren elaberriek Erkiagarengan izandako eragina, hauek izan bait ziren idazle lekeitiarraren ia euskal irakurketa bakarra, eta bere eredu ziuraski. *Arranegi* elaberrian, ordea, Agirreren elaberrietan ikusten den adjetibazioa —*Garoa*-n *Kresa*

<sup>22</sup> Ikus 17. oharra.

<sup>23</sup> JOH JUARISTI, *Literatura vasca*, Taurus, Madrid, 1987, 115. orr.

la-ri baino gehiago— gainditu egiten du batzutan, areagotu, joera hiperestesi-ko hori irakurketarako neketsu gertatzen delarik:

- «Bare bare egoan, urdin, lau, zelaitsu» (A, 8)
- «txairo, lirain eta beti txeratsu egoan» (A, 10)
- «teillatu goietatik arin, mee, zee, ke biribilduak igoten eben» (A, 11)
- «eder, dizdizari, indarbete eta garailari agiri zan eguzkia» (A, 96)
- «eztia baizen guri, zuzpertzaille ta gozagarri izan ziran» (A, 160)
- «tanta andi, lodi, astun, usaintsuak jaurtiaz» (A, 164)
- «Kantauri itsas-kolko aundia, aratz, txukun, urdin» (A, 185)

Jokaera hau astunago suertatzen da hitz zerrendekin. Hitz andanak ez dira beti hitz soilenak izaten, batzutan molde batzuen errepikapena izaten da, lehen adierazi den bezala, parekotasunarekin nahastuz, eta hauek deskribapenetan ugariak dira; tresna zerrendak, egoera zerrendak, pertsonaia zerrendak, objektu zerrendak... Noizean progresioan agertzen dira, eta honek zerrendari dinamismoa ematen dio, urratsez urrats aurrera pausoak emango balira bezala —honetan ere Agirreren aztarna agertzen da berriro—, eta bidebategi zerrendaren astutasuna apurtuz:

- «ta agurtu zituan, banaka, pareka, sailka, mordoka» (A, 67)
- «deiar luze, luzeago, motel, zurrumbillozkoa» (A, 186)

Baina normalean kontaketa izugarri baretzen dute, kontalariaren gogoetek batbatean isuriak:

- «irudimena orron ebiltzan, atsedengabe, loka, geleziñik, espaz, aienez eta zinkuriñez» (A, 65-66)
- «Barreneko itsaso murgilla, naretu, gozatu, emetu, ekurutu egikiola leenbai-leen» (A, 157)
- «sorgin arek sakabanatutako guzur biribil, laidogura zikin, iraingogo makur» (A, 158)
- «bukatadaren emaitzak: maindire, buruko, zapi, atorra ta alkandora, barruko miesak, oerako jantziak, kortinak eta beste zerik ugari» (AZ, 98)
- «Lakiria ta zepuak, tiragomak, manopla ugartuak, txakur-hilgarri zan pistolatxua bere bai...» (BB, 56)
- «beste batzuk bere ba ziran han; matrailu, gabi txiki, atxur txiker kirtenik bakoa, burdina-negarrez beteriko artaziak, giltz ingeles aho bakoa...» (BB, 57)

Hitz zerrendena Erkiagak elaberri guztietan darabilen joera da; besteak apurka-apurka urrituz doazen bitartean, zerrendak eta adjetibazio ugaria

mantendu egiten dira askoz gehiago, eta honetan agertzen zaigu olerkiarako duen sen berezia, idazleak berak ezin eragotzi duena.

Baina elementu hauekin guztiokin batera badira Erkiagaren elaberrietan gero eta gehiago agertuko diren ezaugarriak, idazlearen ibilbidearen adierazgarriak, bere izaera autokritikoa erakusten dutenak eta, era berean, nobelen irakurketa aldatzen dutenak. Haien artean *joera eliptikoa* berezia da, aditzen elipsia batezere. Jokabide hau gagozkion garaiko azken bi elaberrietan nagusitu egiten da, *Batetik bestera* eta *Txurio Txoria* nobeletan hain zuzen. Hauetan narraketa dinamikoagoa da, azkarragoa oro har, eta osotasunaren barnean erritmo aldaketak —kasu honetan kontaktaren erritmoaz ari gara— nabaria-goak egiten zaizkio irakurleari.

Ez da, ordea, elipsiaren ondorioz inolako kontzeptismo trinkorik gertatzen narraketan zehar. Aditzen desagerpenak elementu desberdinak jarraian agertzea eragiten du, baina kasu honetan ez dira aurrez ikusitako zerrenda hutsetan gelditzen, halako deskribapen sintetiko eta arina gertatzen da, elementu guztiak jarraikian jarriaz pauso lasterrean aurrera eroaten duelarik.

«Herri haretan sartu da. Etxe zahar eta barriak, haundi ta txikiak; kale estuak ugari samar» (BB, 153)

«Sukarra ete? Lau eguneko bizarra, bai. Ta erreteko gogoa bere, zorrozturik. Nun aurkituko tabaku-orririk?» (BB, 157)

«eliza-ateetan, zine eta toril inguruetan, gure jardun ixil eta malgua, eukana-ri kentzea, oiloak lumatutea» (TT, 69)

«Baina zati bat, iluntzean eroaten, lantoki batetik bestera» (TT, 120)

«Noizean behin, beste kalean zehar gizonen bat edo beste. Gero, ixiltasun handia» (TT, 136)

«Klaka! barruko txakurrak. Sinestu ezin» (TT, 141)

«Bihorraldi gehiago kirten biribilari, giltza atara, harako kaixa apalean sartu, eta prest nengoan» (TT, 142)

Ikus daitekeenez, tentsio unetan elipsia areagotu egiten da, eskenaren larritasunari lagunduz. Dagoeneko Erkiagak elaberri hauetan lortzen doa adierazi eta adierazle mailak hurbiltzea lehendabiziko bietan baino hobeki, eta aldaketa hau guztiz ongarri zaio narraketari.

Era berean, eta joera eliptiko honekin oso lotua, beste aldaketa bat erakusten du Erkiagak azken bi elaberri hauetan. Narraketaren erritmoa aldatu egiten denean, gertakizunen arabera, esaldiak pilatu egiten ditu, hots, irakurketa-erritmoa azkartu. Honetarako *perpaus motak* ere hartarakotu egiten ditu. Esaldien eraiketa mota guztiak aztertzea luze eta amaigabea izango litzateke ordea, horregatik esaldien trinkotasuna eta pilaketari begiratu diogu soilik.

*Arranegi* eta *Araibar zalduna* elaberrietan esaldiak luzeagoak dira, batez ere hain ugari diren deskribapenetan, ez beti subordinazio mailan, euskal hizkuntzak honetan berezi jokatzeko bait du, gaztelanierak ez bezala adibidez. Agian koordinazio maila ugariagoa da honetan, baina batera zein bestera perpausak antzeko erritmoa gordetzen dute elaberri osoan zehar. Azken bi elaberrietan ordea, *Txurio Txoria*-n bereziki, nahiz eta esaldiak orokorki laburragoak izan, une zehatz batzutan pilaketa askoz sinkretikoagoa bihurtzen da, justaposizioa —noizere polisindetona— nagusi, deskribapenak sinoptikoagoak gertatuz, ekintza desberdinak jarraian agertuz eta, beraz, kontaketa eritmo aldaketa ageria gertatuz elipsiarekin batera.

«Han, urrunago, etxe mordoak lakoak. Gero ta etxe gehiago. Herri nahikoa hasia dirudi. Hantxe zerbait eskatuko dau» (BB, 153)

«Geltokian, han dabilz goiztarrak, hara hona. Emakume bi heldu dira, ta txartela atarauteko eskatu deutse. Jarri da errenkadan eta bere lantxu hori egin dau. Eskupeko txikerra, bota barruna. Bapere ez baino, gehiago da, arean» (BB, 230)

«Txinurritegia bere, badala deritxa. Gerotasuna, errea, sukarra, garraztasun nahi minbera antza dauka. Larri dago. Eztul erasoak ez dau amairik ezagutzen» (BB, 239)

«Nekearen gehigarri, hotza neban. Hotzak galdu behar ninduan. Makaltzen hasi jatazan indarrak eta odola. Ezin neiken luzaroan halan irau» (TT, 150)

«Gizon handi bat ikusi neban. Niganuntz etorren. Handi handia zan. Ez zan Txurio! Arnasea...» (TT, 151)

Orainarte ikusi denez, Erkiagaren prosaren olerkaritasun kutsua, ikuspegi morfologikotik ikusia behintzat, agerian dago, batez ere *Arranegi* elaberrian; eta elaberri honen estiloa besteetan mantendu bazen ere, gero eta urriagoa gertatuko zen, dinamismo haundiagoa jasotzen zuten heinean.

### **Edukiaren aldetik**

Oraindik, ordea, ez dugu arazoa argitu. Badira oraindik olerkaritasunaren froga gehiago eman dezaketen elementuak, eta horiek ikuspegi semantikotik aztertu beharko ditugun errekurtsuak dira. Ez da honekin esan nahi hitz-lauzko lan literarioetan erakutsiko diren errekurtsuak ageri ez direnik. Ekin-tza literarioan idazleak aukeratutako zeinahi gauza da zilegi. Baina badira genero bakoitzean maizago erabiltzen diren errekurtsu literarioak, bakoitzaren izaerara hobeki egokitzen direnak, edo, agian, errekurtsuaz egiten den erabilera berezia.

Kasu honetarako gutxi batzuk aukeratu ditugu adibide bezala. Alde batetik pertsonifikazioa eta, bestetik, konparaketa eta metaforak. Hautaketa hau literatur baliabide horiek erabilera lirikoago batez baliatzeko elementu gehiago eskeini ohi dutelako erizpidearekin egin izan da: topiko eta naturako elementu gehienak, alegia. Ez dira, ordea, ager daitezkeen errekurtsio bakarrik, baliabide morfologikoekin gertatzen den era berean, baina bai maizago gertatzen direnak.

Esan bezala, *pertsonifikazioak*, besteak beste, ez dira olerkiaren errekurtsio eskusiboa, baina elaberrian oso garrantzi nabaria dute berez. Ez dira, horrexe beragatik, Erkiagaren nobeletan agertzen diren pertsonifikazio guztiak era berekoak, eta haien arteko desberdintasuna pertsonifikazioaren elementu eta tratamenduetan datza, hain zuzen. Izaera aldatze hau alderantzizko prozesuan ere gertatzen da, pertsonaia batzuk kosifikaturik edo ta animalizaturik agertzen direla:

«itxita egoan arren, barruko argiak, han txoriak ba zirala adierazoten eutsoen» (BB, 120)

«Usaina hartu ete eben katu-txakur hareek, ni neu sagua izanik?» (TT, 159)

Baina garrantzitsuena pertsonifikazioa da nabariki. Eta Erkiaga olerkaria hauetako askotan agertzen zaigu. Edozein gauzak bizia izan dezake, baina ez du idazleak, normalean, elementu arruntak aukeratzen, ate bat edo kotxe bat adibidez. Batez ere idazleak natura, paisaia eta antzekoak erakutsi behar diutenean nagusitzen da pertsonifikazioa, deskribapenetan. Ez da haietan Lauaxetaren panteismorik ikusten ordea, pertsonifikazio hauek gizona eta naturarekiko harreman lurtarraren ondorioz sortzen dira, maitekiro, mirespezez ikusten den naturaren deskribapenak dira, eta orduan olerkariak hitzegtzen du. Pertsonifikazio batzuk topikoak dira, eguzkiarena, itsasoarena, baina Erkiagak indar liriko berezia ematen die:

«Eguzkia astiro joian etzin guraz, bazter ezkutuatarantz, eta azkenengo agurra egin baiño leen, gezi bero ta zitzada goriak jaurtitzen» (A, 7)

«Udalenean, losorrotik itzartuta, izadiak edonun zorna-jarioz, ezetasunez ta urriñez beterik, bazter guztiak jantzi barriez aldatzen» (A, 93)

«eta itsasoaren sabelak, arro puztua, ganezka zabalguraz egoala emoten eban. Izadiaren indarrak mukuru zirauen, goi ta bee» (A, 96)

«izadiak udarako gertau dituan bigungarrien ganean» (A, 121)

«olatuak arrotu egin ziran, ta ugarte edo izaroa bitsez inguratu eban, euren bularrak edo bizkarrak geroago ta jasoago ta astinduago erakutsiaz» (A, 163)

«Galarrenak eztau iñor adiskide ez magaleko [...] alako aldietan urak egundoko aoa zabaltzen daualako» (A, 164)



«Zerua ta itsasoa laltan etengabea ikusi zituan. Itsasoa ta legorra alkar-  
musuka jardun irungarrian» (A, 185)

«Izadiaren maite-abestia zan» (A, 193)

Gehiegi ez luzatzearren, *Arranegi*-ko adibideak aukeratu dira soilik, adierazgarrienak dira-ta; baina *Araibar zalduna* elaberrian oraindik pertsonifikazioen indarra garrantzitsua da, beste nobela bietan berriz motelduz doa. Bertan Erkiagak bere izaeraren aztarnak azaleratzen ditu: lekeitiarra izanik duen itsasoaren irudia, bere abertzaletasunak isurtzen duen Euskal Herriko geografia-  
rekiko sentipenak... Halere, eta azken honekin lotua, naturakoak ez diren elementuak aukeratzekoan ere herrizaleatasun horrek hautaketa bideratzen du nukleo berezi batzutarra; baserria, itsaserria eta haien inguruko guztia. Honelakoetan ere olerkaritasun ukituarekin deskribatzen ditu gehienak, kontutan izanik lehen azaldutako olerki molde tradizionalenez ari garela:

«auzuneko basetxe zuriak, alai ta beketsu, urira eldu aurretik agur-egitera  
txeratsu bidera etorkiguzan» (A, 11)

Hala izanik, Erkiagak egiten dituen *konparaketak* sortzeko ere antzeko elementuak aukeratzen ditu, eta honetan, dudarik gabe, naturalezatik hartutakoak olerkaritasun zantzurik handiena duten elementuak dira, askoz poetikoa bait da pertsonaia baten hasarrea itsaso kizkurtuarekin konparatzea, izugarriko eskabadora baten erasoarekin baino, adibidez.

Konparaketak alde bietatik sortutakoak dira, dinamika askoz bizi eta aberatsagoa lortuaz, hau da, elementu konparatuak gizakiak —pertsonaiak— eta naturaleza —eta herria— direla nagusiki kontutan izanik, konparaketak norabide bietan egiten dira, hau da, pertsonaiak naturarekin eta natura pertsonaiekin (edo gizakien jokaerekin, hobeki esanda). Badira bestelako konparaketak, pertsonifikazio eta beste baliabide guztiekin gertatzen den legez, baina adierazitako hauek dira poetikotasunez beterik daudenak. Adibideak ugariak dira elaberrietan, baina, berriro ere, *Arranegi* dugu honetan besteen gainetik agertzen dena, elaberri honen helburu nagusia Erkiagak bere herriarekiko duen maitetasuna adieraztea bait da. Honetaz Mitxelenak esan zuena ere datorrigu gogora: «Non-nai ezagun da olerkaria, bai irudietan, bai itzak autatu ta antolatzean. Novelagillea olerkariak ito duela esan daiteke»<sup>24</sup>:

«Inguruko mutillen palagu ta txera samur ezietara —udabarrian lore-pipillak eguzki epelera bezela—» (A, 64)

<sup>24</sup> Koldo MITXELENA, «*Arranegi*, Eusebio Erkiaga», in *Egan*, XI, 1958, 103. orr.

«[neskaren irudia] Gozoa, marrubi eldua bestean» (A, 97; parentesi artekoa guk jarri dugu)  
 «ganezka egin eutsan amodiozko esanbearrak. Orrelantxe ekiten dautso maiatzeko gauetan kanta-kantari isiltzeke, arrasbeeratik egunsentirarte urretxindorrak» (A, 102)  
 «Ortzialde odoltsu arek, Zuriñe-ren maite-zauria zirudian» (A, 152)  
 «maite-zorabiatua zegoala. Eta geroago, usoen antzera alkar-urrumaz» (AZ, 90)  
 «baietza eldukatxa zan, agian; idorteak jo duan artotza mengelaren idurira» (AZ, 140)  
 «Nikanorrek, katu azarriak saltu egin ohi dauan antzera zapart eginik» (BB, 66)  
 «kerixa askok ez dabe kolore hain gorririk izango, neskatoak matrailetaratu zituanak baino» (BB, 93)  
 «Taxiak zoramenezko itsas-uhinen ganean ontzi koskolak lez ebilzan» (TT, 49)

Bestalde, Erkiagaren elaberrietan ez dago batzutan alde haundirik konparaketa eta metaforaren artean. Metafora askotan erabilitako elementuak ere aurrekoen modukoak ohi dira, zenbaitetan metafora klitxetuak direlarik. Gainera, Erkiagak darabiltzan *metaforek* sinbolizazioaren objektua agerian izaten dute gehienetan, eta erreferentea eta sinboloaren arteko harremana batzutan kopula edo antzeko nexoek erakusten dute, nahiz eta noizean behin nexoa eliditua egon. Behin hona helduta, beraz, ezin metafora hauen izaera ongi zehaztu, semiotikaren arloan halako arazoek zenbait arazo erakusten dutelako oraindik ere. Baina kopularen eginkizun semiotikoari dagokionez, konparaketarekiko duen antza ere iradokia agertzen da zenbait kasutan, Umberto Eco-k berak adierazi zuenez<sup>25</sup>. Honegatik ez ditugu fenomeno hauek ikuspegi zorrotzez aztertu nahi izan, orokortasunean baino, Eco-k iradokitako ideiak baliagarri harturik ere, ezin genukelako kopulak lotutako elementuen arteko erlazioak konparaketa edo metaforatzat hartzea erabaki. Honelako kasuetan, adibidez:

«Iarrosa-orri usaintsu direan ezpain gorriok» (A, 100)  
 «Gizonaren biotza izan ere, osin sakona da» (A, 154)  
 «lili eder orbanbage mardul guri ziran urre-biotz bi aek ere» (A, 191)

<sup>25</sup> Eco-k, *Tratado de semiótica general* bere liburuan (Lumen, Barcelona, 1988), 260. orrialdean, *da* kopularen ezaugarriez ari delarik, nahiz eta bere ahalmen literarioez zuzenki ez izan, honen bitartez objektu semantiko bi konparatzen direla dio:

«[...] es decir, el contenido de una expresión lingüística con el contenido de un acto perceptivo [...] y la cópula /es/ no será otra cosa que una expresión metalingüística que significa "posee algunas de las propiedades semánticas de".»

«goiz artan «frantsesa» (eguzkia, alegia)» (AZ, 100)  
«zigarroaren pindarra, begibakar gorria» (AZ, 144)

Honexegatik, metaforaz aritzen garenean bere zentzu orokorrean hartuko dugu, erreferentearen arazoak zehazten sartu gabe.

Gauzak honela, aztertzen ari garen elaberri hauetan metaforak, esan bezala, puntu garrantzitsua dira testuaren olerkaritasunari dagokionez, konparaketa eta pertsonifikazioekin batera. Hiruroi lirikotasun zantzu hori ematen dien elementu amankomuna naturarekiko erlazioa da, besteak beste;

«Arranegiko zabaleko uso-tortola zuria, izenez baizen izanez azal ta begi urdin zan Zuriñe» (A, 97)  
«Kabi artako txoria [Zuriñe] mutu edo mintzul gelditu izan bai'litzan» (A, 147; parentesia gurea da)  
«une artan kalean bertan barna, beste pinpilinpauxa [neskatxa] arin bat agertu izan ezpalitz» (AZ, 23)  
«eta horrezaz baliatu zan gabilio zazkarra [Txurio]» (TT, 64)  
«Maltzurko ehiza txakurra» (TT, 120)

Areago elementuok eurok metaforizatuak izaten direnean: eguzkia, zerua, itsasoa,...

««harem» ikusgarri hartan [ondartz]» (AZ, 104)  
«Argi-iturri nagusia kiskalgarri, gingan egoan» (A, 105)  
«Astiro astiro etorren Argimutil nagusia» (A, 154)  
«Itsas-mingañak [uhainek] laztankiro ta gogor milizkatzen zituzten» (AZ, 146)

Halaber, herriarekiko sentipenak sorrarazten dituen metaforizazioen indar poetikoa ukaezina da:

«baketsu egoan uri polita: gizabiotz» (A, 8)

Baliabide morfologiko eta semantiko guzti hauek eratzen dute Erkiagaren prosaren estilo poetiko hori. Ez dira hauek faktore bakarrak, baina bai nagusi eta garrantzitsuenak. Halere, behin eta berriz aditzera eman denaz ohartu beharra dago. Erkiagak Agirreren elaberriak izan zituen eredu nagusi elaberri- gintzan hasi zenean, eta hori nabaria da, baina horrek bidea erreztu zion olerkaritasunari, herri ohituren gorai-pamena eta bizimodu osasuntsu eta basokoaren aldeko jarreratik isurtzen diren sentipenak, ikuspegi erromantiko baten aztarnak bait dira. Abiapuntu honetatik, Erkiagaren gerraurreako olerkari lanaren eraginak atek zabalik aurkitu zituen. Honela ikus daiteke nola

*Arranegi* den elaberririk lirikoena, Erkiaga Agirrereren prosa eta gerraurreko eskolaren eraginetatik aldenduz doan heinean olerkaritasun hori motelduz doala, beste estilo dinamikoago bati bidea emanez; eta garai honetako prozesu guzti honen ondorio nabari eta adierazgarriena *Txurio Txoria* da<sup>26</sup>.

Bukatzeko, ohar txiki bat jarri nahi genuke Erkiagaren olerkaritasunari buruz. Ez dugu lan honetan Erkiagaren olerki lana aztertuko eta, beraz, ezinezkoa izango zaigu haren olerkiaren eta prosaren olerkaritasunaren arteko berdintasun edo desberdintasunak ikustea. Baina ohartaraz dezakegu, behintzat, Erkiagaren olerkiei buruz esan denaren artean —ez da asko berez, eta honetaz dauden lan urriak argitaragabe daude tamalez<sup>27</sup>— puntu bat ekarri nahi dugu txoko honetara. Erkiagaren olerkiek badute sinbolismoaren oihartzun apala, eta adierazi denez, Juan Ramón Jiménez-ek (garai batean) proposaturiko hurbileko modernismoaren aztarnak ere. Ez da berez honelako olerkaritasunik agertzen Erkiagaren elaberrietan, ez nabariki behintzat, hein adierazgarri batetan, alegia. Erkiagak ez zuen inoiz J. R. Jiménez-en olerkirik irakurri, eta ez zuen, garai hartan behintzat, olerkirako erizpide berezirik, ez zuen, argi esateko, bere poetika zehatzik. Poesía lokalista eta, esan den bezala, «txikitasunarena» egin bazuen, ziuraski, abertzaletasunaren eragin zuzenagatik izan zen, Aitzolen eskuak eraginikoa, orduko euskal mundu hertsia deskribatzen eta gorai patzen zuen olerkia hain zuzen. Baliteke bere olerkiak aztarna juanramonianoak izatea, baina honen azalpena Lauaxetaren irakurketetan egongo da, dudarik gabe, eta ezaugarriok Lauaxetaren olerkietatik<sup>28</sup> edan egingo zituen ziurren. Erkiagak *Platero y yo* ezagutzen zuen, ordea, eta behar bada J. R. Jiménez-en prosa lirikoak atsegin izan zitzaion. Erkiagaren elaberrien olerkaritasunean moguertarraren aztarna zuzenik egotekotan hauxe izango litzateke, baina ez da Erkiagaren prosa Jiménez-ena bezain emotibo eta koloretsua, izan ere, kutsu lirikoazko prosa guztia ez da modernista. Halere badu haren malenkonia eta nostalgian antza noizbehin, *Arranegi*-n batezere.

<sup>26</sup> Halere, kontutan izan behar da elaberririk honek, 1986an argitaratua, ibilbide berezia izan zuela, eta zenbait moldaketa jaso izan zituela ibilbide horretan zehar. Hortaz, ez dugu pentsatu behar lehendabiziko testua (galdua, tamalez) gaurrekin ezagutzen dena bera izan zenik, baina horrela bada ere, testuaren oinarria izango zen originalaren itzala bera nahikoa da aldaketa somatzeko, baita ulertzeko ere.

<sup>27</sup> Ikus bibliografian Jon Kortazar eta Arantxa Elordieta.

<sup>28</sup> J. R. Jiménez eta Lauaxetaren arteko parekotasunei buruz Jon Kortazarrek datu ugariak ematen ditu bere *Teoría y práctica poética de Lauaxeta* liburuan (Desclee de Brower, Bilbo, 1986). Bertan adierazten duenez Jiménez-ek herri barnekoa proposatzen du olerkigai, kanpokoa ukatuz, eta honetan, eta beste zenbait gauzetan ere (III. orrialdean dioenez):

«[...] se acerca a Juan Ramón Jiménez, y a todos los poetas de Fin de Siglo español.»

Erkiagaren elaberrien izaera ulertu ahal izateko haien ezaugarrien azterketa beharrezkoa zen, baina horretarako arazo bat planteatu zen: zein motatako ezaugarriak bilatu. Egia esan, planteamendu hau subjetoa bezain arrisku-tsua zen, aurretik helburutzat hartutako ezaugarri batzuen bila ari garenean, askotan, ez daudenean ere aurkitu egiten bait ditugu. Hortaz, abiapuntua aldatuz, aspektu nagusi batzuen azterketa egiteko erabakia hartu zen, aspektu hauek ezagutzeko, testuek beraiek iradokitzen zituzten ezaugarriak jaso eta sailkatuz. Aspektu bakoitzaren ezaugarri oinarritzkoenak jaso ahala, ordea, beraien kokapena egiteko, literatur joeren barnean, joera hauek zituzten ezaugarriekin bat zetozenentz ikusi behar zen. Eta hona bigarren arazoa: zeintzuk ziren ezaugarri hauek, non aurkitu. Konparaketaren ondorioz, XIX. mende osoko eta XX. mende hasierako literatur joera nagusiak ikusiz, gaineko fenomeno ideologiko baten itzala agertu zen: erromantizismoa. Baina honen eragina ez zen beti berdina izan literaturan aldi honetan zehar eta herrialdeen arabera.

Hala izanik ere, eta Erkiagaren lanari buruz aurretik zeuden eritziak kontutan hartuz, bere elaberria ohiturazkoan ala nobela errealdan kokatu behar ote zen gertatu zitzaigun eztabaida nagusia. Baina joera bakoitzeko ezaugarriak ikustera jotzerakoan, ordea, honetan ere baziren arazo zenbait. Hortaz, azterketarekin hasi aurretik, erizpideen zergatiak ulertzeko lagungarri izan daitezkeen zenbait ohar emateari ondo eritzi diogu.

### Ohiturazko elaberria eta elaberri errealdista: azalpen batzu

«[...] la novela vasca se había visto abocada a pasar de un costumbrismo de raíces claramente románticas a la novela moderna, "saltándose", valga la expresión, la experiencia decisiva del realismo» dio Jesus M<sup>a</sup> Lasagabasterrek 1989ko artikuluan<sup>29</sup>. Hurrengo urtean, ordea, Jon Kortazarrek «De la prosa costumbrista a la prosa realista» izenburuko ia hamar horrialde zituen kapitulu bat eskeintzen zuen bere *Literatura Vasca. Siglo XX* liburuan. Lehengoak ez du euskal literaturan errealdismoaren aztarnarik ikusten; bigarrenak, ordea, aurkitu ez bakarrik, haren ezaugarri zenbait azaldu ere egiten ditu. Idurizko kontraesan honek Lasagabasterren beraren beste artikuluan batean aurkitzen du bere justifikazioa, kritikariak halaxe dioenean: «Cuando en las literaturas europeas desarrolladas la novela, llegada a su madurez como forma literaria de aprehensión de lo real tras la experiencia del realismo, toca

<sup>29</sup> JESUS M<sup>a</sup> LASAGABASTER, «La novela vasca al borde de la realidad», in *Congreso de Literatura. Hacia la literatura vasca. II Congreso Mundial Vasco*, Castalia, Madrid, 1989, 322. orr.

de alguna manera los umbrales renovadores de la vanguardia, da sus primeros pasos una tímida y balbuciente novela vasca, que adopta además formas de organización del universo novelesco y de visión del mundo ya superadas en las literaturas vecinas»<sup>30</sup>. Era honetan Lasagabasterrek atea zabalik utzi zion kostumbrismoa eta 1957. urtean markatu ohi den euskal elaberri berriaren hasera bitartean gertatu zen elaberri motari, haren ezaugarriak zehazki deskribatu gabe. Beretzat, halere, garai horretako nobelak «responderá a las convenciones formales, temáticas e ideológicas de un costumbrismo de fuertes resonancias románticas»<sup>31</sup>.

Gotzon Garatek, bere aldetik, Txomin Agirrerren *Kresala* eta *Garoa*, Toma Agirrerren *Uztaro*, Jean Barbierren *Piarres* eta Agustín Anabitarteren *Usauri* eta *Donostia* elaberriekin osatzen du euskal ohitura elaberri taldea<sup>32</sup>, Azkueren *Latsibi* taldean sartuaz, nahiz eta gero azken honen aipamenik egin ez<sup>33</sup>. Nolanahi ere, badirudi ohiturazko elaberriari dagokionez euskal kritikoak nahiko ados daudela, eta hala baita kritikolari espainiarrak ere (Cf. J. Montesinos, J. Oleza, J. I. Ferreras, M. Ucelay, I. M. Zavala, eta beste). Arazoa errealismora hurbiltzean sortzen da.

Espainian errealismoak bilakaera prozesu bat izan zuen. Jakina, ez gara gerraosteko diktaturapean agertuko zen errealismo tremendista eta sozialari buruz ari, neorrealismo hau —oso kriterio zabal baten ikuspuntutik— askoz ere kritikoagoa bait da, bortitzagoa. 40. hamarkadako Jose M<sup>a</sup> Gironella, Carmen Laforet edo Cela beraren elaberriak eta 50eko hamarkadako Ana M<sup>a</sup> Matuteren batzu, Aldecoa, Fernández Santos edo Ferlosiorenak mende hasierako errealismotik urruntze nabaria erakusten dute, elaberri sozialaren eboluzioaren alde bien tartean —gerraurreko diktadura eta Maroko-ko gudaren itzalpean sortutako elaberrietatik (J. Díaz Fernández, A. Carranque de Ríos, Ramón J. Sender), 50eko hamarkadaren bukaera eta hurrengoaren hasierako elaberri moetarako jauzia bitartean (J. Goytisoloren *El circo*, *Fiestas* edo *La resaca*, edo-ta, agian, Caballero Bonald-en *Dos días de septiembre*)—. Baina Alarcón-en azken hiru elaberriekin edo eta Peredaren *Los hombres de pro* edo *El buey suelto* tesi-nobelekkin Espainiako errealismoak bere hasiera ezagutuko zuenetik «noucentismo»-aren erroetatik lurrutzen hasitako Concha Espinaren zenbait elaberriaraino; edo-ta Ciges Aparicio eta Fernández Flórez-en lehenengo etapako narraketetaraino —*La Regenta* eta naturalismoaren esperientzia ere bitartean izanik—, XIX. bukaera eta XX. hasieran sortutako elaberri

<sup>30</sup> Jesús M<sup>a</sup> LASAGABASTER, «Sartera», in *Antología de la narrativa vasca actual*, Edicions del Mall, Barcelona, 1986, 15. orr.

<sup>31</sup> *Ibid.*, 16. orr.

<sup>32</sup> GOTZON GARATE, *Euskal elaberriaren kondaira (III)*, Gero, Bilbo, 1991, 6. orr.

<sup>33</sup> *Ibid.*, 21-22. orr.

errealista gehienetan mantendu egin ziren ohiturazko elaberrietako ezaugarri batzuen aztarnak, eta aztarna hauek ahulduz joan ziren heinean errealismoak bere izaera propio batera hurbilduz joan zen.

Euskal literaturan, ordea, errealismorantzko lehen pausuak ohi zuen berankortasunez ematen ari zenean, Landak *sektore dinamikoa* deitzen duenaren<sup>34</sup> gizarte oso desberdina zen, eta krisia/aldaketa bortitzago gertatu ziren. Euskal literaturak aldameneko literaturei leihoak irtenbide bila zabaldu zizkionean, sortzen hasi zen literaturak (Txillardegiren esistentzialismoak, Saizarbitoriaren *nouveau roman*-en bidetikako jokaera narratiboak edo ta —Mirande, Iratzeder, Krutwig, Salvatore Mitxelena eta halako esperientzi berezi urri batzuen ondoren— 60ko hamarkadan Arestiren iraultza poetikoak) ahantziak utzi zituen zaharkitutako ideologia abertzale tradizionalaren hondakinetatik artean isurtzen ziren molde literarioak, ideologia hura bera ere gainditzeko prozesuan barna.

Hortik abiatuturik, ohiturazko elaberretik elaberri errealistarako lehenengo pausuak ematen ari ziren elaberrien ezaugarriak ikusterakoan, euskal esperientzia Espainian gertatutakoarekin konparatzea lagungarri izan liteke, Erkiaga bide bertsutik joan omen bait zen. Izan ere, beragan «errealismo bat agertu nahia somatzen da», dio Iñaki Kaminok<sup>35</sup>, eta Kortazarren ustez ere «muestra ya el acercamiento moralista [...] a los núcleos urbanos»<sup>36</sup>.

Gotzon Garateren eritziez gain, oso interesgarriak dira Jon Kortazarrek euskal prosa errealistari buruz ari denean egiten dituen matizazioak. Bertan Etxeita eta Jean Etxepareren lanez ari delarik, honako datuak ematen ditu:<sup>37</sup>

- «una desideologización política de las tramas»
- «el personaje no secciona el mundo en rural y urbano» edo gutxienez hiria «no está marcada negativamente»
- «Los personajes: «Naturalmente son pobres, pero su pobreza no es una condenación de la riqueza, sino un camino para lograrla» (J. I. Ferreras-en *La novela por entregas* liburua zitatzuz)
- pertsonaiak ez dira beti hain manikeoak, agertu egiten da «el lado oscuro, no tan ideal, de algunos de sus personajes vascos, aún si escasamente aparecen mezclados virtud y malicia en un mismo personaje»
- zenbait pertsonaiaren kasuan «el tema de la novela no puede describirse sólo como la aventura por la aventura, o el enriquecimiento de un jo-

<sup>34</sup> JOSU LANDA, *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar-AEK, Donostia, 1983, 43. orr.

<sup>35</sup> IÑAKI KAMINO, Op. cit., 42. orr.

<sup>36</sup> JON KORTAZAR, *Literatura vasca. Siglo XX*, Etor, Bilbo, 1990, 117. orr.

<sup>37</sup> JON KORTAZAR, *Ibid.*, 45-49. orr.

ven, sino también como un viaje que refuerza y cambia el sentido ontológico de un joven»

- «tipismo en el diálogo, que de paso sirve para caracterizarlos mejor que la descripción del narrador»
- «La narración en primera persona, excepto en algunos casos, se aleja del subjetivismo romántico y se acerca a la observación objetiva del realismo»

Ezaugarri guzti hauek oro har, aldaketa baten seinaleak dira: «acercamiento al realismo, aún permaneciendo dentro de la novela de tesis»<sup>38</sup>, Kortazarren eritziz. Guzti honekin batera, errealismoak gizartearen islada ematen du, baina ez era guztiz kritikoa oraindik, irakurle eta pertsonaien garaiak eta giroak nolabait kontenporizatu nahian baino. Giro urbanorako hurbilketa bat somatzen da, eta horregatik hasieran herria-hiria bikoiztasuna nabaria da. Halere, tesiko elaberriak oraindik aurreko moldeen helburu moralala edo didaktikoa dauka, ikuspegia zertxobait aldatu bada ere, eta kristautasunaren aztarna mantendu egiten da. Baina ohitura-elaberrietatik haruntza doan heinean gauza batzuk aldatu egiten dira, eta aldaketa horietako batzuk Kortazarrek adierazitakoak dira, hain zuzen.

Beraz, ikuspegi honetatik abiatuz egin dugu Erkiagaren elaberrien ezaugarrien azterketa, ezaugarrien artean nagusi batzuk aukeratuz eta azaldu berri ditugunekin inolako zerikusirik dutenentz ikusiz, ondoren azalduko diren erizpideen arabera.

### **Ezaugarrien azterketa**

Puntu hortatik abiaturik, Erkiagaren lanaren ezaugarriak aztertzerakoan, beraz, ohizko diren pertsonaiak, narratzailea edo denbora eta espazioaz gain, beste aspektu batzuk behatu dira, aipatutako elaberri moten aztarnak bertan isladatzen direnentz, eta zein neurritan, jakin ahal izateko. Honela lekeitiarraren lana nondik norakoa den ulertu ahal izango dugu eta, agian, ondorio zehatzago bat eskeini ere.

Aspektu hauen artean giroa, garaiaren isladapena, kristautasuna, abertzaletasuna, elizaren kritika eta tesiaren izaera aukeratu ditugu, adierazgarri izan daitezkeen beste elementuekin batera, nostalgja eta ironiaren erabilera, eta elaberrien egituraketa, adibidez.

---

<sup>38</sup> Ibid., 48. orr.



Erkiagaren elaberrietako giroa herritik hirirako bidaia da, euskal herrieta-ko jatortasuna eta ohiturak giro kaletarraren aurrean goratzetik, hiriko bizi- modua beste aukera bezala, desberdina halere, onartzearaino. Eta honekin zer esan nahi den azaltzeko hoberena elaberriak banaka ikustea litzateke.

Juan Oleza-k dioenez, tesiko elaberrian egileak beti ideia berttua erakutsi ohi du: «apología del modo de vida patriarcal y bucólica, fundamentado en el catolicismo [...] en la concepción de la sociedad como clan tribal, localizado en maravillosos oasis rurales defendidos de la civilización por una naturaleza bravía»<sup>39</sup>. Olezak, gainera, matizatu egiten du jokaera manikeoaren bestalde «Como contraposición, condena de la civilización moderna de la ciudad, del racionalismo y el libre examen, del progreso social y de todo anhelo de cambio»<sup>40</sup>. Hori berori gogoratzen digu Kortazarrek ere Txomin Agirrerren elabe- rriaz ari denean.

Bide honetatik hurbiltzen da Erkiaga elaberrira, eta honen lehen fruitua *Arranegi* izango da. Erkiagaren lehendabiziko elaberri hau 1958. urtean argita- ratu zen. Hartaraino, ordea, Agirrerren *Kresala* eta *Garoa* elaberrien agerpene- tik ia mende erdia pasatua zen, eta bitartean Guda Zibilaren esperientzia ze- goen, baina *Arranegi*, berez, 1950 inguruan idatzia izan zela kontutan hartu behar dugu. Jokaera hau ulertzeko bigarren puntura jo beharko genuke be- rriz. Guda Zibila esperientzi latza izanik, etena izan zen euskal literaturaren produkzioan, baina ez egitura ideologikoan: Horrela, literatura berriz mar- txan jartzen denean, abiapuntu ideologikoa gerraurreko berbera izango da, gutxi gora behera. Honi erantsi behar zaio garai honetako euskal idazleen euskal literaturaren erreferentzi maila oso urria zela, haietako nahikok ez bait zuten aurretik zegoen corpus urria ere ezagutzen, narratiba mailari dagokio- nez batez ere. Hauxe dugu Erkiagaren kasua, besteak beste. Erkiagak orduan euskal idazlan gutxi ezagutzen zituen, eta haietako nagusi eta ohargarrienak Txomin Agirrerrenak izan ziren hain zuzen. Hortaz, Erkiagak elaberriari ekin zionean hauek berauek izan ziren bere eredurik garrantzitsuenak.

Hala izanik ere, Erkiagaren elaberriek erakusten duten giro bikoiztasunak ez du Agirrerrenak bezalako mespretsu kutsurik. Erkiagak Bilbon egin zituen ikasketak eta, lana han ere aurkitu zuenetik, bertan bizi izan zen. Hortaz, Erkiagak giro kaletarraren barru bizitza ezagutzen zuen, baita Lekeitioko kos- taldeko giroa ere. Nabaria da idazleak herriarekiko duen preferentzia, baina ez du, haatik, Agirrek erakusten duen hiri giroaren kritika bortitzik egiten.

<sup>39</sup> Juan OLEZA, *La novela del XIX. Del parto a la crisis de una ideología*, Laia, Barcelona, 1984, 42. orr.

<sup>40</sup> Idem.

Kontutan izan dezagun, Arranegi herriaz aritzerakoan, Erkiagak *uria* eta *erria* izenetara jotzen duela behin eta berriz elaberrian zehar:

«uria leengo aldiz begizta leitekean» (A, 8)

«Uritxu onek daukan izena euki ezpaleu» (A, 12)

«Nork daki ostera, erri batentzat zer dan ondoen?» (A, 17)

«erriko oitura zaarrek dantza entzutetsuaren aldi ta garaia eldu zan» (A, 35)

«kera berezia arraintzale urietan» (A, 53)

Egia da Erkiagak darabilen hiriaren kontzeptuak ez datxekiola gaurregun dugun horri, jakina, baina idazleak Bilboko hiri giroa ezaguna zuela ohartzuz, Lekeitio bere sorterriaren hiritasuna (berori bait da Arranegi izenaren pean gordetzen dena) eta benetako giro kaletar kosmopolitaren arteko desberdintasuna nabaria izanik, Erkiagak kostaldeko herriarengan zenbait aldaketa ikusten zituela pentsa genezake. *Arranegi*, bestalde, idazleak Lekeitiori egiten dion omena da —«Ene jaioterri kutuna, iñoiz neurtitzez goretsi izan arren, noizbait itz lauez ere, ederresteko zorra neban gogotan artua» dio berak elaberriaren atadian—, eta hala izanik, elaberriari darion poetikotasunaren barruan, idazleak duen antzinako Lekeitio baten irudia eskeintzen du. Hori dela eta, giro bikoiztasuna askoz nabariagoa da *Arranegi* elaberrian beste nobela guztietan baino.

Baina idazlearen ikuspuntuak oso aldaketa nabaria du Agirreren elaberrien aldean. Erkiaga erdi-kaletarra da dagoeneko, eta elaberrian zehar erakusten duen giro ruralaren irudia goraipatzen badu ere, ez du, Kortazarrek Etxeitaren ikusten zuen bezala, herria-hiria dikotomian manikeismorik agertzen. Kontestu biak desberdinak dira, bakoitzak bere ezaugarriekin, herria parabisu jatorra bada ere

«Axe zan bai ikusgaiaren bitxia! Begiasegarri, gogobetegarri. Benetan ere, ames antzeko egia» (A, 12)

hiriak eskeintzen dituen berriztapenak ez dira ukatzekoak:

«Txalupa aek ere, zorionez, amaitu ziran, gizonen asmakizun egoki, eratsu ta ongilleak izanik bide» (A, 79)

Erkiagak herri ohitura eta baloreak goretsi egiten ditu nobela osoan zehar, kapitulu batzuk ere ohitura eta jaien deskribapen subjektibo eta euskalminez beteak baino ez direla («*Eder eta gazte*», «*Zeruetako Giltzari*», «*Arrantzaleen aurrekua*», «*Egaluzetan*», «*Arrantzalearen goraipe*»). Baina hiria eta herriaren arteko

kontrajarpenik bada, Erkiagak pertsonaien bitartez erakusten duena da. Berak ez du inoiz zuzenki hiriaren gaitzespenik ematen, eta pertsonaiek halakorik egiten dutenean alderdi bietakoak agertzen ditu, arazoaren ikuspuntu biak eskeintzen ditu, eta gezurrezko perspektibismo honek ere aberasten du lekeitiarrak Agirrerengandik jasotako kontalari subjetoaren irudia. Honek sintesia lakoa egin ohi du, ordea, objetibotasunaren kalte:

«Nork daki ostera, erri batentzat zer dan ondoen? Gizonen eritziak era ta mueta askotakoak izan oi dira, [...] Burnibideok, erriak naastuagotu, oiturak nasaiagotu, izkerak bestelakotu eta nik dakit zenbat oker ekarri oi dituen batzuen aburuz. Toki baketsu ta ekandu onekoak, leku eder garbiak, aronako ibilibearrak eta industri-olaen keiak, ekandu ta zeru-aldeak lorrindu legiezela eta abar, eta abar, sarri askotan entzundako esakunak dira.» (A, 17)

Nolanahi ere *Arranegi*-ko erreferentzi mundua herritarra izanik, Erkiagak hiriarekiko duen kontaktuaren ondorioz interferentziak ere gertatzen dira; *urrutizkiña*, *katedratiku*, *korrespontsalak*, *berebilla*, *manetofonikaz*, *trena*,...

*Araibar zalduna* Bilbon gertatzen da, eta giro aldaketa ohargarria da guztiz, ez du hiriak aurreko elaberrian erakusten duen anbiguitatea. Manu Araibar, pertsonai nagusia, negozio gizona da, lantegi haundi batetako jabe eta burua; neskak jostun izateko ikastokitara doaz; tabernak eta txalupetxetako ardo gozoa, berriz, dantzaleku, bar eta hoteletako vermout-a bihurtzen da... Giroa hiritarra da, izan ere, Erkiagaren hitz-lauzko estiloan bertan. Konparaketak egiteko erabiltzen dituen elementuek ez dute beti lehen bezalako olerkaritasun hura, askoz ere elementu arrunt eta, zalantza barik, hiritarragoak dira, egunerokotasunaren elementuak dira askotan, tresnak, gertakari konkretuak edo erreferentzia kaletarrak:

«Panta-k bere burua, sateliteren batetik eroria zala-edo, uste zuan berekiko» (AZ, 149)

«“Kezulo”-nean egin zuten afariaren gozoa! [...] Ez zan an Frantziako koziña elerik bear» (AZ, 151)

«Paris zirudian egitan Bilbok» (AZ, 19)

Elementu hiritarrak nonahi agertzen dira: filobusak, modistak, aipatutako hotelak, ofizinak, despatxu eta lantegiak, divan-ak, radioak eta idazmakinak, zineak, taxiak, kotxeak, motozikletak, garageak, e. a. Bestalde, hiritasunaren irudia ez da honetara mugatzen. Elaberrian aldaketa honen aztarna gehiago daude, eta agian garrantzi haundiagokoak. Gai batzuen agerpena, adibidez: sexua, diru-gose eroa edo ta treneko geltokian gertatzen den suizidioa. Pertsonaiegan ere halaxe ikus dezakegu, batez ere hiriko alde marginalean murgil-

tzen direnen aipamenetan: homosexualak, prostitutak, lapurrak,... haien tratamendua oso sakona ez bada ere, agerpena adierazgarria da. Hiriak duen bizitza-erritmo zoroaren aipamenak badira elaberrian zehar: kotxeen zaratak, denetaz beteriko kaleen iskanbilak,...

Baina herria-hiria bikoiztasuna oraindik mantendu egiten da, eta harekin batera bataren eta bestearen konotazio on eta txarrak. Halere, ikuspegi biak agertzeak ere iraun egiten du elaberri honetan:

«Bestelako aldea zeukaten bere erritxoko ta inguruetakoz auzoetan ezagutu zituari mutil traketz, oies eta esgotak» (AZ, 24)

«berriro eldu zan bere sorleku apalera [...] Egada nabar eta nabarmenak egiña zan ordurako, iri aundian aurkitu zuan gabirai aura zala-ta» (AZ, 65)

Ezinezko du idazleak, ordea, herriagan dituen sentipenak ezkutatu:

«Erriko jende apal eta jatorrak» (AZ, 65)

«bideak beteak zetorren kaialde politera, Atxaga erritxora» (AZ, 100)

Eta hiriak berak sentiarazten dizkionak, zuzenki erakusten ez baditu ere, batzutan zeharka, bestetan adjetiboen bidez, agerian uzten ditu, «*berebillen klaxon madarikatuak*» eta halakoetan, adibidez. Elaberri honek, beraz, «*vuelve a incidir en el maniqueísmo de la duplicidad campo-ciudad*», Kortazarrek seinalatzen duen bezala<sup>41</sup>, baina bertan hiria-herria bikoiztasunak ez du hain aldekeri ageririk.

Hiri giroaren deskribapena, ordea, ez da oso sakona. Dantzatokiak, hotelak, barruak eta kaleak ez daude bereziki deskribatuak, nahiko gainetik baino. Ukaezina da, dena den, *Arranegi* nobelatik bigarren honetara nahiko jauzi luzea dela, eta ez giro aldaketan bakarrik, honekin lotuak dauden aipaturiko beste elementu askotan ere bai.

*Batetik bestera* ibilbidearen adibide zuzena da guztiz. Elaberri honek baditu Kortazarrek Etxeitari buruz adierazten dituen elaberri inizatikoarekiko konkomitantziak ere. Izenburuak berak adierazten digu ibilbidearen ideia. Pertsonaia, Nikanor, batetik bestera doa, eta bidaiaren mugak herria eta hiria dira hain zuzen. Nikanor herri batetan sortu, eta hamasei urteko gaztetxo delarik handik alde egiten du hirirantz. Kortazarrek adierazten duen bezala, pertsonaia aurrera doan heinean aldatu egiten da haren zentzu ontologikoa. Elaberriak ume baten gizontze prozesua erakusten du.

Baina elaberri honetan estiloa ere zertxobait aldatua ikus daiteke. Nikanor protagonistaren ibilbidea nolabaiteko determinismoaz kargatua agertzen da.

<sup>41</sup> Jon KORTAZAR, *Literatura Vasca. Siglo XX*, Etor, Bilbo, 1990, 117. orr.

Kortazarrek, honetan ere, oso egokiro somatu zuen, eta halaxe dio —zentzu honetan adierazten ez badu ere— «cuanto más radical políticamente se hace el personaje, más cerca de la muerte se encuentra»<sup>42</sup>. Egia esan, pertsonaiak, hiritasunera hurbiltzen den heinean, erradikaltasun hura erakusten du. Bidaia, hortaz, ez da herritik hiriraino heltzen denean bukatzen. Hirirako bidea burutzen duenean oraindik neofitoa izaten jarraitzen du. Hirian herritar xehe izatetik hiri giroa ezagutu eta kaletar izaterainoko prozesua ere ibilbidea da; hirirako —edo, agian hobe, hiritasunerainoko— bidea ez da oraindik bukatu, eta ibilbidearen helmuga, heriotza alegia, somatu egin daiteke elaberrian zehar.

Gainera deskribapen batzuk gordintasunez eginak daude elaberrian, bizi-tza eta munduaren beraren krudeltasuna erakutsiz. Badira nobela honetan errealismo haundiagoko pasarte berezi batzuk, bertan idazlea so egile hutsa delarik, nahiz eta subjektibotasuna isuri. Hala ikus daiteke umetako garaian patai eta zomorroi egindako ankerkerietan:

«Lehenengo hego bat kendu, gero, bestea urratu; hurrengo, tutuan paper-zati biribildu luzetxuak sartu, ea idiak probalekuan jarduten dabean antzean, [...] Bapatean, maisua urreratzea izaten bazan, eskuartean edota liburu azpian zapalduta, han geratzen ziran gogortuta, euli bigun hazurbako hareek [...] Inoiz, eulien buruak moztuten zituen, ta liburu ala paper-orriak, azpildu; eta bitartean, euli-buruok gogor zapalduri, euren odol apurraz, irudi edo zirriborroak agertzen ziran.» (BB, 78)

Baita idia harrapatzen duteneko deskribapenean ere:

«Lurrera zan, abere gaixoa. Berehala kutzillo luze handia sartu eutsan samatik, eta odol gorri baltza hasi zan erion bizian urteten, bol-bolka. Osti-kada bat edo beste, eta handik lasterrean, gehiago zirkinik egiteke, gogortuta gelditu zan idisko sendoa.» (BB, 94)

Honelako deskribapenak agertzen dira elaberrian, idazleak detaile morbo-so eta bereziki gordin hauetan begiak zabalduago eta aztertzaileago erakusten dituelarik. Honelakoxeak dira Nikanorren gaitza deskribatu ordukoak ere, eta nobelaren azkenaldera areagotu egiten da joera hau:

«Gorazkoa jatorko, ezin egon gehiago. Heriotza lupua ete da? Ene, ene! Ahokadea irauli dau. Lurrean dago etzanda, ta lurrera botau dau ahokada nardagarria. Zer da, afaritako jatekoa? Ez. Odola da. Odola jaurti dau ahotik. Istil iguingarria dakus begien bistan.» (BB, 239)

<sup>42</sup> Ibid., 117. orr.

«Bapatean odol-gorazkoa datorkio. Izara ta ohe-estalkia gorri-baltzez lohitu ditu. Argizagiaren kolorez lotu dira haren arpegi ta eskuak. Ezpanak amusko, begiak hits eta urtsu.» (BB, 247)

Giroaren haritik pittin bat aldendurik, determinismo eta deskribapen mota hauek naturalismoaren irudia erakutzen dutela esan genezake, Sarriugarteren eritziz hauek Mogelen aztarnak izan balitezke ere<sup>43</sup>. Ez dugu honekin esan nahi Erkiagaren elaberri hau naturalista denik, jakina, baina ohiturazko elaberrien moldeetatik zintzilik egon dagoelarik, haietatikako ihesbidean aurre-ra pauso bat egin du idazleak. Badirudi *Batetik bestera* elaberri honetako pertsonaiaren progresioa idazleak berak darabilen ibilbidearen sinboloa ere badela nolabait.

Gagozkionera itzuliz, progresioa, ibilbidea, nabaria da elaberrian zehar. Hasieran herri batetako giroa deskribatzen du. Eguneroko bizitza, herritarren izaera eta ardurak, eta herrian bertan gertatzen den jerarkia sozialaren islada ere bai. Guzti honek elaberri erdia osatzen du. Elaberriaren lehen zatian idazleak giro hau gogoratzen du, iraganera joaten da, pertsonaiaren ibilbidearen hasierara, bidaia osoro erakutsi nahian. Lehendabiziko parte honetan Latsetako giro herritarra ispiatzen du, esan bezala, eta hau elkarrizketetan, gertakizunetan eta deskribapenetan ikus daiteke, narratzailearen subjektibotasun parzialak markaturik:

«Etxe doakabea aintxinakoa zan, eta bertan bizi ziranak jente menuxa, behargina, langilea, nekazalea; txit ezeukiak bere bai.» (BB, 49)

Halere, idazleak giro honen on eta gaitzen berri ematen du. Herritar xehe eta jatorren irudia ez da osoro aurreko irudi ukiezin eta idilikoa. Lehen zati honetan, Nikanor pertsona moeta desberdinen jokaerak ikusi eta ikasten dituen umea da, ume bihurria, ume guztiak bezala, edo agian gehitxoago —baina honen zergatiak ere azaldu egiten ditu, nolabaiteko normaltasunean sartuaz—, eta haren begietatik ikusten ditugu era guztietako izaerak. Gero hirirako bidea dator, eta agian honen deskribapenetan agertzen da herriaren goraipe argiago, baina herriak duen alde ez hain on hori ere erakutsi egiten du:

«Baserri-jentea, gehienez baketsua, sarritan goganbehartsu ta errezeluz betea.» (BB, 155)

<sup>43</sup> Iñaki SARRIUGARTE, «Erkiagaren giroa eta bere nobelagintza», in Eusebio ERKIAGA, *Batetik bestera*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1985, 24. orr.

Hirira heltzean giroaren deskribapenak ez du herriarekiko kontrajarren ideologiko bortizik sortzen. Hiri barruan badira moeta desberdineko pertsonaiak ere; erradikalagoak, hobeak, eta anbiguetate samurrean murgiltzen direnak (Gabontza bera, adibidez). Hemen, ordea, hiri nagusiaren deskribapenean *Araibar zalduna* elaberrian baino garrantzi gutxiagokoak dira sexoa edo marginalismoaren arazoak, nahiz eta, adibidez, txino auzoa eta halakorik agertu, politikak toki nabariagoa hartzen bait du nobelan zehar, hasieratik bertatik. Giro soziala erakutsi nahia somatzen da, nahiz eta idazleak hura bere osotasunean eta objetiboki adieraztea lortu ez. Sozialismoa, anarkismoa eta halako ideien agerpen eta deskribapenak ez dira espero zitekeen bezain sakonak, baina kontutan izan behar da, era berean, pertsonaiaren ikuspegitik eratuak daudela nolabait, geroxeago azalduko denez, eta alde horretatik gaiaren tratamendua Nikanorren inusentekierekin bat dator, ez da Kortazarrek seinalatzen duena bezalako manikeismo ageririk azaltzen<sup>44</sup>.

*Txurio Txoria* dugu gerraosteko ibilbide honen azken muga. Elaberri hau hiritarra da, hiri giroan gertatzen da orobat. Bertan ez da giro bikoiztasunik agertu, ez nabariki behintzat, eta agertzen den une berezietan batzutan aurreko elaberriari buruz adierazitako alde biak biltzen dira: herritar giro jatorrak baditu bere gaitzak

«herritar zehe letrabakoak egin ohi dauanez» (TT, 96)

Hiritasuna nahiko ikuspegi neutro batetik erakutsia dago, baina adierazgarria da oso izenburuak daraman azpititulua «*Lardabio giroko elebarria*», baita noizean behin esaten duenatik uler daitekena —«gure baserritar jatorren gizartean apurka apurka sendatu nintzan» (TT, 155)—.

Bestalde, tokien deskribapenek nahiko gaisetikoak izaten jarraitu arren, detaile txikiek batzutan garrantzi haundia hartzen dute. Detaileok, ordea, garrantzibakoak dira iduriz, ez dirudi gehienetan esanahi berezirik jasotzen dutenik, baina baliabide indartsua gertatzen dira pertsonaiaren gogoeten hariari egiazkotasuna emateko, oroimenaren mekanika konplexuaren islada tiki baina garrantzitsuak direlako, narratzaileari buruz arituko garenean azalduko dugun bezala.

<sup>44</sup> Jon Kortazarrek halaxe dio bere *Literatura Vasca. Siglo XX* liburuan (117. orr.):

«Tras el ambiente urbano, y el moralismo de la obra, en el que el maniqueismo alcanza tintes políticos»

Ez da ukatu nahi Erkiagak erakutsitako hiri giro sozialaren irudiaren subjektibotasuna, baina agian manikeismoak premeditazio kutsua du implizitoki, eta Erkiagak aurreiritzi eta kriterio sendo batekin baino, ezaguetza lainoarekin eratzen duelako ustean gaude.

Dena den, aurreko elaberrietan agertu izan diren elementu hiritarrak ohizko bihurtzen dira nobela honetan: taxiak, ofizinak, kaleak, e. a. Elaberria hirian gertatzen da, eta pertsonaiak ere hiritarrak dira, noizean behin herritar kutsua somatzen bazaizkie ere (Polpol familia bera, adibidez, bere izaera berezia izanarren).

### *Garaiaren islada*

Aurreko puntuarekin oso lotua dago Erkiagaren elaberrietan agertzen den garaiaren isladapena, isladapen honek hiritasunaren agerpenarekin ere zerikusi handia bait dauka. Guzti hau egokiro azaldu ahal izateko zati bitan banandu dugu puntu hau: alde batetik hiritasunaren agerpena eta bestetik garaiaren beraren erreferentziak.

*Hiritasunaren agerpena* esaten dugunean ondoko honetaz ari gara. Txomin Agirreren elaberrietan hiria oso karga negatiboarekin agertzen zen, egia esan, hiria ez zen inolaz ere deskribatu, juzgatu baizik. Agirreren nobelek hiria kondenu egiten zuten, euskal giro eta kulturari egiten zien kaltearengatik, eta honela *Kresala* eta *Garoa*-ko mundua herritar agertzen da, salbuespenak salbuespen. Erkiagaren nobelen mundua, ordea, elementu hiritarrez betea agertzen da. Gerraosteko elaberrietatik ere salbuespena izan daiteken *Arranegi* bere lehendabiziko elaberriak ere honelakoak erakusten ditu, eta hauekin giro ruralaren idilikotasuna apurtu egiten da: kotxeak, telefonoak, tresna berrien gorai-pamena (bapore eta gasolinazko itsasuntziak), zinea eta antzeko elementu guzti hauek idazlearen garaiarekiko hurbiltasuna azpimarratzen dute.

Esan bezala, Erkiagaren gerraosteko lau elaberri hauetan garapena ikusten da, eta garapena ibilbidea baino ez da, gorago aipatutako ibilbidea. Hortaz, Erkiaga hirira hurbiltzen den arabera, haren elaberriek giro hiritarraren elementu gehiago jasotzen dute. Ez da bakarrik aldaketa lexikoa, askoz prozesu sakonagoa da, ikusi ahal izan dugun bezala. Hiriak «kutsatu» egiten ditu — nolabait esateko— Erkiagaren sorketa-eremuak, eta horren ondorioz estilo poetikoaren moteldura, errekurtsio literarioetan erabilitako elementuak, pertsonaien eraketa, gai batzuen agerpena eta abar, bilakaeraren aztarnak dira. Elementu guzti hauen gehipena nabaria da elaberrietara joaz gero. *Arranegi* nobelan gauza eta tresnen esparrura mugatzen da ia soilik, aipatu bezala, baina elaberrietik elaberrira azaldu ditugun beste guztiak agertuz doaz eta, era berean, indarra jasoaz.

*Garaiaren erreferentziak*, ordea, ez dira oso ugariak oro har. Halere, haien zantzuak aurki ditzakegu elaberri guztietan. Erreferentzi hauek nahiko sakanaturik agertzen dira nobelaren barruan; batzutan lehen gertatutako zerbaiti buruzkoak dira, eta bestetan idazlearen kontenporaneitate hurbilagoak. *Arranegi*-n, adibidez, halako batzuk aurki daitezke:



«Erbestetik geure jaioterrira giñoiazan» (A, 7)

«eta egon ba lira egon gizaldi onen azieran, Gernikatik onagiñoiko trenbide asmoak be, bertanbeera geldituko etzirana» (A, 17)

Baina garaiko gertakari eta gizarte motaren deskribapenetan ere ikusten da garaikidetasun nahi horren islada:

«Zabalkunde aldi ontan, propaganda dalako oraingo gar eta ekinbeerraren sorpuru» (A, 134)

Halere, garaiko gertakizunen erreferentzi zuzena egiten du, oso gutxitan bada ere. Hala, adibidez, bere lehenengo nobela honen 35. orrialdean idazleak San Pedro jaiaren deskribapenean agertzen duen oharran honelaxe dio: «Liburu au argitara-orduan, aintziñetatiko jaiok goizera aldatu ditue. Aldian aldiko... ta ontzat emoten eztauanari, lepoko narrua kendu».

Beste elaberriak antzekoak agertzen dira honetan. Hiritasunaren lorratzak gaurkotuz doaz, eta garaiazen isladapen hurbilagoa izaten dira. Erreferentzi adierazkorragoak dira garaia berari buruz ari direnak. Esan bezala, hauek batzutan aurreko gertakariak izan daitezke edota idazlearen orainarenak ere bai:

«Lenengo gerrate nagusian irabazi izan zituanak gorde izan ba litu» (AZ, 10)

«Egunero berratuaz eta aundiguaz dioan Errekalde auzotegi ori eta iriko beste zati nagusiak alkartuko zituan zubi luze» (AZ, 17)

«Iarunbatetan zazpikaleetako dendak gaiñean izan oi duten zirriparra» (AZ, 24)

«Ba du bai luzera ederrean txoko polit eta paketsurik Mazarredo kale bakana» (AZ, 59)

«Mende arrigarria XX-garrena [...] mende arro, uts eta bidez-itzuria!» (AZ, 158)

«ez egoan huri haretan, inguruko beste askotan lez, mende honen lehenengo laurenean, bizikletarik saltzen ez diru-truke erabiltzerik ere» (BB, 99)

«alemanak sorturiko azken gerrate handiaren ostean» (TT, 41)

«Algeriko gerratean ere, denpora baten ibilia ei nintzan» (TT, 91)

Eta gehiagotxo dira bestelako datuak, gizartea eta honen egoera deskribatzen dutenak, alegia. Datu hauek era desberdinetakoak izan daitezke; batzutan garaiko dantzak eta musika moeta, bestetan hartaraino aldaketa jaso duten ohiturak, garaiko pelikulen izenburuak, edo orduko gizarte arazoak:

«rumba ta mambo, samba ta rock and roll» (AZ, 36)

«twist eta kalipso artean ikusi baietz?» (TT, 126)  
 «Oraingo neskatila kirolzaleak ohi diranetarikoa, gertua, ausarta» (BB, 113)  
 «neskatila bat ezagutu neban. Asmo modernoak, ohitura nasaiagoak» (TT, 86)  
 «Orduko bideak, harri koskorrez beteak egozan» (BB, 126)  
 «Artean, oraingo tele-ikuskailurik ez egoan asmatu» (TT, 48)  
 «Anartean, ez ebilen gure merkatuan boligraforik» (TT, 84)  
 «neuk B. B.-ren tankera artzen diet, pelikula batean ikusi nuanetz» (AZ, 112)  
 «ikusi al duzu oraitu *Le défroqué* film izugarri hori?» (AZ, 125)  
 «Nick Carter eta Buffalo Bill-en jazoerak eta! [...] orduko filme izugarriak» (BB, 56)  
 «Ondartzak buruauste aundia ematen diete elizgizonai Euskalerrria-n» (AZ, 121)  
 «Toxikoak ziran. Opio ta haren alaba morfina ta abar» (AZ, 152)  
 «zerbait baino gehiago Marx-ek irakatsi eban arloan» (BB, 169)  
 «Langileen alkartasunak, jai egitea erabagi dau arratsaldean, zezen plazan egingo dabena bilera» (BB, 186)

Agian adibide zerrendak luze samarra eman dezake, baina adierazgarria ere bada, elaberrietan dauden ia datu guztiak direla kontutan hartzen bada. Esan dugun bezala, beraz, garaiaren isladapena hiri giroaren isladapenaren ikuspuntuan datza nagusiki. Erkiagaren nobeletan, Agirrerenetan ez bezala, hiriak eskeinitako bizimodua arruntago eta onartuago agertzen da; desberdina da, bai, eta bere gaitzak ditu, elaberrietan horiek ere agertzen direlarik, baina hiritasun horren irudiak hurbildu egiten du Erkiagak eskeinitako istorioen giroa idazleak bizi duen mundura, baita irakurlearen ere nolabait, eta honek errealismorantzako urrats garrantzitsua suposatzen du, neurri haundiko urratsa ez bada ere.

### *Denbora eta espazioa*

Puntu honetara helduaz, esan beharra dago Erkiagaren elaberriak nahiko tradizionalak direla denbora eta espazioari dagokionez. Baina beste arlo guztietan ohartuz goazen bezala, oraingoa ere bilakaera bat ikusten da elaberriak multzo bezala harturik.

*Denbora* ez da, normalean, zuzenki adierazten nobela hauetan. Denboraren aurrerapen lineala da nagusi, gertaerak jarraian doaz hasieratik azkeneraino. Ez da, ordea, kokapen zehatzik ematen gehienetan, gorago adierazotako datu urri haiez gain ez digu idazleak pista gehiagorik ematen. Beraz, kasu berezi batzutan ezik (XX. mendearen aipamena, 2. Mundu Gerrarena eta gutxi gehiago), gizartearen deskribapenak dira irakurlearentzako baliabide nagusia.

Horrezaz aparte, kontaktaren jarraipenean denbora zehatzagoa da, baina ez askozaz gehiago. Badira, ordea, linealtasunaren barruan murgiltzen lagun-

tzen diguten markak. Orokorrean marka hauek egunen aurreratzearen aztar-  
nak dira, baina askotan ez dakigu tartean egun bat ala hilabete bat pasatu den.  
Kapitulu batetik hurrengorako jauzien neurria ez da askotan adierazten. *Arra-  
negi* elaberrian nabariagoa da besteetan baino,

«Urteak igesi joan dira ordutik...» (A, 7)

«Illuntzea zan» (A, 13)

«Eguerdi-aldea zan» (A, 79)

eta *Araibar zalduna*-n ere oso jokaera antzekoa erakusten du Erkiagak, hone-  
tan jarraipena batzutan zuzenagoa bada ere:

«Arratsaldeko bostak ziran» (AZ, 5)

«Bigaramonean» (AZ, 21)

«Urrengo ostiralean» (AZ, 22)

«Jaieguna berriro eldu zanean» (AZ, 29)

«Andik gerora» (AZ, 69)

«Goiz batean» (AZ, 71)

«Egun batean» (AZ, 73)


*Arranegi* 1950ko udaldian idatzia izan omen zen<sup>45</sup>, eta hau Erkiagaren le-  
hendabiziko elaberria izanik, idazteko garaiak eragina izan zezakeen, konta-  
keta udaldi batetan gertatzen bait da. Ematen diren datuen bitartez jakin  
dezakegu istorioa udabarri azken aldera hasten dela, ekaina hasieran gutxi  
gorabehera, eta egun zehatz batzuk joan ondoren —«Zeruko Giltzari doguna-  
ren bezpera» (A, 23), «Udako arrantzuketa onen asiera-eguna eldu zan» (A,  
77), «Egun artan, Santi Iago biaramona» (A, 119), «Eldu zan ba, irailaren  
lenengo eguna» (A, 182), «Iondone Andolin eguneko goizaren pozgarria!»  
(A, 189)—, III. kapitulua ekainaren 28an hasi eta azken kapitulua iraila hasie-  
ran, «Andra Maria Antiguakoaren egun sentian» (A, 190) bukatzeraino gerta-  
tzen dela. Beraz, hiru hilabetetan gertatzen da elaberriaren kontakizuna. Tar-  
tean jarraipena ez da oso zehatza, lehen azaldu legez, salbuespen batzuk izan  
ezik («Gau artatik arrezkero, iru egun mando iraganak ziran» (A, 94), adibi-  
dez).

*Araibar zalduna* elaberriaren kasuan, ordea, askozaz konplikatua gerta-  
tzen da denboraren jarraipena zehaztea. Elaberria negu aldera hasten da,  
baina II. kapitulan, Manu Araibar pertsonaia nagusiaren aurkezpena egitera-  
koan, batbatean denboran atzeraka egiten du narratzaileak, Loli Mena eta  
Araibar ezagutu zireneko egunera. Egun hau igandea zela esaten da, baina ez

<sup>45</sup> Ikus «Eranskina», lan honetan, 148. orr.

dakigu noizkoa. Irakurleak, ordea, ez du nahikotxo aurrerago arte jakingo kontaketa, berez, egun horretan hasten dela. Kontaketa aurrera doa, eta denbora, berriz, eten egiten da IV. kapituluan, Ihauterietako giroa eta gertakariak azalduz, aditzak ere orainaldian agertzen direla. Kapitulu honen bukaera inguruan denboraren aurreraketa hasten da berriro (eta aditzak lehen aldia berriz), eta berehala V. kapitulurako uda joana da dagoeneko. Jauzi izugarria beraz. VI. kapitulua «Negu-leeneko arrats batean» hasten da, eta «Urtearen azkeneko astea eldu zanean» bukatu: urte osoa, gutxi gorabehera, elaberriaren haseratik. Hemendik aurrera denboraren jariora moteldu egiten da berriz, eta XII. kapituluan uda heldu da berriz ere. Atxagako giroa erakusten zaigu orduan, hondartza, turistak,... XIV. kapituluaren azken alderaino. Orduan iraila erdirako jauzia egiten da, eta denbora berriz aurrera doa apalago, XVI. kapituluan Serafin eta Matilde «Udazkeneko goiz eme ta bizigarri batean» ezkontzen diren arte. Hemendik aurrera ezinezkoa da denboraren jariora nondik nora doan jakitea. Azken kapitulu honen hasierako parrafoetatik hurrengo batetara Manu Araibar eta Agurne ezkonduak dira, eta hortik azkeneraino bikotearen «Lendabiziko illabeteetan» izandako giroaren deskribapen laburra ematen da, gero «illabeteak bete ziran», hurren «illabeteak aurrera» doaz, eta ondoren «Illabete batzuek iragan ziran», bukaerako gertakari zerrendarekin elaberria berehala amaitu arte.

Agian eskematxo baten laguntzaz hobeto ulertu ahal izango litzateke:



Beraz, *Araibar zalduna* elaberriak ia hiru urtetako epea betetzen du, baina urte bakoitzaren barruan denboraren jarioa oso desberdin agertzen da, baita gertakizunen hurrenkera ere. Kontaketa lineala da, hots, hasieratik azkenerraino, adierazitako salbuespena izan ezik, aurrera doa etengabe, baina jauzien neurri denboralak oso desberdinak dira, eta honela kontakizunaren erritmoa aldatu egiten da, batez ere azkeneko kapituluan.

*Batetik bestera* elaberrian ere denbora lineala da nagusiki, baina zati bitan banandua dago kontakizunaren haria. Lehendabiziko zatian pertsonai nagusia hamaika urteko umea izatetik hamaseiko gaztetxo izatera pasatzen da. Beraz, zati honek bost urtetako epea luzetxo betetzen du, zehaztasun osoz ez badakigu ere. Bigarrena protagonista hamasei urtere dituela hasi eta hogeitabi inguru dituean bukatzen da; beste bost urte edo gehitxoago. Beraz, elaberria hamar-hamaika urtetan gertatzen da, zati berdintsu bitan bananduta dagoelarik. Halere, narraketaren barruan ematen diren aztarnak eta datuak ere aurrekoetan bezain zehazgabeak gertatzen dira gehienetan:

- «Biharamonean» (BB, 51)
- «Goiz batean» (BB, 200)
- «behinola» (BB, 80)
- «Arrastian» (BB, 104)
- «Iluntzean» (BB, 130)
- «goizeko egunkariak heldu orduko» (BB, 128)
- «Hurrengo domekan» (BB, 142)
- «Eguna zabaldu danean» (BB, 152)

Denborari buruzko ohar zehatzago gutxi batzuk badira, batez ere lehen parteko lehendabiziko hiru-lau egunetakoak, etxetik ihes egin barria denean —«eskatu dau gauerako tokia» (BB, 151), «Bigarren gaua, etxetik aldeginik» (BB, 156)— eta beste bizpahiru —«Elezinoiak baino bederatzi egun lehena-go» (BB, 135), «Ez ezagutzen? Sei urte luze edo iragan dira-ta [...]. Noiztik zagoz huri haundi honetan? – Bost hilabete eskas» (BB, 218)—. Nikanorren adinari buruzko datuak dira, hain zuzen, denborari buruzko ohar nabarietak kontakizunaren kronologia ezagutzeko elaberri honetan. Baina ikusten denez, bidea ez da oso erraz jarraitzen, nolana ere.

Berezitasun bat dauka elaberri honek, bestalde. Denbora, pertsonaiaren adina aurrera doan heinean, lineala da, bai, baina zati bien arauera oso ohar garrantzitsua egiten digu Erkiagak: lehendabiziko zatia lehen aldian idatzia dago, aditz guztiak lehen aldian agertzen dira. Bigarrena, ordea, orain aldian dago. Sarriugartek dioen bezala «ba dirudi nobela, benetan, bigarren zatian

hasten dala»<sup>46</sup>, eta hala da, dudarik gabe. Istorioa, berez, bigarren zatian hasten da, eta hauxe ikusteko oso adierazgarria den elementua dugu: aditzen denbora, alegia. Esan bezala, lehenengo partea lehen aldian kontatzen da, iraganean gertatutako zerbait dugu, Nikanor pertsonaia nagusiaren ume denboraren deskribapena, herritik alde egitea erabakitzen duen unera arte. Bigarren zatia Nikanorren hirirako bidea eta hirian izandako gertakizunak dira, bera hil arte, eta guzti hau orainaldian narratzen da; baina bigarren zati honen lehendabiziko kapitulua honelaxe hasten da:

«Txikitan, dirurik ez eukenean, mutikoak arpegi ala gurutze egitearen orde, harri koskor bat hartu, zapal samarra, eta txu eginaz, ahoko txistuaz hezotuaz, «hiru ala legor» esan ohi ebela gogoan darabil Nikanorrek, eta beretzat oraingoan, beharbada, «legor» urten ete dauan-eta dago.» (BB, 151)

Bigarren zatia, beraz, Nikanor gogoetan dabilela hasten da, lehen aldian, lehen partea agertzen den era berean hain zuzen. Gogoeta luze baten amaiera da, lehen zatia eta bigarrenaren arteko lotura, alegia. Luze samarra da, esan legez, eta hau egiazkotasunaren kalte seguraski, baina gazteak etxetik aldeginiko egun horretan bertan hasita bigarren zatia, ez da oso okerra pentsatzea gaztea —zalantza eta, agian, beldurren artean— bidaiari hasiera ematean ihesaren zergatiak arakatzen has zitekeela, eta arrazoen bila ibiliz bere aurreko bizitzaren —utzi berri duen bizitzaren— gogoetak izatea jokabide psikologiko normala litzateke. Hipotesi honi argudio indartsua kontrajar lekiok halere: memoriaren bideak orekatuegi agertzen direla, oroimenak erabiltzen dituen hariak ez bait dute, maiz, halako orekarik izaten. Baina idazleak darabilen narratze moldeak oraindik ohiturazko elaberriaren eragina duela kontutan izanik, denboraren kontzepzio balzakiano samar horretatik sortutako eraketa hau normaren barruan geratzen zaigu, hau da, Erkiagak zituen baliabideetatik sor zitekeena da. Beraz, azalpen hau honartuko bagenu, *Batetik bestera* elaberriko lehenengo zatia nobela erdiko flashback luze bat baino ez litzateke izango, kontaketa, berez, bigarren zatian hasiko litzatekelarik.

*Txurio Txoria* elaberrian denboraren eraketa besteetan baino konplexu eta zehazgabeagoa da. Joera nagusia linealtasunera doa, jasotako eraginak deuseztatzea zaila gertatzen bait da, baina kontakizunaren barruan jauzi batzuk agertzen dira. Igone Etxebarriak esan zuenez, «Denborari dagokionez arazoa iluna dago»<sup>47</sup>. Hala da, izan ere, baina berak eskeintzen duen konponbidea ez da oso egokia gure ustez. Igone Etxebarriak zuzen dioenez, elaberria hasten

<sup>46</sup> Iñaki SARRIUGARTE, Op. cit., 21. orr.

<sup>47</sup> Igone ETXEBARRIA, «Sarrera», in Eusebio ERKIAGA, *Txurio Txoria*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1986, 17. orr.

denean ekintza hasia dago, irakurlea aurrera joan ahala ohartuko denez, baina, elaberrian zehar agertutako aztarnen azterketaren ondorioak ez datoz bat haren eritziarekin, ezinezkoa da «historia bera «Txurio» izeneko kapituluan» hastea, berak dioen bezala<sup>48</sup>, ez bait legoke geroago gertatuko litzateken atzerako jauzia ondo ulertzeko modurik. Haserako kapituluaren gertakizunak ikusten badira, bestelako aukerabide zuzenago eta posibleago bat aurki dezakegu, nahiz eta honetan ere gauzak guztiz argiak ez izan:

1. kapitulua.- Elaberriaren hasierako egoeran Melki pertsonaia nagusia Txurioren menpeko utzitako garaian agertzen da, eta egoera horretatik gogoratu egiten du hurbileko gertakizuna: Erraul «Haginandi»-ren telefono deia taldera itzultzeko eskakizuna eginez. Gure ustez, geroago azalduko dugun beste aukera bat ere egon arren, hauxe litzateke kontakizunaren hasiera, ondoren azalduko dugunagatik. Hortik aurrera oroitzapenak datoz.

2. eta 3. kapituluak.- Taldeko kideen aurkezpena lehendabizi, eta taldearen barruan izanik ezagutu zuen Polpol familiarena. Honekin lehenengo hiru kapituluak betetzen dira, baina gogoetek jarraitu egiten dute hurrengo kapituluan ere, norabidea, ordea, aldatu egingo delarik.

4. kapitulua.- Aurreko gogoetekin lotzen du eta oraingoan atzera doa berriz, Txurio oraindik beretzako ezaguna ez zen garaira, hain zuzen; bere mekanikarako joera, erlojuariarekin izandako esperientzia... Eta honaino gogoetak.

5. kapitulua.- Hasierako egoerara itzultzen da, taldearekin izandako aldi bien tartera. Erraulen deia gertatua da (1. kapituluan) eta taldera eramateko beste saiaketa bat dator: Itxainerekin bilera izatea.

Egia esan, narraketa hasten denean, istorioa bera ere hasten da, baina ez da inolako egoerarik berez deskribatzen, iradoki baizik. Egoera hau 5. kapituluan agertzen da argiago, eta bertan 1. kapituluan izandako deia ondoren Itxainerekin izango du elkarrizketa protagonistak. Akzioaren hasierako egoera une honetan datza, hau da, Itxainerekin izandako elkarrizketaren aurretik edota, gehienera, elkarrizketaren ondoren. Bietatik egokien gertatzen dena lehendabizikoa da: Erraulen deia eta Itxainerekin elakarrizketa bitartean, taldera berriz erakartzeko bi ahaleginetatik lehendabizikoa gogoratzen du pertsonaiak, eta oroimenaren haritik taldearekin izandako esperientziaz zer-bait etortzen zaio burura: partaideak eta beste pertsonaia berezi batzuk. Honen ondoren Itxainerekin izango du bilera, eta honen ondoren, taldera berriz sartu ala ez erabakitzen duen bitartean, berriro hasten da gogoratzen, oraingo honetan, polpoldarrekin gogoeta laburraren ondoren, Txurio eza-


<sup>48</sup> Ibid., 10. orr.

gutu zueneko garaia eta bere lehendabiziko urratsak taldean. Beraz, nobela-  
ren hasierako egoera eta 5. kapituluaren hasierakoa, biak egoera berbera dira,  
eta hauxe litzateke istorioaren hasiera aldi berean.

Baina Itxainerekiko elkarrizketa izan ondoren berriro ere hasten da gogoe-  
tan, eta oraingo honetan Txurioren ezaguera eta lehendabiziko ibilerak gogo-  
ratzen ditu, taldearekin izandako aurreko garaia hain zuzen. Istorioak gogoe-  
ta honen ondoren jarraitzen du. Eta hemen agertzen da arazo nagusia. Istorioaren kontaketa Itxainerekin izandako elkarrizketarekin hasten bada,  
gogoetak 20. kapitulua baino harainokoak ezin dira izan, gehienez, 21. kapitulu-  
an Itxaine hilik bait dago. Eta 14. kapituluaren aurrekoak ere ezin izan,  
bertaraino Melkik taldearekin izandako lehendabiziko esperientziak azaltzen  
bait dira, eta horiek gertatuak zirelarik taldea utzi duela dio hasieran. Hortaz,  
zehaztugabeen dagoen zatia 15. kapitulutik 20.ra bitartekoa da. Ez daukagu  
inolako daturik hauen arteko denbora erabakitzeke, eta honela 5. kapitulutik  
datorren kontaktaren hariak kapitulu hauetako edozeinetara jo lezake. Pro-  
tagonistak 1. kapituluan, taldearekin izandako lehenengo garaian «zigorrak  
ere izan nituan» dio, eta agian 20. kapituluan Txuriok emandako erronkare-  
kin lotu genezake hau, baina berez kapitulu artean dauden jauzietatik edozei-  
netan gerta zitekeen.

Historia, berez, erlojuariarekin egon zeneko garaian hasten da, 4. kapituluko  
gertaerak dira hasiera, eta hilketarekin bukatzen da. Istorioa, ordea, historia-  
ren erdian hasten da, adierazi bezala, aurreko guztia gogoeten bitartez azal-  
dua agertzen delarik —erlojuariarena eta Txuriorekin izandako lehendabizi-  
ko aldikoa (bertan Polpoldarrak eta taldekideak...)—, atzerantzako jauziak  
eginez, eta narraketa bera ere une honetan hasten da.

Dena den, egitura denboral hau konplexu samarra izanik, kontaktak ela-  
berriaren lehenengo zatian batez ere dituen jauzien prozesua erakusteko es-  
kema baten bitartez ulertuko dugu hobeto agian:





Halere, lehen esan bezala, beste aukera bat geratzen zaigu, oso irtenbide erreza nolana. Elaberriaren itxura autobiografikoa eta lehen aldiko narraketa kontutan izanik, agian protagonistak Txurio hil ondoren kontatzen digu guztia, baina azken aldeko kapituluaren itxura eta batbatekotasunak ez du, aurrean bezala, gertakizunei buruzko gogoeten arrastrorik agertzen. Ez da hau eritzi oinarribakoa, edozelan ere. Narraketa aurrera doalarik, azken kapituluetan ere, batzutan aditzak orainaldian agertzen dira, narratzailearen oraina agerian utziaz, eta beraz narratzailea nobelaren historia osoa gertatu ondoren ari zaigula pentsatzeak badu zentzurik nolabait:

«Baietz erantzun neutsan eta joan egin nintzan. Ez dakit, oster, zegaitik joan nintzan harenera» (TT, 115)

«Seigarrenak baeban bere... zera. Txuriok behar zan ginoan ez ebalu ulertu uste dot» (TT, 172)

Ikus daitekenez, hortaz, Erkiagaren nobelatan denboraren hariak nagusiki bide klasikotik badoaz ere, nabaria da idazlearen sortze lanean gertatu zen bilakaera, honek bere elaberrien ia elementu guztietan aztarnak utzi zituelarik. Baina denboraren tratamendua ez da batere zehatza, eta anbiguate honetan murgilduz elaberriak nahiko intenporal gertatzen dira, azken aldian narraketa-kontaketa jokoek konplexutasuna ematen dieten arren.

*Espazioa* aztertzerakoan arazo bertsuak aurkitzen ditugu eta ez gara, beraz, gehiegi luzatuko. Espazioaren deskribapenak ez dira oso zehatzak Erkiagaren elaberrietan, nahiko gutxi definituak daude orokorrean. Halere, badira bereizketak egiteko ezaugarri batzuk. Banaketa bat egin daiteke Erkiagaren nobelatan kokapenaren zehaztasunari begira: batetik *Arranegi* eta *Araibar zalduna*, eta bestetik garai honetako azkenengo biak.

Lehendabizikoetan, egia esan, tokiak nahiko zehaztuak daude, baina ez haien deskribapen trinkoa egiten delako, tokien izenak eta kokapenak argiro ematen direlako baizik. Kontutan hartu beharreko gauza da elaberri hauek gertatzen diren ingurua zehatzago ematen duela idazleak: *Arranegi* Lekeitio bertan gertatzen da, Lekeitio da istorioaren kokalekua, eta *Araibar zalduna* Bilbo hirian gehienbat, kostaldeko Atxaga herrixkan gertatzen den zatia berriro Lekeitio gogoratzen digula, Sarriugartek ohartu bezala<sup>49</sup> —ohar dezagun, bide batez, *Jaioko dira* elaberrian Lekeitioko Atxaganeko jauregi bat ere agertzen dela<sup>50</sup>—. Honegatik kaleen izenak, zubiak, mendixkak, toki guztien ko-

<sup>49</sup> Iñaki SARRIUGARTE, *Op. cit.*, 18. orr.

<sup>50</sup> Eusebio ERKIAGA, *Jaioko dira*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1984, 30. orr.

kapena askoz ere zehatzagoa da elaberri bi hauetan besteetan baino, inguru hauek Erkiagari oso ezagunak bait zaizkio. Badira, izan ere, Lekeitiori berari eginiko aipamenak:

«kondaira edo historia ederren jabe dan Lekeitio» (A, 9)

«Lekeitio-ko kaixerrenka zaarra!» (A, 35)

«lekeitiar semeak dagozan lekuan dagozala» (A, 181)

Idazleak berak *Arranegi*-ko hitzaurrean hala adierazten du: «Ipuin edo elebarri onen gertaleku, Lekeitio ta bere mugak dira; toki-izenak bai egiazkoak dira». Ez da batere berezia, bestalde, Lekeitio «Arranegi» izenaren azpian agertzea —Lekeitioke alde baten izena da berez—, Txomin Agirrek berak «Arranondo» izenarekin ezkutatu bait zuen Ondarroa bere jaioterrria. Baina ez da hau euskal idazleengan soilik agertzen den jokaera, halaxe agertzen zen ere Oviedo, adibidez, «Vetusta» izenarekin Clarín-en *La Regenta* elaberrian, edo ta hiri bera «Pilares» izenarekin Ramón Pérez de Ayala-ren *Belarmino y Apolonio* nobelan.

Denetara, edozelan ere, tokien deskribapenak oso urriak dira kasu gehienetan, detaile batzuk baino ez dira ematen. Deskribapen zehatzenak paisaiari dagozkienak dira, «Lekeitio inguruetakoz izadi zoragarriak» (A, 182) hain zuzen. Hauetan idazleak duen olerkirako senaren indarra nabaritzen da eta ez du batere detailerik mespreziatzen naturaren eskenak aditzera emateko. Kaleetan dauden argi-ilunak, koloreak, usaiak, zaratak eta hotsak deskribatzen, ordea, urri samarra agertzen da, aipamen apalen bat edo beste izan ezik («Etxe ta olabe ondolik igaroten da trena. Han ba ditu, ganera, bitarte hilak, orga eta bagoiak egoten diran lekuak. Hantxe ikusten ditu sarri neska-mutil gazteak, atso-agurak bere bai, hauts eta sutauts artean, harrikatuz apurak batu gurarik [...] Hala ta bere, oherik bageko gizasemerik ez eban ezagutu Nikanorrek bere herrialdean» (BB, 171)). Baina tokien izenen aipamen zehatzak gutxitu egiten dira azken bi elaberrien kasuan, hauek ez bait dira leku ezagunetan gertatzen, eta ez dakigu, beraz, akzioa non jazotzen den. *Batetik bestera* elaberrian, ordea, *Txurio Txoria*-n baino gutxiago gertatzen zaigu hau. Sarriugartek hasierako herriaren izenaren azpian ere —Latsetan— Lekeitioaren erreferentziak aurkitzen ditu<sup>51</sup>, baina gure ustez ez da eritzi horretara heltzeko bide argirik erakusten duten datu nahikorik. Bigarren partean ere Mediterraneo aldeko hiriaren aipamenak eta haren detaile batzuk Bartzelonaren irudi lurrumbetsu bat ematen digute. Dena dela, azken elaberri biotan tokien

<sup>51</sup> Iñaki SARRIUGARTE, Op. cit., 18. orr.

izenak eta gertakarien kokapena zehatz ez badakizkigu ere, ematen diren deskribapen bakanak besteetan baino detailetsuagoak dira.

Kanpoak deskribatzen oso zehatza ez bada, barruekin areago gertatzen da, oso kasu gutxitan ematen ditu etxe barru, dantzaleku, hotel eta besteren barneko detaileen deskribapenak, oso gutxi definituak agertzen dira orokorrean. Hala eta guztiz ere, batzutan halakoren batzuk agertzen dira, eta azken bi nobelatan deskribapen hauek zehatzagoak izaten dira, detaile gehiagoz hornituak behintzat, baina ez dira oso ugariak:

«an barruan sumaten zan berbots eta zurrumuruagaz.[...] Keia an barruan bere ba ebillen ibilli; ez ostera suteko kerik, tabako orriak erreaz» (A, 13)

«Makiña berria zegoan alderdira eraman zuan Dorote, bere nagusi adiguri-tsuak. Eta an ere, argiak bizkar aldetik izateko eran jarri» (AZ, 67)

«isiltasuna besterik ez egoan han. Ez egoan inor.[...] Armario haundi bat egoan, goitik beherainokoa. Erdian, mahai ilun bat, eta inguru, lau silla, egin ziranetik barriztau bakoak» (BB, 131)

«Leiho txiker bat kanporantz, kristalak arrakalaz beterik, eta paper horituak adabaki antzean ezarriak. Aulki single bat, eta komada zaharra, bazterrean» (BB, 151)

«Etxearen lurreko oinean, ate bakarra dago kanporako. Atadia zabala da, ta ezker-eskui atea dagoz; bata, sukalderrako bidea da, ta horrezaz ganera, hortik barrura dagoz etxeke logelarik onenak eta jantokia» (BB, 175)

«Gela ez apain ez txiro baten» (TT, 28)

«Han, logela bi, irol apaina eta despatxua edo. Mahaia, besaulkiak, aulkiak, kuadru batzuk hormetan dingilizka, armario ederra» (TT, 170)

Ikusten denez, autorea tokien giroketak egiterakoan lehenengo nobelatan askoz zehazgabea da azkenetan baino, baina ez da, osoro, goikoa bezalako deskribapen gehiegirik. Halere, ohargarriak diren eskena bi daude: bata *Bate-tik bestera* elaberriari protagonista Olarratz-en baratzean sartzen denean (BB, 82) —Sarriugartek adierazita ere<sup>52</sup>—, eta bestea *Txurio Txoria* nobelan Melki pertsonaia nagusia ofizinetan lapurketa egiten ari denean (TT, 138-142). Hauetan giroa eta eskena beraren deskribapenak ere oso egoki eratuak daude, oso bizi eta ederrak dira, eta egiazkotasuna darie, batez ere azkenengo honetan, giro orokorrari dagokionez, nahiz eta deskribapen fisikoz lehendabizikoa hobea izan. Baina Erkiagaren elaberriak errealismoaren deskriptibismo zehatzetik urrun aurkitzen dira oraindik, edozein modutan ere. Honetazko bidean aurrera jotzen ari delako aztarnak, ordea, baditugu nahiko,

<sup>52</sup> Ibid., 24. orr.

idazle honen gerraosteko elaberrigintza kostunbrismo hutsaren parean ez izateko bai behintzat.

### *Pertsonaiak*

Erkiagaren elaberrietako pertsonaien azterketatik ateratzen den ondorio nagusia hauxe da: pertsonaiak uste izan ohi den baino aberatsagoak dira. Agian bide deduktibo batean murgilduz ondorioa hasieran ematea ez da oso ortodoxoa, baina aurreiritziak kolokan jartzeko baliabide egokia deritzagu.

Ohargarri nabaritzen dugun lehendabiziko gauza pertsonaien ugaritasuna da. Lau elaberrietako pertsonaien media eginez gero 32koa gertatzen da, eta elaberri bakoitzeko pertsonaien kopuruaren erdia lehendabiziko bost kapituluetan aurkezten da. Hala ere, desberdintasuna bada garai honen hasierako eta azkeneko elaberrien artean. Binaka banatu daitezke, 30 pertsonaietatik gorako eta behekoak izatea erizpide hartuta. Lehenengo biek ia 40 bat pertsonai dituzte; beste bietan, ordea, 25 inguru agertzen dira. Pertsonai ugaritasunak kalte egiten dio pertsonaia bakoitzaren eraketari, eta hau izan liteke pertsonai kopuru urritzearen arrazoiatariko bat, eta garrantzitsuena gure eritziz.

Elaberriz elaberri ikusiaz, *Arranegi* nobelaren pertsonaia nagusia herria bera da, Lekeitio ispilatzen delarik. Agirreren *Kresala* liburuan ere antzeko zerbait gertatzen da, Mitxelena ohartu zuenez «Maitasun batek sortarazi ditu liburu biok, naiz Lekeitio eta Ondarroa ez hain elkarren adiskide izan»<sup>53</sup>. Baina askoz ere hurbilagoa erizten diogu Anabitarteren *Donostia* elaberriari, ez honetan bakarrik, beste ezaugarri askotan baino. Erkiagak *Arranegi*-ko hitzaurrean adierazten zuen nobelaren helburu nagusia Lekeitio «bere jaioterriari goresmen egokia kantatzea»<sup>54</sup> zela. Hala egiten du Anabitartek ere *Donostia*-ko azken aldera: «Donostia ta donostiañak: orixe zan nere asmoa, naiz eta itz labuñez nere liburua izendatu»<sup>55</sup>, «Orduko Donostia zer zan jakin ezazun, egiñalak egin ditugu»<sup>56</sup>. Ez dago, beraz, *Arranegi*-n pertsonaia nagusirik Lekeitio baino, nahiz eta elaberriko zenbait pertsonai besteak baino nabaria-goak izan.

*Arranegi* elaberrian 38 pertsonaia agertzen dira, baina kasu askotan izenak baino ez dira aipatzen. Ez da dudarik, bestalde, hauetan ez dela grina ez barne krisialdi berezirik antzematen, haien mundu psikologikoa ez da oso sineskorra berez. Pertsonaia hauek izaten dituzten gogo-aldaketek eta krisiek ez dute oso

<sup>53</sup> Koldo MITXELENA, «Arranegi, Eusebio Erkiaga», in *Egan*, XI, 1958, 102. orr.

<sup>54</sup> *Ibid.*, 103. orr.

<sup>55</sup> Agustín ANABITARTE, *Donostia*, Bilbo, 1932 (Faksimila), 122. orr.

<sup>56</sup> *Ibid.*, 150. orr.

egiazkor ematen. Jon Bizkor edo Zuriñe, adibidez, nobelan agertzen diren pertsonaietatik nabarienak izanik, alde batetik bestera dabilta inolako arazo larriarik gabe; Jonek, esaterako, elaberri osoan zehar Zuriñeren maitasuna lortu nahi du, eta gogor ekiten dio azkenera arte, baina azkenean Zuriñeren sentimenduak nora doazen ikusirik, etsibarri dagoenean batbatean Madalen ikusi eta honetaz maiteminetan hasten da. Ikuspegi psikologiko sakontxoago erakusten duten pertsonaiek izugarritzko aldaketak jasaten dituzte osoaldi laburretan... barruko grinak baino jokaera historiko samarra agertzen dute.

Oro har, lehendabiziko elaberri honetan, pertsonaiak nahiko manikeoak dira, eta deskribapen fisikoak ere ez dira oso adierazkorrak. Baina idazleak arranegitar/lekeitiar herritar hauengan dituen sentimenduek pertsonaia guztiak alde berean jartzera eramaten dute. Ez da *Arranegi*-n pertsonai gaiztorik, alargun mihi-luzea ez bada —baina hau ere errukiorra agertzen zaio irakurleari azkenean—, pertsonai guztiak dira onak, bata bestea baino jatorrago agian, baina denak egoki eta lasai bizi dira herrian. Gainera batzuk nahiko estereotipatu agertzen dira: Txanton Baixa, Kosepantoni «gizon eta mutil gazteai, esakun zintzo ta jarraibide ona adiraziaz» (A, 15) eta honen seme-alabak «beargin eta garbiak», Jon Bizkor, e.a. Pertsonaia guzti hauek ia santutasun usaia ere isurtzen dute noizbehin. Azkenean guztiek beraien maitasuna eta bizibidea aurkituz konpontzen da dena, berriz ere Anabitarteren *Donostia*-rreko konparaketa ezinbestekoa gertatzen zaigularik.

*Araibar zalduna* nobela nahiko antzekoa azaltzen zaigu. Honetan, ordea, Bilbo hiriaren gorai-pamena egiten bada ere, ez du herriak aurrekoan zuen garrantzi bera. Honetan Manu Araibar dugu pertsonai nagusia, eta, egia esan, nabariagoa da pertsonaia honen nagusitasun hori. Sujeto piloa agertzen da elaberri honetan ere, aurrekoan adina, eta haietako batzuk ere aipatuak baino ez daude, baina besteen gainetik agertzen diren pertsonaiengan bestelako tratamendua ikusten da. Manu Araibarren izaera ez da berez azaltzen, haren ezaugarri nabarienak bai ordea,

«malizirik gabeko zalduntxo maite-samurberaa bezala agertuko zitzaion» (AZ, 15)

«Artu-emanetan sakon sartu gabe, betiere bitarteko egunetako askatasuna eskatzen zekiana zan» (AZ, 16)

«Etzan zozoa, ez, Araibar zalduna; ernea baizik» (AZ, 27)

Araibar bizitza momentuan bizi nahi duen gizakia dugu, *carpe diem* esanari atxekiz bizitzari bere mamia xurgatu egiten dio geroari begiratu gabe. Ez da besteen sentipenez arduratzen. Baina pertsonaia honek bilakaera bat izango du nobela aurrera joanaz batera, bere bakardadeaz ohartu egiten da, eta bere bizitzak daraman noraezeko bidea utzi egin nahi izango du. Ezkondu eta gero

bere emaztearen minen errudun sentitzen da, baina ez du arazoei aurre egiteko ohiturarik eta alde egitea erabakitzen du konponbide bezala, azkenean bere maitearengana itzultzen delarik, eta lortu ezin bide zuten haurra izango dute sari. Bilakaera ez da hain batbatekoa izango eta bere jokabidea lojika horri egokitzen zaio.

Loli Mena, elaberri osoan garrantzi bera ez badu ere, hoberen eraikia dagoen beste pertsonaia da. Neska herritar hau hirira doa lan bila, eta bertan Araibar ezagutzen du. Loliren izaera xalo eta erromantikoak Manu maitatzera eramaten du, baina honen benetako izanaz konturatzen denean herrira itzultzen da, eta bere etsipenak heriotzean bukatuko den prozesu batean sartuko du.

Deskribapen fisikoak ere *Arranegi*-n baino argiagoak dira hemen, baina nahiko urriak oraindik.

«Gazte kriket eta txairoa zan, Araibar. Ogetamar urte inguruko gaztea, mutil ederra bera. Begitarte atsegiña, gorputzez lerdin, mintzoz gozo. Giza-bide-tankera adiguri ta guztizko zera zedukana. Illeak, urrearen pare zituan, ta luze ta koipatsu, beti disdiratsu, malgu ta atxiki.» (AZ, 12)

Araibar eta Loli benetako haragizko gizakiengandik hurbilago daude, on eta txar biltzen dutelarik barruan. Loliren kasuan, alde negatiboa Araibarrek egindakoaren ondorioa da, ez berezko ezaugarria. Gainerako beste guztiek aurreko elaberriaren zintzotasun eta izaera jatorrean jarraitzen dute, sakontasun haundirik gabe. Bertan, ordea, badira pertsonaia negatiboak; putak hain zuzen,

«[...] bargastak, beti lausengurako gertu, prakadunai dirua zirin-zirin biltzeko eta lan zintzoren batean jardun orde, alperkerian eta likiskerian.» (AZ, 99)

Baina, dudarik gabe, pertsonaia hauen gaiztakeria beraien marjinaltasunean datza, eta izaera honen gaitzespena idazlearen ikuspegi moral kristauak mediatizaturik dago, ez da pertsonaia hauenganako hurbilketarik somatzen. Ageria egiten zaio irakurleari, halere, aurreko elaberrikako aldaketa, «*Arranegi*-n artu zituen muga estu xamarrek zerao zabaldu ditu, erri koxkorretik iri andira joan denean»<sup>57</sup>. Alabaina, aldaketa hau pertsonaia gutxi batzuegan bakarrik somatzen da.

*Batetik bestera* elaberriko pertsonaiek zerbait desberdina dute. Ugariak dira, besteetan bezala, 30 ia, baina haien izaera homogeenago agertzen zaigu,

<sup>57</sup> Koldo MITXELENA, «Eusebio Erkiaga, *Araibar zalduna*», in *Egan*, 1962, 87. orr.

gizakiago dira. Giroari buruzko puntuan aipatu bezala, elaberri honetako pertsonaien gizatasuna egiazkorragoa da, eta honetan Latseta herriko jendearen irudia da garrantzitsuago hirikoa baino. Herritarrak gizaki normalaren itxura hartzen dute, ez dira *Arranegi*-ko herritar *orbanbageak*, biziobakoak, on eta jatorrak. Hauteskudeen aipamenak izango du aldaketa honekin zerikusi handia ziur: taldekako banaketa, eritzi desberdinen oihartzuna,... Baina pertsonaia bakoitzak baditu bere alde on eta gaizto, nolabait esatearren, dirua edota herriaren aurreko itxuraren eraginez. Batzuk besteak baino gaiztoago izan daitezke —Olarratz jaunaren taldekoak, esaterako—, baina ez da berezko gaiztorik, ez eta Olarratz bera ere, mutikoari lana emanez eta harengan konfidantza izanik erakusten duenez. Berezko on hutsik ere agertzea arraroa da, Nikanorren ama gaixoa ez bada; besteek ere badute beraien alde «ez hain onak», edaria, diruzalekeria, itxurakeria, nagikeria. Oro har, benetakoago ematen dute *Batetik bestera*-ko pertsonaiek, Kortazarrek adierazi bezala, «una acción psicologista que tiende a buscar las raíces del comportamiento de los personajes»<sup>58</sup>. Hala ere, ez dira haien deskribapenak oso sakonak, ez dira, orokorki, oso pertsonaia *beteak*, Joseba Zulaikaren terminologiari atxekiz<sup>59</sup>, baina ez dira, gure ustez, Sarriugartek adierazten duen bezain manikeoak ere: «Onak edo txarrak, liberal edo karlista, kristau zintzo edo fedebako»<sup>60</sup>. Karakterizazio hauek ez dira hain klitxetuak azaltzen, alderdi edo ezaugarri multzo hauek biltzen dituzten pertsonaiek ez dute, banakako izaeran, horrelako alde baterako edo besterako izaera garbirik.

Nikanorren kasuan, ordea, pertsonaia moldatzeko modua askozaz ere aberatsagoa da. Manu Araibarrekin erabiltzen duenaren antzeko jokaera darabil Erkiagak Nikanorrekin, baina honekin askoz sakonago eta ugariago. Nikanor besteengandik nabariki aldentzen den pertsonaia dugu, bere bizitzaren ibilbidea erakusten bait du elaberriak, eta haren ibilbide eta jazoeren bitartez irakurleak pertsonaia ezagutzeko aukera izango du. Nikanor herritar zuhurra da, zuhurra baina tolesgabea aldi berean, kontraesana iruditu badaiteke ere. Espainiar literaturaren Urrezko Mendean loratutako pikaroaren itxura du Nikanorrek (ez Américo Castro-k adierazitako ezaugarrien erizpide zehatzetatik, jakina); jatorri apala izanik, lan egin behar du txikitatik amari laguntzeko, batera eta bestera doa denengandik ahal duena ikasiz eta beti dirua du helmuga amestua, munduaren eta bizitzaren nahiko irudi pesimista baten barruan, azkeneko eskena moralistak zertxobait apurtzen badu ere.

Nikanorren deskribapena zuzenean ematen da batzutan, baina datuak ez dira askotan oso zehatzak, batez ere fisikoak; adinari buruzko oharrak garran-

<sup>58</sup> Jon KORTAZAR, *Op. cit.*, 117. orr.

<sup>59</sup> Joseba ZULAIKA, *Tratado estético-ritual vasco*, Baroja, Donostia, 1987, 73. orr.

<sup>60</sup> Iñaki SARRIUGARTE, *Op. cit.*, 22. orr.

(zitsuak izanik, oso urriak dira, eta bestelakoak ere ez oso ugariak. Ikuspegi sikologikoa askoz landuago agertzen zaigu:

«tentela lez egon barik, beste toki ta arlo barrietarantz alde egiteko joera urdurikoa zan» (BB, 52)

«Bakarrik ibiltea gustaten jakon arren, inoizka beste asmoa bere izaten eban; gizartekoa bere» (BB, 54)

«ez zan barritsua» (BB, 56)

«Ez zan Nikanor, beti burrukan ibili ohi diranetarikoa» (BB, 56)

Baina honetan ere ez dira haren ezaugarri guztiak zuzenean ematen, elkarriketek, gertarien aurreko jokaerek eta narraketak berak ematen dute pertsonaia honen izaera ezagutzeko aukera hobea, baita narratzailea protagonistarengana gehiago hurbiltzek ere. Nikanorrek ibilbidea egiten du, eta haren eragile nagusia dirua baino, diruak eman diezaioken askatasuna da. Nikanorren ibilbidea ikasbidea da era berean, ikasbide honetan pertsonaiak bere helburuetarako baliagarri izan dakioketena hartzen duelarik: lan gehiegirik egin gabe ahalik eta diru gehien lortzeko bideak bilatzen ditu. Ez da, berez, nagia, lanerako prest dago, baina ibilbidean zehar lan gutxi eginik diru nahikotxo dutenek erakartzen dute, eta hori lortzeko itxaropenarekin jotzen du bide berrietara; sozialismoa, anarkismoa,... Horregatik aldegiten du Gabontzarendandik eta horregatik ere egiten du lapurketa. Nikanorren heriotza gaiztoaren zigorra agertzen zaigu, baina pertsonaia honen heriotzak badu azken uneango parkamena, azken momentuko damuarekin datorrena. Nikanor Jainkoaren izena ahozkatzen hiltzen da, eta honekin, bizitzaren zentzu katolikoaren aldeko adierazpenez gain, pertsonaiaren ibilbidearen berrirakurketa egin behar dela esaten zaigu. Nikanor ez da pertsonaia gaiztoa izan, gizajoa baizik, eta era berean, gizakia, sikologia heterogeneoago, benetako batekin, on eta gaitzekin... gizon arrunta, azken finean. Haren bizitza, ordea, ez da oso arrunta izan, eta irakurleak, tamalez, ezin du bere burua pertsonaiarenarekin identifikatu, oso bizitza desorekatu eta gorabeheretz bete izan bait du benetakoa izateko<sup>61</sup>.

<sup>61</sup> Erkiagaren elaberrietako pertsonaiak gizaki bihurtzen badira ere, beraien jazoerak eta bizitzak ez direla oso arruntak esan da esan, halako gorabehera zurrumbilatsuekin ezinezko duela irakurleak pertsoniarekin identifikatzea. Ez da hau eritzi okerra, egia esan, baina arazo honetaz aritzean Alberto Lista y Aragón-ek XIX. mende erdian adierazten zuena etortzen zaigu gogora (*Ensayos literarios y críticos I*, Calvo-Rubio y Cía., Sevilla, 1844, 155. orr.). Erkiagaren jokabidea ulertzeko oso esanguratsua suertatzen dena:

«Dos son los elementos esenciales de la novela, sea cual fuere su clase, el interés y lo maravilloso. Entendemos por *maravillosos* no solo la intervención de los seres sobrenaturales [...], sino también las coincidencias extraordinarias, las aventuras no comunes, los lances apurados, los grandes peligros evitados por felices circunstancias, en fin, todos los incidentes que sin necesidad de recurrir á la acción del cielo, son aunque naturales, muy raros.»



Beste pertsonaia ohargarria ikus dezakegu elaberri honetan: Beronike. Emagaldu honen garrantzia ez datza bere izaeraren deskribapen sakonean, ez bait da hain zehatza, bere irudia eratzeko ikuspegi baizik. Beronike ez da aurreko nobelako puta *bargasta*, alperra eta diruzalea, bizitzak egoera marjina-tu batera eramane duen gizajoa baino. Beronike oso emakume bihozbera da, Nikanor maite du eta biek duten bizimodu latzetik irtetzeko gogoia du. Azkenean lortu egingo du bere bizimodu hori uztea eta gizartean integratzea, lantegi batetan lanbidea eskuratu eta aurreko guztiaz ahaztu egingo da, arazo gehiegirik gabe, dirudienez. Egia esan, oso bilakaera idealizatu eta moral kutsuzkoa izango du (BB, 224), batbatekoa eta nahiko sinesgaitza, baina hasieratik erakusten duen izaera on eta errugabeak idazlearen ikuspegi barria erakusten du.

Hauen ondoren nabari den beste pertsonaia Gabontza da, bere on eta gaitzak agertzen dira elaberrian zehar. Gizon ona da baina bere gehiegizko diruzalekeriak noizean behin hain egokia ez den jokabidea hartzea eramaten du. Beste pertsonaia gehienak ez dira hauen mailara heltzen, maila apalagoa dute, baina ez dira hasierako elaberrietako pertsonaiak bezain lau agertzen, beste motatako pertsonaiak dira, gizakiago, estereotipoetatik aldendu egiten dira eta, agian, lehen esan bezala, hauekin, arruntagoak izanarren —edo horrexegatik beragatik ere—, Nikanorrekin baino hobeto identifikatzen da irakurlea, nahiz eta Nikanor askoz sakonago deskribatua izan.

*Txurio Txoria* elaberrian berritasun nabariago aurkitzen dugu: narraketa autobiografikoa. Honetaz hurrengo puntuan arituko gara, baina pertsonaien eraketari dagokionez, lehen pertsonako narraketak baditu berezitasun batzuk. Lehendabizi, pertsonaia nagusia ez da berez deskribatzen, ez da berari buruzko datu zehatzik ematen. Melki izeneko protagonista beste pertsonaien bitartez ezagutu beharko du irakurleak, eta bereziki berak egiten eta esaten duenaren bitartez. Era berean, beste pertsonaia guztiak ere Melkiren subjektibotasunetik baheztaturik agertzen zaizkigu, haien deskribapenak protagonista-narratzailearen sentipenek eta oroitzapenek eralgiak dira.

Elaberri honetan pertsonaiak nahiko desberdinak dira. Alde batetik Melki eta Txurio ditugu. Melki narratzailea da, bere bizitzaren gorabeherak kontatzen dizkiguna, eta bide tradizionala hartuta bera litzateke protagonista. Erkiagak, seguraski, horrela izatea pentsatu zuen. Melki izaera bikoitza du. Ikasketa apalak bete zituen, eta lanean hasi erlojuari batekin. Honekin bizitza lasaia izan zuen, garai hartako gogoetek isuritako sentimenduek erakusten diguten bezala, baina agian aspergarri gazte batentzat. Melkiren bizitza zeharo aldatzen da Txurio ezagutzen duenean. Berak ez du pertsonaia hau gogoko, eta erdi bultzaturik hasten da berarekin lanean, baina ez da indar handirik somatzen pertsonaiarengan Txurioren hatzaparretatik ihes egiteko, ez hasie-

ran behintzat. Ez da elaberrian Melkik lapurretan hasi nahi zuenik esaten, eta ez dugu esango guk ere, baina badirudi beste bizimodu «biziago» baten zain zegoela, eta beharbada ez da kontrajarren nabarmenik taldearekin izandako lehendabiziko aldian... nolabait atsegina ere bazitzaiola ikus daiteke, eta gainera, ez dakigu zehazki taldera zergatik itzultzen den.

Dena dela, taldea eta bere buruarekiko sentimendu negatiboak gorrotoa izateraino areagotzen dira nobelan zehar. Melkik ibilbide maltzurra hartu du, baina maltzurkeriaren kontzientzia du, eta honek min ematen dio. Honelakoxea agertzen zaigu elaberri osoan orokorki, alde bien tartean kulunkatuz baina onaren aldera gehiago joaz. Eta batbatean Txurio hil egin nahi du, eta egingo du azkenean, mendekua hartu beharra dauka. Berez hilketa honek ez dio Melkiren «ontasunari» onik egiten, eta horregatik hilketa berezi samarra izango da. Melki eragilea izango da, baina Txuriok berak hilko du bere burua, horrela Melkik eskuak garbi izango ditu. Gainera, zalantzarik balego, azken momentuan Txuriok Jaungoikorik ez dela esango du, eta honek Melkiren fedea erakutsiko digu, fede honek ere lagundu egiten du Melki irakurlearen aurrean errugabe agertzeko. Beraz, Melki pertsonaia anbiguetatez inguraturik agertzen zaigu, on eta «ez hain on» biltzen ditu bere izaerak; ezin da gaizto izan, baina ez du arima garbi errugaberik ere.

Txurio da beste pertsonaia nagusia. Egia esan, badirudi Txurio bera dela elaberriaren protagonista. Nobelaren izenburuaz aparte, Txurio pertsonaia-rik erakargarriena da, dudarik gabe, eta hoberen deskribatua dagoena ere bai. Esan bezala, seguraski Erkiagak ez zuen pentsatu Txurio pertsonaia nagusia izaterik, baina hala ere oso garrantzi handia eman zion honi, une batzutan protagonista bera baino nabariagoa delarik. Txurioren izaera, berriz, nahiko manikeoa agertzen da orokorki; benetako gaiztoa da, zuhurra, krudela, hiltzailea eta, gainera, azkenean fedebakoa dela ere erakusten digu. Dena dela, berri samar dugu pertsonai mota hau Erkiagaren nobelatan, lehen aldiz eratzen bait du pertsonai gaizto benetakoa.

Gaiztoaren parekoa da Polpol andrea ere, baina pertsonaia honen gaiztakeria besteara baino subjektiboagoa da, Melkik hasieratik beragan dituen sentimenduek ematen bait diote pertsonaia honi bere itxura desatsegina.

Pertsonaia hauen aldean Erlojuaria, Zeliñe, Gorka edo ta Beñat —andra Polpolen senarra— bera daude. Pertsonai hauek onak dira, baina haien ontasunak sofritzera eramaten ditu gehienetan, Zeliñe eta Beñati bereziki.

Gainerako pertsonai guztiak aurrekoen tartean daude. Melki pertsonai moeta honen ardatz dugu, baina besteak antzekoak dira. Hauek benetakoago dira, gizakiago, gehienak ahulak dira, eta haien ahuleziak Txurioren menpean mantentzen ditu, eta Melkik askatasuna itzuliko die.

Elaberri honetan agian argiago agertzen dira aktanteen paperak: ona, txarra, bakoitzaren laguntzaileak, e.a. batzutan oso zehatzak ez izaki. Baina osoro ez dira Erkiagaren elaberrietan paper hauek ondo bereizten. Nolanahi ere, joera nagusia pertsonaien ugaritasuna izanik, hauen hartean benetako jokiera aktiboa hartzen dutenak oso gutxi izaten dira, besteen agerpenak argazkien modura emanak daudela gehienetan. Bada pertsonaien tratamenduan ere bilakaera bat dena den: *Arranegi*-tik *Txurio Txoria*-raino definitzen doaz beraien izaeren ezaugarriak eta, esan bezala, gizakiago bihurtzen ere. Azken nobela honetan Txurio da, agian, pertsonaiarik estatikoena, ez zaio irakurleari haren izaerari buruzko zalantza nabaririk sortarazten, baina besteek benetakoago dirudite, baita on agertzen direnak ere (Erlojuariak edo Zeliñek adibidez), hauen datuen urritasunak bestelako izaera eta jokabideei ere bidea zabalik uzten bait die. Baina orokorrean elaberri tradizionalaren moldeek oraindik irauten dute aldaketa guztien azpian, eskema nagusiak gerraurrekoaren aztarna nabarmenak isladatzen ditu.

#### *Narratzailearen izaera*

Narratzailearen irudia ikustera hurbildu ahala ezaugarri deigarri bat agertzen zaigu beste guztien gainerik: subjelibotasuna. Erkiagaren nobeletako narraketa subjeliboa da beti, eta honek Txomin Agirre, Anabitarte, Pereda, Alarcón, eta ohiturazko elaberrien moldeetara eramaten gaitu berriro ere. Azterketa egitean, ordea, desberdintasunak ikus daitezke elaberri desberdinetako narratzaileengan. Desberdintasun hauek aztertzeko hiru etapatan sailkatu ditugu elaberriok: lehedabizikoan *Arranegi* eta *Araibar zalduna*; bigarrenean *Batetik bestera* eta hirugarrenean *Txurio Txoria*.

*Arranegi* eta *Araibar zalduna* elaberrietako narratzailea bat bera dela esan dezakegu, eta narratzaile honi ezaugarriak ohiturazko elaberrietatik datozkio zuzenean. Narratzailea orojakituna da, berak darama elaberriaren haria eta kontakizunaren zehaztasunak ezagutzen ditu. Beraz, kontaketan zerbait argi geratzen ez denean berak azaltzen dio irakurleari, batzutan zuzenean, bestetan haizetara botako balu bezala.

«Eta egia izan zitekean» (A, 26)

«Eta aipaturiko mutil biak nortzuk genduzan? Bata, izentauriko Jontxu, Arantzaren nebea zan...» (A, 27)

«Illuntze artan bere, orrelantxe zan, urrengo orrietan ikusi daikegunez» (A, 37)

«Oinarrria, aita utzi ziona izan zala, begien bistakoa zan» (AZ, 10)

«Manu-k xistu egin zuan agiñartean, au esan nairik bezela: «ortarakoxe zegok egon, Manu-ren larrua, irekin ezkontzeko; zuntzuna ez bestena»» (AZ, 61)

«A, bai! —esanaz, isildu zan neskatxa, ezer ulertu ez zuan arren» (AZ, 67)

Narratzaileak pertsonaien gogoeta edo ta bizi izandako gertakizunen berri ematen digu oso maiz, eta honek eten egiten du narraketaren erritmoa, astunago eginez. Lehen pertsona ere erabiltzen du ugari honelako oharra ematen dituenean, irakurlearekin kidedu nahian, honengana hurbilduz eta honen irudi berezia sortuz, geroago azalduko dugun bezala.

- «gure elebarriño onen gertatoki» (A, 12)
- «izan zan Koxepantoni enea» (A, 15)
- «Orra gure gazteriaren egoera» (A, 31)
- «azaldu ta irakatsi diguten bezela» (AZ, 140)
- «norbaiten sartzen edo jartzen geranean» (AZ, 155)
- «Baiña, utz dezagun geroa» (AZ, 157)

Narratzaile hau saltsa guztietan sartzen da gainera, eta irakurlea jakinaren gainean jarri nahiaz eritziak ematen ditu, bai gertakizunei buruz, bai pertsonaien jokabideea. Eritzi hauen ikuspuntua beti kristautasunaren magalean murgiltzen da, eta haien helburu didaktikoa agerian geratzen da. Ez ditu eritziak zuzenean ematen beti, batzutan erabiltzen dituen kalifikatiboetan agertzen ditu; baina gehienetan zuzenean emateari errezago edo, agian, bere helburuetarako egokiago erizten diola dirudi, hauen bitartez ona eta gaitza bereiztu egiten dituelarik:

«Etzekian asko andretxo arek XX-garren mendeko modak zeintzuk izan zeitekezan, bestelan ez eban, nonbait ere, lotsa gorritz ikopean ostenduten arrapaladan ibili bearrik.» (A, 25)

«Gazteen esanak gorabeera, ez ote zukean arrazoi mamirik, «Seiko» apaiz jator arek? Seigarren agindua eta bere aizpatxo bederatzigarrena, a zer nolako bikote urduria...» (AZ, 8)

Narraketa lehen aldiak gertatzen da, eta hala izanik, narratzaileak egiten dituen etenak askoz nabariagoak suertatzen dira, hauek orainaldian ematen bait ditu. Eten hauek ere azalpenak emateko izaten dira askotan elaberri bi hauetan. Azalpenetan lehengo garaiefako gertakizunak azaltzen ditu, jai batzuen gorabeherak, historia oharra, eta bestelakoak. Gehienetan kontakizunarekin zerikusi berezirik ez duten gauzak dira, eta narraketa luze egiten zaio irakurleari, batzutan aspergarri ere egiten delarik. Azalpen hauekin batera narratzailearen esakera ugari agertzen da, sententzia lakoak, herri filosofiatik hur normalean, batzutan atsotitzen itxura ere hartzen dutenak.

«Ez dago, agian, gure eskuan amaika bideren mugarik, ez gure asmo soilletan gertakuntzen oiñarririk.» (A, 150)

«Gogorra da benetan, malkoak isuri-eziñezko oiñazea» (A, 154)

«Gorputzeko nekeak izaten dute bare-aldi. Bai eta animakoak ere» (AZ, 44)

«Izaki bakoitzak barruan daraman zadorrik ezagutzerik ez da izaten ordu-ordu danean» (AZ, 57)

Noizean ere ezjakinarena-edo egiten du, baina halakoetan narratzaileak ezin eragotzi du askotan bere orojakintasunaren jarioa, eta orduan baliabide honek, narraketari objetibotasun eta arintasuna eman baino, haur ipuinetako tekniketara hurbiltzen duela esango genuke; adibidez, galdera egin eta, arazoa zalantzan utzita, azkenean azalpena ematen duenean:

«Zer zan, ostera, ekian gauza barri ori? [...] Orixe zan ba, arotzaren itxaropen-dirdai barria. Orixe Jon-en barrua zabal jarri eban albiste.» (A, 124)

«Oietako batean zegoan eserita, geroxeago, arratsaldeko egunkaria irakurten bai legoan, beste askoren artean, zalduntxo bat. Noizean bein, Larreategi kale aldera beatzen zuan adi-adi. Serafin zan.» (AZ, 57)

Eta elaberri bi hauetan, guzti honetaz gain, pertsonaien hizketetan bertan igartzen da narratzailearen presentzia. Elkarrizketa ederrak dira, batzutan ahozkotatasunaren ohiartzun aberats eta egokiak, baina zenbait gaiz hitzegiten dutenean (maitasuna eta erlijioaz batez ere) herritar arruntak olerkari bikain bihurtzen dira. Ezaguna da euskaldunak sen berezia duela olerkirako, baina ez da oso benetako gertatzen mutil maitemindu batek elaberrietan agertzen diren aitorten lirikoak egitea, ez eta arrantzale eta herritarrak estilo perifrastiko horrekin mintzatzea ere:

«[...] beste inork baino eskubide andiago ez ete daukat zugandik maiterantzuerara on bat iristeko? Ez be! Zelan lagako zaitut ba, besteren pentzura, neure gurariok ito ezik, neure amesak guztiak erruki bage irato ezik, neure etorkizuneko irudipena urratu bage? [...] agindu niri zorion-edontziaren edari tintil bat, pozgarri tantatxua besterik ezean. Bai, eder orrek! Ezakidaz asarratu, ez egidazu betondo illunik ipini; ez egizuz larrosa-orri usaintsu direan ezpain gorriok, mukertasunez tximurtu.» (A, 100)

Lehendabiziko bi elaberrien narratzaileak ohitura elaberrietako ezaugarri guztiak erakusten ditu beraz; hirugarren pertsonan agertzen da narraketan baina irakurleari deiak egiten dizkionean lehen pertsona plurala erabiltzen du, eta orain aldi egiten du gainera, irakurleari etenak bortitzago —eta aldi berean astunago— egiten zaizkiolarik; orojakituna, guztiz subjektiboa eta moralista ere bai.

*Batetik bestera* elaberriko narratzailea ikustera jotzen dugunean ez dirudi

aurreko elaberrietakoarengandik urrun dagoenik. Narraketa hirugarren pertsonan ematen du, baina, adierazi den bezala, narraketa hau lehenaldian hasi eta orainaldian bukatzen da. Aditzen denbora aldaketa honen esanahia azaldu dago dagoeneko, baina narratzailearengan zerbait berri, berezia ikusten dugu. *Batetik bestera*-ko narratzailea orojakituna da, aurrekoetan bezala, eta ikuspuntu subjetoak iraun egiten du oraindik; Sarriugarteren eritiz «narratzailea ekintzatik kanpo dagoan arren, berak mugitzen ditu hari guztiak. Orojakilea izateaz gain, sarri askotan parte hartzen dau ekintzetan bere iritzia azalduz»<sup>62</sup>. Erakutsi dugu, aurreko elaberrietako narratzailea aztertzen geniharduela, narratzailearen eritzi eta azalpenak nola agertzen ziren. Elaberri honetan ere antzeko fenomeno agertzen zaigu. Testu osoan zehar narratzaileak bere azalpenak ematen ditu, batzutan kontaketatik aldenduz, baita zeinahi gauzari buruzko eritziak ere:

«Umeentzat, eskolazale ez ziranentzat esan nahi da» (BB, 53)

«Nikanorren aparteko sakelean, zer esan bere ez» (BB, 63)

«Liberal hitz horrek, hain zuzen, esangurarik ugari eban» (BB, 66)

«Ez zan bakarra, egia esan, horretan» (BB, 72)

«Narrua kenduta —biloizik baino txarrago, zer esan bakoia» (BB, 91)

Badira, irakurleari lehen pertsona pluralekoan eginiko dei edo hurbilketak ere, irakurlea istorioaren une zehatzera eramanez, edo ta gauza bereziren bat gogoratzera bultzatzen dutenak:

«lehen ezagutu dogun Marta eperdizabalak» (BB, 46)

«Tutuluren dendan sartzen ikusi genduana» (BB, 119)

«Ezagutzen dogunez, markako ardaia eskatu deutso» (BB, 197)

Baina narratzailearen subjetoitasunak badu, elaberri honetan, oro har, zentzu berezia. Nobelan zehar ematen dituen azalpenak eta eritziak kutsu desberdina dute, bai bere artean eta bai aurrekoekin konparatuta ere. Narratzailea Nikanor pertsonaia nagusiaren gogoaren barruan sartzen dela, eta eritziak, esakerak, azalpenak, pertsonaia berak pentsatzen dituenak direla ematen du guztiz. Harridura markak areagotu egiten dute askotan sentazio hau, baita Sarriugartek ohartzen dituen galdera-erantzuna bikoteek ere<sup>63</sup>:

«ez daki jakin, han zer aurkituko dauan... eta egia esan, zetarako gehiago pentsau?» (BB, 161)

<sup>62</sup> Iñaki SARRIUGARTE, *Op. cit.*, 24. orr.

<sup>63</sup> *Idem.*

«Hamasei urteko mutil batek, opiziuia oraindino ez dakian batek, zenbat irabazi lei? Askorik ez. Baina dana dala» (BB, 174)

«Bai neskaitila maitagarri ta liraina, Garbiñe. Ta zelan jantzita, gero! Txairo baino txairoago» (BB, 180)

«Beronike maitagarria!» (BB, 238)

Berezitasun honekin Erkiagak azalpenak era dinamikoago batetan ematea lortzen du, pertsonaien gogoetak bait dirudite, eta denbora aldaketarekin batera oso baliabide egokia suertatzen da. Baina osoro, *Batetik bestera*-ko narratailea ez da, esan bezala, narratzaile tradizionalaren moldeetatik gehiegirik aldentzen, eskema bertsuaren barruan mugitzen da oraindik.

*Txurio Txoria*-ko narraketan berritasun nabaria aurki dezakegu dagoeneko, gorago aipatu denez narraketa autobiografikoa bait da. Melki pertsonaia nagusiak bere bizitzako gorabeherak kontatzen ditu lehenengo pertsonan eta iraganean. Narratzaile hau subjektiboa da eta noizean ere bere eritziak agertzen ditu, baina kasu honetan guzti honek barne monologoan aurkitzen du justifikazioa, eta narraketa monologalak egiazkortasuna ematen dio, noski, narratzailearen subjektibitateari. Hala ere, kontaketa monologalaren orojakintasunak ezin du aurrekoen parekoa izan. Narraketa autobiografikoa den heinean, narratzaileak historian parte harturik ezinezko luke kontakizunaren detaile guztiak jakitea —beste pertsonaiaetatik aldendua dagoenean, adibidez— besteek kontatua ez balitz behintzat. Horregatik *Txurio Txoria*-ko narratzailea orojakilea da, baina une batzutan orojakintasun horri uko eginez eritziak asmakizun balira bezala ematen dizkigu, berak suposatua, ez bait du guztiaren berri, eta honela narraketak benetakoago ematen du:

«Eskubidea geuk emon geuntsan ala harek berak beragandu ete eban, ez dakit» (TT, 23)

«Ez zetorren bere asmoz, ziur asko» (TT, 38)

«isian ete ebilen, urteak joan, urteak etorri? Ez jakin» (TT, 63)

«Jokaera hori, ez nekian onbidezko, garbizaleko ala gartxu izatetik edo beste zerbaitegaitik eban» (TT, 80)

«blaustada sendoa sentidu neban buru buruan. Orduan... Geroago, konorta etorri jatan» (TT, 96)

«Hau ez neuke ziurtzat emongo» (TT, 105)

«Ez dakit, eta ezin esan nei» (TT, 108) «egiten eban bitartean, senarra —nor ete zan?— jolas gozoetan» (TT, 113)

Zentzu honetan datza, hain zuzen, *Txurio Txoria* nobela beste elaberrietatik aldentzea. Narrazio autobiografikoak eta honek dakartzan berezitasunek Erkiagarengan izandako bilakaeraren aztarnak dira, elaberri honen ibilbide berezia kontutan izanik beti, jakina, aldaketa honetan nobelak geroago jasango

zituen moldaketek ere garrantzia bait dute. Elaberri honetako narratzailearen izaera berezi honek ere errealismora hurbiltzen gaitu nolabait, hirugarren pertsonan agertutako narratzaile orojakilearen jokabideetatik besteetan baino nabarikiago aldentzen da eta.

Baina hala eta guztiz ere, bada oraindik aztertu gabeko elementu bat, ohi-turazko elaberrien narraketatik isuria datorrigun irudi berezia: *narratariora*. Baina narratarioraren irudiak ekintza semiotikoaren barneko eztabaida baten oihartzuna erakartzen digu gogora, besteak beste; testuaren barneko sujeto desberdinena, alegia.

Narratariora narratzailearen irudiaren parekoa dugu testuaren barruan. Aspaldiko eztabaidaren ondorio bezala —gogora dezagun Frantzian «adierazpen vs adierazi» bikoizketari buruz izandakoa 60. hamarkadaren bukaera eta 70eko hamarkadaren hasiera bitartean, bertan Benveniste, Todorov edo Ducrot-en eritziak izanik, Eco-k ohartzen zuen bezala<sup>64</sup>—, testuaren sujeto igorlea eta sujeto adierazlearen arteko bereizketa ezagutzen dugu. Igorlea eta hartzailea testutik kanpoko elementuak lirateke, baina testuan bertan adierazlea, hots, enunziatzailea (narratzailea, sinplifikazioaren arriskuak onartuz) eta enunziatariora (narratariora) ez dira adieraziaren sujetoak. Narratzailea eta narratariora adierazpenaren sujetoak dira, baina sujeto literarioak, benetako sujeto igorlearen eta benetako hartzailearen irudiak dira, eta emandako edukiaren elementu bezala irakurri behar ditugu; J. M. Company-Ramón-ek adierazi bezala, «traslación entre dos sujetos que el aparato textual constituye como imágenes fantasmáticas de quien transmite y de quien recibe»<sup>65</sup>.

Hirugarren pertsonan (pluralean gehienetan) eratutako narraketaren barruan narratzailearen irudia nabaria egiten da hark lehen pertsona erabiltzen duenean. Baina era berean, lehen pertsona plural honen erabilerak ere narratarioraren irudia eratzen du, irakurlea bera testu barruan sartzen du. Hala ikusten dugu Txomin Agirrerengan —«gure atso zabal onek»<sup>66</sup>—, baita Agustín Anabitarterengan —«len ere ikusi genituan Aldapeta-n gora»<sup>67</sup>—, edo ta, adierazi bezala, Kortazarren eritzi errealismorako bideari ekin zion Etxeitarengan ere —«Itxi daiguzan orain Amerikan»<sup>68</sup>—. Halaxe agertzen zaigu Erkiagaren nobeletako narratzailea ere, narratariorarekin hizketan balego bezala:

<sup>64</sup> Umberto Eco, *Tratado de semiótica general*, Lumen, Barcelona, 1988, 430. orr.

<sup>65</sup> Juan Miguel COMPANYY-RAMÓN, *El trazo de la letra en la imagen (texto literario y texto fílmico)*, Cátedra, Madrid, 1987, 110. orr.

<sup>66</sup> T. AGIRRE, *Kresala*, Arantzazuko Frantzizkotar Argitaldia, Arantzazu, 1976, 143. orr.

<sup>67</sup> A. ANABITARTE, *Donostia*, Bilbo, 1932 (Faksimila), 15. orr.

<sup>68</sup> J. M. ETXEITA, *Jaioterri mailia*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1988, 165. orr.



«Baiña entzun dagigun an barruan egozan beste gizonezkoak» (A, 16)

«Jazteko gaitan zala tratulari irakurri dugu» (AZ, 7)

«Orduan galdetu izan bageuntsa mutikoari» (BB, 93)

*Txurio Txoria* elaberrian lehen pertsonaren erabilpenak ez liguke honetan ezer berezirik adieraziko, baina bestelako baliabideen bitartez soma dezakegu narratarioaren presentzia. Galderen bitartez, eta, batez ere, narraketaren etenek duten kutsu deiktikoaren bidez, edota narratarioak egin ahal izandako galde edo dei implizitua iradokitzen denean, irakurlearen beraren irudia testuaren barruan sartzen du narratzaileak, testu barneko beste elementu bat bihurtuz:

«ez jatan atsegin, egia dinot» (TT, 36)

«Gogorregi hartu nebala autortzen dot» (TT, 39)

«Txurio zelan ezagutu neban... Estazino baten izan zan» (TT, 47)

«zelan egin neban azalduko dot» (TT, 71)

Testuetan narratarioaren irudia sortzeko beste baliabide batzuk ikus ditzakegu: galderak, asmakizunak eta oharketa zuzenak ere —«Ez joan oraingo aldian tabernazulo txikienera ere, sua txirtxor eta keia alde guztietan ikusteko asmoz. Bai zera!» (A, 13-14)—. Baina honetan oso argiak gertatzen dira, guztien gainetik, irakurleari berari eginiko deiak. Aurrean aipatutako idazleek ere formula hau erabili zuten —«Ezizen geiegi ipinten dotala uste badau irakurleak»<sup>69</sup>, «oroitza samuñenak labe orietan trinkotzen dituzu, irakurlea»<sup>70</sup>, «Irakurliak gomuta izango dau»<sup>71</sup>—, askotan aspergarri izaten zelarik, maiztasunaren arabera, Sarriugartek ohartzen digun bezala<sup>72</sup>, eta Erkiagaren elaberrietako narratzaileak ere maiz erabiltzen ditu lehendabiziko elaberritan:

«goiazan, irakurle, leen ikusitako gazte ederren artera» (A, 44)

«eta irakurleak badakizki sobera ere» (AZ, 111)

Azken nobela bietan dei zuzen hauek ez dira agertzen, baina bai bestelako baliabideak. *Txurio Txoria* dugu honetan desberdinena, bere biografia itxuratik, baina honetan ere sartzen du narratarioaren irudia, beste bide batzuen bitartez egiten badu ere.

<sup>69</sup> T. AGIRRE, Op. cit., 31. orr.

<sup>70</sup> A. ANABITARTE, Op. cit., 11. orr.

<sup>71</sup> J. M. ETXEITA, Op. cit., 113. orr.

<sup>72</sup> Iñaki SARRIUGARTE, «Sartera», in Jose Manuel ETXEITA, *Jaioterri mailia*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1988, 31. orr.

Erkiagaren gerraosteko elaberriak, beraz, tradizionalago eta ohiturazko elaberrietatik hurbilago agertzen zaizkigu narratzaileari dagokionez, baina bilakaera orokorraren barruan beste aspektuetan ikusi ahal izan dugun aldaketarako joera agertzen zaigu honetan ere.

### *Gaiak*

Ohiturazko elaberrietan ohiturak beraiek izaten ziren gai nagusi, jaiak, ospakizunak, kostalde eta mendialdetako lanbide tradizionalak, eta antzeko zerak. Hauexek osatzen zuten kontagaiaren mami-zati garrantzitsua. Erkiagaren lehen elaberriean ere hala da. Bertan jaiak —jai kristauak, batez ere—, arrantzaleen bizimodua, dantzak, e.a. deskribatzen dira. Elaberri hau oso narraketa dokumentala bihurtzen da. Ondoko elaberrietan ere gai honen inguruan eraturako deskribapenak agertzen dira, baina gero ta garrantzi gutxiagoko planu batetan, *Txurio Txoria* nobelan desagertu arte. Honelakoak dira *Araibar zalduna*-ko Atxaga herriko «Antzarren jai»-ren deskribapena, edota Batetik bestera-ko Nikanorren ibilbidearen hasierako deskribapen batzuk. Hiru elaberrietan, ordea, pertsonaien gorabeherak eta gertakizunak beraiek hartzen dute garrantzi haundiagoa.

Ohituretz gain, ohiturazko moldeetatik edandako beste gai batzuk ere izango dute toki nabariagoa elaberrien barnean, eta berauen tratamenduan bilakaera bat gertatuko da. Gai hauetariko nagusienak bizitza bera, dirua eta maitasuna dira, eta ondoren Erkiagak gaiok nola darabiltzan ikusiko dugu.

*Bizitza* ikusiko dugu lehendabizi. Bizitza esaten dugunean egunerokotasunaz ari gara: gertakizun arruntak, familia, bizilekua,... Baina Erkiagak erakusten digun eguneroko bizitzaren irudia ezin da oso definitua izan, haren barnean dauden elementuak ez bait daude, berez, oso zehazturik. Tokiak, erlazioak, eta pertsonaiak nahiko azalekoak agertzen dira. Etxebarruko giroa, adibidez, nekez agertzen da lau elaberrietan. Hasiera batean eskeintzen digun eredia ohiturazko elaberrietakoetatik hurbilago agertzen da, familiaren barruko erlazioak oso idealizaturik daude eta. Halakoxea da Txanton Baixaren familia, baita Kosepantonirena ere: seme-alaba jatorrak, dana kontatzen diote alkarri... Nukleo honen partaide baten arazoa guztiena bihurtzen da, eta pozak ere guztien artean bizitzen dituzte. Beraz, irudi hau ez da oso erreala. Familia moeta honen irudia da, *Araibar zalduna* elaberrian deskribatzen den Zelaia taldea ere —Peru eta Agurne, eta Makari haien aita—, baina elaberri honetatik aurrera beste familia eredu desberdin batzuk agertzen joango dira: Usategitarrak, eta hauen familia —eta emazalekeria— ugaria, Nikanorren familiaren marjinaltasuna bera, edota Polpoldarren izaera bereziko taldea. Bilakaera honetan beste gai batzuen tratamenduaren aldaketak ere badu bere garrantzia.

Dena den, Erkiagak erakusten duen bizitza arrunta, bizitza orekatuaren erredua, balio kristauetatik bizitzen dena da, kristautasunak markatzen du familiaren eduki moral osoa, eta pertsonaiek, balio hauetatik aldentzen diren heinean, egoera latzak eta nolabaiteko zigorrak jasoko dituzte, baita heriotza ere. Ikuspegi hau elaberrien didaktikotasunari lotua dago, aurrerago ikusiko denez.

*Maitasuna* gai nagusia da lehendabiziko bi elaberrietan, aipatutako *Arranegi*-ko ohituren deskribapenez aparte. Baina giza-emakumeen arteko maitasuna izango da nagusi. Adiskideen arteko erlazioek, edo familia artekoek ez dute berez bereko garrantzirik orokorrean. Giza-emakumeen artekoaren kasuan, bestalde, ez da beti oso egiazkorra. Erkiagak hasiera batean erakusten digun maitasunaren irudia ere oso idilikoa da, maitasun platonikoaren parekoa ere esan dezakegu. *Arranegi*-ko Jon eta Zuriñeren arteko erlazioaz ari delarik, adibidez, pertsonaien jokaerek ez dute berezko zentzu argirik, eta batzutan barregarriak ere badira. Jon Zeliñez zeharo maitemindurik agertzen da hasieratik, eta berari adierazten dio, baina neska ez dago batere ziur, eta ez dio ezer esaten. Egia esan, ez dago elaberrri osoan maitasunezko harremanik haien artean, Zuriñek bere zalantzen ondorioz Xirido maite duela igarriko bait du, eta ez dio Joni inoiz maitasun hitzik adieraziko. Batbatean, ordea, narratzaileak honelaxe dio irakurleari:

«Ez eban nai, orraitio, Zuriñe-ren eta bere arteko maite-artuemon orren barri inñortxuk ere jakin egian» (A, 95)

Elaberriaren azkenaldera Zuriñek Xirido maite duela jakiten du, eta Jon, etsipen izugarri labur baten ondoren, Maddalen topatzen du bidetik eta berehala:

«ames ta gurari ori, ostera, azkenez, Madalen-gan egiztau zan» (A, 176)

Zuriñe bera, norekin maitemindurik dagoen ondo ez dakiela, batbatean Xirido hiltzat jotzen dutenean amodioz gaisotuko da. Beste pertsonaien maitasun aztarnak ez dira hain arraroak, agertu ere ia ez bait dira egiten. Maitasunaren gainerako agerpenak narratzaile beraren ahotik —lumatik-edo, hobe— irtetzen dira. Hauek badira ugariak baino ugariago. Narratzailearen eskutik Erkiagak maitasunari buruzko gogoeta luzeak egiten ditu, beti oso ikuspegi erromantiko eta kristau batetik. VII. kapituluan azalpen luzea ematen du, adibidez, eta honek erritmoa izugarri etentzen du, dudarik gabe.

Hurrengo elaberrietan maitasunak beste ezaugarri batzuk izango ditu. Maitasun arazoak argiago erakusten dira Manu Araibar eta Loliren arteko erla-

zioan, eta Usategi zaharraren adulterio ugariak aurreko elaberriko maitasun idilikotik urruntzen da erabat. *Batetik bestera* eta *Txurio Txoria* nobelatan, ordea, maitasunaren gaia garrantzi gutxiagokoa da, eta berriz ere hastapenetako platonikotasun hura erakusten du. Elaberrietan, ordea, *Araibar zalduna* nobelan —eta ez *Arranegi*-n, Kaminok esaten duen bezala— agertzen hasiak ziren maitasunaren beste aurpegiak ere erakusten dira<sup>73</sup>: *erotismoa eta sexua*.

Aurreko puntu baten barruan adierazten genuen bezala (Cf. 52. orr.), parekotasunak eta errepikapenak oso garrantzitsuak dira Erkiagaren estiloaren barruan, eta honek idazle honen ikuspegi analojikoarekin du zerikusi nabaria. Analojiak munduko elementuen arteko aldeak erlazionatzen ditu, eta haien arteko antzak eta parekotasunak oso baliagarriak dira literaturarako. Ildo beretik ere, Erkiagaren eta mende hasierako ikuspegi erromantikoaren barruan izandako euskal idazleen unibertsoa kristautasunaren magalean eraturik zegoen, eta sexuaren gaia ezin zen oso modu agerian ispilatu. Erotismoa zen aspektu hau ikuspegi erromantikotik eratzeko bidea, eta honetarako analojiak irtenbide erakargarria eskeintzen zuen. Octavio Paz-ek esan zuen bezala «La creencia en la analogía universal está teñida de erotismo: los cuerpos y las almas se unen y separan regidos por las mismas leyes de atracción y repulsión que gobiernan las conjunciones y disyunciones de los astros y de las sustancias materiales»<sup>74</sup>.

Erotismo eta sexuaren arteko desberdintasuna tratamenduzkoa da batez ere, erotismoa sexuaren irudi lirikoa da, eta estetika katolikoaren puritanismoak ez zuen sexoaren irudi objetibo baterako biderik uzten. Horregatik erotismo/sexu bikoiztasunean azken hau agertzen da galtzaile, erotizazioa «poniendo “una forma más bien poética y sensual”»<sup>75</sup> lortu baitaiteke. Sexua konotazio txarrekin agertzen da nagusiki, kristautasunaren balio sistemak baheturik. Gizarte katoliko baten barnean, sexuak funtzio konkretua zuen, «In other words, the act must never be for pleasure alone»<sup>76</sup>, John Atkins-ek dioen bezala, Elizak berak postulatu barregarriak ere agertzen zituelarik, zeren, esan ere egiten zuenez, «in any case it was injurious to the health», adibidez. Hone-

<sup>73</sup> Iñaki Kaminoren ustez («Eusebio Erkiaga Alastra (Endaitz)», in *Argia*, 957-58, 1982, 43. orr.) *Arranegi* elaberriak:

«[...] ez du taburik, haragikeria eta horrelakoak ez ditu izkututzen, salatu eta arbuigarritzat ageri, baina inolaz ere ez izkutatu.»

Gure ustez, ordea, Erkiagak gai hauek ia aipatu ere ez ditu egiten elaberri honetan, irudi erotiko batzuk izan ezik, ez eta gaitzetzeko ere, ondoko elaberrietan egingo duen bezala.

<sup>74</sup> Octavio Paz, *Los hijos del limo*, Seix Barral, Barcelona, 1989, 103. orr.

<sup>75</sup> Carmen SOTOMAYOR, *Una lectura orientalista de Juan Goytisolo*, Espiral Hispano-Americana (Ed. Fundamentos), Madrid, 1990, 104. orr. Barneko oharra Sylvia Truxa-rena da («El mito ‘árabe’ en las últimas novelas de Juan Goytisolo», in *Ibero-romantía*, 11 (1980), 112. orr.).

<sup>76</sup> JOHN ATKINS, *Sex in literature*, III, John Calder, London, 1978, 328. orr.

gatik bereziki, sexuaren agerpena pertsonaia marjinalen eskutik erakusten du Erkiagak gehienetan, puta edo homosexual eta antzekoekin erlazonaturik dago.

- «Ani-k eta Mimex-ek zangoak ezezik, belauak eta abarrak ere, agirian dauz-  
kate, mutil aien begien bistan» (AZ, 36)
- «Ani eta Mimex, aragi-bizi saltzailleak» (AZ, 39)
- «Dirutrukeko neska merkeok» (AZ, 41)
- «Neskatila orraztu bageak, ezpain gorri ta kolore zuriak, lotsagalduko talde  
jausia» (BB, 176)
- «gizonen haragi-mirabetzarakoak dira soilik» (BB, 177)
- «neska julis alai ta daldaxekin jolastu» (BB, 213)
- «ohe zikinak, edonorenak, haragi-tratuan jarduteko tresna madarikatuak»  
(BB, 177)
- «emeturiko lirdinga oiekin» (AZ, 70)
- «emetutakoen eta endekatuen joera likitsa» (AZ, 70)

Harreman sexualak aipatzen direnean —iradoki, hobeki esanda, erakutsi berez ez bait dira egiten—, ez da inoiz deskribapenik ematen, jakina, eta eskeintzen diren adierazgarriak gehienetan erlazioa gaitzetzeko izaten dira. Aurretik ikusitako pertsonaia bereziengan erakusten ez bada, sexuaren agerpena ez dator, inoiz ere, pertsonaia jator edo onen eskutik, beti, gutxienez, jokaera bikoitza duten pertsonaiaetan ikusten dugu: Araibar, Nikanor eta Melki beraiek horrelakoak dira, eta halako harremanen beharra izaten dutenean beti kalifikatibo «deskalifikatibo»-ekin adierazia ematen da —Araibar iruzur-  
tia da, Nikanor Zezilirekin egon nahi duenean «aberekoiago bihurtu dala dirudi» (BB, 198), eta Melkik berak halakorik adierazten duenean «Andra lingirda eta neskatila txankame batzuk ere izaten genduzan hornigarri eta betetzaille» (TT, 24) bezalako adjetiboekin egiten du—. Erkiagaren garaiko gizartearen pentsamolde orokorraren eragina, gainera, pertsonaien tratamenduan aurki dezakegu, sexuari dagokionez: emakumezkoak beti emagalduek izaten dira, eta gizonetzkoen kasuan, ordea, beraien jokabidea gaitzetzten bada ere, azkenean aldatu egiten dira eta parkabidea aurkitu. Ohartzekoa da, hala ere, *Txurio Txoria* garai honetako bere azken elaberrian Erkiagak tratamendua nolabait aldatzen duela, eta honen adibiderik egokiena Melkik Saulerekin duen elkarriketa da, 26. kapituluan. Bertan neskaren jokabideari buruzko eritzi orokorra soma dezakegu, baina ez zaio, berez, inolako kalifikazio berezirik ematen eskena osoan.

Beraz, harreman sexualen alde poetikoa erakutsi nahian, bide erotikoa gertatzen zaio egokiena idazleari. Ildo honetatik abiatzen delarik, ordea, tratamendua aldatu egiten da. Aurrekoan emakumea zen ikuspegi moralaren in-

darrik zamatsuena jasotzen zuena; honetan, ordea, emakumea da elementu-rik erotikoa eta miresgarriena idazlearentzako —«Emakumea irudia da, irudi bizia ta biziduna» (A, 42)— eta Erkiagaren olerkaritasuna ere pizten du.

«Izadiak oparo emon dautsezan edergailluak, gorputzean dituen jas ta graziak, taiu ta tankerak [...] gerri estuak, bular arrotu-anpatuak, berna lirai-ñak; arpegi, begi, ezpain, ortzuri, beso, lepondo, esku, beatz eta atzazalak arteraiñoko guztiak.» (A, 42)

«musu luzea ezarri zion ezpain gazte bero aietan» (AZ, 29)

«Eta neskatxen soiñekopean, odol gazteak, mami beroak dardar egin oi du zuri loturik diranean, zure besoartean, zuri bultzaka dantzaketan ari diranean.» (AZ, 43)

«haize bolada batek gonak apur bat jaso eutsazan belaunez gain nabarmen, eta Nikanorrek iztar lodi hareetako galtzerdi-amarrak ikusi eutsazan, lizun-irritsaren ikutua susmauz.» (BB, 115)

Erkiagaren erotismoa nahiko indartsua da, eta emakumearen edertasunak sortarazten duen lilura da, esan bezala, honetarako bultzagarri. Batzutan, nolani ere, giza-emakumeen arteko erlazioek kutsu erotikoa erakusten dute, baina beti harreman hauek xaloak direnean, eta ez sexua benetan jokoan sartzen denean.

Erkiagak ematen digun maitasunaren eta giza-emakumeen arteko harremanen irudia ez da, berez, oso benetakoa, ez eta oso sakona ere, baina idazlearen bilakaeraren barnean maitasunaren aurpegi desberdinak erakusten doa, sentimenduak matizatuz eta maitasun moeta berriak eskeiniz. Honen adibide *Txurio Txoria*-n Andra Polpol eta bere seme Txolinen arteko erlazioa da, semea amaren babesean beti, izaera ahul eta menpekoa erakutsiz, elaberriaren pasarte batzutan erlazio inestuoso bat ere iradokitzen delarik:

«bapatean amagana joan, besartean estutu, eta matrailetan mosu zaratsu bana egin, eta ondoren, aho-ahoan amari mosu luze ixila» (TT, 102)

«Benetan politik al dira? Zu baino areago, amatxo?» (TT, 103)

Aldaketa guztiek, ordea, bere bilakaera pertsonalaren barruan hartzen dute garrantzia, azterketa konparatibo batean ez bait lirateke berdin suertatuko. Izan ere, garai honetan gertatzen zen beste literaturarekin batera ikusten badugu, badira izugarritzko alde dioten kasu bereziak ere, Miranderena adibidez, eta *Eusko Gogoan*-n agertutako «Larrazken gau batez» bezalako poemak edo *Haur besoetakoa* bera (argitaragabe 1970. urtean «Lur» editorialak kaleratu arte) *Arranegi* elaberriaren garaikideak direla kontutan hartzen badugu, Erkiagaren erotika eta sexuaren irudiak guztiz puritano eta zaharkituak agertzen

dira Joseba Sarrionandiak azaltzen zuen Miranderen sensualitatearen al-  
boan<sup>77</sup>. Aldi berean, ordea, konparaketaren ondorioz ere, garai honetan Eus-  
kal Herrian ikuspegi moral nagusia katolikoa zela ikusiko genuke, Mirande-  
bera, esan bezala, normatik aldentzen den kasu berezi bezala agertzen delarik  
—mugaz bestaldekoa izanik, ikusi beharko genuke, halere, bere gizartean ze-  
goen norma ekialdekoaren parekoa izan zenentz—, eta Erkiagaren elaberria  
ez litzateke norma moral hartatik hain urrun geratuko, bere moldeak atzera-  
tuak izan arren.

Aztergai diren elaberri guztiek duten beste gai amankomuna *dirua* da, edo-  
ta diruak eragiten dituen grinak eta jokaerak, hobeki esanda. Diruagatikako  
jokaerak erakusterakoan ere Erkiagak ezin eragotzi du bere subjektibotasuna.  
Eta jokaera hauen arabera pertsonai talde nagusi desberdin bi agertzen zaizki-  
gu. Lehendabizikoa *Aranegi* elaberrian deskribatzen da hobeto, eta ohituraz-  
ko moldearekin bat dator berriz ere; Olezak esaten duen bezala, «La única  
posible actitud para el católico es la resignación y el sufrimiento»<sup>78</sup>. Hitzok  
jokaera honen oinarria ematen dute; arrantzale eta herritar jatorrek onartu  
egin behar dute beraien egoera ekonomikoa, hura bait da Jainkoaren agin-  
duen haritik joateko biderik hoberena. Erkiagak kritikatu egiten du pertso-  
naia hauen egoera, baina ez du inoiz esaten pertsonaiok ezer egin behar  
luketenik haien egoera aldatzeko:

«Euskal-arrantzaleagaitik, au, ori ta bestea maixiatu dabe. Amaika bidar  
bidegabe, gaiñera [...] Baiña amaika ez-jakin, amaika ardurabako, baldar,  
diru-ereintzaille, gangar, ordi eta alper dago.» (A, 115)

«Nork dauka, ba, iñork baldin ba dau, jan-edan ugari bat egiteko eskubi-  
derik, arrantzale adoretsuak bezenbat?» (A, 115)

«Dirurik ezarren, jaun agertzen da arrantzalea. Aundikeri bage, gizon eta  
zaldun. Bizitzeko lain egiten daki, ez aberastu bearreko urregose txarrez.  
Barruko bakearen jabe.» (A, 116)

Dirua «ate asko edegiteko giltz parebakoa da» (BB, 180), eta horrela den  
heinean ahaltsuen eta manipulatuzaileen eskuetan agertzen da, maltzurkerie-  
tan dabilenen eskuetan edo ta edozertarako boterea lortu nahi dutenen amets  
desiratua bezala. Lehendabizikoen adibide egokia *Batetik bestera*-ko Olarratz  
jauna dugu. Bigarren taldean, bestalde, *Araibar zalduna* elaberriko protagonis-  
ta bera. Azken moetak pertsonaiak dira ugarienak, batzuk garrantzi haundia-  
gokoak, Gabontza, Txurio eta halakoak, adibidez; besteak garrantzi gutxiago-  
koak, Lustreputx edo Tutuluren antzekoak. Melki edo Nikanor alde bien

<sup>77</sup> Joseba SARRIONANDIA, «Haur besoetako eta beste ninfula batzu», in *Maiatz*, 4, 1983, 3-8. orr.

<sup>78</sup> Juan OLEZA, Op. cit., 43. orr.

tarteko pertsonaiak ditugu. Hauek diruak ematen duen lasaitasun eta askatasuna lortu nahi dute, eta ez da beraiengan, alde horretatik behintzat, asmo gaiztorik ikusten, baina azkenean diru goseak gaiztakeriak egitera eramaten ditu. Beraz, dirua kalteragile azaltzen da nagusiki, eta batzutan, narratzailearen bitartez edo pertsonaia baten ahotik, Erkiagak bere eritziak argiro ematen dizkigu:

«guztia ez dala diruz neurtzen. Andiak dira onen indarrak; ez dira sarri askotan bear aiñakoak, edota nai aiñakoak» (AZ, 93)

«diruaren herdoi zikin baina kutsu pozgarriaren bitartez» (BB, 106)

Diruaren erruz suertatzen diren kalteak ez dira kalte fisikoak soilik; egoera aldaketak, pertsonen jokabide berriak hartzea... Eta guzti honek kalte izpiritualak ere erakartzen ditu, Erkiagak edandako moral katolikoaren iturritik isurtzen den ikuspegiaren arabera.

Hari nagusi hauek, hala ere, garrantzia galtzen doaz elaberriatik elaberrira, eragile moduan beraien presentziak irauten du, baina galdu egiten dute hasierako protagonismoa, eta bestelako gai batzuk ere azaltzen dira gertakizunen muienera. Honela, *Batetik bestera* elaberrian *politika* arazoak aurrekoetan izan ez zuen rol berezia betetzen du. Ezin dezakegu esan Erkiagak ikuspegi politiko eta ideologikoen deskribapen sakonik ematen duenik, ideiak eta jarrerak oso gainetik erakusten ditu elaberri honetan. Hala ere, ez dirudi Sarriugartek esaten duen bezain partzial direnik idazleak ematen dituen sozialista eta anarkisten irudiak<sup>79</sup>, zehaztasunbakoak bai, ordea. Alabaina, ez dirudi idazleak ematen duen ikuspegi, testu barruan behintzat, aldekoikeririk erakusten duenik; ideologiaren deskribapena ematen duenean, haietako zenbait postulatuekin ados ere badagoela ematen du, Ezekielen deskribapenean, adibidez:

«[...] gizasemeak euren barruan daroen zuzentasun-egarria, askatasun-joera ta bakotxaren norberatasunaren alde, adoretzu jarduteko gogo ta egokitasuna ernamin ditu beragan.» (BB, 169)

Erkiagaren subjektibotasunaren eragina, gai honi buruz alegia, osotasunean agertzen dela esatea egokiagoa litzateke. Zera esan nahi da, idazleak ez duela berez nobelan aurkezten dituen ideologiaren alde edo aurkako joera zehatzik erakusten, baina elaberriaren osotasunean «cuanto más radical políticamente se hace el personaje, más cerca de la muerte se encuentra», Kortazarren esana berriro aipatuz<sup>80</sup>. Baina hau ere aurrerabide logikoena litzateke, kontutan

<sup>79</sup> Iñaki SARRIUGARTE, «Erkiagaren giroa eta...», 23. orf.

<sup>80</sup> Ikus parte honetako 41. oharra.



hartu behar bait da heriotza erradikaltasunak duen ondorioetariko bat ere badela berez, eta orduan ez luke zertan jarrera subjektibo berezirik ispilatu.

Ideologia politikoen deskribapena baino, Erkiagak nobela honetan politika inguruan gertatzen diren gorabeherak azaltzen ditu. Horrela, lehen partean diren hauteskundeetarako taldeak eta berauen trikimailuak eleizioak irabazteko, Olarratz jaunaren diruak duen boterea, eta halakoak deskribatzen dira. Badirudi politika arazoak pertsonaiak deskribatzeko eta eratzeko baliabide direla, zuzenean jauki nahi den gaia baino. Hauteskundeen gertakizunekin, adibidez, Erkiagak hauteskundeak berez azaldu baino —bertan ager zitezkeen ideietan sakonduz,...— pertsonaien jokabideak deskribatzen ditu. Sozialisten eta anarkisten kasuan ere, Nikanorrek berauen ideiak bere diru ametsa egia bihurtzeko jasotzen ditu, diru errezagoa lortzeko bidea izan daitezkeelakoan, eta, honela, pertsonaiak ideia haietaz duen ezagutza eta kontzeptua, berak interesgarri erizten dionaren arabera agertzen dira; baliteke Erkiagak berak ideia hauek oso ongi ezagutu ez izatea, baina honek ez du narraketaren izaerarako kalte berezirik.

Errealismoaren ikuspegitik, ordea, elaberriak ez dio irakurleari Euskal Herriko egoera politiko edo sozialaren deskribapen berezkorik ematen. Euskal Herriak herri izaten jarraitzen du, hiri nagusietan izan ezik, eta hauen kasuan ere, sindikalismoa eta langile mugimenduen aztarnak ikus badaitezke ere, ez da benetako euskal-gaztelaniar bikoiztasunaren irudirik ematen, ez eta euskal sozialismo edo bestelako euskal ideologia ezkertiarren azalpenik. Grebak, alde bat eta bestearen arteko istiluak eta honelako gertakizunak berdintsuak izan daitezke Bilboko zein Bartzelonako giroa deskribatzen denean, guztiz neutroak dira.

Aztergai dugun garai honetako Erkiagaren azken elaberrietan, *menpekotasuna-askatasuna* bikotea kontakizunaren harian indar berezi batekin sartzen den gaia da. Gaiaren tratamenduan, edonola ere, ez da espero ziteken ikuspegia erakusten. Ez du, menpekotasun-askatasun bikote honek, inolako konotazio abertzalerik testuen barruan, ez bait da kolektibitatearen eremuan eratzen, pertsonaien izaera banakoan baizik. Hortaz, Erkiagak elaberriotan menpekotasunari buruz egiten dituen gogoetak ikuspégi moral baten balore sistema erakusteko baliabideak dira beti, eta, behin baino gehiagotan adierazi den bezala, balore sistema hau moral katoliko batetik jaso du idazleak.

Menpekotasuna diruarekin oso loturik agertzen da nobelatan. Menpekotasun honen eredu Nikanor eta Melki dira, azken hau bestea baino askoz gehiago. Nikanorrek dirua lortu nahi du —«Zaletasun artean, euki-nahia zan sako-  
nena ta minena Nikanorrengan» (BB, 72)—, dirua askatasunarekin lotzen du pertsonaiak —«dirua ta askatasuna baino maitagarriagorik» (BB, 55)—, lehenengoak azkenengo hau emango diolakoan bait dago. Horrexegatik diru na-

hiko ez izatea bera makur egotearen parekoa izango zaio. Ez da Nikanor pertsonaia nagia, baina dirua lortzeko lanbide gogorra edukitzea besteen menpean izatea den heinean, beste bide egoki eta errezagoa bilatu nahi izango du diru mordoa lortu ahal izateko. Nikanorrek ez daki, ordea, bilaketa horretan bertan datzala bere makurreria, haren ustez bizitza latzak kentzen dio askatasuna:

«beste herrietan ganerantzeko buztan-gizon eta menpekoak honiduten zituan» (BB, 124)

«Buztarri zikina da, ta besterik ez, aberats eta ahalsuen onurea zuzentzat izatea» (BB, 170)

Melkiren kasua ere antzekoa da. Pertsonaiak dirua lortu nahi du, baina ez da dirua bera arrazoi nagusia, adierazi bezala, bizitzaren monotoniatik irten nahia baino. Pertsonaiak hartutako bideak, hala ere, menpeko izatera eramaten du, eta honentzako Nikanorrentzat baino jasanezinagoa da askatasun falta. Kontaketa osoan zehar protagonistak behin eta berriro azaleratzen du jasan behar duen bizimodu makurrak ematen dion nazka, obsesiboki errepikatzen da makurreriaren gaia elaberrian zehar, pertsonaien izaera bera deskribatzerakoan ere beraien jokaera makurra den ala ez den arabera eratuz:

«Gizon baten menpean jarri ginan, etzun ginan» (TT, 23)

«Txolin, seme nagusia [...] amaren gogara betiere» (TT, 28)

«Haginandi ere, gure artekoa zan bai. Txurioren artaldekoa» (TT, 32)

«Talde horren bizimodu makurrik ez dot jasan gura» (TT, 38)

«Beñatek bere askatasun hegoak lumaturik» (TT, 40)

«egin ninduan makur, bihurri eta minkor» (TT, 46)

«Txurioren menpetik betiko ihesi egin» (TT, 59)

«Txurioren menpetik askatutea» (TT, 65)

«horreetariko morroe jatorrak» (TT, 65)

Hauexek dira, beraz, Erkiagaren garai honetako elaberrietan aurki ditzakegun gai nagusiak. Badira, ordea, *Txurio Txoria* azken elaberriari hurbiltzen gatzaizkion heinean, errepikatzen diren beste gai batzuk, lehendabiziko irakurketa batean hain garrantzitsu ez diruditenak. Alde honetatik, *Txurio Txoria*-k Erkiagak bere bilakaeran zehar jaso izandako ideia batzuk batzen ditu, eta ideia hauek bai aurreko zein geroko lanetan iradokiak agertzen dira. *Araibar zalduna*-n itxura eta izanaren arteko arazoa, esaterako, nobelan behin baino gehiagotan errepikatzen dena —«Itxurak ez dira izanak, enetxuok» (AZ, 21), «Baliteke itxurak egiaren berri ez ematea, iñoiz» (AZ, 35), «bainan irudia ez da gutzia» (AZ, 161)—, *Txurio Txoria*-n gogoratuko zaigu berriro —«Ez

nekian beharbada, kanpo eder eta barru makur urten eitekeala» (TT, 127)—; irribarrearen galera ere agertzen du elaberri honetan, «Gaurko munduak ere ahazturik daukan irribarre gozoa» (TT, 33), geroko *Iribarrea galtzen danean* elaberrian ideia nagusia izango dena —«Iribarrea galtzen danean gizartea da galtzaile»<sup>81</sup>—. Zuloak eta hauek bete beharra ere aipatzen da *Txurio Txoria*n —«gura dituan asmo eta amesak. Bete... ontziak, zuloak eta hutsuneak ere» (TT, 38)—, eta Erkiagak berak hala adieraziko du berriz ere bere azken nobelaz eginiko aurkezpenean «Mundu honetako bizitzan —ez jakin gerokoan— eta ohizko jardunetan zelako zuloak, zenbat zulo ezbardin [...] Zuloen gainetik zubiak behar ditu gure herriak»<sup>82</sup>; eta era berean, «Gizonaren ordua» (TT, 180) heldu dela esaten duenean geroko *Gizonaren aldia* poema liburua ere ekartzen digu gogora<sup>83</sup>.

Guzti honen arabera, aldaketa bat badela Erkiagaren elaberrietako gaien tratamenduan ere esan dezakegu, hasierako puritanismo hutsetik azken elaberrietan politika edo sexua tratatzean igartzen den erizpide zabalkuntzaraino. Nolanahi ere, Erkiagak darabiltzan gaiok nahiko unibertsalak direla esan beharra dago, bada tradiziozko moral hertsia eskeintzen zuen ikuspuntuarengandik aldentzeko gogoaren islada, baina ez du Euskal Herriko benetako irudi errealista ematerik lortzen. Gainera, gerraosteko lau elaberrietan gerraren arazoa agertu ere ez da egiten —ez du Erkiagak gerra bera kontagai izango askoz geroagora arte, ia mende Erdiko distantziarekin hartuko du idazleak lehen aldiz gai hau bere *Jaioko dira* elaberrian, 1984. urtean argitara emana—, ez eta diktadurapean euskal gizarteak bizi izandako giroaren deskribapenik ere. Esan dugun bezala, Erkiagaren elaberrien errealismoa istorioa eta irakurlea garaikidetu nahia bezala ulertu behar da.

### *Kristautasuna eta abertzaletasuna*

Aspektu biak batera ikusteko zergatia Sarasolaren esaldi egoki batean aurki dezakegu; «la ideología política del P.N.V. constituyó, en la práctica, un bloque monolítico evidente y homogéneo que se sintetiza en la fórmula “Jaungoikoa eta Lege Zarrak”»<sup>84</sup>. Hala izan zen. Ideologia arantarra nagusi —eta lehendabiziko urteetan ia bakarra— izanik, ikuspegi abertzale honetatik abiatuz, euskal literaturak euskal desberdintasuna erreibindikatzeko jarraitu zuen. Eta desberdintasuna erakusteko euskera bera zen artean ezaugarririk garran-

<sup>81</sup> Eusebio ERKIAGA, *Iribarrea galtzen danean*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1987.

<sup>82</sup> *Ibid.*, «Iribarrea galtzen danean», in *Idatz & Mintz*, 15, Bilbo, 1988, 23. orr.

<sup>83</sup> *Ibid.*, *Gizonaren aldia*, Ikasbide, Donostia, 1991.

<sup>84</sup> Ibon SARASOLA, *Historia social de la literatura vasca*, Akal, Madrid, 1982, 75. orr.

tzitsuenia, eta, beraz, honelako gogo batetik sortutako literaturak euskera, hizkuntza lantzea eta honen baliagarritasuna erakustea zituen ardatz nagusi.

Abertzaletasuna baino, euskaltzaletasuna zen; euskera eta euskal izaera babestu beharra zegoen. Euskal Herria kutsatzen ari zen industrializazioaren ondorioz Espainiatik etorritako langile mordoaren eraginez, eta industrializazio horrek ekarri zituen ideologia desberdin eta langile mogimenduen erruz. Arana bera ohartua zegoen honetaz, eta gerraondoan ideia hauek iraun egin zuten. Hortaz, euskal izaeraren ezaugarriak gogorarazi egin behar ziren, kutsaduratik babestu, eta literatura izaera berezi eta desberdin hura goraipatze-ko bidea zen.

«Jaungoikoa eta Lege Zarrak» lemareen berrirakurketa egiten badugu, orde, kontzeptuek beraiek duten lekuaz ohar gaitzke, eta Jaungoikoa lehen-dabizi datorrela ikusten dugu —eta ikus, adibidez, Erkiagaren *Arranegi* elaberriaren agertzen diren adibideak: «Eliz-ibillera ondorean, erriko oitura zaarreko dantza entzutetsuaren aldi ta garaia eldu zan» (A, 35)—. «Euskaldun fededun»-aren irudia kristautasunak euskaltzaletasunaren barruan zuen garrantziaren erakusgarria da. Euskalduna zintzoa zen, herritar jatorra, eta garai honetan euskal kultura *babestera* ekiten zioten lehen-dabizikoen artean ere Elizarekin erlazionaturik zeudenen kopurua, proporzionalki, haundia zen —Azkue bera, Zaitegi, Orixe, Irazusta, Salbatore Mitxelena, Etxaniz... eta aldizkariari begira ere, *Euzko Gogoa*, honen erizpidea nahiko zabala izanik ere, *Anaitasuna*, edo ta *Zeruko Argia* (berezitasun guztiekin ere) eta antzekoak, Elizaren edo, behintzat, elizgizonen ardurapean zeuden—. Areago: Sarasolak erakusten duen bezala<sup>85</sup>, 1962-63an oraindik euskal produkzio literarioaren autoreen artean ehuneko 75a apaiza edo apaiz ikasketak eginikoa zen, eta berauek ekar zezaketen aldaketa, batzuen kasuan ohargarria izanik ere, molde katolikoen barruan eratzen zen.

Lehen aipatutako Alberto Lista y Aragón-ek, joan den mendearen erdian iadanik, ohartu egiten zuen «la diferente manera de expresar los afectos humanos, ya virtuosos, ya perversos, que introdujo el cristianismo»<sup>86</sup>. Bere hitzetan bertan ikusten da hau argi, idazleak ematen duen sentipenen sailkapenak berak ere kristautasunaren eragina erakusten bait du, «ya virtuosos, ya perversos». Kristautasunak ikuspegi guztiz manikeoa eman zion literaturari, besteak beste, mundua zati bitan bananduz: ona eta txarra. Banaketa hau egiteko kriterioak ere eman egiten zituen —eta Dekalogoia erizpide guztien oinarria baino ez zen—, arautegia lako zerbait eskeintzen zuen, guztien kontzientzien barruan balio sistema eratzen zuena, eta honela idazleak ez zuen errealitatea-

<sup>85</sup> Ibid., *Euskal literatura numerotan*, Kriselu, Donostia, 1975, 75. orr.

<sup>86</sup> Alberto LISTA Y ARAGÓN, Op. cit., 26. orr.

ren epaiketa berekikorik egin beharrik, epaiketa aurretik egina zegoen. Idazlearen helburua, beraz, beste askoren artean, epaiketa haren bahetik igarotako errealitatea erakustea zen, euskaltzale zen neurrian euskaldunei fededun zintzo izaten irakastea, edo gogoraraztea behintzat. Hizkuntza eta moralaz gain literaturari geratzen zitzaion lekua, hortaz, ez zan handia, eta Josu Landak adierazi bezala, euskal literatura, orokorrean, ez zen «inola ere sentimendu lirikoak nahiz hizkuntzaren plastikotasun-minak sorturiko beharra»<sup>87</sup>.

Sentipen eta ideologia abertzalea bera kristautasunak mediatizaturik zegoen. Erreibindikaten zen euskal gizartean euskaldunak euskaldun eta kristauak izan behar ziren, hots, euskeraz komunikatzeko eta bizi izateko gai izan, eta bizitza euskaldun hori balio katolikoan mugan bizi izan behar zuten. Ez omen zen, beraz, kristaua ez zen benetako euskaldunik. Eta hiriak kutsadura eta gaiztakeriaren kabiak ziren, bertan industrializazioak sortutako errealitateak bestelako erizpideak eskatzen bait zituen.

Pentsakera hau izan zen gerraurre garaitik jaso zena, eta honi gerrateak sortutako etsipena gehituz, agian ulergarriago egingo da pentsamolde hauetatik sortutako literaturaren atzerantzako begirada nostalgikoa.

Erkiaga ez zen ideologoa izan, garai hartan nagusi ziren ideietara mugatu zen euskaltzale langilea baino. Horregatik, bere lanetan *abertzaletasuna* euskaltzaletasuna zen nagusiki, eta euskaltzaletasun hori bere jokaeretan isladatzen da, nola edo halako eskakizun zuzenetan baino; hizkuntzarekiko jokaera, pertsonaiekikoa, gaien tratamendua... Erkiagak zerbait egin beharra zuen Euskal Herriaren alde, eta garai hartan eskeini zezakena euskera on bat eta bere lirikarako sen berezia zen. Honekin hasi zen elaberriak idazten, eta honela ere, lehendabiziko nobela Euskal Herriko irudi kostunbrista bat izan zen, oro har, eta agian honetan abertzaleago agertzen zaigu besteetan baino: aurreko euskal giroaren mina, herritarren bizimoduaren idealizazioa... Baina aurrera joaz, Erkiagaren nobelek idazlearengan izandako aldaketen berri ematen dute. Ez dute inolako iraultzik suposatzen, baina hiriak Erkiagarengan izan zuen eragina iradokitzen dute nolabait.

Erkiaga abertzale moderatua da, eta, bere garaikide gehienen antzera, etsituxea ere bai. Elaberrietan egiten dituen salaketak edo eskakizunak urriak dira, baina gero ta urriagoak izango dira. Ez du, ordea, azalpen zuzenak emateari utzi arren, sinboloetara jotzen, Mikel Zaraketek erabiltzen zituen irudi eztenkarietan antzekoetara, esate baterako.

Hasiera batetan, Erkiagaren abertzaletasuna, euskaltzaletasuna, bere pertsonaien irudietan aurki dezakegu, pertsonai-tipo dira, ereduak dira. Nolabait idazleak euskaldunaren eredu jatorra erakutsi eta erreibindikatu egiten du

<sup>87</sup> JOSU LANDA, *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar-AEK, Donostia, 1983, 22. orr.

eta, batzuetan minez gogoratu baino ez. Nolanahi ere, irudi hauen bitartez Erkiagak lehen aipatu dugun euskaldunen «desberdintasuna» markatu nahi du, euskaldunen ezaugarri maitagarri eta ahaztutzear daudenak —eta kristauak— erakutsi nahi ditu:

- «bakoitzak kutunen oi dauan erria, sorterrria, jaioterrria» (A, 9)
- «kanta gozoen egarri-gose, euskaldun jator guztiak lez» (A, 20)
- «kaialde euskaldunetan oi dan egun alai ta piztugarria» (A, 30)
- «Biotz eder, gogo zintzo, barru oneko ta esku zabal, daukanean edonori emoteko gertu egon oi dan gizaki begiko, apal, gorrotorik bageko, edonoren adiskidea. Orixe dozu arrantzale euskalduna» (A, 116)

Eta noizean, *Amanegi*-n soilik, euskal giroaren egoera salatu egiten du samurki, baita euskaldunen jokaerari buruzko eritziak eman ere:

- «aintziñetatiko jaiok goizera aldatu ditue. Aldian aldiko... ta ontzat emoten eztauanari, lepoko narrua kendu» (A, 35)
- «Aurretikoengandikoak dituzuen eresoinketa zoragarriok, mundu zabal onen erdian: ez egizuez aaztu, ez utzi, ez baztertu [...]. Iraun begie mendeen ondarretaraino» (A, 40)
- «urian sortu ta andik aldegin da biziaz, geienbat sorterriarentzat galduak izan oi diralako» (A, 182)

Ezin dugu pentsatu, bestalde, honelako jokaera zuzenik diktaduraren zentsurarekin erraz gerta zitekeenik. Hala ere, Erkiagaren oihu abertzale samur hauek urritu eta ia desagertu egiten dira bere nobeletan, eta bere euskalduntasuna aurrerago azaldu genituen jokaeretan isladatuko da: euskal kultura da eratu behar dena, eta horretarako euskal literatura ezinbestekoa izango da. Hemendik aurrera Erkiagaren elaberriek literaltasunerantza joko dute argiro... Gerraurrean edandako moldeekin bortizki apurtu gabe, ordea, ezinezko izango du behar zen moduko aldaketa-lortu.

Euskaltzaletasun horren barruan, ostera, *kristautasunak* irauin egingo du azkeneraino. Gerraurrean ere, Garañek esaten duenez, «kristautasunak eraginda (erromantizismoak baino askoz gehiago) Euskal Herriko tradiziozko ohitura eta balioen bila dabilta, horien gainean gizarte-eredua eraikitzen»<sup>88</sup>. Izan ere, pertsonaiak, gertakizunak, Erkiagak sortutako mundu literario osoa molde katolikoaren ikuspegitik eraturik dago. Baina honetan ere bila-kaera bat erakusten du idazleak. Kristautasunaren itzala era bitan agertzen da Erkiagaren elaberrietan. Lehendabizikoa aipatutako munduaren egiturake-

<sup>88</sup> GOTZON GARATE, *Euskal elaberriaren kondaira III*, Gero, Bilbo, 1991, 21. orr.

tan, pertsonaien jokabideetan eta hauen balorazioetan, e.a. Bestea idazleak berak narratzailearen ahotik erakusten duen izaera fededuna.

Erkiagak bere elaberrietan erakusten duen mundua kristautasunetik ikusia dago. Honela, izadia Jainkoak sortutako parabisua da, eta bertan herritar jatorrak eta fededunak bizi dira modu paketsu eta gaitzbako batetan. Hala gertatzen da *Amanegi* bere lehendabiziko elaberrian. Pertsonaiak kristauak dira, eta beraien bizitza gilzarte katolikoaren inguruan eratu dago; jaiak, adibidez, jai kristauak dira, jakina —San Pedro, Santi Iago, Iondone Andolin, Andra Maria Antiguakoa—, eta gehienetan mezataria joanez hasten dira ospatzen, igandee-tan bezala. Euskaldun kristau zintzoak dira, eta beraien bizitza jatorrean Elizak berak garrantzi handia du:

«Emakumeak euren Ama garbiari otoi-agurra eskeiñi eutsen» (A, 28)

«zeruetako Ama-ri eskeintza ta arrenak egin ondoren, argia itzali eta oian sartu zan» (A, 59)

«mezatetik yoian, baltzez jantziriko andra zaartxu bategaz» (A, 97)

«Aita gure eder bat esango yeutzut eure biderako» (A, 166)

«erritarrai, bere magaleko umei. Oneik otoi-ka ziarduen» (A, 173)

«[emakumeek] zidor ortan eskatu zeruari bere utsegiteen parkamena eta garaziaren iturriko ur-tanta batzuk, zorion-egarriaren aringarrizat» (A, 184)

Ohargarria da elaberri honetan *orban* eta *garbi* hitzen adierazgarritasuna. Orbana arimaren zikintasuna bihurturik agertzen da elaberri honetan, garbitasunaren aurkako, eta hau idazleari kristautasunetik datorkion sinboloa da, dudarik gabe. Pertsonaiak «lili eder orbanbage mardul guri ziran» (A, 191), «beargin eta garbiak» (A, 16) dira gehienetan, herritar jatorrak diren aldetik, jator eta kristauak, hauxe bait da, hasierako elaberri honetan bereziki, jator-tasunaren ezaugarri nagusi bat, nagusia beharbada, eta pertsonaia guztiak erizpide honen arabera epaitu eta deskribatuko dira. Kanpaiak ere kristautasunaren sinbolo bihurtzen dira, *Amanegi*-n bereziki. Kanpaiak une berezietan entzuten dira, une alai edo latzetan, Jainkoaren irudia haien bitartez iradokitzen delarik, eta ohartzekoa da, gainera, Erkiagaren lan osoaren barruan garrantzi berezia izan dutela: gogoratu *Kanpaien atsekabez* antzerti lana edo *Kanpaiak ere* olerkia.

Gainerako elaberrietan pertsonaien izaera difuminatuago agertzen da, ez dira hain gizaki zintzo eta jatorrak, baina azkenean bizimodu kristautatik al-denduak bizi direla onartzen dute eta orduan zintzotasunera bihurtzen dira. Hala ikus dezakegu Araibarren kasuan, azkenean bere aldaketagatikako saria jasotzen duela. Nikanorrek ere, azken unean, Jainkoaren parkamena eskuratz-ten du haren izena ahoan hiltzen delarik. Eta *Txurio Txoria* azken elaberrian Melkik, bukaera aldera, «Jaungoikoarengana joten dau parka eske, lehenago

egindako pekatuen parkamena gura baleu lez», Igone Etxebarriak adierazten duen bezala<sup>89</sup>. Beraz, ikuspegi katolikotik erakutsitako gizartea eta pertsonaiak hasierako manikeismo ageri hartatik aldentzen dira, zalantzarik gabe, baina ikusmolde katolikoak iradokitako orekara heltzen da beti azkenean.

Narratzaileak, bestalde, idazlearen ikuspegi katolikoaren berri ematen dio irakurleari behin eta berriz, eta era desberdin bitara egiten du. Lehendabizikoa subjelibotasuna bera da. Narratzaileak deskribapenak egiterakoan subjeliboki egiten ditu, gauzen eta gertakarien izaera juzgatu egiten du moral kristauaren balore sistematik eta euskaltzaletasunaren sentipenetatik, eta agertzen diren adjetiboek epaiketaren ondoriozko kalifikazioa ematen dute, batzutan nahiko argia:

«erri maiteko etxeak» (A, 11)

«arrantzale jasankor» (A, 33)

«negozio jatorra» (AZ, 70)

«joera likitsa» (AZ, 70)

«asmo onak ala gurari bihurriak» (BB, 65)

«ohe baltzak, ohe zikinak, edonorenak, haragi-tratuan jarduteko tresna mardarikuak» (BB, 177)

Honelako jokaeraz gain, narratzaileak erabiltzen dituen esamoldeek eta noizbehinka agertzen dituen eritziek zuzenago ematen digute ikuspuntua nolakoa den ezagutzeko aukera. Honela ikus daiteke pertsonaiak aurkeztean ez ezik, bestelako egokieretan ere murgiltzen dela narratzailea eskema kristaue-tan.

«Betiko Jaunak oparo ta erruki barik bildutako edergaidun kabi epel» (A, 12)

«Emakumeak, Ebaren alaba jator bezela» (AZ, 16)

«Kristori azken laztan egokia ostu hurren» (BB, 248)

Honela; beraz, hobeto ikus dezakegu Erkiagaren abertzaletasunak, euskaltzaletasuna izan bazen ere, hasierako jokaera moralizante eta ageriago batetik azkeneko euskalzale jokaera literarioarantz jotzen duela, nahiz eta, gizarteko giro kristauaren eraginez, kutsu didaktiko eta epaikariak azken elaberriraino irauongo duen. Nolanahi ere, Erkiagaren elaberrietan ez dugu Jaungoiko aktiborik aurkitzen, Etxeitaren elaberrietan bezala<sup>90</sup>, Jainkoa he-

<sup>89</sup> Igone ETXEBARRIA, Op. cit., 13. orr.

<sup>90</sup> Ikus honetaz zer dioen Iñaki Sarriugartek Etxeitaren *Jaioterri maila* elaberriari eginiko sarreran (Labayru Ikastegia - Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1988, 28. orr.)



rriaren maitasuna eta errespetua jasotzen ditu eta beronen agerpena horretara mugatzen da.

### *Elizari kritika*

Ohiturazko elaberrietatik errealismorako bidean elementu batzuen agerpena oso garrantzitsua da berez. Horietako bat ironiaren bilakaera da, hain zuzen. Ironia umorearekin oso erlazionatua agertzen da ohiturazko elaberrietan, geroago ikusiko denez, eta baliabide honek duen kutsu kritikoa kritika mingarri bihurtzen da errealismoaren estetikan sartzen denean. Errealismoarekin agertzen den kritika honen barnean Elizari egiten zaiona nagusitzen da, Eliza bera bait zen aurreko gizarte mota eratu zuena, bere erizpide moralekin. Ba ote da Erkiagaren lanetan honelako kritikarako lekurik, aurrez ikusitako molde estetiko eta ideologikoen barnean? Egia esan, ez da lekeitiar honen elaberrietan honen antzekorik ikusten. Baina tarteka, idazlearen bilakaeraren ondorioen artean jokaera desberdina ikusten da Eliza eta kristau manikeismoarekiko.

*Arranegi* elaberrian ez da honelakorik agertzen, hauxe bait da Agirreren eta gerraurreko lanetatik hurbilen dagoena, eta ikus daitekeen kritika gaitzespena da, kristau baloreetatik at dauden jokabideen gaitzespena. *Araiban zalduna* bigarren elaberrian, ordea, badirudi Erkiagaren kriterioa aldatu egin dela. Bere kritika Elizaren postulatueta zuzendua da, baina ez dugu hau benetako zentsura. Edozelan ere, ageria da pertsonaien izaera ere aldatu egin dela, nahiz eta berauen aurkezpena aurrez epaitua egon, eta Elizaren dogmak eta jokabideak, baita gizarte elizkoia ere, noizean behin gaitzesturik agertzen dira:

«siñismen-gabeak ere elizaren babesera, eta dorrearen gerizara» (AZ, 45)  
«orixe berbera somatzen dut katolikoek gauzetan. Alegia, tristezi-bidea dala zuena. Ainbeste galerazpenez, bizitza au nekez betea jartzen duzutela» (AZ, 125)

*Batetik bestera* elaberrian kritika bide bitatik dator: bata elizkoikeriaren azpian izaten den benetako izaera ezkutatu nahia eta eliza beraren dekriminezioa, noizean pertsonaien ahotik adierazia. Bestea, aldiz, protagonista joera ideologiko desberdinekin harremanetan jartzearen ondorioa da, eta sozialista eta anarkisten eskutik ematen zaigu. Baina egia esan, ez da, adierazi dugun bezala, eritzi hauen gaitzespen zuzenik ematen, orokorrean kristautasunaren ondoan galtzaile agertzen badira ere:

«Eliza-kolorez, santubidetazunez ta zintzotasunez jaxten zituen batzuek euren asmoak» (BB, 134)

«harako liberal eta edu askotako elizazaleak baino gehiagorik bere» (BB, 169)

«Elizaren irakatsi bigun eta errukitsuak, beti eroapenaren magal makalean kulunkatuak» (BB, 170)

«Sinismena aho-mihinetan harturik, goikoak, behekoak lo jarteko baino ez darabile» (BB, 187)

«Abaderen batek esan al deutsu horrelako ipuin zaharrik?» (BB, 220)

*Txurio Txoria*-n, hala ere, batzutan hasierako ironiara itzultzen da berriro ere —«seminarioan egon zan urte batzuetan. Eta handik atara eban atara, kantu bigunez berba egiteko eukan modu mazal hori» (TT, 26)—, sortzen hasia zen kritika kutsu hura desagertu egiten delarik. Ezin daiteke esan, beraz, elementu kritikoaren agerpenak garrantzi haundirik duenik Erkiagaren elaberrietan, baina bai ohargarria dela, idazlearen bilakaeraren adierazgarri den aldetik.

### *Nostaljia eta ironia*

Nostaljia eta ironia erromantizismoaren magalean jaiotako elementuak dira. Ez dute Erkiagaren estiloa ezagutzeko berebiziko indarririk, baina badira datu lagungarriak haren kokapen literarioa bideratzeko lagungarri direnak. Ez da elementu hauen erabilpenaren barruan bilakaera haundirik, aurreko beste batzuetan bezala, baina badira aldaketa txiki batzuk ere.

*Nostaljia* tradizio erromantikotik dator zuzenean hasierako elaberrietan. Joan Olezak adierazten zuen bezala «Todos ellos vuelven nostálgicamente la mirada hacia atrás»<sup>91</sup>, gerraurreko giroari begira eta, atzerago ere, gerraurreko literaturan gorai patzen zen Euskal Herri herritar eta jatorra, ohiturazkoari begira daude. Olezaren eritziz, betiko Euskal Herriaren bila dabilta, «no en el pasado, como los románticos, sino en el campo»<sup>92</sup>. Hala da, nolabait. Erkiagak herrimina du eta elaberrietan isladatu egiten da:

«Erbestetik geure jaioterrira giñoiazan, eta bertara leenbaileen elduteko gogo andiz ta irriki bizian» (A, 7)

Baina nagusiki, erromantikoen iraganaren mina da indartsuago Erkiagaren. Idazlea erromantikoago agertzen zaigu, eta bere begirada une berezi batera doa behin eta berriro: ume eta gaztarora. Erkiagak goratu egiten du

<sup>91</sup> Juan OLEZA, Op. cit., 22. orr.

<sup>92</sup> Ibid.

herria, herri ohitura jatorrak, lehendabiziko elaberrian bate zere, baina berak bizi izan duen galdutako giroa ikusten du, ordurako ere aldatua dagoena, eta galera horregatik ahuenka azaltzen zaigu idazlea narratzailearen ahotik:

«orain 200 urte dala [...] Bizkaian laugarren erria, ospe andiko ta entzute-tsua izan zan au» (A, 18)

«Leenagoko arrantzaleak euren gorputzetaraten neke ta oiñaze» (A, 77)

«Aintziñako denporetan, oindiño zaarren batzuk esan leie ta orregaitik ezta ain asagokoa» (A, 120)

«Leenago, onelako ereti zoritxarrekoetan bazan ementxe, ain zuzen ere, ekandu eder bat» (A, 163)

«ogeigarren mende ontan ere, aurretikoen izpiritu-gogoari atxikiak» (A, 197)

Baina begirada hau ume-gaztaroko minarekin ere oso erlasionaturik dago. Eta hauxe da berez Erkiagak erakusten duen nostalgja, iragan izandako denboraren mina: berreskura ezin daitekeen denborari behatzen dio idazleak etengabe *Arranegi* elaberrian:

«gure asierako negarrak egin genituan lur zatia» (A, 9)

«Ai, gaztetango aro loratsua!» (A, 30)

«guztiak gazteak izanik, orra gauza osoz atsegiña» (A, 121)

*Araibar zalduna* elaberrian ez da elementu honen aztarna berezirik, ordea. Erkiagak hirietako bizitzak orainari ematen dion garrantzia erakusten du, eta aurreko elaberriaren estilotik aldentzen da. Baina beste bi elaberrietan ume-gaztaroko garaimina itzultzen da berrirori. Oraingoan, ordea, idazleak oharkizun bat ematen du nostalgjari buruz, eta ohar hau maiz errepikatuko du *Bate-tik bestera* elaberrian zehar, lelo esanguratsu bezala:

«Atzerantz begira dagoana galduta dago» (BB, 152)

«Aurrera egin behar» (BB, 154)

«Ezina da gizona atzerantz joatea» (BB, 189)

«ezina honezkero, urratsak atzerantz egiterik» (BB, 205)

«Joandako unea, barriro bihurtu ezina» (BB, 243)

Hauxe da, agian, idazleak berak ikusi ta ikasitakoa, edo bere pentsamenduan gertatutako gogoeta behintzat, eta ondoren hastapenetako jokaera ohiturazale eta herrimintsuari utziaz bestelako kontakizunak eratzeke erabakia hartzera bultzatu zuena. Edonola izanik ere, Erkiagaren begirada nostalgjiko, iraun egiten badu ere, itzulezinaz jabetuko da, eta ez du aurreko kexa kutsurik izango.

Octavio Paz-ek esaten duen bezala, «el romanticismo fue la ruptura de la estética objetiva y más bien impersonal de la tradición latina»<sup>93</sup>. Paz olerkiari buruz ari da, baina literatura osoan gertatutako fenomenoak izan zen hau. Olerkian *ni*-aren agerpena ez zen elaberrietako subjektibotasuna bezalakoa, baina biek iturri beretik edan zuten. *Ironia* kritika zen, gizakiaren izaera bakaren estetika zen, eta Erkiagaren ironiak ez du, berez, honelako kutsu nabarmenik. Octavio Paz-en eritziz, Espainian ere ironia ez zen era honetan gertatu, Espainian ere erromantizismoa berezia izan bait zen, eta berak dioenez «no la ironía: el subjetivismo sentimental»<sup>94</sup>. Erkiagaren ironia, hala dei bidezakegu, subjektibotasun honen haritik doa. Era berean, idazleak hurbiletik ezagutzen zuten euskal umorearekin nahasten du, eta batuketa horren ondorioz bere ikuspegi berezi hori izango dugu.

Erkiagaren hasierako ironia honetan, horregatik beragatik, ez da kritika susmorik hartzen, ez bereziki behintzat, ez da gizarteko arazoekin eta arazo horiei lotutako jokabideekin eztabaidarik gertatzen. Bestelakoa da, herrikoia-goia, eta giza-emakumeen arteko harremanak ironia honen begipuntuan daude gehienetan, baita herritarren xelebrekeriak eta izaera bitxia ere. Alde horretatik, beraz, Erkiagaren lehendabiziko elaberrietan agertzen dena txistearen burlazko tonutik dago hurbilago ironiak berez duen nolabaiteko izaera kritikotik baino:

«Kaleetan ez ebillen ez, lagun handirik [...] gabontz, mozolo ta saguzar banakaren batzuk ba ebiltzan ibilli; egorik bageak, jakiña ba» (A, 49)

«Arranegiko erreka ortan, bada, kukurruku zoliak egiten ekiezan dotoreme biak [...] ez ziran katedratiku bakarrik, baita korresponsalak ere» (A, 136)

«— Nolakoa zan? Ederragorik ez dut ikusi... nire begien aurrean.

— Iparragirrerren eskolako al zera?» (AZ, 42)

«— Or, Euskalerritik ez irten bai irten. Batzuetan, Iruñan, eta besteetan Zaragoza-n.

— Zoroak ere, antxen ziran leenago» (AZ, 49)

«Ederrak agiñak, baita gerrigaiñak ere» (AZ, 103)

«Ortan zintzoa zan Agurme. Emakumeak geroago oi diran bezelakoa, urteak gizontzen asten direnean» (AZ, 153)

Ikus daitekeenez, kasketaldiak dira ironiak baino, eta kritika usairik erakusten badute, beti herriko elementuei zuzendua da, ez bestelakoei.

*Batetik bestera* elaberrian ironiaren tonua aldatu egiten da nolabait. Aurreko elementuak present daude hala eta guztiz ere, baina haiekin sortzen dituen jokoak ez dira berdinak:

<sup>93</sup> Octavio Paz, Op. cit., 95. orr.

<sup>94</sup> Ibid., 117. orr.

«Liberal hitz horrek, hain zuzen, esangurarik ugari eban, emakumeak mila maratila ohi duten antzera.» (BB, 66)

Hauetan gizonaren jokabideak eta izaerak orokorrago harturik agertzen dira, eta noizean behin haien kritika egiten du idazleak, narratzailearen zein pertsonaien bidez. Ez da beti umore soil eta herrikoia, batzutan kexa ezkutua izaten da, «Txarritxu liberala»-ren abestia lakoak, adibidez.

«[...] harek ez eban, artean, libururik argitaratu ez inok irakurri haren orririk.

Onduten ei eukazan onduten, bere idazgelako zurezko apal txairoetan.» (BB, 86)

«Dirudunak, gehienbat, politika goitarra egiten eban; goitar hitz horrek sarri askotan, zerutar kutsu urri baino izan ez arren.» (BB, 125)

«Baina, sarri askotan, bihotzetik eskuetaraino bide luzeegia edo...» (BB, 186)

*Txurio Txoria*-n ironia areagotu egiten da, horretan lehen pertsonako narraketaren subjektibidadeak lagundu egiten diolarik. Baina berriz ere umorearen zantzu xaloa nagusitzen da, munduaz duen eritzia erakutsi baino, eta emakumearen irudia ere, lehendabiziko elaberritik azkeneraino, Mitxelenak ohartu bezala<sup>95</sup>, berriro karikaturizaturik —«Jaunak [...] zer guztiak gizonaren menpe eta esanera jarri ei ebazan. Gauza guztiak... emakumea izan ezik» (TT, 40)—. Baina ironia kritikoago bihurtzen denean sarkasmotik hurbil ibiltzen da elaberri honetan; honelako kasuak, ordea, urriak dira, izan:

«[...] alemanak sorturiko azken gerrate handiaren ostean, han kontinente baltzeko lurretan zehar oinez edo kameilu ganean morroe azal iluna, eta emazte mordoa aurretik... lurretan lehergarri ziran mina indartsuak egotea eitekena zala-ta, bada ezpadan ere... Une eta egoera haretan, arabiarren emaztekiak dragamina antzera.» (TT, 41)

«Hamaika kongresuk izango, guk izan genduzan baino asmogei ahulagoak!» (TT, 73)

«Estetika arauak ere gomazkoak dirudie batzuetan [...]. Gizonak beti pozik. Modistak areago.» (TT, 118)

Noizean behin, benetako hitz jokoa bihurturik, ironia paradojaren parean agertzen da —«Lapurreta desentea egiteko prestamenetan hasi ginan» (TT,

<sup>95</sup> Halaxe zioen Koldo Mitxelenak *Arranegi* elaberriari buruzko erreseina batetan (in *Egan*, XI, 1958, 103. orr.):

«Etengabeko arrimenez dagokio begira Erkiaga emakumeen bere gisako izaerari eta umore-ttanta batekin azaltzen duen jatorrizko axerikeriari.»

120)—. Beraz, Erkiagaren elaberrietan «ugariak dira ironi handiz deskribatutako jazoerak», Sarriugartek dioen bezala<sup>96</sup>, baina idazle honen kasuan ironiaz aritzean umoreak ez du, hein handian behintzat, geroko literaturan izango duen tonu kaustikoa.

### *Tesia eta didaktikotasuna*

Erkiagaren elaberriek duten kutsu moralizante eta didaktiko hori gerraurreko jokabide narratiboetatik datorkio zuzenean. Gerraurrean «La mano del autor aparece por todas partes moviendo los hilos, la tesis y la fabulación no van al unísono, [...] y casi siempre se da una interpretación lírica y subjetiva de la realidad», Sarasolak esaten duen bezala<sup>97</sup>. Jon Kortazarrek, berriz, hala dio Erkiagaren elaberriaz: «puede encontrarse una concepción tradicional de la novela, como instrumento de fuga de la realidad y forma de educación de las masas»<sup>98</sup>. Erkiagarengan aurki dezakegun kutsu moral hau aurreko puntu birekin dago loturik zuzenean: gaiak eta abertzaletasuna-kristautasuna.

Erkiagak balore batzuen defentsa ere egiten du. Sarriugartek Etxeitaren nobelagintzaz adierazi legez, Ferrerasek aipatutako «defensa de los tradicionales valores familiares acuñados por el catolicismo», eta «honeetarikoz batzuk erlijioa, familia, gurasoen autoritatea, seguritatea, dirua eta lana izan daitezke, labur esanda»<sup>99</sup>. Eritzi berekoak dirudite kritikalariek, Olezak ere esaten digunez, tesia beti berbera da, «apología del modo de vida patriarcal y bucólico, fundamentado en el catolicismo ortodoxo y en el autoritarismo paternalista, en la concepción de la sociedad como clan tribal, localizado en maravillosos oasis rurales defendidos de la civilización por una naturaleza bravía»<sup>100</sup>. Hala ere, Erkiagaren elaberrian ez da hau hain zehazki gertatzen. Idazle honen lehendabiziko elaberrian balore hauen agerpena argiagoa da, baina gainerakoetan difuminatzen doaz. Gaiak oso zerikusi handia dute tesiarekin, normalean helburu didaktikoa gai hauetan oinarritzen baita. Gaiak, eta «ikaskizunak», aldatu egiten dira zertxobait elaberrietik elaberrira, baina guztien gainetik, egia esan, tesi orokorra mantendu egiten da. Kristautasunak zabalduetako erizpidearen menpean dugu tesi hau: «maltzurrek ez dute inoiz irabazten, beraz, zintzo izan behar gara, eta zintzotasunaren arauak Jainkoak markatu ditu». Hauxe litzateke elaberri guztien oharkizun nagusia, eta hala

<sup>96</sup> Iñaki SARRIUGARTE, «Erkiagaren giroa eta...», 25. orr.

<sup>97</sup> Ibon SARASOLA, Op. cit., 89. orr.

<sup>98</sup> Jon KORTAZAR, Op. cit., 117. orr.

<sup>99</sup> Iñaki SARRIUGARTE, Op. cit., 29. orr. Sarriugartek darabilen zita J. I. Ferreras-ena da (*La novela por entregas. 1840-1870*, Taurus, Madrid, 1972, 311-312. orr.)

<sup>100</sup> Juan OLEZA, Op. cit., 42. orr.

ikusten du Sarriugartek *Batetik bestera* elaberrian ere: «Azpian dagoan mezua zera litzateke: legez kanpo edota fedearen kontrako gauzak egiteak ondorio txarrak dakar»<sup>101</sup>. Tesi nagusi hau, garaiko gizartearen heziketa moralean garrantzi handia zuen Elizaren eskutik hartua zalantzarik gabe, beste irakaskizun zehatzagoen bitartez eratzen da: maitasuna, sexuaren betoa, dirua, maltzurkeria bera. Noiz edo behin, hasierako elaberrietan, abertzaletasunarekin lotutako oharpenak egiten ditu: ohitura zaharrak gorde beharra, hizkuntza (oso gutxi), Euskal Herritik aldegitia, e. a.

Elaberri bakoitzean era desberdinetan erakusten dira gaiok. *Arranegi* lehendabizikoa da eta, era berean, moldeetan atzerakoiena, gerraurreko eraginen menpekoena. Honetan maitasunaren bide egokiak erakusten dira nagusiki, eta tartean diruak ekar litzakeen kalteez ere egiten zaio ohar irakurleari. *Araibar zalduna* elaberrian, ordea, giza-emakumeen arteko harremanen jokaera lasakaren ondorioek hartzen dute garrantzi handiagoa, baina dirua eta maitasunari buruzko oharpenak ere garrantzitsuak dira oraindik. Hirugarrenean, *Batetik bestera* elaberrian, diruak hartzen du toki nagusia, Nikanorrek diru nahiaren menpean egotearren bizitza latza pairatzen duela. Eta azkenez, *Txurio Txoria*-n ere makurkeria, diruaren itzalera berriz ere, behin eta berriro gaitzetsia izango da, eta jokaera maltzurren ondorioak latzagoak izango dira, ez heriotzagatik beragatik, baizik eta hiltzeko modu trajiko eta, bide batez esanda, molde katolikoetatik at erabat dagoen horregatik.

Hala izanik ere, tesia aurkezteko modua aldatu egiten da gerraurreko lau elaberri hauetan zehar. Lehendabiziko elaberri bietan kodigo moral kristau hartatik isuritako oharkizunak bete-betean emanten dira; narratzaileak etena egiten du eta, batbatean, irakurleari aholkua ematen hasten zaio, edo okerreko bidetik ibiltzearen ondorioen adibidea, baita sententzia lako adierazpenak ere. Honelako etenek —*Arranegi*-n besteetan baino askozaz ere ugariago eta nabariagoak— izugarri astun egiten dute irakurketa eta erritmoa ere ahuldu egiten dute. Baina Erkiagaren ondasun literarioan zeuden ereduak ere bide honetatik arituak ziren gehienak, eta erreferentzi hauen eragina argiro agertzen zaigu haren hastapenetako elaberrietan. Eta honelako etenaldiez gain idazleak egiten dituen gogoetak ere hartzen baditugu kontutan, narraketaren osotasunean gertatzen den erritmo jausi eta motelaren ideia izan dezakegu. Beraz, Erkiagak kontakizunaren tartean geldiunea sortzen du eta honen antzeko ahapaldiak sartu egiten ditu maizegi lehendabiziko elaberrietan:

«Lagunik geien geienak erdi billoizik edonoren aurrean. Gizonezkoak, tira bai! prakamotz eta galtza-labur-samarrak izan arren... Baiñan, emakume-

<sup>101</sup> Iñaki SARRIUGARTE, «Erkiagaren giroa eta...», 19. orr.

ak ere, iztar, bizkar eta bular aldea ere arenbategan narrugorri erakutsiaz... Adan-en emaztearen soiñekoak zelakoak izan ete ziran jakitea egoki izango litzake, noski. Etxekian asko andretxo arek XX-garren menderako modak zeintzuk izan zeitekezan, bestelan ez eban, nonbait ere, lotsa gorriz ikopean ostenduten arrapaladan ibili bearrik. Benetan uiolde edo dilubio aurretikoa, oraingoan iritzi jakintsuz...!» (A, 25)

Elaberrietako eten hauek zirela eta, kritikak jaso izan zituen Erkiagak bere garaian ere —ikus Mitxelena dioena, adibidez—<sup>102</sup>, eta badirudi idazleak, honetaz oharturik, Mitxelena proposaturiko bidea jarraitzei ekin ziola: «Irakurlea zentzatzeta eta obetzea ere eleberriaren eginkizunen artean badaude, inñolaz ere oker-bidez eta zear-esanez bete bear du eginbide ori, ots, berari, eleberria den aldetik, dagokion artez eta moldez»<sup>103</sup>. Hala ikus daiteke bere garai honetako azken bi elaberrietan. Hauetan tesia, amaigabeko etenen bitartez azaldu beharrean, pertsonaien jokaeren eta hauen ondorioen bitartez erakuten du: gaiztakeria, diruzalekeria, makurkeria, lizunkeria... Eta pertsonaien ibilbidearen bukaera trajikoak ere zigorraren irudia margotzen du dramatismo anoa batekin, Txurio eta Nikanorren heriotzekin, alegia. Helburuak, hortaz, bat bera izaten jarraitzen du, tesia oraindik garrantzitsua da elaberriaren barruan, baina teknika aldatu egin da, narraketaren mesederako.

### *Egitura zertan den*

Lehenengo begirada batetan Erkiagaren elaberriek atal ugari dituztela ikus dezakegu: *Arranegi*-k 23, *Araibar zalduna*-k 16, *Batetik bestera* elaberrian 28 dira eta *Txurio Txoria*-n 37 kapitulu. Kanpo egituraren ildotik abiatu, elaberri-tako atalak laburrak dira normalean, eta haien ugaritasunaz gain ez da, orokorki, egituraketa berezirik ikusten. *Arranegi*-ko kapituluek izenburua daramate, izenburu hau kapituluaren sintesia lakoa delarik, sarri behintzat. *Araibar zalduna* eta *Batetik bestera* elaberrietakoak, ordea, zenbaki soilekin markatzen dira, eta *Txurio Txoria*-n izenburuetara itzultzen da Erkiaga berriz ere. Egia esan, Agirre edo Anabitarteren izenburuetarako jokabidea eredu zuen lekeitiarrak.

Guzti hauek detaileak baino ez badira ere, Erkiagarengan zerbait gertatu izanaren ispilu izan daitezkeelako oharrarazi ditugu. Nolanahi ere, kanpo egi-

<sup>102</sup> Mitxelena, *Araibar zalduna* elaberriari *Egan*-en eginiko erreseina batetan (1962, 87. orr.), halaxe esaten du:

«Beste batzuek, berriz —bai baita guztietakorik gure artean— alako predikuairena maizegi igertzen... Batzuen eta besteen artean aukeratu bear banu, ni aukeran, norbaitek sumatuko zuen bezala, azkenekoen alde agertuko nintzake.»

<sup>103</sup> *Ibid.*



turek ez dute berez oreka berezirik, salbuespen bat izan ezik. *Batetik bestera* elaberria zati bitan banaturik dago, zati bakoitzak hamalauna kapitulu dituelarik, baina Sarriugarteren eritziz «Liburuaren banaketa, formaz zehatza izanik, desorekatuak agertzen da ekintzaren desarroiloari dagokionez»<sup>104</sup>. Barne egiturari gagozkiola, berriz, elaberriok banaka ikustea komenigarria litzateke.

*Arranegi*-ren kasuan, gertaerek eta kontagaiek ez dute barne lotura zehatzik erakusten, aurrera jauziek, lehen azaldutako egitura linealean, ez dute, orokorrean, nexo eragile berezi baten aztarnarik, narratzailearen arabera gertatzen dira eta. Baina gertuago begiratzen badiogu, erritmo sotila ikus dezakegu kapituluaren jarraieran. Gertakizunak eta deskribapenak alternantzia orekatu samarrean agertzen dira. Lehendabiziko kapitulu bietan aurkezpena eta giroketa egiten da, ez da ekintzarik —elaberri honetan ekintzaz ari garenean zentzu berezian ari behar garela kontutan harturik—; hurrengoan pertsonaiak agertzen hasten dira, eta ondoko ataletan berriz ere jai baten deskribapena, geroago pertsonaien gorabeherak berriro kapitulu batzutan, eta honela jarraitzen da gertakizunen artean «Egaluzetan», «Arrantzaleen goraipea» eta antzeko kapitulu deskriptibo eta gogoetazkoak jartzen. Honetaz gain ez da elaberri horretan benetako egituraketarik nabaritzen, ez eta *Araibar zalduna*-n ere. *Batetik bestera* elaberria ere nahiko desorakatua da, baina kanpo egiturak lagundurik, bada barruko eraketan nolabaiteko oreka: ibilbidearen irudiak ere honetarako laguntzen dio argudioari, honen adibidea Sarriugarrek berak, aurrez esandakoari kontrajarriz, adierazten duena litzateke<sup>105</sup>. *Txurio Txoria*-n berriz ere, azaldutako denboraren egitura zailago bihurtzeaz gain, ez da gertakizuen arteko lotura berezirik.

Beraz, Erkiagaren elaberriek ez dutela oreka berezirik esan daiteke, idazterakoan idazleak ez duela egiturarik aurrez asmatu, ez da nobelaren ikuspegi orokor bat somatzen berez, itxurazko kapitulu banaketaren kasuz gain.

<sup>104</sup> Iñaki SARRIUGARTE, Op. cit., 21. orr.

<sup>105</sup> Ibid., 23. orr. Bertan gertakizunen garapenaren eskematxoa erakusten du, zati bien artean zenbait parekotasun badaudela frogatuz.

## 5. Erkiaga eta literatura

Lana bukatu aurretik, ezinbestekoa zaigu Erkiagak literaturarekiko zituen harremanei begiradaxoa ematea; honek idazlea eta bere nobelen izaera hobeto ulertzen lagunduko bait diezaguke. Erkiagak bizi izandako ingurugiroa ikusi zenean, garai desberdinetako korronte ideologiko eta literarioez jardun genuen, eta adierazi izan genuen Erkiagak garai hartan nolako erreferentzia literarioak izan zitzakeen. Honen ondoren Erkiagaren lanaren barnean izan daiteken literaturaren kontzepzioa ikusiko dugu; idazlearen lanaren atzean ekintza literarioaren oinarri den poetikarik dagoenentz, alegia.

### ERREFERENTZIAK

Eusebio Erkiaga euskaldunzaharra zen, lekeitiarra, eta euskera ezagutzen zuen, ama hizkuntzak ezagutzen diren moduan. Baina, ume eta gaztaroan, euskera idatzia doktrina euskeraz ikasiaz eta *Euzkadi* egunerokoan agertutako lanez baino ez zuen ezagutzen. Erkiaga Lekeition bertan bizi izan zen gerraurrean, ikasketak bukatu arte gutxi gora behera, eta ez zen handik gehiegi irtetzen. Lekeitiok ez zuen, garai hartan, liburudenda ez liburutegirik; *Euzkadi* egunkariak gain, Erkiagak eskuratu zitzakeen euskal liburuak oso gutxi ziren. Idazleak berak dioenez<sup>106</sup>, bertako Batzokian Azkueren hiztegia baino ez omen zegoen. Beraz, Erkiagaren hastapenetako euskal lanekiko kontaktuak Eusko Alderdi Jeltzalearen eskutikako eragin zuzena zuen; *Euzkadi* bera, eta bertan agertzen zirenen lanak bide aranatarretatik abiatzen ziren —Kirikiño, besteak beste—. Ikasketak bukatu ondoren Bilbon lanean hasi eta bera ere ekiten dio *Euzkadi*-ra zenbait lan bidaltzeari. Hortik aurrera beste aldizkari astekarietan agertzen dira bere olerkiak, baina garaiko giroarekin ez zuen berezko kontakturik izango. Lauaxeta bakarrik ezagutu zuen gerraurrean, honek, Lauaxetak, oporrak Lekeition pasatzen bait zituen noizbehin, baina ez zegoen beraien artean harreman intelektual berezirik. Garai honetan Kiriki-

<sup>106</sup> Ikus «Eranskina» lan honetan, 148. orri.

ño, Jauregi, Lauaxeta eta Lizardiren lanak, bestelako Olerti Eguncetako olerkari batzuen lan solteaz aparte, eta Anabitarteren gerraurreko elaberriek ere osatzen zuten Erkiagak zuen euskal literaturaren ezagutza, eta, nola ez, kasualitatez eskuetara etorri zitzaizkion Txomin Agirrerren elaberriek ere bai. Sarriguartek dioena, alegia «Literatura idatziaren ezaguera zabala»<sup>107</sup> baduela pentsatzea ez litzateke oso zuzena, beraz.

Gerra heldu zenean *Euzkadi*-n lanean egon zen, Lauaxetak gudu lerroetatik bidaltzen zituen berriak argitaratzen, eta geroago *Eguna* egunkarian ere bai. Garai hartan Agustín Zubikarai ezagutuko zuen. Ez zegoen olerkitan has-teko giro egokirik orduan, eta Erkiagaren lan literarioa etendu egin zen, besteena bezalaxe.

Gerraostean Erkiagari euskal literaturaren munduko atek piska bat gehi-ago zabaldu zitzaizkion. Orduan ere giroa ez zen oso irekia euskal lanen ager-penerako, baina Zubikaraiarekiko harremanetan jarraitu zuen. Garai honetan, 40. hamarkadan, Frankoren diktaduraren lehendabizikoan, Erkiagak Moge-len *Peru abarka* ezagutzeko aukera izan zuen, baita Axularren lana ere. Eta ondoren *Arranegi* idatzi zuen, 1950. urteko udaldian. Hortik aurrera hasiko zen bere elaberrigile ibilbidea.

Erkiagaren elaberrietan orainarte aipatutakoen *erreferentzia zuzenak* ager-tzen dira, eta erreferentzi hauen bitartez adierazi ditugun idazleen lanez gai-neko beste zenbait ere ezagutzen zituela ikus daiteke *Arranegi* bere lehendabi-ziko elaberrian. Erreferentzia zuzen hauek batzuetan aipamen soilak baino ez dira, baina besteetan idazle hauen testu zatiak ere agertzen dira. Aipatu ez ditugun batzuen artean, Elissanburu, Eusebio M<sup>a</sup> Azkue eta, beronen semea, Resurrección M<sup>a</sup> edo Zapiirain; guztion izenak, eta testuak batzutan, agertzen dira lehenengo elaberri honetan. Gainerako elaberrietan ere zenbait autoreen izenak agertzen dira; Iparragirre, Txirrita, Bilintx, Moguel,... Bada, euskal ai-puez gain ere, gaztelaniar eta bestelako erdal literaturetako izen batzuen ager-pena. Hauek berez Erkiagaren estiloan aztarna zuzenik utzi ez bazuten ere idazlearen irakurketen berri ematen digute; Shakespeare, Calderón, Goethe, Daudet, Unamuno —eztabaidan sartu gabe—, ziur aski bakoitzaren lan nagusi bakarra ezagutzen zuelarik (*Fausto* edo *Tavascon-eko Tartarin* aipatzen dira elaberrietan), eta gehienak dramaren tonu klasikoarekin (Shakespeare, Cal-derón; Unamuno-ren prosaz, klasiko baino, «castizo» esan beharko genuke), kutsu erromantiko batekin (Daudet-en errealismo probentzala, kasurako), edota biekin batera (Goethe-ren kasua lakoa). Garai honetan ere, aipatu beza-la, Juan Ramón Jiménez-en *Platero y yo* elaberria irakurri zuen, baina, esan

---

<sup>107</sup> Iñaki SARRIUGARTE, Op. cit., 20. orr.

ditugunez, ez dirudi idazlearen estiloak irakurketa honen eragin ohargarririk jaso zuenik.

Erkiagaren literatur erreferentzia mundua ez da oso zabala garai honetan, egia esan, baina honen barruan euskal herri-literaturak garrantzi handia du, dudarik gabe. Aipatu ditugu bertsolarien izenen agerpenak, baina honetaz aparte ere, aurrerago aztertu ditugun esaera zahar eta atsotitzek ere oso leku nabarmena izaten dute elaberrien barnean, esamodu herrikoiak eta euskal tradizioaren ohiartzuna. Euskal koplak zahar, kantu eta bertsoak maiz erabiltzen ditu idazleak elaberriak girotzeko eta hauei estilo berezia ematen diete, baita umeen jokuen kantak eta antzekoak ere, azken elaberrietan ere joera hau mantentzen delarik<sup>108</sup>, eta ez euskaldunak bakarrik, gaztelanierazkoak ere agertzen dira batzutan, errealitate linguistiko eta sozialaren isladapena direlarik nolabait.

Hala izanik ere, Erkiagaren elaberrietan idazle batzuen eragina soma dezakegu, edo batzutan obra baten irakurketaren aztarna behintzat, zuzenean emanik agertzen ez bada ere. Halakoxea dugu Txomin Agirreren eragina, lehendabiziko elaberrietan batez ere. Agirreren estiloa nabariki isladatzen da *Arranegi* elaberrian. Nobela honetan dagoen deskriptibismoak eta adjetibazioaren erabilpenak, lehenago aipatu bezala, ondarrutarraren lanak gogoratzen digute; pertsonaien tratamenduan noizean ere bai, eta narratzailearen izaerak berak ere Agirreren itzala erakusten digu, irakurleari egindako deikin, edota, adibidez, elkarrizketei eginiko aurkezpenetan baita:

«entzun dagigun an barruan egozan beste gizonezkoak bere, ziñoena» (A, 16)  
«Olangoxe autua egoan Arranondoko sukalde bazterretan»<sup>109</sup>

Elkarrizketetan, ordea, Mogelen hizketa luze eta perifrastikoen aztarna soma dezakegu *Arranegi*-ko pertsonaien ahoetan, eta zenbait pasartetako irudiketan ere haren eraginaz Sarriugartek eman du oharra<sup>110</sup>. Honetaz gainera Mogelen *Peru Abarka*-ko Peru katedratikuaren eta Basarteko unibertsitatearen parodiatxo ironikoa ere erakusten du Erkiagak *Arranegi*-ko XVII. kapituluan, «Errekako esamesak (Vox populi)» izenburukoan. Kapitulu honetan erreka bitan bukata ikuziaz izaten diren jardunen deskribapena egitean bertako giro «akademikoa» erakusten du, «Tokiz txikiak, lurrez medarrak, goi-bez motzak; baiñan «Unibertsidade» bi, emonpidez, erionez, zabalgarri ubari ta akitu ezi-

<sup>108</sup> Cf. *Jaioko dira* elaberria, adibidez (Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1984; 64. orr. esaterako).

<sup>109</sup> Txomin AGIRRE, *Kresala*, Arantzazuko Frantzizkotar Argitaldaria, Arantzazu, 1976, 26. orr.

<sup>110</sup> Iñaki SARRIUGARTE, Op. cit., 24. orr.

ñak» (A, 134); eta horietan badira katedratiku, «Doktor-eme», eta ikasleak ere.

*Arranegi* idatzi zuenetik *Txurio Txoria*-raino —orduan oraindik Neurriak izenburukoa, hainbeste enziklopedietako biografiatxoetan aipatua— Erkiagak bestelako euskal lanak ezagutuz joan zen, eta haien artean oso desberdin ziren idazleenak gainera, Juan Manuel Etxeitaren elaberria, adibidez, Etxaide-rena, Zaitegiren *Goldaketan* edota Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*, hau agertu eta laster, besteak beste. Agian garai honetan ezagutuz joan zen literaturaren eraginez, bere elaberrienganako jokaera autokritikoak zenbait aldaketen beharraz ohartu zuen, eta beharbada *Txurio Txoria*-ren narraketa autobiografikoaren berritasuna eta bestelako aldaketak honen ondorioak izan litezke. Baina hasierako eraginaren aztarnak, literarioak zein ideologikoak, indartsu iraungo dute azkeneraino, ondoko urteetan ere bai.

70eko hamarkadatik aurrera Saizarbitoria, Aresti, Gandiaga, Zarate eta beste batzuen lanak ezagutu zituen, eta honen ondoren lehendabizi gerra hartzen du kontagai elaberrira hogeitaz geroago itzultzen denean: bere estiloa ez da gehiegi aldatu harrez gero. Nolanahi ere, Erkiagaren azken bi elaberrietako erreferentzia munduaren aldaketa ez da *Iribarrea galtzen danean* azken elaberrian Gandiagaren *Denbora galdu alde* liburuaren aipamena egitera soilik mugatzen ziurazki, baina agian honetarako beste azterketa berezi bat beharko litzateke.

#### TEORIA POETIKOA

Aurrez esana genuen bezala, Erkiaga ez zen, ez gerraurrean ez eta gerraostean ere, ideologia mailan murgildu. Idazle lekeitiarrak garaiko jokabideen semea da, beraietatik eta beraiengatik ahal zuen gehiena egiten jardunez. «Militantzia beraz hitz egokia beretzat» Iñaki Kaminok esan zuen bezala<sup>111</sup>. Ez zuen Erkiagak, garai hartan behintzat, literatura idatziaren ezagutza zabalik, lehen esan dugun moduan Sarriugartek hala uste badu ere, ez euskal literaturarena ez eta erdal literaturarena. Hortaz, berak zuen ekintza literarioaren esperientziaren ezagutza bere esperientziara mugatzen zen ia guztiz, garaikide batzuen lana aldizkarietaz ezagutua izanik, eta aipatu ditugun beste lan urri batzuk.

Teoria poetikoaz ari garenean, beraz, idazlearen lanaren izaera, estiloa,... eratzen dituzten erizpideei buruz ari gara. Eta zeintzuk ote ziren Erkiagarenak? Zergatik eta zertarako idazten zuen? Esana dugu, dagoeneko. Aranak herri nortasunaren kontzientzia biztu zuenetik euskal giroa, esparru guztie-

<sup>111</sup> Iñaki KAMINO, Op. cit., 41. orr.

tan, nortasun horren erreibindikazioaren inguruan murgildu zen nagusiki. Erkiaga giro hartan jαιο, hazi, hezi eta bizi izan zen. Baina Erkiaga herrian jaioa zen, han bizi zen urte askotan, eta herriaren bahetik edan zituen giro hartako eragin guztiak.

Erkiaga olerkari gaztearen hastapenetako poetika bakarra sentipenena zen, eta hauxe da *Arranegi*-n adierazten duena:

«Olerkariak, euren irudi-asma-iturriak idekiaz, lilura-olde zoramenezkoak eta biotzaren irakin-borboilladak ero-moskor edariz opa ta eskeiñi oi daukuez» (A, 101)

Baina aurreraxeago ere hala esaten du:

«Nor ezta orrelako eretietan olerkari izan? etorri aundiko poeta edo azti bezela agertu?» (A, 101)

Erkiagarentzat, beraz, bere hastapenetako olerkaritasuna edozein gizakiak duenaren parekoa zen, ez zegoen inolako asmo literario berezirik, antropologikoa dei dezakegun zer bat baino. Une batez honetan pentsatzen badugu, ziur aski idazle gehienetan hasieran antzeko fenomeno gertatuko zela pentsa dezakegu, gaztaroko erromantizismo eta esistentzialismoaren tartean dagoen adierazi beharraren eraginez sorturiko zerbait dela —jakina, ez gara ari Umberto Eco bezalako kasuetan pentsatzen, bere lehendabiziko nobela ia 50 urte zituelarik argitaratu zuena—. Baina honetan giroak indar haundia du, giroak markatzen bait ditu hastapenetako ekintza literarioaren parametroak. Eta Erkiagaren gaztaroko giroa berezia zen horretan. Orduko asmo nagusia fronte guztietatik Euskal Herriaren alde ekin beharra zen, eta hizkuntza zen hartarako armarik hoberena. Erkiaga euskaldun zaharra zen, eta zerbait irakurria zuen euskeraz behintzat, egunkaria eta Liburu Santua baino ez baziren ere. Eta harekin bere «militantziari» ekin zion.

Oraintsu adierazitakoaz gain, ez da aztergai diren Erkiagaren elaberri hauetan bestelako inolako aipamenik egiten literaturaren ingurukoak. Baina garai honetan bertan Erkiagak bere eritziak adierazten zituen. *Egan*-eko artikulu batetan halaxe zioen:

«Idaztea bearreko zaigu, noski, ta literatura gabe zail izango zaigu ezer egitea. Eztugu bear ordea, nolanaikoa. Begoz zokoan alako erroillo ta lan gustogabeak. Irakurtzale ezta oraingo jendea. Are gutxiago nai du lan astun eta nekagarririk.

Orregatik, idazten zale diranak, gaia ta neurria, azal ta mamia, barne ta tankera aukerakoak asmatzen ta taxutzen alegindu bear dute.»<sup>112</sup>

<sup>112</sup> «Kezkak eta koxkak», in *Egan*, XI, 1958, 55. orr.

Aipatzen dituen gai eta mamiak adierazterakoan zertan pentsatzen zuen bilatzen hasten bagara, ordea, aurreratxo «Zer ote zedukan Txomin Agirre-k, zer grazi ta jas ta doai berezi» esaten duenean ez dugu beragan adierazitako aurrepausua oso aurrerakoia somatzen.

Erkiagarentzat literatura arte lana zen, «ederbide-lana» Sarriugartek esaten duen bezala<sup>113</sup>, eta hala izaten jarraituko da azkeneraino ere. Eder lan honek, ordea, funtzio berezia bete behar du, giroak halaxe eskatzen bait dio, eta horrela Erkiagaren literatura lana «Jaungoikoa eta lege zarrak» mugatutako bizibidean hezkuntza emateko bidea izango da, euskal bizibidea erakusteko nolabait. Agian honegatik esaten du Iñaki Kaminok *Arranegi*-ko giro gatzbakoa, kostunbrista eta moralizantea deskribatzean «egileak asmo guztiz egiten duela»<sup>114</sup>. Baliteke intentzionalidadea lako zerbait ere izatea lehendabiziko elaberria sortu zuenean, baina gure ustez hura idazlearen hastapenetako ondasun literario urria eta ingurugiro indartsuaren ondorio halabeharrezkoa izan zen.

Erkiagak literatura egiteko zituen arrazoi nagusiak bi izan ziren, beraz: bata abertzaletasunak eragindako militantzia beharra; eta bestea, Erkiagak berak esaten digunez, kezka estetikoa, zeren «literaturea, ederraren bila dabilenak begiko izango»<sup>115</sup>. Ildo honetatik, autoreak edertasunaren azalduenezinaren topiko erromantikoari ere atxekitzen dio —«Zelan adierazo dagike idazleak [...] une esan ezina?» (A, 190)—. Adierazpen hauek nolabait Thomas Mann-en Aschenbach pertsonaia gogoratzen digute. Ez du, ordea, sorketarako erizpide sakonagorik. Azkeneraino ere, literatura beretzat erdi egia, erdi gezur den kontaketa ederra da. *Jaioko dira* elaberrian halaxe adieraziko du, bai eta *Irribarrea galtzen danean* elaberriaren aurkezpenean:

«[...] egia osoa esan ordez, egia erdia, saihestua edo lardastua, edota erdi ixildua edo benetako ez direan zertzeladaz apaindua agertzen.»<sup>116</sup>

Honetaz gaineke guztia hizkuntza bera da, euskera landu eta baliabide bihurtu beharra. Erkiagak beste idazleei buruz emandako eritziak jokabike honen isladapen argiak dira. Normalean lekeitiarrak haien hizkera besterik ez du aintzat hartzen. Etxeitari buruzko hitzaldian, adibidez, «izkera errezean, oztopo barik irakurtzekoak, itzak moztu ta itsusitu gabe, euskera osasuntsuan» eta antzekoak aipatzen ditu<sup>117</sup>. Gainera, 1958. urtean adierazia zuen argi eta

<sup>113</sup> Iñaki SARRIUGARTE, Op. cit., 17. orr.

<sup>114</sup> Iñaki KAMINO, Op. cit., 43. orr.

<sup>115</sup> *Jaioko dira*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1984, 120. orr.

<sup>116</sup> «Irribarrea galtzen danean...», in *Idatz & Mintz*, 15, 1988, 21. orr.

<sup>117</sup> «Jose Manuel Etxeita eta Luzarraga», in *Oleri*, 1962, 115. orr. Ikus halaber, lan honen eranskian *Letziaren egunkari ezkutua* liburuaz ageri duen eritzia, bertan hizkuntzari buruzko oharrak baino ematen ez dituelarik.

garbi bere aburua: «Gaiak, gaurkoagoak izatea, noraezko da, baiñan erriaren izkuntza jatorra ikastea, premiazkoen»<sup>118</sup>.

Ikusten dugu, beraz, Erkiagak ez zuela oinarri teoriko edo literatur asmo berezirik bere sorketarako, orokorrean, eta —Kortazarrek esan bezala— bere elaberrian «badago literatura, argumentuaren kontzepzio arrunta badu ere», baina kontzeptzio hori ez da bakarrik argumentuarena, literaturarena baizik. Hala ere, Erkiaga gero eta arduratuago agertzen da sorketaren literaltasunaz, eta honen ondorioz bere elaberrian aldaketa eta garapena ikusten da, bilakae-ra bat.

---

<sup>118</sup> «Kezkak eta koxkak», 55. orr.



## 6. Erkiaga literaturan

Honaino, beraz, aztertu ditugun Erkiagaren elaberriez eman daitezkeen daturik garrantzitsuenak adierazten saiatu gara. Orain, lanari bukaera eman aurretik, esandako guztiaren laburpen eta ondorio bezala, ikusitako ezaugarrien arabera, Erkiagaren gerraosteko elaberrigintza euskal literaturaren barnean kokatzeko, zenbait eritzi emango dira proposamen modura.

XIX. mende hasieran European zehar erromantizismoa hedatu zen; Alemania eta Ingalaterran lehendabizi, ondoren Frantzia, Espainian geroago. Octavio Paz-en eritziz, Frantziako erromantizismoa nahiko amaneratua izan zen, eta Espainiakoa, Frantziatik edana, ez zen benetako erromantizismoa izan<sup>119</sup>. Nolanahi ere, erromantizismoak ideia oinarritzko batzuk zabaldu zituen Europa osoan eta hauek Espainiara ere heldu ziren, hauen oinarrian iraganeranzko begirada nostalgikoa eta subjektiboa zegoelarik. Paz-ek dioenez, erromantizismoa ilustrazioaren ondorioz gertatutako burgesiaren aurkako erreakzioa izan zen. Euskal Herrian, ordea, izan zitekeen nukleo ilustratua XVIII. mende erdi inguruan sortutako «Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País» elkartearen inguruan bilduta zegoen nagusiki, eta talde honen ahaleginak abertzaletasunaren alde zehaztuak ziren berpizkundearen garaian. Nolanahi ere, garai honi buruz aritzean, M<sup>a</sup> Angeles Larreak dioen bezala «la lectura de la historia del País hay que hacerla sobre un telón de fondo más dilatado que el de sus estrictos límites geográficos (en términos generales, sobre la evolución de la Europa occidental)»<sup>120</sup>, Espainiako berankortasuna kontutan hartuaz. Espainian giro hau zabaltzen hasia zen, eta giro honen barruan 1876. urtean Foruak deuseztatuak izan zirela pentsatzen badugu, ondoren gertatutako E.A.J.-ren sorketa eta abertzaletasunaren indarra hobeto ulertuko da. Dena den, bigarren puntuan adierazi genuen bezala, Espainiako beste herrialdeetan ere antzeko fenomenoak irakiten zegoen orduan, eta ez dugu hau ahaztu behar.

<sup>119</sup> Octavio PAZ, *Los hijos del Limo*, Seix Barral, Barcelona, 1989, 117. orr. eta hur.

<sup>120</sup> M<sup>a</sup> Angeles LARREA eta Rafael MIEZA, *Introducción a la historia del País Vasco*, Ed. Beramar, Madrid, 1987, 91. orr.

Errealismoa, benetako errealismoa, espiritu erromantikoaren kontrako jar-  
rera bat zen, subjektibotasun sentiberari ikusle hutsaren objektibotasuna kon-  
trajartzen zion eta garaiko gizartearen deskribapena proposatzen zen. Ez zen  
bapatean hala gertatu, jakina. Errealismoa prozesu bat izan zen, eta erroman-  
tizismotik errealismorako bilakaeran tarteko estadioek korrante bien ezauga-  
rriak izan zituzten, hein desberdinetan, garapenaren arabera. European errea-  
lismoa XIX. mendearen bigarren erdirako jadanik bere gailurrera heltzen  
zegoen, Flaubert aintzindari, eta mende bukaeran Espainian Galdos-en errea-  
lismo bizia naturalismora ere bazihoan Clarín-en eskutik. Clarín-en *La Regenta*  
agertu izanaz hamalau urtez geroago Txomin Agirreren *Auñamendiko lorea*  
argitaratuko zen, berez lehendabiziko benetako euskal elaberria kontsideratu  
izana —betiko gorabeheretan sartu gabe—. Beraz, European zehar errealis-  
moa gaudituta zegoenean, eta Espainian gailurrera iristear, Euskal Herrian  
ideologia erromantikoak eragindako Berpizkunde literario-kulturala berebizi-  
ko indarra jasotzen ari zen. Garai honetan olerkiak garrantzi handia izan  
zuen, bai Lore Jokuetan bai Olerti Egunetako saioetan, eta horregatik posible  
izan zen Lizardi eta Lauaxeta lako fenomenoak —bakanak baina oso adieraz-  
garriak nolana— izatea, jokaera aberkoiez gain literaturaren izaera propio  
baterantz jotzen hasi zirenak.

Elaberriak, ordea, ez zuen zorte berdina izango. Garai honetan Agirreren  
*Kresala* eta *Garoa* ohiturazko elaberriak eredu nagusi —bakarra esatea hobe—  
izan ziren, honen ondoren gerraurre hurbilan Anabitarteren prosa lirikoa eta  
Toma Agirreren *Uztaro* elaberria, bide beretsutik abiatuz, gehigarri xumea  
baino ez zirela izan. Garai honetan Etxeita eta Jean Etxepareren nobelak izan-  
go dira euskal elaberriaren barnean benetako adierazgarritasuna sortuko du-  
tenak. Kortazarrek adierazten duenez, Etxeita, eta Etxepare argiago, ohituraz-  
ko elaberrien manikeismotik, apalki baina, aldentzen ziren, eta teknika  
errealisten aztarnak ere isladatzen hasi ziren. Ohiturazko elaberriaren sabele-  
tik zetozen, baina beharbada errealismoranzko bidearen hastapenak ziren.  
Euskal giro abertzaleak olerkiari, eta antzerkiari ere, ematen zien garrantziak  
ez zion bidèrik zabaldu elaberriari garai honetan, eta Gudu Zibilak eten egin  
zituen garai hartako aurrerapen atzeratu guzti haiek.

Gerraostea heltzen da eta, une honetan sartu aurretik, aurreko elaberriko  
joera nagusi bici begirada bat ematea beharrezkoa da ondorengo urratsak  
ulertu ahal izateko. Erromantizismoak eta Errealismoak elaberri moeta nagusi  
bi eragin izan zituzten, baina tarteko bidean, lehen esan bezala, nahiko auke-  
ra aberatsa gertatu izan zen. Euskal Herritik hurbilago dagoen espainiar ohi-  
turazko elaberriak aipatutako kutsu erromantikoa zuen; subjektibotasuna zen  
nagusi, errealitatea idazlearen baitan sartu ondoren erakusten zen, eta garai-  
ko moralismoak mediatizatu egiten zituen erakusten ziren irudiak. Aurreko

gizartearen izaera berreskuratu nahia agertzen da, eta honela deskribapen manikeorako joera nagusi da: ez dago benetako gogo konfliktorik —ez bait da Eliza eta moral katolikoaren kritikarik egiten—, eta pertsonaiak talde bitan banatzen dira: onak eta txarrak. Giro herritarra agertzen da onaren eredutzat, garbitasuna, jatortasuna, eta parabisu estatiko eta denboragabeko horien bila dihardute idazleek —errealitate industrialaren garapenak ordea giro horren berreskuratzearen ezintasuna gogoratzen die, eta horregatik elaberri hauek gehienetan kutsu pesimista samarra izan ohi zuten—. Kristautasunetik sortutako irudi subjektibo hauek, gainera, moral katolikoak eragindako didaktikotasunez kargatuak zeuden, nahiz eta kristautasun hura, askotan (eta Euskal Herriaren kasuan hareago), gizakia eta Jainkoaren arteko erlazio mistiko batetik baino, abertzaletasunezko planteamenduetatik eratua izan.

Errealismoak, ordea, berez objetibotasunaren literatura proposatzen zuen. Teorian behintzat, elaberri errealistak aurrean aurkitzen zuen guztiaren ispi-lua izan behar zuen, ederrenarena zein zikoitzenarena, inolaz ere haren moraltasun edo moral eza epaitzeke. Elaberriak lekuko zehatza izan behar zuen. Deskribapen zehatz, baina objektiboa zen hartarako bide egokia. Gizartearen islada izan behar zuen, eta kritika subjektiborik egin behar ez bazen ere, errealitatearen alde latzak berak erakutsiko zituen gizartearen gaitzak. Elaberriak hartzaile pasiboa izan behar zuen. Errealismo erradikalaren ezaugarri nagusiak Claude Bernard medikuaren *Medikuntza experimentalaren ikaskuntzarako sarriera* liburuan proposaturiko printzipioak ziren: behatzaileak, ikusleak ikusitakoaren, naturaren konstatazio soila egin behar zuen, besterik ez. Elaberria irudi honetara ahalik eta gehien hurbildu zenean, ordea, naturalismo deitu izan zen.

Esan bezala, teorian hala izan behar zuen elaberri errealistak. Praxian ez zen hala gertatu, ordea, espainiar literaturan, Galdós edo Clarín-en elaberriak agertu arte, errealismorako bidea bestelako ezaugarriak izan zituen. Eta bide honetako urratsak Garatek deitutako «eskualdeko elaberriak»<sup>121</sup> eta tesiko errealismoa izan ziren. Elaberri hauetan ohiturazko elaberrietako ezaugarri batzuk mantentzen ziren, beste batzuk elaberri errealistetakoei bidea uzten zihoazkien bitartean. Elaberri moeta hauetan —bakoitza bere berezitasune-kin, jakina—, errealismoaren teknika batzuk erabiltzen hasi ziren, baina gizartearen irudia ez zen guztiz erreala. Eta Donald L. Shaw-k esan zuen bezala «El realismo no depende solamente del fiel reflejo de la realidad observada: depende también de qué aspectos de la realidad se reproducen»<sup>122</sup>. Elaberri hauetan subjektibotasunak irauten zuen, baina gero eta murriztenago doa, oso

<sup>121</sup> GOTZON GARATE, *Euskal elaberrien kondaira I*, Gero, Bilbo, 1983, 42-43. orr.

<sup>122</sup> DONALD L. SHAW, *Historia de la literatura española. El siglo XIX*, Ariel, Barcelona, 19, 86. orr.

azkar ez bada ere. Eta gainerako elementuetan bikoiztasun adierazgarri bat azaltzen da: bikoiztasun erlijioso eta ideologikoa pertsonaien tratamenduan alderdi bikoiztasuna erakusten hasten dira; bikoiztasun politikoa ere noizean isladatzen dute, eta giro hiritar-herritar bikoiztasunak ez du aurreko manikeismo aldagaitza erakusten. Estébanez Calderón edo Mesonero Romanos-en XVIII. mende hasierako ohiturazko elaberrietatik Galdós-en errealdimora, edo Clarín-en *La Regenta*-raino, espainiar literaturan tarteko hein desberdinetako errealdismo haren barnean murgildu ziren idazle batzuk izan ziren: Cecilia Böhl de Faber-en (Fernán Caballero) elaberrietatik, Pereda, Alarcón, Valera, eta garai bateko Galdós beraren elaberrietaraino ere.

Atariko honen ondoren, euskal gerraondoan sartzen gara. Garai honetako giroaren deskribapena egina dago dagoeneko, beraz, modu sinoptiko batean, ezaugarri nagusiak hauexek izan ziren: etenaren ostean gerraurreko giroa berreskuratzeko ahaleginak, beraz, gerraurreko eredu ideologiko eta estetikoetara itzultzen da. Honi beste elementu bi erantsi behar dizkiogu: izua eta etsipena. Honekin hasi zen gerraosteko elaberria urratsak ematen. Gainera, Etxeita eta Etxepare ez ziren, garai honetan, eredu bereziak izan, Agirrek zuen oraindik euskal klasikoaren irudi itzaltsua. Baina etsipenak, diktadurapeko bildurrak baino, paper garrantzitsua jokatu zuen ziur aski idazleengan. Etsipena ohiturazko elaberrien pesimismoarekin lotu genezake, baina euskal literaturaren kasuan pesimismo hau Berpizkundearen euforiak estali egiten zuen. Era berean, ordea, sentimendu honek geroaren ikuspegi desberdin bat eratu zuen. Gerraurreko euforia desagertua zen, eta giro hura berreskuratzeko ezintasunaren egiaren aurrean, molde haiek indarra galtzen hasi ziren. Honelako giroan, halakoa izan bait zen sentipena erbestean zeuden idazleengan, edo gogorrago agian, Jon Andoni Irazustaren elaberriak agertzen dira euskal literaturara. Irazustaren elaberriak kutsu erromantikokoaren aztarnak erakusten zituen, baina agian teknikarako jokaera berria ohargarria izan zen, literaturaren literaltasunaren garrantziaz ohartze bat erakusten duelako hain zuzen. Kortazarrek dioten bezala «Posiblemente, lo más reseñable de la obra reside en el esfuerzo narrativo y no en el argumental»<sup>123</sup>. Erbesteraketa eta Guda Zibilaren gaia ez da beti nagusi, baina zerikusia du garai honetako elaberriarekin. Eta honela agertzen hasten dira errealdimorako bidean saiatzen diren idazle batzuk, Irazusta bera edo Eizagirre kasu, eta hurrengo hamarkadetan, Erkiagarekin batera, Ugalde, Loidi, Izeta, Salaberria, baita Etxaideren bide bereziagoa, eta Orixeren *Kiton arrebarekin*. Idazle guzti hauek garai honetan elaberriak argitaratu zituzten, egoera desberdinetatik, noski, Irazustaren *Joanixio* elaberriaren agerpenetik, 1946. urtean, Sebastian Salaberriaren *Nero-*

---

<sup>123</sup> Jon KORTAZAR, Op. cit., 101. orr.

nek lirako nizkin agertu arte, 1964. urtean —eta Erkiagaren *Txurio Txoria* elaberria urte honen inguruan idatzia izan zen baita, nahiz eta 1986an argitaratua izan—. Ez dira berdinak, eta ez dute estilo berbera erakusten, Pereda, Valera edo Alarcón-enak bezala, baina guztiek aldaketa leun baina esanguratsua erakusten dute, guztiek teknika errealisten erabilpena isladatzen dute, hein desberdinetan.

Esan al dezakegu, beraz, euskal literaturan tesiko errealismo eta elaberri hiritarraren arteko heterogeneitate espazio bat izan zela? Baietzean gaude, eta agian espazio honetan murgildu zirenen taldea izan liteke Kortazarrek iradokitzen duen aztergabe dagoen belaunaldia, «Nik uste dut badela euskal literaturan 50.eko literatur-taldea, oraindik ez ongi ikertua eta baloratua gure artean»<sup>124</sup>. Jakina, hemen ez ditugu olerkian eta beste generoetan aritu zirenak aipatu.

Erkiaga talde honetan egongo litzateke. Eta gainera bere bilakaeran heterogeneitate horren etapa desberdinak erakusten ditu. Honela, *Arranegi*, gerraoste imediatoago batean idatzia (1950. urtean), ohiturazko elaberrietatik hurbilago agertzen da, baina jadanik Anabitarteren prosa lirikotik hurbilago, Agirrerenetik baino. Elaberri honek ohiturazko ezaugarriak zuzenago agertzen ditu; subjelibismo garrantzitsua, manikeismo nahikoa, kristautasun finkoa, zalantzagabekoa, Euskal Herri idiliko baten irudia. Baina, halere, hiritasunaren eragina ere nabaritzen hasten da. Nolanahi ere, *Arranegi* elaberriak garai honetako Ana M<sup>a</sup> Matutereren *Pequeño Teatro* elaberria erakartzen digu gogora (1954. urtean Planeta saria), idazle honen geroko «errealismo testimonialerako» bidean zegoelako agian.

*Araibar zalduna* ia hamar urtez geroago idatzia zen, eta aldea nabaria da. Idazleak erakusten duen errealitatea mediatizaturik dago oraindik, baina aurrekoan ez bezalako alde batzuk agertzen dira, kristautasunaren itzala edonon somatzen bada. Pertsonaia batzuk ere ez dute hain izaera finkoa eta manikeoa erakusten.

*Batetik bestera* elaberriak teknikarako ardura handiagoa erakusten du, teknika errealista ezagutzen eta erabiltzenago doa Erkiaga. Mitxelena hala ohartu zen honetaz, berak zuen genio bereziarekin: «jabetzen ere dijoa eleberriaren tajuaz eta teknikaz»<sup>125</sup>, «Teknikaren jabe dugu, eta teknikaren neurriko gaia arkitzea eztu neke izango»<sup>126</sup>. Nobelaren kontzepzioa oraindik tradizionala da, eta errealitatea idazleak aukeratua dugu, baina teknika errealista nabaria

<sup>124</sup> Jon KORTAZAR, «Bide ezagunak sakontzen», in, *Eguna*, 1987-VII-9.

<sup>125</sup> Koldo MITXELENA, «Eusebio Erkiaga. *Araibar zalduna*», in *Egan*, 1962, 87. orr.

<sup>126</sup> *Ibid.*, «Eusebio Erkiaga. *Batetik bestera*», in *Egan*, 1962, 304. orr.

go egiten da, zenbait lanekiko konparaketan hain argia gertatuko ez balitz ere.

*Txurio Toria* elaberriak berrikuntza nabaria du, baina agian *ni*-aren agerpen zuzena berriz ohiturazko moldeetara itzulpena iruditu daiteke. Zehazkiago begiratzen badugu, ordea, ikus dezakegu pertsonaiaren *ni*-aren subjektibitatea ez dela aurreko narratzaileena lakoa, eta alde honetatik sineskortasuna ematen dio estiloaren osotasunari. Estilo hau, gainera, lehengo erritmo geldo eta astunarengandik *Batetik bestera*-n baino areago urrundu egiten da. Pertsonaien tratamendua ere askozaz aberatsagoa da, eta deskribapenak, *ni*-aren ikuspegitik izan arren, askoz objetiboago bihurtzen dira. Kontutan izanik beti, halere, elaberri honek moldaketa zenbait izan zituela.

Aurrerago jotzen badugu, *Jaioko dira* elaberria ibilbide honen epilogoia suertatzen da, eskena-tokia Guda Zibilean kokatzen delarik, garai honetako zenbait idazlek aztergai diren urte hauetan egin zutenari hogeitaz beranduago ekinez. Halere, honek ikuspegi desberdina eskeini ahal izatea zilegi egiten du.

Erkiagak, beraz, Kortazarren terminologia erabiliz, 50eko hamarkadako belaunaldia dei dezakegun talde honen ezaugarri batzuk jasotzen ditu, hasieran atzeratuago agertzen delarik. Nolabait, bere elaberria —Kortazarren eritziz elaberri urbanoa— benetako azken errealismo batera heldu ezin izan zuen errealismo kutsuko elaberri moeta da, tesiko elaberrien ezaugarri ugariekin. Erkiagaren helburua euskeraren alde lan egitea da —garai honetako idazle gehienena bezalakoa<sup>127</sup>— eta honek idazlearen gizatasun soilaren bila-kaera, eta beronen literaturaren literaltasunaren garapena eragotzi zituen, izan ere. Nolanahi, garai honetako beste idazle zenbait ez bezala, Erkiaga bere garapen bakanean geratu zen, bere estiloaren barruan aurrera pausuak emanaz, baina orduko eta geroko literaturaren ondoan gero ta atzerago.

Dena den ere, bitxia da, adibidez, Erkiagak 1984an oraindik gerra garaian kokatutako elaberria idatzi zuen bezala, gaurregun, oraindik ere, Francisco Fernández del Riego, Erkiagaren garaikide galiziarrek, Guda Zibilari buruzko elaberria argitara ematea halaber<sup>128</sup>, bere lehendabizikoa gainera.

---

<sup>127</sup> Jose Antonio Loidi ere halaxe adierazten zuen («Jose Antonio Loidi», in *H.A.B.E.*, 211, Bilbo, 1992, 28. orr.):

«[...] idazteari ekin zion, baina berak aitortzen duen bezala: "inolako asmo literariorik gabe".»

Martín Ugaldek ere, *El Mundo* egunkarirako elkarrizketa batetan, berdintsu esaten zuela adierazten du elkarrizketatzaileak («Martín de Ugalde, Venezuela en la retina», in *El Mundo del País Vasco*, 1991-5-26):

«Su pasión por la escritura acompaña a un constante servicio al euskera.»

<sup>128</sup> F. FERNÁNDEZ DEL RIEGO, *O cego de Pumardedón*, Edicións Ir Indo, 1992.

Guzti honekin, beraz, Erkiagaren elaberrirako hurbilketa eskeintzeaz gain, lehendik adierazitako ezaugarrien azterketarekin eta ezaugarri berrien erakusketarekin, nahiko argi geratzen da euskal literaturako gerraostekoaz esanak badira ere, badela oraindik ongi aztertu gabe dagoen idazle taldea eta literatura moeta, eta horretan bertan ere Erkiagaren elaberria sartuko litzatekeela.

## Eranskina

Oso maiz gertatu izan da, gauregunerarte, ikerketa bat egiterakoan iraganeko idazleengana jo izana, eta horregatik gehienetan ezin izan du aztertzaileak, idazleak berak eman ziezaiokeen datu ugari jakin, normalean idazlea heriotzaren mugagabetasunean desagertua bait zen. Honako lan hau egiterakoan Erkiaga berarekin solasalditxo zenbait izateko aukera izan dugu, gizon adiskidetsu honen borondate onari esker, eta elkarrizketen bitartez gauza interesgarriak jakin ahal izan dugu, horietako batzuk lan hau eratzeko erabiliz. Batzutan idazleak emandako datu horiei buruzko aipuak agertzen dira lan honen barnean, eta horregatik haietarik grabatu izandako bat berton traskribatzeari interesgarria eritzi izan diogu, ez oso lagungarri izango delako ustea dugulako soilik, baizik eta Erkiagaren hitzok bere ahotik jasotzeko aukera hau gerora ere gera dadin. Ondoko elkarrizketa idazleak negualdian Bilbon duen bizilekuan egina izan zen.



E - Bai, han ipinten eben «todos los que quieran colaborar, en euskera o castellano», ta nik, badakizu, nik ba dotrinea, «catequesis», orduan euskeraz ikasi neban, ta hori izan da geure denborakoan aurrerapena-edo, hori eta gero egunekoa etortzen zan hori, ba hortik hasi nintzan ni euskera irakurten. Eta *Euzkadi* hartzen eban etxean aitak, *Euzkadi* egunerokoa, partidukoa, eta han euskera ta, han egoan, Kirikiño ta horreek idazten eben. Ta hantxe irakurrita ba holantxe, beste barik... «se admitirán», eta bialdu neban eta holan agertu zan, baina beste ezer barik. Euskeraz zer edo zer egiteko... ta tema be, zer, ba Sabino Aranaren ba betikoa, nor izan zan ta gazterik hil zala, ta dana itxi ebala... besterik ez.

N - Eta hasieran irakurrita zenduan edo jakin behintzat Sabinoren gramatika antzekoa edo bizkaierarako proposamenak eta?

E - Ez, holakorik ezer ez, azaletik ba nor izan zan eta, preso egon zala, aberria ta askatasuna ta.

N - Kirikiñorenak irakurrita bai behintzat.

E - Bai, Kirikiñok egunero idazten eban *Euzkadi*-n. Ta bat edo bestetan agertzen zan «en la publicación *Euzkadi*»; baina *Euzkadi* «era un diario», ze? «diario»; ta batzuk be horra, «publicación»... *Euzkadi* egunkaria zan. Gero honeek *Ekin* egiten eben, Zornotzan Jaungoiko Zale, abadeak, euren batzarra zan Jaungoiko Zale, eta handik ataratzen eben *Ekin*, astekaria, eta hor be olerki bat edo idazte lan bat ba, zer edo zer. Eta olerkiak... holan ba handik hona bitartean (zerrendan agertzen diran lehendabiziko garaiko olerkiak seinala-tuz), ba honeek dira hasikerako zerak.

N - Eta gerraurreko garai honetan Lauaxeta edo Lizardi edo garaikoren bat ezagutu zenduan?

E - Lauaxeta be *Euzkadi*-n zegoan, eta Orixe be bai, sasoi baten, Kirikiño orduan alde edo ez dakit zer... urte honetan Kirikiño ez zan egongo, Kirikiño nik ez neban gizon bezela ikusi; ta orduan *Euzkadi*-n horreek egongo ziran, Lauaxeta eta Orixe.

N - Eta eurek ezagutu egin zenduzan?

E - Ba geroago ezagutu nebazan.

N - Garai honetan ez, ikusi esan nahi dot, edo eurekaz egon?

E - Ikusi bai, ze Lauaxeta Lekeitiora etortzen zan, osaba bat egon zan harena, abadea, Don Patxi Urkiaga, gizon xelebrea.

N - Eta olerkiaz hitz egin zenduen, haren asmoak edo horrelakoei buruz?

**E** - Ezer be ez... nik sakontzeko edo, nik ez neukan... nik Comercio ikasi neban eta... ez, irakurri bai, baina esan ez, esan ezer ez. Gero hau gertatu jatan, han bazegoan Don Juan Eguzkiza, euskaltzain izan zana, euskal idazle ona, ha be Lekeition egon zan urte hauetan, eta ni idazten hasi nintzan, eta gauza batzuk beharbada oker egingo nebazan, beste batzuk ondo, baina sekula ez eustan ezer esan Don Juan Eguzkizak, eta horren damu egon naz sarri, harek esan ba eustan «ba hau oker egin dozu, edo beste hau...»; ta horren antzera be Lauaxeta ezagutu, «bialdu deust ez dakit zer...», baina ezer ez. Bai, zera esan «hau promesa izango da, gaztea da...». Baina ez, ez... nik irakurri eta egin, eta asmoak... ez, ez kritika, ez literatura, ez poetika, nik holakorik ezer ez dot irakurri. «Barbecho». Ezerezean... «harriarteko lorea», ez dakit ba, lorea edo bedarra. Hasieran ez dago fundamenturik, literatura edo, ezer ez. Orain esatean ba, lotsatu egiten naz: «honek egin dauazanak ezer ez jakin barik». Nobelak eurak be, «inmadura», heldubakoak dira, ez dauke heldutasunik. Lotsatu egitekoa da. Norbaitek esango dau «bai, euskera aldetik ondo, ondo baino hobeto», beharbada, euskera aldetik eta, hizkuntza aldetik, baina nobela aldetik, eta psikologia ta personajeak, zero, ezer be ez. Hutsak dira? Ez dakit. Horregaitik esan neban, telebistako horretan, lau liburu hozki idatzi eta merezimen- duzko saria... tituluz edo ez dakit; nire gogoratuan izan bada, ba mila esker, baina...

**N** - Gaztelaniako edo erdal literaturako zerba it irakurrita zenduan gerraurreko garaian?

**E** - Nobela antza izatekotan *Faviola* eta *Quo Vadis* irakurri nituen eta besteren bat hortik, ez dakit nondik etxera etorri ziran eta... besterik ez. Baina orduan nik uste izan be ez nik neuk idatziko nebanik. Nire buruan aldi batean zegoan ni zer izango nintzan gero, ba inprenteru, baina inorenak egiteko, inprenta, «composición», asmo hori egon zan nire buruan aldi baten, hamasei urte-edo nituala. Dana izan da autodidakta, baina eskasa, autodidakta aproba besterik ez.

**N** - Eta Jauregi eta besteenak ezagutzen zenduzan?

**E** - Ba bardin, diktadura jauzi zanean hor agertu ziran liburuok, bat edo beste, lehenbizi horixe esan dozuna, Jautarkol, ha liburu erreza zan eta ra, ra, ra... eta gero agertu ziran, ez dakit, 30 edo 31an Lauaxetarena eta Lizardirena, eta hauek ba irakurri eta, baina hareek euskeraz erdera zeuken, Lauaxetarena, Lizardiren euskera bai, baina erderaren laguntasuna behar badau hau ulertzeko... Gero Lizardi ba aurreratu egin zan, haren euskera gero eta gorago edo ez dakit. Eta Orixe ere bai, eta horreek hasieran. Gero ba 32an edo, hogeitau urte nituen, edo hogeitabi... hogeitabi urte edo, Txomin Agirrereña ezagutu

egin neban, artean ez zegoan libururik ezer ez, Txomin Agirre izan zanik ere ez nekian. Txomin Agirre hil zanean nik zenbat urte? Zortzi urte? Eta gero Ondarroan gertatu zan hitzaldi bat 35ean, orduan idatzi egin eusten eta «gingo dozu hitzaldi bat Domingo de Agirre...» eta «nor da hori?» «Kontxo! ez dakizu Domingo Agirre nor dan? Horrek nobelak-eta egin dauz...». Ta Zubikaraik bialdu eustazan hiru nobelak, ta orduan konturatu neban, ze mundu, ze edertasun, batezbe gurea zalako, bizkaiera... «ta hori jakin barik egon naz!» ta han be ni ba irakurle besterik ezin izan, han zeozer egiteko, ta gero ba hartu egin nituan notak ba, ez dakit nik, sintaxis edo ez dakit, neuri ez eusten gairik edo, ez nekian, ta gero egun hartan, gau hartan, hiru hitzaldi egon ziran, eta «zu zera daukazu gaia: Txomin Agirre abade». Txomin Agirre abade, nik zer jakin ba... ta ordun han izango zan dana ba, ez dakit, zer esango, ba onu emoile ta han pulpituan ta ez dakit zer, abade santua... Gero, saltoka eginez, ez dakit zenbat urte, ba berrogeita... orduan ezagutu neban Axular. Axular nik ez nekian zer zan edo nor zan, ta Krutwig-ek, Federico Krutwig, harek itxi liburua berrogeita hamarrean edo, eta orduan ezagutu neban Axular, gerraostean izan zan hau. Bata hogeitabi urte ta bestea berrogei urte nituenean.

**N** - Eta Txomin Agirre irakurri zenduanean, jakin izan zenduan behintzat baegoala euskal idazlerik, hitz-lauz, elaberriak egiten ibilitakoak...

**E** - Bai, baina gehiago ez; gero gerrea etorri zan, hurrengo urtean ta... inor be ez. Ezagutu neban bera, hori be, harek Euskadi itxi egin eban... Etxeita, Etxeita... Hori be aita Santik esan eustan «zuk Etxeitaren zera [hitzaldia] egin behar dozu» ta «nor da Etxeita?» «ba Etxeitak nobelak egin ebazan ta...». Hemendik daukat [berriz ere zerrendatxoari begirada emon], hemen: Jose Manuel Etxeita, 61an, ta hau bardin, hemen ezagutu neban Etxeita, zanik edo ez zanik be ez nekian.

**N** - Txomin Agirrerena lakoa gertatu zan orduan, hitzaldia emoterakoan ezagutu?

**E** - Bai, teatru baten hitzaldia, beste batek beste gai bat esan eban, eta nik neurea.

**N** - Eta gerra garaian idatzi zenduan zer edo zer?

**E** - Ba, gerran *Eguna* egunkaria, gero hona Bilbora etorri eta hori, Lauaxeta bialdu egin eben eta ni ta Zubikarai ta beste horreek, Zubikarai, Arizmendi,...

**N** - Eta bertan olerkirik idatzi zenduzan?

**E** - Ez dot uste, olerkietarako ez zegoan orduan halakorik... [bion barreak]. 36an, gerrea hasi ta gero, Azaro-Abenduan —hemen udan hasi zan gerra—

Bilbon, hau hasi eta *Euzkadi* egunerokoan atal barria: «Guda otsak», Lauaxetak egingo zuen, artikulua frentetik bialtzen ta... hori zan sesino bat *Euzkadi*-n, eta hau hile bi edo holan, eta gero hurrengoan, hemetik hile bi honeen hurrengo hilean hasten da *Eguna*... Agustin Zubikaraik eta nik egin genduan «Guda otsak» *Euzkadi*-n, geure komentarioak, besteak eta...

N - Gerrari buruzkoak...

E - Gerra eta... Bai, orduan ez zegoan besterik! Gero *Eguna*-ren badino komentario horrek, Agirre Azkuerena, hau ta beste, *Eguna* zer zan... *Eguna* zer izango zan ba? Bost hilabetetan han, bost-lau mutil gaztek egiten ba zer, zer gura dau ba? Mobimentu sozialik eta besterik ez dala agertzen, ez ta deporterik, eta zelan agertuko zan ba, gerran? *Eguna* izan zan ba... zeozer, euskeraz agertu zan gauza bat. Hor lan gurea, lana itzulpena izan zan, *Euzkadi*-k agertzen zituenak eta hemetik edo hara besteak edo arradioak guri emon ta guk euskeraz ipini eta inprentara, pa, parra, pa, pa... Egunean hamabi-hamahiru ordu lan... Ondo goaz, ordenan? Ez?

N - Bai, ondo goaz, bai... [biok barre].

E - Hasieran ba hau baino ta... «harriarteko bedarra», hori da, eta gehiagoko barik, «sin más ni más», euskeraz idazten hasi... vaya papo! [Aurpegian eskuaz keinua eginez. Barreak berriz]. Eliza kontuetan esaten da, profano batek erreligioso kontuetan hastea, ba hau antzeko bat, jo! Bizarbako umea euskera, literatura, edozeinetan be buruz... horregaitik ba lotsatu egiten naz.

N - Eta ixilaldi honetan, gerra garai honetan, Lauaxeta edo Aitzol edo Oleri Egunetako garaiko norbaitegaz egon zinan edo?

E - Ez. Aitzolek batera bestera bialtzen ebazan hor ba *Yakintza*-n agertzeko, hor urtean hiru edo lau numeru, baina hartuemonik ez. Ikusi, beharbada, behin bakarrik, Lekeitiora etorri ziran, antzerki sariketa egon zan eta eurek etorri ziran, juez edo ikusteko. Hantxe ezagutu neban pertsonaz behin Aitzol, baina hartuemon gitxi. Ta hemen Lauaxeta bera be beste kargu batzutan ibili zan, gudarien ta beste batzutan, ta hemengoa itxi ginduzan egunean ba Lauaxeta ikusten bagendun baina...

N - Non egon zinan gerra garaian zeu?

E - Hemen egon eskolapiotan, hori zan Cuartel General de las Milicias Vasas. Hor egon ginen jan eta lo, hara joan, Kalle Korreo-n han egoan *Euzkadi*, hara joan, etorri, baina jan eta lo hemen eskolapiotan.

N - Eta bertan egon zinan gudari?

E - Bai, gudari ginan gu. Servicios Auxiliares, ba Prensa, ez dakit. Orduan Zubikarai zan Redactor Jefe, *Eguna*-ko Erredaktor Nagusia. Orduan hemen

eskolapiotan lo, gosaldu ta Calle Correo-ra, ta han ba lanik bazetorren, lehenengo lanak egiten hasi, etorri, bazkaldu ta Calle Correo-ra ostera be, *Euzkadi* ta *La Tarde* be hemen egiten zan, gero aparitan be etorri ta hirugarrenean ostera be *Euzkadi*-ra, ta han goizeko ordu biak ta hirurak edo... gero hemengo probak sarritan geuk be konpontzen genduzan, zuzendu, eta azkenengo orduan zeozer baegoan sartzeko, eta eskolapiotara. Hamabi edo hamahiru ordu lanean. Ta hauxe izan zan bost hilabete ta erdi, honeek Bilbon sartu ziran urte honetan, Bagilaren 19an, eta *Eguna* hemen hil zan... hil hobeto hemen hil zan, 13an, ze hor badago liburua, azken zenbakia 13an izan zan, San Antonio egunean. Ta Zubikaraik esan eban «sei hilabete, sei hilabete», ez, bost hilabete ta erdi, ta erdira be ez da heltzen.

**N** - Eta garai honetan, gerra garaian eta ondorengo urteetan, ez zenduan olerkirik edo ezer idatzi, zeuretzako behintzat, Frankoren garaian euskerazkoak ataratzeko bildurra izanik?

**E** - Zeozer bai, ta gehiago esango deusut; orduan gainera Azkueren hiztegirik be ez zegoan ta Xabier Peñak eukan bat, liburu bi ziran Azkueren hiztegia, ta haren orrialde asko kopiatu egin nituen, ez dakit, eukitearren... Baina hemen bildurra egoan, ta ganera ez zegoan argitasunik, ilun zegoan, idazteko be bildurra... zeozer bai, ikusi leiteke, ezta? baina oso gitxi. Urte txarrak ziran gainera ta... bah! Ze *Arranegi* hemen hasi neban, hasi, idazten [berriz ere zerrendara jo 50. urtea adieraziz], ta argitaratu hemen egin zan [58. urteaz], baina hori ba, nik uste dot uda baten egin nebala guztia edo, baina bitarte honetan... Olerkiren bat edo...

**N** - Eta gerraostean gerraurrekoren bategaz harremanik izan zenduan edo, orduan bizirik irauten zirenakaz?

**E** - Ez, inor be ez. Zubikaraiz aparte, inor, ze Lauaxeta hil egin eben, fusilatu eben, Aitzol be fusilatu eben, beste batzuk alde egin eben... Ez, Augustin Zubikarai. Hemen hasi ginan ba, ez dakit zein urtetan, Xabier Peña hasi zan euskeraz irakasten, Xabier Peña, Tolosakoa, ta ni be hasi hor, zein kaletan zan, Ibañez de Bilbao edo, akademia baten euskerazko klaseak emoten baina... Xabier irakasle, ni irakasle ta gero beste bat, ez dakit zein zan hau... euskeraz irakasten ba apur bat, zeozer. Irakasten ta idazten... hori bitarte horretan, hemen hartzen da argitasun apur bat, Donostian *Egan* aldizkaria Amigos del Pais horreek atara eben hango *Boletín Literario*. Lehenengo euskeraz eta erderaz egin zan, gero bigarrenetik uste dot, dana euskeraz agertu zan *Egan* hori. Ta hemen ba lehenengo gramatika izan neban, Zamarripa izan zan, Azkuek ba zituen baina Pablo Zamarripa, Txorierrikoa zan...

**N** - Hori gerraurrean ezagutu zenduan?

E - Bai, bai, hori bai. Bera ez, baina bere liburua irakurri, ta hain zuzen azkenengo egin zana, ez dakit zein urtean, nik egin neban inprentan zuzendu, berriz atzirian, azkenengo egin zan edizinoan, ta gero, horrez ganera, ba beste *Gramática Vasca* hori... Arrigarai-Ataun, hori zan gipuz-napar. Halan ba lehenengo tresna Zamarriparen gramatika izan neban, ta gero, zabala egiteko, ba Arrigarai Ataun, besterik ez neukan. Gero hiztegia, orduan zabaldu zana, baina erdi... Bah! Lopez Mendizabalena, hiztegia, baina hor neologismo asko dago. Nire kontura ba ikasi, horreek ziran nire argitasunak, ta Azkueren libururik be ez zegoan, hiztegirik be orduan ez zegoan.

N - Ta gero, gerraostean, erdal literaturaren ezagupenik izan zenduan, liburu-  
ren batzu edo irakurri?

E - Ez, oso gitxi irakurri nuen.

N - Noiz irakurri zenduzan Juan Ramón Jiménez eta horreek?

E - Bai, *Platero y yo*, ba ez dakit noiz izan zan, 50etik aurrera.

N - Eta beste olerkarienak irakurri zenduzan, Machado, Lorca, edo bestelako-  
rik, atzerrikoak beharbada?

E - Ez, oso gitxi irakurri dot nik. Horregaitik dinot, lehen formazinoak gitxi  
eta gero gitxiago [Irribarrea].

N - Krutwig eta Irigaray orduan ezagutu zenduzan?

E - Irigaray gerraurrean ezagutu neban. Krutwig gero. Irigarayk gero, gerraos-  
tean esango eustan prosa idatzi beharra zegoala euskeraz, baina bera ezagutu  
eta kartaz idatzi gerraurrean, ze gerraurretian, 35an edo izango zan uste dot  
nik, Euskal Idazleen Batza, Federación de Escritores Vascos egin egin zan  
Motrikun, ta han ibiltan ziran Bizkaitik bi, Gipuzkuatik bi ta Nafarroatik bi, ez  
dakit, izendatu komite edo zerbait egiteko, ta ni eta Garro Bizkaitik, gero  
Zubimendi ta Basarri Gipuzkuatik eta Irigaray ta Manezaundi Nafarroatik, eta  
hortik ba kartak edo zerbait idazten hasi ginan, ta gero etorri zan gerra ta, bai,  
hori 35an izango zan, ta hortik ezagutzen dot Irigaray, ta haren aita «Larre-  
ko», baina ez ikusi, behin ikusi Motrikun bakarrik, eta Lekeition egon zan  
homenaje hortan. Gero Krutwig hemen hasten da, gerraostean...

N - Eta Mitxelena hor ezagutu zenduan?

E - Bai, Mitxelena ba, Mitxelena Azkue hil ta gero etorri zan Bilbora lehenbizi,  
51an izango zan, Azkueren heriotzan. Hemen ezagutu neban aurpegiz Mitxe-  
lena. Mitxelenagaz hartuemonak bai, baina... Bera Donostian ta hor... Ba he-  
men bai.

N - Ta euskal literatura ezagutu garai honetan?

E - Zer ezagutuko neban euskal literatura ba? Esan dodaz hor liburuak, beste-rik ez dago...

N - Baina garai honetan Axular irakurri zenduan ez da?

E - Bai, bai...

N - Eta haren ondoren ez zenduan beste zer edo zer irakurri, edo zerbaiten berri?

E - Euskaltzaindiak bildu egitean, hilean behin edo, ba horixe Krutwig, Villasante, Garro, Aita Lino, Gorostiaga be batzutan, neure burua, ta Arruza be bai, hor batzen ginan ba zeozer egiteko; ta orduan Krutwig-en asmoa zan ba «labortano clásico», lapurtera klasikoari indar ematea. Ta orduan ba Xabier Peñak esaten eban ba «guk hemen daukagu geurea, zu, zer indar emongo deutsagu? Ta ganera hori gizaldietako zera...», ta hori zan... Baina orduan ba, ez dakizu zegoan bildurra... Gero harek hitzaldi bat egin zuen Villasante sartu zanean Euskaltzaindian, gogorra, agintarien kontra ta elizaren kontra, ta orduan ihes egin behar izan zuen, ta amaitu zan hori, batzen ginana Krutwig-en inguru, Instituto Julio Urquijo, Urkijo tar Jul... Philologia... je, je... han gu zer ginan philologiaz edo linguistikaz...? Euskaltzain laguntzaileak... Gero Villasante be euskaltzain, Azkue hil zanean, Krutwig be egon zan, ta gero... Ba horrelako kontuak ziran orduan, euskerazko klaseak emoten hasi ginan...

N - *Arranegi* idatzi egin zenduan hor inguru, 50ean, eta besteak argitaratze urtetik hurbil hasi zinan idazten ala aurretik be bazenduzan idatziak?

E - Ez, geroago. horreek geroago...

N - Lehendabiziko sariaren ondoren?

E - Bai ba... itxaron, bueno. Txomin Agirre saria... hemen izau zan *Araibar zalduna*... gero finalista izan zan Txillardegirena hori... *Peru Leartzaika*...

N - Bai, baina 57an agertua zan baita haren *Leturiaren egunkari ezkutua* hori; ezagutu zenduan, irakurri?

E - Ez, eec... Ah! Bai, bai, hori irakurri neban, bai... Ta aldi horretan agertu egin zan, Ameriketatik hona, Orixe uste dot, ta Larran egon zan egun baten.

N - Ta Txillardegiren nobela geroago irakurri zenduan?

E - Ba, agertu ta laster, *Egunkari ezkutua*, bai...

N - Eta? Ze eritzi izan zeuntsan orduan?

E - Iritzi zer? Ba... «Falta de criterio», irudimen gabekoa... irakurri egin neban, gauza barria zala ta, horren kontra zegoan Orixe be, «hori agnostiko bat da» ezta? Niretzako «bere» ta «haren» ta hori ez dau ondo zertzen... Orduan, eh, orain beharbada hobeto egingo dau baina... Beti «bere», «bere», baina «bere» ez da beti «bere», batzutan be «haren» da, «de aquel»...

N - Garai honetan, eta geroago baziran Agustin Anabitarte eta beste, ezagutu zenduzan edo?

E - Ba, Anabitarterena zan *Poli* edo... Anabitarrek bazeukan beste, baina uik ez nituen irakurri...

N - Bai, *Donostia*, *Usauri* eta...

E - Bai, ba nekian horreen izenak baina irakurri ez, ez dittut irakurri, *Poli* hori bai, aldi honetan, horreek antzinekoak ziran, horreek danak dira gerra aurretikoak, ez?

N - Beno, danak ez...

E - Ez, honeek, *Donostia* ta *Usauri*, horreek bai. Lekeition ez zegoan libreria bat, ez zegoan, ez libreriarik ez liburutegirik, ez zegoan ezer be ez. Han Batzokian zegoan bakarrik hori Azkueren hiztegia...

N - Ta hona Bilbora ez zinan etorten?

E - Ez. Bilbora ba esamintara lehenengo hori, Perito Mercantil, lehenengo hori «por libre» egin neban, ta gero azkenengoa egin neban Bilbon, azkenengo kursoa, baina ni ez nintzan Bilbora etorten. Gero ba, hor hasieran izan zan sariketa hau, «Educación y Descanso», ha izan zan arnasaldi bat ya, egunkarietan ta agertzea «Educación y Descanso», euskerazko lanak, eta orduan *Nekazariarena*, bertsoa zan, bigarren saria, lehenengoa hutsik laga... Gero hurrengo urtean, barrero be «Educación y Descanso», Frente de Juventud hor ez dakit ba... teatru lanen lehenengo saria *Sinisgogorra*, eta olerkian nigan saria *Azkueren heriotzan*. Ta handik ta urtera, hemen Azkue hil zala, gero Jon Etxaide, Etxaide, aita zala, batzaldia, hor orijinalak edo itzuliak, ta orduan egin neban nik neronek *Aspaldiko Maigret* ta... Enrique, Enrique Ayerbe, hori da Ibarrekkoa, berari emon neutsan etxera eroateko, hau eta bestea be bai, ta orain gaidu egin da... esango deusut, orain urte bi galde egin eustan batek ea hori egin neban, ta nik «bai, baina Enrique Ayerbek daukaz hor, ezagutuko dozu» «Bai, esango diot», ta hor ez bata ez bestea, galdu egin da, zer egin da? Kopia-tuta neukan ta berari emon, zertarako? Zoritxarrean. Ta hori itzulpena izan zan.

N - Jon Etxaiderekin irakurri zenduzan?



E - Jon Etxaideren *Joanak Joan* bai, baina besterik ez. Baina halako... erudizino haundiko lana, ezta?

N - Beno, lan historikoa da, orduan...

E - Bai, baina... Ganera historia be nik ez dot izan adiskidea, aspertu egiten naz.

N - Eta guzti horreek garai honetan, gerraostean, irakurri zenduzan?

E - Bai, horreek, *Poli* eta...

N - *Afrikako basamortuan* edo?

E - Ez, honenak, Anabitarterenak hori bakarrik, besteak ez.

N - Eta Zaitegirenak?

E - Zaitegik liburu txiki bat egin eban, olerki liburua, *Goldaketan* edo, uste dot...

N - Bai, *Goldaketan*. Gero aurrerago atara eban *Berriz ere goldaketan* bat.

E - Ez dakit, nik horreek bakarrik, baina horreek olerkiak direla. Baina ez *Platoneneko atarian* eta hor, Platon ta horreek gaiak... Ta hemen be 57an, ez dakit nik Saran, Lapurdin, izan zan Axularren ez dakit zer zan, hil urtea edo jaio urtea, berrehun urte edo hirurehun, han be saria emon eusten.

N - Antzerkiaz, ezagutu zenduzan Zubikarairen lanak?

E - Zubikarairen lanak bai, eta, zein da hau Tolosakoa... Labayen, Labayenen bat edo beste. Gero han Lekeition be egiten genduan ba teatroa, ezta?, teatroa egiten genduan gerraurrean urtean hiru bider edo, ta orduan ba *Antzerti* agertuten eban Labayenek, ta lan batzuk ba bizkaieraz ipini Lekeition egiteko, Labayen edo beste, Garitaonaindia, hau bizkaieraz zan, besteak gipuzkeratik, baina hor be itzulpena zan, euskeratik euskerara.

N - Musika ere egin zenduan, ezta?

E - Bai, Lekeition. Ni elizan «tiple» izan nintzan, hiru-lau urtean «tiple primero».

N - Eta solfeoa ta ezagutzen zenduan?

E - Bai, solfeoa bai, organista ta gero akademia bat han Lekeition zegoan ta, ganera bandan be egon nintzan hiru urte edo, klarinetea. Gero pianoa be apur bat egin neban ta armonioa, organua be inoiz jo dot, baina hori... Ta hango organistetan direktore, musikakoa, ba han ikasi neban musika, baina «clave de sol» ta «clave de fa» baino ez neban ikasi orduan. Ta orduan ba sarritan literaturan bai musika ere bai.

N - Eta orduan izan zan *Txurio Txoria* idatzi zenduala, 64an inguru? Argitaratu oraintsu, baina idatzi orduan izan zan?

E - Ba *Iri zuri*, horixe zan lehenengotan, hori da gero *Txurio Txoria* izango zana, 69an finalista izan zan, ta olerti saria orduan be, Gipuzkoa Olerti saria. Orduan idatzi zan. Gero hau be eroan eban horrek, Enrique Ayerbek. Gehiago esango deusut, *Iri zuri* be konposatu egin eben, inprentan egin, ta nik zuzendu, gero dirurik ez zegoan eta berunak kendu ta hor amaitu, hor hil zan. Gero eginda neukan ta laburrago egin, motzago ta modernoago edo egin ta holan agertu zan *Txurio Txoria*.

N - Eta ha idatzi zenduanetik *Jaioko dira* agertu zaneke urterarte, 84an, hor badago ia hogeitako hutsunea...

E - Beno, gero hor 84an izan zan *Untzoritxu* ipuina saritua, *Untzoritxu*. Badago liburu bat, lau urtetako ipuinak agertzen dira hor.

N - Ipuin gehiago idatzi zenduzan?

E - Bai, hor *Harpeko Mari* badago, Eubako zerak atara ebena. Gero be *Taloe ta arraina*, beste ipuin bat, hor Cuentos Villa de Bilbao, 1990an agertzen dira batzuk. Hor be agertu zan *Cuentos incombustibles*, istilu bat egon zala ipui batzuk Jon Castaños ta Larreategik eta, erre egin eben ipuin baten edizinoa, inmoralak edo, eta Ortiz horrek atara egin eban hori *Cuentos incombustibles*. Ta hor dago 84ko *Untzoritxu* hori.

N - Dana dala, hori eta *Jaioko dira* idatzi arte, salto haundia dago, elaberririk idatzi barik, aurretik hiru-lau urtetan ia beste hainbeste idatziz gero... nekatua? lasaialdia?

E - Aldi horretan bankuan enpleatu, baina gero han be «Academia de botones» egon zan, bankuan, botones asko eukazan orduan, mutiko asko, eta han egozan irakasleak, lehen bat, ta gero beste bat, ta irakasleak enpleauak ziran, ta aldatu zanean ni be enpleau, egin neban irakasle, erderaz: gramatika, geografía, ortografía ta «correspondencia», ta orduan ba bankuko lana ta... Euskerazko klaseak be orduan itzi nituen, ez dakit ze urte izango zan. Hiru ume be bai, ta bestea ta... Astirik ez, eta gogorik be ez. Gero honeek jubilatu ondoren egin, 77an jubilatu nintzan ta olerkiak eta. Ganera jubilatu ta urtebetera giltzurruna kendu ta txarto egon nintzan, hiru urtetan... Baina orduan, Makuak eskatuta, euskeraz ipini nituen agiriak, Batzar Nagusietako agiriak, lau urte, hor tarte horretan. Gero musika-letrak ipini nebazan be. Bilbon Irigarayren aitaren omena egin eben; gero neure sarreran, Euskaltzaindian, Eusebio Maria Azkuez hitzaldia; Juan Bautista Eguzkiza ta hitzaldia be, ta honeek denborea emon dabe, ezta? Hitzaldiak gertatzea, ta bestea ta...

N - Eta antzerki lanak?

E - Antzerki lanik oso gitxi egin neban. *Kanpaien atsekabez*, ta gero *Sinisgogorra* ta...

N - Nik izen batzuk bilduta daukadaz hemen, 50etik aurrerakoak: *Sinisgogorra*, *Pake eguna*, *Kanpaien atsekabez*, *Oiñazez*, hau ez dakit zein garaikoa dan...

E - *Oiñazez* hori zarzuela bat izan zan, Patxi Bengoak musika, baina ez, ez, zarzuela...

N - *Askatasun bidean*...

E - Hori be, estanpa bat izan zan, estanpa bat, urte honetan be (zerrendatxoan 1936. urtea seinalatuz), bai, estatuto... orduan, Lekeition egin genduan hori. Han egozan ba «ezkertarrak», sozialistak eta komunistak, ta eskumatarrak gero, ta beste batzuk ba herri maitea, abertzaleak, ta hori izan zan.

N - Ta *Alperrontzi*...

E - *Alperrontzi* hori Txinpartakook egin eben, agertu eben. Hau da batekoa, bakarriketa.

N - Badira gehiago, *Gau batean* ta *Gora Arratia*... Ez dakit nik hau zein urtetakoa.

E - Ba hori konkurtsoren batera edo, gabon teatroa edo izango zan. Bestea hori, *Gora Arratia* hori Irigarayk bialdu eustan niri *Todos herribatekos*, orijinala, ta beharbada ikuturen bat edo, ta berari bialdu neutson, ta gero agertu zan *Yakintza*-n, ta azkenean Eusebio Erkiaga ipini... ze? hori ez zan nirea! Ta beharbada hori izan leiteke... Ez dakit ba beren egile zein zan, nik ikuturen bat apuntau edo ta bialdu neutsan, Irigarayri bihurtu, ta Irigarayk *Yakintza*-n agertu ta Eusebio Erkiaga ipini.

N - Orduan berea be ez zan...

E - Ez, ez, hori bizkaitarren batena izango da, ta hori izango da *Gora Arratia*...

N - Beste itzulpen bat egin zenduan, *Parmenides*.

E - Hori Zaitetik esan eustan «hori zelan egin dozu, griegotik?», ze griegotik! Nik ez dakit griegorik! Nik erderatik euskeratu neban. Krutwig-ek esan euskun euskeraz klasikoak ipinteko, han Julio Urquijo zeran, filologiak egiteko, baina nik erderatik...

N - Ta *Aspaldiko Maigret* hori frantsesetik izan zan?

E - Ez, hori be erderatik. Horregaitik «traducciones de café con leche», horrek ezer be ez dira.

**N** - Dana dala, zuk lehen esan dozu gitxi irakurri dozula ta, baina lapurteraz eta gipuzkeraz idatzi egin dozu noizbehin. Horiek ezagutzeko ba, zelan egin zenduan?

**E** - Ba horrexek Krutwig-egaz hasi ginanean, Euskaltzaindian batzen ginan, ta oduan Krutwig-ek gertu euskun aditza, aditz formak, aditz jokoak, lapurterazkoak, eta hiztegi bat, batez ere 'h'-dunak eta... Ta horretaz ta gero Axular irakurriaz, asko gustatu jatan Axular, holan hasi nintzan lapurteraz egiten.

**N** - Orduan izan zan *Usoa de Alos* edo hori?

**E** - Bai, urte horretan, bat edo bi izango ziran, 50ean edo.

**N** - Ta gero *Araibar zalduna* gipuzkeraz argitaratu zana.

**E** - Bai, hori giputz.

**N** - Eta zergaitik hori?

**E** - Ba hori sarri izan dana ta, Txomin-ek be idatzi egin eban gipuzkeraz, Azkue-k be idatzi egin eban gipuzkeraz, ta nik ba, ez dakit ba, Donostiarako zan ta ea ba... Ta nahiko poliki egina. Don Manuel-ek irakurri eta «despistante, Erkiaga, despistante» esan eban. Ikusi ta gero ba, juradokoe euren artean zer edo zer, ta handik gerotara esan eustan «gipuzkera bada baina ez da, ondo dago baina nabaritzen da giputzea ez zerana», ta nik orduan esan neutson «bai, baina Orixe bizkaieraz itzulian igarten da Orixe bizkaitarra ez dana». Ta hartaz gero esan neban «ez dot gehiago egingo, idazten dodana bizkaieraz egingo dot, hori da neurea ta ona bada hor egongo da». Hori lezino bat izan zan niretzat, ondoen dakizuna idatzi egizu. Egia da, naturaltasuna galtzen da. Aresti bera euskaldun barria ta ona eta, baina beti dauka halako zer bat Orixe ez daukana, ta Lauaxeta ta Lizardik euskera galduta, ahaztuta eukelako ez dira Orixe baizen sinisgarri, ta hori gero Lizardik asko ikasia da, ederra, oso ederra, baina... Hori da. Txomin Agirre ta, hori berton ikusten da. Urte bi edo hirutan ez dot irakurri, ta horaintxe alabak zer ekarriko ta *Obabakoak* erosi eustan, ta hasi naz apurka-apurka irakurtzen. Irakurri dozu?

**N** - Atxagarena, bai, irakurri dot.

**E** - Ta hori be, gauza... Mailaz goitikoa, ezta? Mailaz goitikoa da gaur. Baina halan ere, igarri barik erderaz sartzen dauz gauzak. Egia da gero kontaketak badira. Batzutan badirudi amonaren hizketa dala, baina gero aldatu egin dala. Ganera hori badago, liburua egin eta gero desbardin agertu dala edo, aldatu egin dauala, ez dakit non irakurri dot. Nik uste dot lan bat eginez gero ba hor gelditu behar dala, eh? Norberaren lana konpondu...

**N** - Beno, hori bera Etxaidek egiten eban, bere lanak zuzendu ta berrikusi ta...

E - Niri ez jat gustatzen. Hori ba koadro bat ikusi ta eginda dago, «ez, baina hau...», ba beste bat egizu! Beste koadro bat, hori sortua dago, hor dago hori. Zer egingo dozu, ume bateri anak ebagi ume barria egiteko? Umea hor dago, sendoago edo makalago? Beste ume bat... ez dakit.

N - Hor bitarte horretan, *Txurio Txoria* idatzi —*Iri zuri*— eta Jaioko dira agertu bitartean, badira zenbait argitarapen garrantzitsuak euskal literaturan; Txillardegia, Mirande, Aresti, Zaitegi edo, adibidez, Saizarbitoria. Honen libururik ezagutu dozu?

E - Bai, *Ehun metro* irakurri dot bai, baina asko gehiagorik ez...

N - Gandiaga eta beste...

E - Jo, Bitoriano Gandiaga! Nire bihotzekoa da hori, maite dot bai. Gandiagarenak irakurri neban *Elorri* lehenengo; gero beste bat edo bi daukaz baina horrek ez, ta azkenengo hori *Denbora galdu alde* hori, hori bai. Ta hori hain zuzen be, hor agertzen da horrialde batzuetan, *Iribarrea galtzen danean*, komentario batzuk egiten dodaz edo. Izena ez dakit agertzen dan, Gandiagarena, baina agertzen da hor.

N - Oso liburu barnekoia da hori, ezta?

E - Bai, ganera gaizorik egon zan burutik eta... Baina euskeraren landuketa, hori da, hori nik uste dot euskel da dana, nahiz ta erderazko hitz asko sartu, eh, ironiak eta beste egiten, baina euskalduna da, ez da salto egin. Gero beste batzuk dagoz asko ikasi dabenak...

N - Mikel Zarate ezagutu zenduan?

E - Ba Mikel Zarateren bi edo hiru irakurri dodaz, bat ganera sariketan, Caja de Ahorros-en epaikari nintzanean han ikusi neban. Bai, bi edo irakurri neban, hori *Ipuin antzeko alegi mingotsak* eta besteren bat. Baina honeek gu baino gazteago izan dira, ta gazteengandik nik ez dakit. Ganera hemen ibili zan teoria edo zera... Nobelak egin dodaz teoriarik ezer jakiteke. Horregaitik ondo esaten eban hemen Kamino-k, nere nobelak linealak dirala, hemen ez dagoala flash-back edo holakorik, ta berak dino «Erkiagak jakinaren gainean egin zuela»; Erkiagak ez zekian besterik, Erkiagak zer zekian flash-back eta zer ziran, horreek gero ikasi dittut, zahartzaroan, ta zahartzaroan hor reziklaia... Ez da gauza erreza.

N - Zera esan nahi dot, zeure garaian, edo zeuk bizitako garai honetan agertu dirala elaberri oso ezberdinak, eta olerkia, Txillardegitik hona, baita Aresti edo Mirande...

E - Mirande nik ez dot irakurri, ta Aresti be ez, poesia apur bat bai, edo teatroa gehiago, sariketa batera bialdu eban teatro bat, teatro «tremendista», ez dakit, nobela antzean edo. Ta bai, irakurri eta... Ez dot jakin nik zer dago hemen ebagiteko edo gordetzeko, hemengo usain gozoa... «Indocto» esaten dana erderaz, «indocto». Ez dakit, ahalmen hori ez daukat, ikusi eta... Beste baten kritika egin ta hori. Beharbada hor, itxaron... [paper asko gordeta daukaz eta haien artean dabil bilaka, azkenean horri bi, makinaz idatziak, atera egiten ditu]. Hau, *Iribarrea galtzen danean*, hau Diputazioan hitz egin neban, liburuaren aurkezpena. Sekula ez dot egin eta. Besteen aukezpenik be ez dot egin ta nirenik gitxiago, baina hau egin neban. Ta hor ikusiko dozu; beharbada honek erudizino apurra agertu gura dau, baina, «indocto», ez dakit nik [kopia bat emoten deust]. Hemen Konfesino Generala... [barreak]. Hutsa, hutsaren parekoa.

N - Garairen baten bidairik egin dozu edonora?

E - Ez, ni Lekeition egon naz beti. Bueno, kurso hori egin neban Bilbon, ezta?, baina gero Lekeition, ta orduan be ez egoan lanik, paro, paro orduan be, hiru lau urtetan ni ezer egin barik egon nintzan, ta orduan nik aprobetxatu egin neban, argia baneban, baina tonto izan nintzan ta, euskeraz irakurri ibili ta ibili, urteak galdu nebazan. Eskolako maisuak be erdi tontoak edo ziran, bata alperra, bestea zaharra, ta Mercedarios hori kolejio barria zan be ta... Horregaitik gertapenik ez da ezer izan. Gero hutsune handia, matematikaz ikasi baneu, horren enbidiaz egon naz, baina pianoz be hasi nintzan, baina torpe nintzan edo, ez neban aurreratu, armonia be ikasi baina, hor be...

N - Ba horretarako, armoniarako, matematika nahiko behar da, ez?

E - Bai, ba horregaitik hor be ez neban ezer egin. Bidairik ez, eskursinoren bat, baina horreek egun batetik bestera, ta gero semeakaz Salamankara, baina ezer ez, horreek biajeak ez dira. Gero han hiru edo lau bider bankuko etxean han, Alicanten, Benidorm-etik nahikoa hurbil, han be hamabost egun edo, baina horreek ez dira, ez, kanpoan ibili, beste kultura, beste gizonak, ez... Joan ta etorri [Une batez *Araibar zalduna*-ren alearen bila doa eta datorrenean berbetan hasten gara edizinoaz. Kuliska Sorta-ren edizioa dakar eta bertan argitaratutako liburuen zerrenda ikusiz zera dinost]. Hemen *Peru abarka*, hau oraintsu irakurri dot, gerra ta gero. Mogel be ez neban ezagutu. Ez dakit ba, azkenengo edizinoaren bat. Nik zera daukat, ea lehenengotik ala gerokoak giroz, edo aldiz, edo euskeraz, edo psikologiaz edo personajeen indarrez, ba hau hobetu egin da gizona ala lehen bezain eskas, eh? «Adollescente» ala «infancia» beti, ezta? Hortik gora ez dau egin nobelista honek [bere buruaz dino].

N - Ta zeu zergaitik hasi zinan ba nobelak idazten? Olerkia zan zeurea hartaraino?

E - Ba lehenengoa berez, gerokoak lehiaketetarako gehienak... Hitz-lauz idazteko gogoaz... Ba artikulu txikiak edo zeozer. Gero nobelak egitea izan zan ba, harek esan eban ba, lehenengo nobela *Arranegi*, «egizu prosa ta, herri jakintza ta Bizkaia, ta bizkaiera, ta bizkaiera sendotu».

N - Hori Irigaray-k esandakoaren ostean?

E - Bai, beti olerkiak ez egiteko, prosa egin behar zala, ta batez ere bizkaiera «zeuon bizkaiera sendoa» ta, ze Irigaray nafarra zan, ta gipuzkera... baina bizkaiera maiteago zuen giputza baino. Gero besteak be, sariketarako bialdu nebazan. Ta hain zuzen ba aldi honetan urte bi jarraian saria emon, ba ez zegoala idazlerik, joanda, hilda, erailduta... Ba «sucedáneos» ginan gu. *Irri zuri* hori be sariketara bialdu neban, baina ez eban saririk lortu, gero bitartean zan hori *Txurio Txoria*, konpondu ta argitaratu, baina lehen idatzia. Eta azkenengoa, Diputazinoko zerarako idatzia, ba hori ilusinoz idatzi neban, Miren Agurtek esaten eban, Meabe-k, «hauxe da nobela politiko antzekoa, gerrakoa aparte, besteak dirala intenporalak, denboratik kanpokoak ezta? Ta *Iribarrea galtzen danean* hemen zahar ta barri, danatariko. Beharbada hau ta *Jaioko dira* ete dira besteak baino hobeak. Horreek gaztetakoak poesia ta hori, prosa lirikoa. *Irri zuri* horren taldekoa da. Gero besteak ba... Ze *Jaioko dira* hasieran nobela historikoa izan nahi, izatez: Lekeition jartzen dira faszizta Franko-renak ta hortik ba... Ta hori idatzi neban handik kanpora, neuk hareek ikusi barik, baina, entzunetik. Gero nik *Iribarrea*...-ren kritikarik ez dot inon ikusi, inork irakurri dauan edo... Ta Diputazinoak salgai jarri dauan edo...

N - Bai, salgai dago.

E - Neri saria emon eusten, hau saririk haundiena izan dot. *Araibar zalduna* eta *Batetik bestera* hamar mila pezeta saria, ta bera ordaintzeko orduan ez egoan dirurik, Euskaltzaindiak antolatu bai, baina ez zegoan dirurik, ta norbaitek emon bost mila pezeta ta gero emongo eustela bost mila gehiago... Ta holan ba. Irigaray-k berak esan eustan hori, nobela lehenengotan badihoa, badihoa, badoa, baina, mmm... Gero predikua zan, «de tipo moral», predikua zala, gero moralista agertzen nintzala, lehenengo atrebimentu hori moztu eta... Jakina, predikua ez da nobela, ta egia da, ta hori da ezjakina izatea ba, neu. Horregaitik nou sartu zara ba, nobelak egiten, ez daukazu gertaerarik eta? Berezko sena... Horrek Bernardok, berezko sena dauka, zelako asmakizunak, Hamburgo-koa ta... Hori berezko dohaia da. Beharbada neurean, zera, lapiko-koa lakoa, hemen dagoz inddabak, patatak, saiheskiak, urdaia, baina zeozer falta da: han gatzik ez dago.

*Erkiagaren Bilboko etxean, 1992ko Otsailean*

## BIBLIOGRAFIA

### Erkiagarena

1. ERKIAGA, Eusebio, *Arranegi*, Kuliska sorta, Zarautz, 1958.
  - : *Araibar zalduna*, Kuliska sorta, Zarautz, 1962.
  - : *Batetik bestera*, Kuliska sorta, Zarautz, 1962; baita Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1985.
  - : *Jaioko dira*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1984
  - : *Txurio Txoria*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1986
  - : *Irribarrea galtzen danean*, Bizkaiko Foru Aldundia, 1987.
  - : *Gizonaren aldia*, Ikasbide, Donostia, 1991.
  - : «Sinisgogorra», in *Egan*, 2, 1952, 27-30. orr.
  - : «Kanpaien atsekabez», in *Euskera*, V, 1960, 259-272. orr.
  - : «Kezkak eta koxkak», in *Egan*, XI, 1958, 53-56. orr.
  - : «Zubikara: euskal-idazleari gorazarre», in *Idatz & Mintz*, 13/14, Bilbo, 1987, 37-38. orr.
  - : «Irribarrea galtzen danean...», in *Idatz & Mintz*, 15, Bilbo, 1988, 21-23. orr.
  - : «Mutiko baserritar baten oroitzapenak», in *Idatz & Mintz*, 18/19, Bilbo, 1989, 43-44. orr.
  - : «Jose Manuel Etxeita eta Luzarraga», in *Oleri*, 1962, 107-123. orr.

### Erkiagari buruzkoa

1. ARESOLO, LINO, «Sarrera»; in Eusebio Erkiaga, *Jaioko dira*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1984.
2. AFAT-ETXEBARNE, «Txomin Agirre nobela-saria Erkiaga jaunarentzat», in *Egan*, 1959, 184. orr.
3. ELORDIETA, Arantza, *Eusebio Erkiaga: 1932-1935*, Lan argitaragabea, E.H.U.ko Euskal Filologia saila, 1991.
4. ETXEBARRIA, Igone, «Sarrera», in Eusebio Erkiaga, *Txurio Txoria*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1986.
5. Y A., «Araibar zalduna», in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 1962, 214. orr.
6. KAMINO, Inaki, «Eusebio Erkiaga Alastra (Endaitz)», in *Argia*, 1982-XII-26, 957-58. orr.
7. KORTAZAR, Jon, «Bide ezagunak sakontzen», in *Eguna*, 1987-VI-9.
  - : *Eusebio Erkiagaren lana* Euzkerea *aldizkarian*, Eskuakribua, E.H.U.ko Euskal Filologia saila, 1990 (argitaragabea).
  - : *Eusebio Erkiagaren lana* Yakintza *aldizkarian*, Eskuakribua, E.H.U.ko Euskal Filologia saila, 1990 (argitaragabea).



8. MENDIZABAL, Fernando, «Eusebio Erkiaga jaunari Domingo Aguirre sariaren ematea», in *Euskera*, 1960-V, 421-424. orr.
9. MITXELENA, Koldo, «Artanegi», in *Egan*, 1958, 102. orr.  
 - : «Araibar zalduna», in *Egan*, 1962, 87. orr.  
 - : «Batetik bestera», in *Egan*, 1962, 303. orr.
10. SARRIUGARTE, Iñaki, «Erkiagaren giroa eta bere nobelagintza», in Eusebio Erkiaga, *Batetik bestera*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1985.

### Orokorra

1. AGIRRE, Txomin, *Kresala*, Arantzazuko Frantzizkotar Argitaldia, Oñate, 1976.  
 - : *Garoa*, Arantzazuko Frantzizkotar Argitaldia, Oñate, 1987.
2. AITZOL, «Hitzaurrea», in *Eusko Olertiak I-V*, Hordago, Donostia, 1985.
3. ALKARLANEAN, *Literatura Universal I-II*, Argos-Vergara, Barcelona, 1982.
4. ALKARLANEAN, *Euskal letren dantza 1983an*, (Kandela) Hordago, Donostia, 1985.
5. ALKARLANEAN, *Gerraosteko literatura*, Labayru (Gauontza sorta), Bilbo, 1989.
6. AMÉZAGA, Elías, «Literatura euskera», in José M<sup>a</sup> Díez Borque Edit., *Historia de las literaturas hispánicas no castellanas*, Taurus, Madrid, 1980, 385-425. orr.
7. ANABITARTE, Agustín, *Poli mutil umezurtz baten ibilaldiak*, Zarautz, 1958.  
 - : *Donostia*, Bilbo, 1932 (Faksimila).
8. ARANA, Sabino, *Lecciones de Ortografía del Eushera Bizkaino*, Bizkaya'ren Edestija ta Izkerea Pizkundia, Bilbo, 1896.  
 - : *Obras Completas*, Sabindiar-Batza, Buenos Aires, 1965.
9. ATKINS, Jon, *Sex in literature, III*, John Calder, London, 1978.
10. ATXAGA, Bernardo, «Euskal narratibaren arazoak», in *Jakin*, 25, Donostia, 1982, 94-103. orr.
11. AZKUE, R. M<sup>a</sup> de, *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Biblioteca de la Gran enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969.
12. BADIOLA, M<sup>a</sup> Prudencia eta López, Josefina, *La literatura en lengua vasca*, Cincel, Madrid, 1981.
13. BILBAO, Jon, *Eusko Bibliographia*, III, Auñamendi, Donostia, 1973.
14. COMAS, Antoni eta CARBONELL, Antoni, «Literatura catalana», in José M<sup>a</sup> Díez Borque Edit., *Historia de las literaturas hispánicas no castellanas*, Taurus, Madrid, 1980, 427-620. orr.
15. DIEZ BORQUE, José M<sup>a</sup> Edit., *Historia de las literaturas hispánicas no castellanas*, Taurus, Madrid, 1980.
16. ESTORNES-LASA, Bernardo eta beste, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura* (5 ale), Auñamendi, Donostia, 1969-1981.
17. ETXEBARRIA, Aitor, «Gerraosteko poesiagintza», in Alkarlanean, *Gerraosteko literatura*, Labayru Ikastegia (Gauontza sorta), Bilbo, 1989, 73-115. orr.
18. EUSKALIZALEAK, *Yakintza*, I-IV, Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1977.
19. GAOS, Vicente, «Introducción», in Juan Ramón Jiménez, *Antología poética*, Cátedra, Madrid, 1982.
20. GARATE, Gotzon, *Euskal elaberriaren hondaira I-II-III*, Gero, Bilbo, 1983-85-90.  
 - : «Jon Andoni Irazusta eta Euskalerriko elaberri errealista», in Alkarlanean, *Gerraosteko literatura*, Labayru Ikastegia (Gauontza sorta), Bilbo, 1989, 19-31. orr.
21. GARCIA TRUJILLO, Sebastián, «Sarrera», in Txomin Agirre, *Ipuinak*, Etor, Bilbo, 1990.
22. GUNTZMANN, Rita (Edit.), *I Encuentro de Escritores Iberoamericanos en Euzkadi*, E.H.U. Argitarapen Zerbitzua, Bilbo, 1991.
23. INTXAUSTI, Joseba, «Eusko Gogoa"-ren lankideak», in *Jakin*, 12, Donostia, 1979, 120-137. orr.
24. JAUREGI, Luis «Jautarkol», *Biozkadak*, C.A.P. (Jakin kolekzioa), Donostia, 1975.

25. JIMÉNEZ, Juan Ramón, *Platero y yo*, Aguilar, Madrid, 1962.  
- : *Antología poética*, Cátedra, Madrid, 1982.
26. Juaristi, Jon, *Literatura vasca*, Taurus, Madrid, 1987.  
- : «Las fuentes ocultas del romanticismo vasco», in *Congreso de literatura. Hacia una literatura vasca. II Congreso Mundial Vasco*, Castalia, Madrid, 1989, 165-192. orr.
27. KORTAZAR, JON, «Gerraurreko giro literarioa», in *Jakin*, 29, 1983.  
- : «Altzorrak eta bidaiak. Narrazioa eta inimizioa», «Sarrera» in Jon Kortazar Zuzendaria, *Altzorrak eta Bidaiak. Haur kontabideen azterketak*, Colección Magisterio-Derio, Desclée de Brouwer, Bilbo, 1985.  
- : *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*, Colección Magisterio-Derio, Desclée de Brouwer, Bilbo, 1986.  
- : *Literatura Vasca. Siglo XX*, Etor, Bilbo, 1990.
28. LANDA, JOSU, *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar-AEK, Donostia, 1983.
29. LARREA, Txetxa, «1956-ko belaunaldia», in Alkarlanean, *Gerraosteko literatura*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1989, 9-16. orr.
30. LASAGABASTER, Jesus M<sup>a</sup>, «Euskal-nobelaren gizarte-kondairaren oinarriak», in *Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak*, Universidad de Deusto, Bilbo, 1981.  
- : «Introducción a la narrativa vasca actual», in *Antología de la narrativa vasca actual*, Edicions del Mall, Barcelona, 1986.  
- : «La novela vasca al borde de la realidad», in *Congreso de literatura. Hacia una literatura vasca. II Congreso Mundial Vasco*, Castalia, Madrid, 1989, 319-346. orr.
31. LEANTE, CÉSAR, «Compromiso con la libertad», in Rita GUNTZMANN Edit., *I Encuentro de Escritores Iberoamericanos en Euzkadi*, E.H.U.ko Argitarapen Zerbitzua, Bilbo, 1991, 43-51. orr.
32. LEIZAOLA, J. M., *Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la poesía vasca*, Ekin, Buenos Aires, 1974.
33. LISTA Y ARAGÓN, Alberto, *Ensayos literarios y críticos I*, Calvo-Rubio y Cía., Sevilla, 1844.
34. MAINER, J. C., «Costumbrismo, regionalismo, provincialismo en las letras europeas y españolas del siglo XIX», in *Congreso de literatura. Hacia una literatura vasca. II Congreso Mundial Vasco*, Castalia, Madrid, 1989, 193-210. orr.
35. MITXELENA, Koldo, *Historia de la literatura vasca*, Erein, Donostia, 1988.  
- : «Hitzaurrea», in Txillardegi, *Leturiaren egunkari ezkutua*, Elkar, Donostia, 1985.
36. MUJICA, Luis M<sup>a</sup> (Zuzendaria), *Orixe-ren aportoazio literarioak*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua, Donostia, 1990.  
- : *Historia de la literatura euskérica*, L. Haramburu Editor, Zarautz, 1979.
37. NAVAS RUIZ, Ricardo, «Libertad y patria. La literatura romántica como expresión de su tiempo», in *Congreso de literatura. Hacia una literatura vasca. II Congreso Mundial Vasco*, Castalia, Madrid, 1989, 149-164. orr.
38. OLEZA, Juan, *La novela del XIX. Del parto a la crisis de una ideología*, Laia, Barcelona, 1984.
39. ONAINDIA, Santi, *Euskal literatura* (6 ale), Etor, Bilbo, 1972-1991.  
- : *Euskal elertia*, Gráficos Bilbao, Zornotza, 1978.
40. ORMAETxea, Nicolás «Orixe» eta Oyarzábal, Martín de, *El lenguaje vasco eta Desarrollo del verbo vasco en tiempos y modos* (eranskina), Donostia, 1963.
41. OTEGI, Koldo, «Euskal nobela. Bibliografía», in *Revista Internacional de Estudios Vascos*, (29-1) 1984.
42. PAZ, Octavio, *Los hijos del limo*, Seix Barral, Barcelona, 1989.
43. PERI ROSSI, Cristina, «Estado de exilio o ida y vuelta», in Rita Guntzmann Edit., *I Encuentro de Escritores Iberoamericanos en Euzkadi*, E.H.U.ko Argitarapen Zerbitzua, Bilbo, 1991, 15-20. orr.
44. REZOLA, J., «Euskal antzertiar buruz», in *Euzko Gogoia*, V, 1954.

45. RODRIGUEZ MARIN, Rafael, *Realismo y naturalismo: la novela en el siglo XIX*. Anaya, Madrid, 1991.
46. SAN MARTÍN, Juan, *Escritores euskéricos*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1968.
47. SAN SEBASTIÁN, Koldo, *Cronicas de postguerra (1937-1951)*, Ekin, Bilbo, 1982.
48. SARASOLA, Ibon, *Euskal literatura numerotan*, Kriselu, Donostia, 1975.  
- : *Historia social de la literatura vasca*, Akal, Madrid, 1976.
49. SARRIONANDIA, Joseba, «*Hau besoetakoa eta beste ninfula batzu*», in *Maiatz*, 4. 1983, 3-8. orr.
50. SARRIUGARTE, Inaki, «*Sarrera*», in Jose Manuel Etxeita, *faioterri Maitia*. Labayru Ikastegia-Bizkai-ko Aurtzeki Kutxa, Bilbo, 1988
51. SHAW, Donald L., *Historia de la literatura española. El siglo XIX*, Ariel. Barcelona, 1986.
52. TOLEDO, Ana M<sup>a</sup>, «*El costumbrismo y la novela regional*», in *Congreso de literatura. Hacia una literatura vasca. II Congreso Mundial Vasco*, Castalia, Madrid, 1989.  
- : *Domingo Aguirre: Euskal eleberraren sorrera*, Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo, 1989
53. TXILLARDEGI, Peru *Leartzaño*, Itxaropena, Zarautz, 1979  
- : *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981*, Elkar, Donostia, 1984.
54. URKIZU, Patri, *Euskal antzertia*, Euzkadiko Antzerti Zerbitzua, Donostia. 1984.  
- : *Euskal teatroaren historia*, Luis Haranburu-Altuna. Donostia. 1978.
55. URRUTIA, Marcos de, *Arana-Gorri'tar Sabin en la Historia de Euzkadi*, Sabindiar-Batza, Bayona. 1954.
56. VAZQUEZ CUESTA, Pilaj, «*Literatura gallega*», in José M<sup>a</sup> Díez Borque Edit., *Historia de las literaturas hispanicas no castellanas*, Taurus, Madrid, 1980, 621-896. orr.
57. VILLASANTE, Luis, *Historia de la literatura vasca*, Aranzazu, Oñate, 1979.
58. X.X., «*Jose Antonio Loidi*», *H.A.B.E.*, 211, Bilbo, 1992, 26-29. orr.
59. ZAITEGI, Jokin, *Goldaketan*, «*Pizkunde*», Mexiko, 1946.
60. ZARATE, Mikei, *Bizkaiko euskal idazleak*, Derioko Apaiztegia, Derio. 1970.
61. ZUBIKARAI, Augustin, «*Bizkaiko antzertiari buruz*», in Alkarlanean, *Gerraosteko literatura*, Labayru Ikastegia (Gauontza sorta), Bilbo, 1989.

LAN-VNU-IXASTEGIA
BIBLIOTEKA - DEKO
Sarr 26.980/95
Gaia.
Tokia.

Roberto Mielgo Merino (Bilbao, 1967)

Euskal Filologian lizentziaduna. Hainbat aldizkari literariotan argitaratu ditu bere lanak, solte (*Idatz & Mintz, Nuevas Tertulias, Cálamo*, e. a.).

Baditu itzulpen batzuk: Louise May Alcott-en *Antsigar erregea*, Ernesto Salazar-en *Musuxamur, Musupupu eta Masailgorri*, Wentworth Webster-en *Tartalo eta Herensuge* eta Christine eta Giuseppe Del Torre eta Maria-Barbara Battiston-en *Dogoen Hiria XV. mendean. Venezia* (Mensajero-Gero, 1993).

Bere eskutik urteniko sorkuntza lanean, euskeraz eta erderaz argitaratu dauan *Basamortuko gauak / Noches del desierto* (Mensajero-Gero, 1993) umeentzako obra da aitagarri.

*Eusebio Erkiagaren gerraosteko elaberrigintza (1958-1964)* lan honetan, 1991.eko Santi Onaindia Bekari jagona, ikerlariak elaberrigile eta olerkari bizkaitarraren prosa-lana aztertu dau zehatz, obrarik obra beronen bizitzaren eta giro sozio-kulturalaren hainbat jakingarri ekarriaz eta Eusebio Erkiagaren estiloaren eta joera literario eta linguistikoaren barri emonaz.



**LABAYRU IKASTEGIA**

